

# Nabarnizko Hiztegia (O, P, R eta S letrak)

Alberto Martínez de la Cuadra

Zamudioko Udaleko itzultzailea:  
itzultz.zamudio@bizkaia.org:

## Abstract

This dictionary is based on an (oral) linguistic corpus compiled in Nabarniz. In addition to the collection and definition of the vocabulary from that area, particular emphasis is placed on displaying the phraseology and examples of usage from that corpus. The current collection covers the letters O, P, R, and S (O letter has 277 entries, P letter has 407 entries, R letter has 8 entries, and S letter has 664 entries), while the rest will be subsequently added in the upcoming issues of the journal.

## Laburpena

Hiztegi honek Nabarnizen bildutako ahozko hizkuntz corpusa du oinarri. Bertako euskararen lexikoa bildu eta definitzeaz gainera, ahalegin berezia egin da corpus horretako fraseologia eta erabilera adibideak eskaintzeko. Aldizkariaren ale honetara O, P, R eta S letrak baino ez dira ekarri (O letrak 277 sarrera ditu; P letrak 407 sarrera ditu, R letrak, 8 sarrera, eta S letrak, azkenik, 664 sarrera). Hurrengo aleetan joango dira beste atalak agertzen.

**Keywords:** lexicon, oral speech, phraseology, Nabarniz

**Hitz gakoak:** Hiztegia, ahozkotasuna, fraseologia, Nabarniz

## 1. Sarrera

1. Lexikografiaren eginkizuna izaten da hizkuntza jakin bateko berben formak eta esanahiak era sistematikoan bildu eta eskaintzea. Hiztegi modernoek, lexikoa bildu eta definitzeaz gainera, lexiko hori erabilera-adibideetan txertatzen dute, hizkuntz corpus zabal batetik abiatuz. Era horretan, definizioei beste ñabardura batzuk erantsen zaizkie eta argiago erakusten da zein portaera izaten duten berbek diskurtsoan. Hiztegi honetan, Nabarnizko euskal lexikoa —edo lexiko horren zati bat, hobeto esanda— bildu eta definitu da, baina aparteko ahalegina egin da bertako herritarrei ahoz bildutako erabilera-adibideak edo testuinguruak eskaintzeko. Corpusa ahozko hizkuntzan oinarritzen dela kontuan harturik, ahozko formei dagokien forma normalizatuak zehaztu gura izan dira, ahozkotasunetik hizkuntza idatzira igarotzeko prozesuan askotan aurkitzen diren oztopoak kentzen laguntzearen.

2. Grabazioak Nabarnizko jende heldu edo zaharrari egin zaizkio, 1993ko maiatzetik 2003ko otsailera bitartean. Grabaziorik gehienak kasete-grabagailuz egin dira. Hala ere, 2002ko urtarrilaz geroztik grabazio digitalak egin dira, Minidisc grabagailua kanpo mikrofono batekin erabilia. Grabazio digitalen transkripzioak Cool Edit Pro izeneko soinu-editorearen laguntzaz egin dira.

Inkestak egiteko moduari dagokionez, batzuetan, etnografia arloko galderak egin dira; beste batzuetan, aurretik beste grabazio batzuetan batutako testuetako berbei buruz galdetu da; berba biren edo gehiagoren

arteko desberdintasunak ere eskatu dira; beste toki batzuetako berbak Nabarnizen ere erabiltzen diren galdetu da inoiz (halakoetan, ondoren erabilera hori egiaztatu beharra izan da berriemaile gehiagorekin); erdarazko esaldiren bat euskaratzeko eskatu zaie kasu banaka batzuetan; irudiak edo argazkiak erakutsi zaizkie, edo, beste barik, edozein gairi buruz berba egiten utzi zaie. Galderak prestatzeko orduan, lagungarriak izan dira, batez ere, Iñaki Gamindek hainbat herritan eginiko lexiko bildumak, Toribio Etxebarriaren *Flexiones verbales y lexicon del euskera dialectal de Eibar* liburua, Candido Izaguirreraren *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes* liburua eta Gilisasti Fanoren *Urduliz Aldeko Berba Lapikokoa* liburua.

3. Sarrera burua letra lodiz eman da, amaieran puntua duela. Mugatzailea onartzen duten berbetan, forma mugagabea zein mugatua ezarri dira, koma batez berezita (**apur**, **apurre**). Forma mugagabea nagusitzat hartu da eta letra tamaina handixeagoan idatzi da. Hala eta guztiz ere, kasu banaka batzuetan forma bakarra batu da, eta, horrenbestez, hura baino ez da ezarri. Mugagabe eta mugatuen bereizketari dagokionez, aipatu beharra dago berba batzuetan bikoiztasun bat izaten dela. Esate baterako, *-keridxe* atzizkia duten berbetan edo *karabidxe* berban; alegia, batzuetan *karabi-karabidxe* bikotea batu da eta beste batzuetan *karabidxe-karabidxie*.

Aditzei dagokienez, sarrera buruan era burutua eta ez burutua ezarri dira, koma batez berezita, beti ere biak jaso diren kasuetan. Era burutua letra handixeagoan idatzi da. Sarrera buruaren amaieran puntua ezarri da (**apurtu**, **apurtzen**).

Sarritan, ordea, forma bat baino gehiago batu da. Halakoetan, aldaera guztiak sartu dira sarrera buruan, koma batez bereizita. Forma nagusizat jotzen dena lehenengo ezarri da, eta aldaerak, berriz, haren hurrengo, beti ere aurreko paragrafo bietan forma mugatuei edo aditz burutuei buruz aipatutakoa kontuan harturik.

4. Sarrera buruaren ondoren, hari dagokion forma normalizatua ezarri da, letra larriz eta parentesi artean. Askotan, bizkaieraz eta batuaz erabiltzen diren formak ez datoz bat; halakoetan, bizkaiera normalizatuko forma ezarri da aurretik, letra larriz, eta atzetik, berriz, batukoa, letra xehez eta *-bat*. gehiturik. Inoiz sinonimo bat edo beste gehitu da, beti ere Nabarnizen erabiltzen ez den berba bat izanik (ARTAGARAUN, artagarau-*bat.*, artale).

Atal honetan zailtasun handiak izan dira. Alde batetik, lexikoaren normalizatzeko lanak, orain arte, hizkuntza estandarera bideratu dira batik bat, eta horregatik ez dira normalizatu gaur egun ahozko bizkaieraz ahoz erabiltzen diren berba asko, edota baztertuta gelditu dira hitzak eraldatzen dituzten fenomeno fonetiko dialektal asko, nahiz eta euskalkiaren barruan hedapen handia izan. Beste alde batetik, bizkaierazko lexikoa ere oraindik normalizatu barik dago, nahiz eta ahalegin batzuk egin diren han eta hemen. Horren ondorioz, askotan ez da erraza izan forma normalizatuak —batez ere, bizkai ereduak— proposatzea. Esate baterako, *bijutz* sarreran (BIJA-HUTS, *bidaia-huts-bat.*) proposatu da, hiztegiaren haren aztarrenik aurkitu ez arren. Beharleku honetan, oinarri sendorik aurkitu ez denean, Nabarnizko berbetari estuago jarraitu zaio, batzuek estuegi iritzi liezaioketela jakin arren. Nolanahi ere, herri bateko hiztegi dialektala denez gero, normalizazioaren atal honetan irizpide malguagoak erabiltzeko lizentzia hartu da. Horrela, bada, *baridxe* sarreran (BARIAKU, *bariku-bat.*) agertzen da, hau da, Bizkaiko alderdi zabal batean erabiltzen den forma proposatu da “bizkaierazko” forma normalizatutzat, eta ‘bariku’, berriz, “euskara batuko” formatzat. Ildo horretan, gogorarazi beharra dago proposamen horien xedea dela erraztasunak ematea edo bide posible batzuk erakustea ahozko formatik gaur egun zabaldua dauden edo zabaltzen hasi diren eruedetara igarotzeko. Hortaz, irakurleak erabakiko du zein forma (euskara batukoa edo bizkaierazkoa) erabili behar duen eta proposatutako forma egokia den. Hemen proposatutako forma asko era horretan ulertu behar dira, izan ere, mendebaldeko lexikoaren normalizazioa egiteko, eremu geografiko zabalagoa hartu behar baita oinarritzat, literatur tradizioa ahaztu barik noski. Hiztegi honek, ostera, oso eremu geografiko txikia aztertu du, eta gaur egungo ahozko hizkuntza bizira mugatu da.

5. Forma normalizatuaren ondoren, sarreraren gaztelaniazko adiera ezarri da. Berba askok adiera bat baino gehiago izaten dituzte eta bakoitzari zenbaki bat ezarri zaio aurretik. Animaliei eta landareei dagokienez, izen zientifikoa jarri da, halakorik aurkitu bada. Haur hizkerako hitz edo adieretan (Haur.) laburdura ezarri da.

Adierak emateko, gehienbat, ondorengo hiztegi hauek erabili dira: R.M. Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Plácido Mujikaren *Diccionario Vasco-Castellano*, *Elhuyar Hiztegia*, *3.000 Hiztegia*, Juan Martín Elempururen *Bergara Aldeko Lexikoa*, Emiliano Arriagaren *Lexicón Bilbaino*, RAEren *Diccionario de la Lengua Española* eta María Molineren *Diccionario de Uso del Español*.

6. Nabarnizko hizkeran sinonimotzat jo daitezkeen berbak ere aipatu dira *Sin.* laburduraren bidez. Askotan, sinonimotzat jo barik, sarrerako berbaren eremu semantiko berdintsuko berba bat edo gehiago ezarri dira, *Ik.* laburduraren bidez. Inoiz, azalpen osagarri bat edo beste gehitu da, euskaraz. Adibide bati buruzko azalpena eman denean, □ ikurra erabili da.

7. Batzuetan sarrera bitan edo gehiagotan zenbakiak ezarri dira sarrera buruaren aurretik. Horrek esan nahi du, alde batetik, berba horiek, grafia bera izan arren, kategoria gramatikal desberdina dutela, edo, bestetik, izatez, berba desberdinak izan arren, nabarmiztarrek berdin ahoskatzen dutela (erren-herren/erren-errain).

8. Erabilera adibideak edo testuinguruak letra etzanean eman dira. Adibide bakoitzaren aurretik || zeinua ezarri da. Adibideok izan daitezke berba bikoak, esaldi batekoak edo esaldi gehiagokoak. Batzuetan, testuinguru definitzaileak bildu dira; testuinguru definitzaileok hitzen esanahiari buruzko informazioa ematen dute eta hitzak definitzeko duten garrantzia kontuan harturik, gainerako adibideen aurretik ezarri dira. Inoiz berriemailei eurei eskatu zaie berbak definitzeko; beste batzuetan berri emaileek eurek eman dituzte, besterik gabe, definizioak. Kasu batean nahiz bestean, jakingarri iritzi zaio berben adierak berbon erabiltzaileek eurek zehazteari.

Adibiderik gehienetan, hala ere, sarrerako hitza ez da definitzen; hitzaren erabilera-adibide bat baino ez digute ematen. Halakoetan, berbetaldi bateko atal bat ekarri da hiztegiari, testuinguru jakin bati dagokiola. Inoiz, berriemailei berba biren adieren arteko desberdintasunak zehazteko eskatu zaie, era horretan azaltzen baitira, askotan, inguru horretako berbeta ez dakitenentzat hain begi bistakoak izaten ez diren ñabardura asko. Adibideok erakusten digute berbak zein testuinguru zehatzetan agertu ohi diren, zein berbaren ondoan jarri ahal diren edo ezin diren, esaldiaren barruan zelan josi behar diren eta beste xehetasun batzuk. Adibideetan agertzen da argien, beraz, zelakoa den Nabarnizen hitz egiten den euskara.

Adibide guzti-guztiak grabazioetan batutakoak dira eta euren hartan transkribatu dira, ezer gehitu, kendu edo moldatu barik.

9. Sarrera nagusiaren barruan azpi sarrerak ezarri dira. Azpi sarrerok erabilera edo esanahi bereziko esapide eta hitz elkarketak izaten dira. Bakoitzaren aurrean □ ikurra ipini da. Azpi sarreraren burua letra lodiz eman da, eta amaieran puntua ezarri. Azpi sarreraren sailean nolabaiteko ordenari jarraitu nahi izan

zaio. Lehenengo, aurretik sarrera nagusiko berba duten hitz elkarketak ezarri dira; ondoren, atzetik sarrera nagusiko berba dutenak, eta, azkenik, aditz batekin osatu direnak edo bestelako esapideak (**arto kapasie, kanpo artue, artue garandu**).

10. Sarrera hau ezin amai dezaket berriemaile izan ditudan nabarniztarrei euren laguntasuna eta prestutasuna eskertu barik. Ondorengo hauek dira haien izenak: Isaac Urtubi (Larrinaga), Andere Goiriena (†) (Ibarguen), Julian Bollar (†) (Ane), Karina Zabala (Ane), Maria Dolores Gabika-Aldekoa (†) (Bengoetxe), Genaro Izagirre (Etxebarri), Matilde Totorikaguena (Etxebarri), Victorio Goikolea (Goikola), Julian Beaskoa (Agarre), Pia Sierra (Goikoetxe), Sabin Sierra (Goikoetxe), Artiatx (Argiarrozarra), Jonas Gerrikagoitia (Ardantza), Alberto Goiriena (Ibarguen), Isidra Lekerikauriarte (Argiarro), Victor Ordorika (Gorostiaga), Pedro Garatea (Merikaetxebarri), Bienvenido Beaskoetxea (Iturribeko), Juan Pedro Ikazuriaga (Ikazuriaga), Jose Arrizabalaga (Aboixene), Santi Urzaa (Merikauriko), Zubizarreta (Ormaetxe), Jesus Elias Basterretxea (Torretxu), Lontzo Garetxena "Arrola" (Arrolagoiko), Juan Jose Ondarza (Beitxi).

## 2. O letra

**o.** (O) *interj.* So, voz que se emplea para que se detenga la vaca o el buey. || *O!*

**oasal, oasala.** (OHAZAL) Colcha, sobrecama.

**oba, obe, obie.** (HOBBA, hobe-bat.) Mejor. || *Obetxuau dau au.* || *Andrie negosidxureko obi san.* || *Ganadu bedarra iguel amen jaten, da on bille dabil, arin korridu aurrera, on bille, obie topetan.* || *Esiñ obie da ya estrakue, esiñ obarik artun a bayo.* || *Denporie obarantz doye.* || *Dana pe bayo obie dok ori.* || *Oba es ekarri!* || *Antza obie emongo tzo orrek.* || *Enekidxen bayo oba da banekidxen.* || *Ene baya janak! Jana bai janak arek aintxiñekuk! Eurek siren obak!* || *Geusak e obak artzen dis (karie botata).* □ **oba biarrien.** De buena fe, con el mejor deseo, por el bien (de). || *Seoser eittosu, esta?, da igul txartzat artzen deu, da: "Oba biarrien ein dot!".* □ **obarik es.** Inmejorable. || *Kangreju leku ixen san! Obarik es munduen! Bibero lakoxi! Da asko, kangrejuk, eta onak!* □ **oba ixen.** Ser mejor, ser preferible. || *Oba da etorriko espalitz.* || *Oba alde eitten badogu emendik.* || *Oba suan etorri espalitz!* || *Oba suan au ein baleu!* || *Oba neidxuan beste baten ein baneu!* □ **obarantz ein.** Mejorar. || *Obarantz ein deu*

**obari, obaridxe.** (HOBARI) Ventaja provecho; ganancia, usufructo. || *Olanik, tratu bat-edo*

*einde, obaridxe: geidxau emon.* || *Obaridxe da geidxau pagetie. Ori da obaridxe, esate baterako, nik deket amar ogorloko pagaute, ta suk amabi gero pagautestesu, ta "Obaridxe ein dxeustek, eta emon tzat".* || *"Obaridxe emon tzet": geidxuauus igul pagetie bateri, da ba "Obaridxas ein dxok". Irebasi eitti laku da ori.*

**obatu, obetu.** (HOBATU, hobetu-bat.) Mejorar, hacer mejoras. || *Obatute dau.*

**obaxala.** (OBAXALA, oxala-bat., baldinba, agian) Ojalá. || *Obaxala ein baleu!* || *Obaxala etorri balitz!* || *Obaxala etorri espalitz!*

**obeidu, ogeidu, obeiduten, obedesiduten.** (OBEIDU, obeditu-bat.) 1. Obedecer. || *Esanik eitten estabenak estau obedesiduten, estau obeiduten.* || *Esanik eitten estabenak estau obedesiduten, estau obeiduten.* 2. Rehuir la pelea. || *Batek iste batzo, esaten da "Ogeidu ein tzek, ostantzien drogie eon dok".* || *Arek ogeidu ein tzek eta, ostantzin badxuan an gerri!* || *Obeidu, eskapau, gitxiau dala.* || *Orrek obeidu ein tzo, gitxiau ixen da ta.*

**obeto, oboto.** (HOBETO, hobeki) Mejor. || *Obeto dau.* || *Eiñ ori sietzau! Batu obeto, ein dosun bayo!* || —*Selan saus?* —*Obeto guran!* || *Oin bidiek oboto konpondute das.* || *Esta es txarra ta es esebes, ixeten da bedar, bedarra edo bedar antzeko bat, suma antzeko bat oboto esateko.* || *Mamalie bayo mali bakue oboto esanda dau.* *Nitzako..., nik oboto ikustot, se mamalie esan biarrien mamali ba ganorabakuri-edo, ta besti ori ba obeto esanda daula neutzako.* || *Obrarako-ero olan, suretie. Oiñ e neguen, se ori esta udebarridxen-da..., orridxe jeusitte euki bi deu, da ilberan asko be.* □ **obetuau.** Mejor. || *Etxuratu: obetuau ipiñi txarto daun gause bat.* || *Sakun erresau, asko obetuau, ugeridxau.*

**obiau, obiaue.** (HOBEAGO) Mejor. || *Sagarrak, eta madaridxek-eta ba mendau eitten dire klase obiau ataratiegaittik.*

**obispu, obispue.** (OBISPU, apezpiku) Obispo. || *Koroye? Uli ebeite, buelta. Estosu ikusten obispuek eta bestik amen. Koroye aixe esate tzen. Berak ebeite eukitten deu. Biribil, koroye.*

**objetu, objetue.** (OBJETU, objektu-bat.) Objeto, fin, intención. || *Objetu da ba ya geusa bat pentzate doina.* || *"Objetu txarras jun dok eta!": letxe txarras doile esati les.* || *Objetu txarra euki dxok, axe ein dxok.* || *Segun se objetu dekon.* || *Segun se objeture doyen.*

**obramentu, obramentue, obrementue.** (OBRAMENTU, obramendu-bat.) Excremento, hez. *Kaka* ere esaten da, baina *kaka* esatea lagun arteko hizkeran onartzen da. Medikuarekin berba egiteko, esate baterako, *obramentue* esaten da. Beste horrenbeste gertatzen da *garnue* eta *txixe* berbekin. || *Obramentu kaka eittie da.* || *Umiri be esate dxake iños ba, olan berasku dekenien-edo, ba odol apur bet eitten badau obramentun-edo, ba "Odola ein deu".* || *Obramentu ona esteko.* || *Obramentu siriñe deko.* ☐ **obramentu ein.** Defecar. *Kaka ein* ere esaten da, baina arruntagotzat jotzen da *obramentu ein* esatea baino. || *Igul e obrementu eitten sunin be, "Kaka siriñetan abil"-edo, bakixu. Edo "Pirripirridxe dekek"-edo. Bakixu pirripirridxe be igul, tripetatik sasenien, txorru sasenien.*

**obrau.** (OBRAU, obratu-bat.) Defecar, evacuar. Sin. *kaka ein.*

**odi, odidxe.** (HODI) Canalón del tejado. || *Buelta gustidxen eukiko deu odidxe tellatuk.* || *Itturi da egala, egal bidxek, bata nai bestie, ittukurak. Da amen euri asko eitten daunin, iguel e..., oin guk e tellatue oiñ ipintte deko olakin... "Itturotza! Dios, itturotza terdidxokue!"*. *Euri asko danin ba ittukur sati ataraten dau ba, da len onek..., odidxe esate tzeu oiñ orreri ipintten danari. Len odirik e-san..., iñok es eban eukin. Dana ure tellatuku bera jeuste san, da itturi esate dxako beti.*

**odol, odola.** (ODOL) **1.** Sangre. || *Odola atara.* || *Txakurrek ekarten dages inkeute, da arek txupete tzo odola.* **2.** Valor, audacia. Ik. *bixitasune.* || *Ak etxekok odolik!* || *Orrek esteko odolik, ikatzen da.*

☐ **odol bakue.** Sin fuerza, sin vida, apagado, -a, flojo, -a. Ik. *ille, motela.* || *Odol bakue illeri, personi bixidxe barik, ille, "Odolik etxekok orrek odolik!"*.

☐ **odol berokue.** Irascible, de sangre caliente. Ik. *bixidxe.* ☐ **odol beruen.** A sangre caliente, en un arrebatu. || *Odol beruen ein da gero damutu.*

☐ **odoletan.** Sangrando. || *Matrasau: ba igul seoser baukosu, da ibiltte sara bierrin, da igul dana lorrantz-osus odoletan-edo, al dan modun-edo: "Dana matrasau dosu!"*

☐ **odoli pakue.** Cobarde. || *Odoli pakuori!*

☐ **odol otzekue.** Frío, flemático, de sangre fría. Sin. *tenplau.*

☐ **odol otzien.** A sangre fría. || *Drogarik es eser barik il dabe, odol otzien.*

☐ **odol txarra.** Mala sangre. ☐ **odol txarreku.**

De mala sangre. || *Ernegetan dabenari-edo: "Ondo odol txarreku da!"* ☐ **odola atara.** Sangrar. Ik. *sangrau.* || *Odola atara tze.* || *Emen bai, bateri ein tzon ortxe, ainke ein tzon, da sube gorridxe sala ta, ba odola atara ein tzen, erre kara erunde, errekatxu daun lekun-de.* || *Odola atara biko tze.* ☐ **odola ein.** Echar sangre. || *Umiri be esate dxake iños ba, olan berasku dekenien-edo, ba odol apur bet eitten badau obramentun-edo, ba "Odola ein deu".* ☐ **odolak burure etorri, igon, jo.** Subirsele a uno la sangre a la cabeza (*geixuri, soraturi-edo*). || *Odolak burure etorri dxakos.* || *Odolak burure igonda dekos.* || *Odolak burure jo tze.* ☐ **odolak ure ein.** Enfermedad que afecta a la sangre. || *Odolak ure eitte dxakues, bai. Odolak ure ein. Personie gadute dau odola ure eiñ eskero. Geixu ixeten da ori baya. Diferente geixue. Batzuk geixue, ba odolak ure ein dxakosela. Ori geixo raru da ixetes e.* || *"Odolak ure ein dxakos, da ba!": geixo bateri eitte dxakos, odolak ure ein dxakos, geixo bateri esate dxako ori iguel-da.* || *Bai, geixo bateri odolak ure ein leidxos edo ba seoser artu deu enbenetaku-edo ba.*

**odolbatu, odolbatue.** (ODOLBATU, odoluri) Cardenal, moradura. || *Odolbatue dxekok.* || *Odolbatue ein dxakok.* || *Odolbatu kendu dxakok.* || *Odolbatu pasau dxakok.* || *Odolbatue kentzeko eukitte ittu batzuk, paño beru emote tze bestik, bedarra pe badas.*

**odoldi, odoldidxe, odoldeidxe.** (ODOLDI, goroldio) **1.** Musgo. || *Odoldeidxe lorak ipintteko ibiltten da, dotore egon deidxen.* || *A betegaridxe bota orduko, botate dxako odoldidxe, odoldidxe edo bedar sarra ta olako satarreridxe.* **2.** Lama, ova, alga que flota en las charcas.

**odoleko, odolekue.** (ODOLEKO) **1.** Consanguíneo, -a. || *Urraku esta igul. Urraku da ba kontran deuna. Baya urkue da lagun e ba... Parientik be urkue esate tzue. Parientik igul e, edo enterrure estala jun, edo beste geusa batera esta jun de "Joder, a urku ixen dxok, ta estok jun". Ba beren urkue dalako, beren odolekue. **2.** Enfermedad de la sangre que afecta al cerdo. || *Odoleku-da esaten dabenin, onek txarridxek gorritute dausenin, ebai belarridxe, da andik atarate tzo odola, urtete tzo, da "Odoleku ixi dxok"-eta.* || *Txarridxe gorritute igul, ta kaguen, deitteko ta?, "Odoleku dxekok".* || *Geixo bat ta odolekue, odol baltza edo estaitt selaku emoten**

daben, baltzusi-edo, odol lodidxe-edo, bi dan bayo lodidxau-edo. Odoleku seoser ori da. Ori txarridxe eukitten deu, da deskoidu baten personik batu lei. || Odolekue: txarridxeri be bai, da personiri be bai. Geixorik daun persona bateri e, odola geixorik badeko, odolekue igul esate tzeu.

☐ **odoleku ixen.** Heredar el carácter de alguno de los padres o abuelos, saler a alguno de ellos. Ik. (-en) aidie euki, sanak euki. || Esate baterako, letxe txarra deko amak, edo aittek, da esaten da: "Bai, ori be aman odoleku dok!", ero "Aitten odoleku dok!", letxe txarrekue.

**odolen, odolena.** (ODOLEN) Congestión de sangre. || Nik oiñ aspaldidxon olakorik estot entzun, baya olanik gorriunak-eta urtete ben igul, da odolena esate dxakon gorputz gustidxe eltzien. Lodi dausenari-tte. || Odolena geixu da. || "Odolenak artute dau". Emen odolena esate dxako. "Odolenak artute dau". Da ebeitxu bat ein, de odola bota eitten da.

**odoloste, odolostie.** (ODOLOSTE) Morcilla de ternera. Txerriki az egiten dena murtzillie da. Ik. buskentza, murtzillie, jangoiko. || Odoloste ordie emon. || Odolostie: txala iltzen sanin, semendidxen, sesiñe, ba areas eitten sina siren odolostak. || Odolostie txalanari esate geuntzen guk. Sesiñe eitte san semendidxen, da txarridxe gabon bueltan edo, txarrinari, murtzillie. || Txarridxenari esate dxako, olan txarridxen odolas eitten danari: murtzillak. Da odolostie esate dxako ganadun odolas eitten danari, da ardidxenas eitten danari be bai. || Oiñ e jun dan urtes estu ein, baya ba len txala bi iltte san etzien, da aren eitte sanari odolosti esate gentzon, buskentza barik. Da txarridxena murtzilli, ta ba ganaduna odolostie. || Goixin gibela jaten da. Ba berakas sopi eitten da jeneral, da gero gibela. Baya ori ixeten da txarridxe il, da ya segidxen. Da gero eguerdidxen ba..., ori txarridxen gibelak ta jaten diriñiñ ixeten dire amarrak-edo. Eguerdidxen baskaridxe jate san. Da gero ba erre kara juen, esti garbittu, bek-errekara erute gendun. Gero murtzillak ein, odolostik ein. Da gero gabas aparidxe. Da gero beko suen egoste siriñ e, galdara aundidxe imiñitte —emengo sabaidxen eongo da gure galdari—, da lelengo einde dasen murtzillak edo odolostiek ba ya egosi eitte sirien. Da gero ba aparitten be ba apur bet jan eitte san odolosti edo murtzilli.

**odolustu.** (ODOLUSTU) Desangrar(se). || Odolustu da ya odolak atara, galduti odolak dana.

Iguek eitte osu ebei eundi bet, eta nora jun orduko, odola galdu, ta "Odolustu ein dok". || Txarridxei, eta orrei sangrau esate dxakue, odola atara. Odolustu beres eitten dana da. || Sille lotu ein biar ixete dxako, odolustu esteidxen.

**ofixial, ofixiala.** (OFIZIAL) Oficial, obrero calificado. || Arotza edo argiñe edo sera bada, len ofixiala esate tzen. || Ofixiala beti san diru geidxen irabaste bana.

**oge, oye.** (OHE) Cama. || Ogeko erropie. || Oko mollie. || Oko egurrek. || Oye ein. || Ordu da ogera juteko. || Goixien albakoas batera altzaten da otik. || Oyen sabal-sabal dau. || Oyen nasai-nasai dau. || Oye be ipintte..., da siestara jun de igul apur bet: "Oye lorrinduteko bayo estok ein". || Obiek aldatu biotas. || Pasa dan astiñ il san a andra sarra, bost urtiñ oyen egon sana. ☐ **ogeko lagune.** Concubino, -a. ☐ **ogeko tapie.** Manta. || Oko tapak ixeten dire ba mantak, eta trastik. "Tapie bi da geur bai, tapie!", oyen, esaten da igul. Tapie ba, otzageittik ori. ☐ **oyetako erropak.** Prendas cameras. || Da mis erropak esate dxaken, da oin be batzuk esango tze, oyetako erropari, ixerari. olan burruko asalari, da orrixeri esate dxaken mis erropak. || Da oyetako erropari eitte dxakesan kotonak. || Da aska itzela euki gendun einde, da an udan-da olan e erropak negun be bai, da oyetako erropak-eta dasenin-de ba araxe jute giñin. ☐ **oye ein.** Hacer la cama. || Oye ein bi dot.

**ogei.** (HOGEI) Veinte.

**ogeratu.** (OHERATU) Acostar(se), echar(se).

**ogetabat.** (HOGEITA BAT) Veintiuno. || Kontau ausnarra pe: ogetamasortzittik berrogetabire eitten baittu, ganadue ondo dau, da ogetabat edo ogetabi te eintte eisten batzo, seoser nobedadie.

**ogetabi.** (HOGEITA BI) Veintidós.

**ogetamar.** (HOGEITA HAMAR) Treinta.

**ogetamasortzi.** (HOGEITA HAMAZORTZI) Treinta y ocho.

**ogetas, ogetasak.** (HOGEITAZ) Veintitantos, -as. Ik. berrogetasak, larogetasak. || Ogetasak jun dire. || A txapi ipiñi genduniñ e, au txapi geu eskondu giñiñiñ imiñi gendun, da onek e ogetas urtik dekos, orain bai idxe irurogei be eukiko ittu. || "Larogetasak urtik dxekosak". Oin larogei badekos, ba larogei esate tzesu. Da irurogei badekos, bardin-bardin. Ogei badekos be, 'ogetasak urtik' eta. Amar boukos, esin de esan 'amarresak'. Baya beiñ ogei pasau eskero, ogetasa

*pai. || Suk esate baterako, ogeta bost urte dekesus, "Arek ogetasak urti dxekosak", baya oiñ e ogeitti berakuri esiñ esan ixete dxako ori, se estau emoten. Ba beiñ ogei pasau eskeru. dana "-tas", 'ogetasak'.*

**ogi, ogidxe.** (OGI) Pan. || *Ogi printzie. || Ogi lodidxe. || Ogi mamintzue. || Ogi bedinkatue. || Ogi gogorra. || Etzeko ogidxe. || Lau libreko ogidxe. || Labakada ogidxe. || Txatal bat emoistesu ogidxe! || Apotz-apotza dau ogidxe. || Berton erreten san ogidxe, jun errotara da bertoko garidxas urune ein, ekarri tte etzin, etziek danak eukitte besan labak. || Ogidxe eitteko, lelengo saidxe bayek kentze tzo, da gero birriñe. Da gero garatzen da urun fiñe, ogidxe eitteko. || Artue, arto urune, da gari urune nastaute, ba ugeridxe urten deidxen-edo eitte ben ogidxe. || Ori suk esan dosun ogidxori onan bayo, onako ogidxe (lusinkie) barik, ogi biribille, mamiñe dekona ixeten da. Da opille da meye. || Ogidxe be arixas, alakoxe urunas eitten da. Da ogidxe ixeten da ba lodidxaue, ba satidxe ebaten dxakona, ta oiñ e panaderidxan e oin badakit, eitte ittue, batzuk gure ixaten ittue antza danes. Baya guk estou ekarten da. || Ogidxe ba ixeten da biribille ta are pe jagi ein bihar ixeten deu, baya olan turturtu etzan eitten. Ogidxe panaderidxan be oingo leku batzutan eitte ittue alako ogidxek, len baserridxen eitte siriñen antzekuk. || Panaderue da ogidxe ekarten dabena. || Da emen mankala be egon san, andixik onaxe, da sue galanta einde, negun-de, eskolatik datosenin be, umiek artu ogidxe, ta ogidxen ganekue, soser, da ortxe makalin paraute eote sirin sueri begire. □ **ogi apurrek.** Migajas de pan. || *Orrek ogi apurrok oilluri emoidxosus.* □ **ogi apurreridxek.** Migajas de pan. □ **ogi asala.** Corteza de pan. || *Nik gurau dxuat ogi asala ogi mamiñe bayo.* □ **ogi astiñe.** Pan esponjoso. □ **ogi baltza.** Pan negro, moreno. □ **ogi bridxela.** Brizna de pan. *Bridxela eta brintzie bat ote diren galdetu ondoren honela erantzun didate: || Bridxela be, ba kontixu erdi igula. "Ogi bridxel bat jeusi dok" edo olanik. Egur bridxel bat, bardin. Begidxen sartzen badxatzu, igul seoser, olako sarameridxe esateu: "Dios, egur brintzie sartu dxatek!".* □ **ogi brintzie.** Brizna de pan. || *Iñurrientzako ogi printze bat dok naikue..., gutzako ogi sati eundi bat bayo. || Ogi brintzi: alako sati bet, bridxel batzuk..., bridxel bat bada, "Ogi brintzie jeusi dxakok ona", edo olan esaten**

*da. || Ogi brintza daus. □ **ogi erregutie.** Rebanada de pan. || *Ogi satidxeri, umiri emote dxakon ogi satidxeri ba ogi erregutie. □ **ogi kondue.** Mendrugo de pan. || *Kóndue geuse txikidxe edo apur bet ixengo da, kondue. Ogi sati bet-edo. || Ogi kondue? Ogi apurtxut, sobretan dana, jan orduen. □ **ogi kuskurre.** Cuscurro, parte del pan más tostada que corresponde a los extremos o al borde. □ **ogi mamiñe.** Miga. □ **ogi palie.** Tabla redonda provista de agarradero, sobre la cual se extienden los panes en el horno. || *Ogi palie ogidxe sartzeko palie da. □ **ogi ritxe.** || *Ogi ritxek arek txikidxek ixete sirin. Oiñ ogi ritxik esan be esta eitten. || Jeneralien dana biribille ixete san len aintxiñe ogidxe. Panaderidxetan be bai. Da oin daus klase gustidxek. Oiñ eitte ittue olakuek, da ritxe be bai, eitten dabe, baya ritxi esta esaten. □ **ogi salutaue.** Pan de la Noche de Navidad (se le atribuye la virtud de curar la rabia). || *Ogi salutaue: gabon egunien, da oiñ estaitt axe be eittu, ogidxeri, ogidxe asi eitte san, len asitte badau ba a eskendun jaten, da ogidxe barridxe aste san, da areri kentze dxakona, lelengo satidxe, arixeri esate tzeu ogi salutaue. Da a eitte gendun gorde, armaidxun urrengo urterartin, da eote san, armaidxun gordeta eote san, da urrengipitxigeittik. Da gero urrengo gabon egunien ardaue epeldu kasu baten, berotu, asukeri ein de gosatu, da a ogi salutaue, arixeri asukeri bota, ogi salutaue arixeri ardauri eitte dxakon, da a etzeko gustidxek dana jan biar ixete ben apur bana, geixo txarrik etorri esteidxen. || *Ogi salutaue: txakurreri be emote dxake, da geuk emen esteutzeu iños emon, da beidxeri pentzun emote ei dxaken. Ogidxe esta sati bet gorderik or, sati galanta bayo. Beidxeri ganbelan emote dxaken pentzue ta pentzun artien ganaduri danari partidute dxaken sati bat. Ganadu pe jate ben, da txakurrek eta katu pe bai, da persona pe bai. □ **ogi samarra.** Miga, brizna de pan. || *Ogi samarra da, amen nik ogidxe jaten detzet, ta gero dana, jeusten dan ori, "Ogi samarreidxe dana betok!" esaten da. □ **ogi samarreidxe.** Migajas de pan. □ **ogi sikue.** Pan seco. || *Panaderuk e ogidxe, guk ogi siku ekarteu ganaduntzako. Sikeutakue ekartesku. Merki da a sikue. □ **ogi sapala.** Pan redondo y aplastado. || *Ogi sapala da biribille. Ogi sapal obi dok besti bayo, nekesau siketzen dana. □ **ogi sopak.** Sopa(s) de pan. □**********

**ogi urune.** Harina de trigo. Sin. *gari urune, gari suridxe.*

**ogidun, ogidune.** (OGIDUN) Panadero. *Panaderue* ere esaten da.

**ogigastai, ogigastaye.** (OGIGAZTAI, erbinude, satandere) Comadreja (*Mustala nivalis*). Karrantza aldean *paniquesa* deitzen ei zaio erdaraz (Etniker Bizkaia, 8. zk.). María Molineren gaztelaniazko hiztegiaren arabera, Aragonen ere *paniquesa* esaten da. || *Ogigastaye da arratoin moduku; aspidxe suridxe eukitten deu arek.*

**ogikondo, ogikondue.** (OGIKONDO) Pedazo pequeño de pan. Ik. *kondue.* || *Kóndue geuse txikidxe edo apur bet ixengo da, kondue. Ogi sati bet-edo.*

**ogorloko, ogorlokue, ogorlekue ogerlekue.** (OGERLEKO) Duro, moneda de cinco pesetas. || *Nekes bost ogorloko irebasten. Lau ogorloko orduen. Da gabas! Orduri pe es euen orduen. || Oiñ estai nik e ogerlekuok korridu eitten badabe, lengo ogerlekuk eundidxe ixeten sirin. || A posturi einde, estai senbat posture einde. Bost mille ogorloko-edo posture einde. □ bost ogerlekokue.* Moneda de cinco duros. □ **siderresko ogorlekokue.** Duro de plata. || *Siderra san a, siderresko ogorleku sin danak. Ogerleku siderra. Arek balidxu euen. Arek e naitte desautxeute be, arek balidxu. Siderrak balidxo ban. Arek, askok arek, tontomendi geuk entregau gendusen, pilluk euki etzin-de. Estabela balidxoko, desautxeu eitte sittula danak eta, besti-tte. Ya tonto egon, da entregau. Se entregau eitteko ordenie emo ben ba. Da danak entregetan. Da etziñ euki basenak gero arek ogorlekukin katiak-eta eitte besan, pulserak-eta, siderreskuk. Da ainbeste pagete ben gero. Ogorleko bat pagete ben amar ogorleko gero. Da orduko, entregau bi sanien, ogorleko bat bost peseta. Ia se diferentzidxe!*

**ogu, ogue.** Aro metálico que se coloca en el extremo de una cuerda para que otra cuerda corra con facilidad. || *Da beste batzuk ipintte tze oue, burdiñesku be ipintte tze, alako oue, soki bueltan dabela. Ba beres-beres-beres kakutu da aintxiñe... orrek barridxau dire orrek oguk eta onek burdiñak-eta..., eitten da ba, baserritarrak propidxu da kakutu egurresku. || Ogue orixe da. Ogusko sokie, se ogu daroye. Da ogue biribilleri esate dxako jeneralien. || Ba ogue da biribille, oguk eitten deu korridu, oguk esteko nun sujeturik eta. || Da latru da e taketa sartun,*

*goidxen ou arek eukitten deu, sartze su an taketa ta auxe emon buelta.*

**1 oin, oiñe.** (OIN) 1. Pie. 2. Pie (medida de longitud). || *Oin bat. || Metruk iru oin d'erdi dekos. || Plasako engantxuek oiñek dekes. Nabarnixen eun oiñekue, da larogetamar oiñekue Mendatan. || Orrek engantxuk oin be oiñetan usaten dire. □ oinbete.* Un pie (medida de longitud). *Oinbete* honelako kasuetan erabiltzen da: esaterako, hemendik hara harria eramateko apostua egiten bada: *Oinbete erun esetz! || Proban, sarri da geratu barik erutie. A da sárrie. Geratu barik, esate baterako, oinbete ero metro bat eitten badeu, ummmm!, "Sarri emon tze!". Da igul beste batzuk artun de eruten deu beste untzera, "Jo, untzik sarran ein dxosak!". □ oin bularra.* Empeine del pie, metatarso. Gaur egungo gazteek ez ei dute hitz hau ezagutzen. || *Sapatak sartu esiñ ixan eskerun, "Oin bularra deket aundidxe-ta!". || Oin bularra da ganie. □ oin markie.* Huella, pisada. || *Oin markak egon dire an. □ oiñes.* A pie. Ik. *ankas.* || *Selan jun da, kotxen ala oiñes? || Taka-taka badoye, oiñes. || Tipi-tapa? Ba ume txikidxe e oiñes ikesten dabenin ba tipi-tapa ibiltten da ta ba arixerri be esate dxako "Tipi-tapa dabil". || Oiñes, es saldidxen ganin, es astun ganin, es kotxin, es olan barik, oiñes. || Oiñes jun biou. || Nabarnixetik Aulestire oiñes etorri gara. || Bueno, jeneral esta ixeten burdidxe pasetako be. Ixeten da norbera oiñes ibiltteko-edo, bide estutxu ixeten da estrati.*

**2 oin.** (ORAIN) Ahora. || *Ointxe. || Oingo modun. || Oingo, danak junteuko siren, bidin jun sinak. || Ni oiñ artzeko nau. □ oin da.* Ahora hace... || *Masandei sagarra esatu dot. Ori agertu san oin da..., nik irurogetamairu urte kotas, oin da irurogei urte. □ oin (dala).* Ahora hace... || *Oin dala sortzi egun emon neutzun parte. || Oiñ eun urte jaso san a. || Oiñ urte bi. □ oindik.* Desde ahora, a partir de ahora. || *Oindik apur batera. || Oindik eurrera au ein bi da. □ oindik eurrera.* Desde ahora, a partir de ahora. Sin. *emetik eurrera. || Oindik eurrera etxuat eingo. □ oindixik eurrera.* Desde ahora, a partir de ahora. Sin. *emetik eurrera. || Oindixik eurrera etxuat eingo. □ oindittik.* Desde ahora, a partir de ahora. Ik. *emetik eurrera.* Dena den, *oindittik eurrera* sarriago erabiltzen da *emetik eurrera*

baino. || *Oindittik eurrera au ein bi da.* ☐ **oingo.** Para ahora. || *Oingo etorriko san.* ☐ **oingo onetan.** Esta vez, en esta ocasión. || *Oingo onetan etor da.* ☐ **oinguen.** Esta vez, en esta ocasión. || *Or ibili dok baya ondatu dxuek oinguen.* ☐ **oinguon.** Esta vez, en esta ocasión. || *Kanela madaridxe be badau, da geuriñ ain suertes oinguon estau.* || *Oinguen etor da.* ☐ **oin momentuen.** En este momento, en este instante. || *Oin momentuen enas kontureten, entzunde sarri dekot.* ☐ **ointxe. 1.** Ahora mismo. || *Ointxe etor da. 2.* Ahora hace exactamente. || *Neu pe ori ein dot e... etena dana eiñ ñaben operasiñoye ointxe urtebete.* || *Marti sosu entzu su kantetan? Estosu entzu e! Marti sosu sati entzu ot nik ointxe amabost-edo.* ☐ **ointxuau.** Más recientemente. Ik. *orantxuo.* || *Len useta san, oiñ estau, oiñ akabo dire orrek, baya ointxuau bai, ointxuau useta san.* ☐ **oiñ aspaldidxon.** Hace tiempo para acá. || *Len jaste sirien altara bat edo bi or-emenka ta eitte sirien e..., jente, ba jenti jute san domeketan lantxik elixara, da jute sirien ba altarak jantzitte dasen lekure, baya oiñ aspaldidxon be-esta jasten altararik.*

**oinkada, oinkadie.** (OINKADA) Paso. || *Arregie eskuas, da ba ainkias eitten bada, ba oinkadak. Onenbeste oinkada.*

**oiñarri, oiñarridxe.** (OINARRI) Cimiento, fundamento, base. || *Oiñarri gogorra dak an, kaltzadan.* || *Oinarridxe gogorra deko orrek.* || *Orrek engantxuk oin be oiñetan usaten dire.*

**oiñesko, oiñeskue.** (OINEZKO) De a pie, peatón, viandante. || *Oiñeskue da ankas doyená.* || *Oiñesko bidie: oinesko eitten dan bidie..., esate baterako, leku batzutan ariñau eitteko-edo, artzeko sera, apur bet, selan esangot neuk?, urriau artzeko lekue-edo, sadorretik juten gara.*

**oiñetako, oiñetakue.** (OINETAKO) Calzado; zapato. || *Oiñetakuk kendu.* || *Bai, umik dasen lekun ba umiri ekarte dxake seoser, ba edo oiñetakotxuek, edo sapataxuek, edo bufandatzue, edo ba erregin saridxe esate dxako umiri ekarte dxaken geusiri.* || *Polañak dire ointako batzuk, seinde ser esangot neuk?, katuska ixeti les-edo, olako gorasko, uretan-edo, ur asko danin, edo euri asko danin-edo ibiltten diriñari.* || *Ori narrusku ixeten da beres, orrek polañak.*

**oiñetz, oiñetza.** (OINATZ) Huella, rastro, pisada..

**oiñutzik.** (OINUTSIK) Descalzo. Ik. *ortosik, kaltzutzik.*

**oitture, oitturie.** (OHITURA, aztura) Costumbre. Ik. *usakerie, usedidxe.* || *Aintxiñeko oitture sarrak.* || *Olanik siren lengo oitturak.* || *Olan da emengo oitturie.* || *Emengo sarrak, trumoidxe aste sanien, atiek eta bentanak danak sarratzeko oitturie artu ben.* || *Ori esateko oitturarik emen ainbeste estau.*

**oittu, oittuten.** (OHITU) Habituar(se), acostumbrar(se). || *Etzesulue, ba etziñ asko oten dana edo kanpora urteten oittuten estana.*

**ojalata, ojalatie, ofaletie.** Hojalata. Berriemaile baten arabera, *ofalatie* esaten da Nabarnizen, baina beste guztiei *ojalatie* entzun diet. || *An boukosu a txirrikie, burdiñesku ixeten da, ojalasku, ero burdiñesku, ero siñesku, ero olan.* || *Tximinidxe be ojalatias sarratute dekeu. Emen bistan esteko, baya ojalati deko goitxuen, da estau su eitteko modun be.* || *Txolota: ure edateko orrek e, ojalatas einde oten siñak.* || *Ofaleti be esta ixeten. Sartena da ofaleti.*

**ojaletero, ojaleterue, ofaleterue.** Hojalatero. Berriemaile baten arabera, *ofaleterue* esaten da Nabarnizen, baina beste guztiei *ojaleterue* entzun diet. || *Ofaleterue. Txorrotxailli esate tze batzuk. Da bestik ofaleterueeee! Gualtias biar eitten deuna ofalateru da ixetes. Da orrek bidxetara eitten dabenak egoten dire, ojalateru, da txorrotxailli. Baya diferenti da ojalateru. Ojalateruek ibilte ban kajie lepun, da erremintak arregletaku, ta erremintta danak, onek sartenak eta. Ofalati ipiñi bi dxako. Ofalati ipintte tzen untzias. Da oiñ ofalateruk e dire ferreteidxako orrek e dire ofaleteruk emen.* ☐ *Andere Goirienak dioenez, bere amumak konponerre esaten zion ojalateruri.* || *Ojalateru esaten da ta esangot nik oiñ e... Bai, ojalaterue, da len nire amumari baten bayo geidxauten entzun neutzon konponerre. Baya oiñ estaitt oiñ iñok aittuko baban.*

**ok.** (OK) Fallar, no llegar a un fin propuesto. || *Proban basoyes, esta?, da eiñ esiñik garatu, bete, ba ok.* || *Ok: ya bete.* ☐ **ok ein.** Rendirse, desfallecer, no poder más. Nabarnizen *toton ein* gehiago erabiltzen da. || *Ok ein: bete barrue, arnasie bete, eiñ esiñik garatu.* || *"Ok ein deu": ori da jun esiñ eurrera, "Ok ein dxok", geatu. Ori be gitxi usau eitten da, baya ori bai esaten da.* || *Ok ein deu orrek.* || *Orrek ein dxok ok.*



**Oka.** Oka, barrio de Muxika. || *Arto arridxe Okatik ekarten da.* ☐ **Okako arridxe.** Muela de molino proveniente de Oka, utilizada para moler maíz. Ik. *prantzes arridxe, Trebiñoko arridxe.* || *Okako arridxe? Arto eidxoteko ixen san arri onena. Okakue, Okan urtete bana.* || *Okako arridxe, artu eidxoteko.*

**okalitru, okalitru.** (EUKALITU) Eucalipto (*Eucalyptus* sp.)

**okan, okana.** (OKARAN, aran) **1.** Ciruela. Motak: *andraiñe, arrautze okana, asto okana, klaudi okana, okan baltza, sasi okana (baso okana).* || *Okanak jan deus.* || *Okanak ainbeste klase das. Gorridxek badas. Illun-illunek badas. Suridxek badas klase bat bayo geidxau. Garaune eundidxe be, len egon san e naiku garaun eundidxe asten dabena-ta egon san emen, da galdu ein siriñ are pe. Astokana be badau.* **2.** Ciruelo. (*Prunus domestica*) || *Okanetik jausitte, ankie apurtu deu.* ☐ **okan baltza.** Variedad de ciruela. ☐ **okan gorridxe.** Variedad de ciruela. ☐ **okan pasie.** Ciruela pasa. ☐ **okan suridxe.** Variedad de ciruela. || *Da amen klaudi okanan antzekuk badaus, okan suridxek esate gentzen, baya goxuk e-siren ixeten. Okan suridxe esate gentzon, baya ugeridxe!* ☐ **arrautze okana.** Variedad de ciruela. || *Klaudi okana, amendik untxe esautu dot. Arrautze okana, asto okana, da andraiñe lengo sarrak dire.* || *Klaudi okana goxu da. Da beste bat dau, arrautze okana be bai, asko be aundidxaue.* ☐ **asto okana.** Pequeña variedad de ciruela. || *Asto okana da txikidxe. Bai, aur geure etze kantoikue igertzen dau oin, erdi igertute dau, ta ba garaune, okana, ederra payo..., ba garaun txikitxuauk aste ittu, baya goso ixaten da jateko.* || *Asto okana da baltza, ta tamañotxue.* ☐ **baso okana.** Endrina (fruto). *Sasi okana ere esaten zaio.* || *Baso okanak txiki-txikitxuk ixeten dire. Baso okanak, e, ba ser esango neuk?, estira aprobetxau eitten. Animalidxek-edo jango ittue.* || *Sasi okanak? Bai, kontixu, bat dire sasi okanak nai baso okanak. Bateri esate tzeu. Batzuk dire, ser esango neuk?, txikitxuauk ixengo dire, batzuk aundidxauek ixengo dire, baya orrek estittu iñok aprobetxaten.* ☐ **klaudi okana.** Ciruela claudia. || *Klaudi okana be suridxe da.* ☐ **sasi okana.** Endrina (fruto). *Baso okana ere esaten zaio.* || *Sasi okanak? Bai, kontixu, bat dire sasi okanak nai baso okanak. Bateri esate tzeu. Batzuk dire, ser esango neuk?, txikitxuauk ixengo dire, batzuk*

*aundidxauek ixengo dire, baya orrek estittu iñok aprobetxaten.* || *Sasi okanik oiñ estau, egotes.* || *Sasi okana da txikidxe, ta salbajie.* || *Sasi okana, da baso okana bat da, se orrek okanak egoten di les salbajiek, sasitzan, da olan, da esate tzeu bai, sasi okana. Baya sasidxena esta okana, Sasidxek masustrie eukitten deu. Okana arbolan egoten da, da sasidxe esta arbolu. Da ori da orixegeittik, sasi artin-de egoten di onek, onek baso okanak be sarritten, igul basun-ero, sikiñeridxas-da.*

**okasiño, okasiño.** (OKASINO. okasio-bat.) **1.** Ocasión, oportunidad. || *Baya okasiñoie ba beste edoser gausetarako, edo olan beste edoser gausa ein danien ba, "Okasiñoie euki dot ori esateko.* **2.** Funeral. || *Emen okasiñoie esate dxako persona bat iltte danin, de elixaku eitten danin: okasiñoie.* || *Elixakue eitte dxakonin: Okasiñoie egon da.* || *Da artzaldien enterru badau, edo okasiñoie esate dxako, baya oiñ enterru esate dxako.* ☐ **okasiñoie mesie.** Funeral, honra fúnebre. Sin. *enterruko mesie, ondrako mesie.*

**okela, okelie.** (OKELA) **1.** Carne (para comer) || *Okela bigune.* || *Okelarako ardidxe.* || *Okela errien useiñe.* || *Ondo erre bako okelie.* || *Okelie gordin dak.* || *Au okeli dau sala!* || *Txakurre okeliri begire dau.* || *Erri beidxek esnetzuek estire jeneral. Okelarako ixaten dire, ba, txalak asteko be bai. Da okelarako be orrek pentzetot okela ona ataraten dabena.* || *Okela gitxiku dxauk.* **2.** Carne (tanto de los animales como la humana) || *Okelie, da asurre.* || *Ño, orrek enbriek dxekok okelie!* || *Okelie atrapau dxok asur bittartin.* ☐ **okela gordiñe.** **1.** En carne viva. || *Okela gordiñe, minberie.* **2.** Carne cruda. || *Okela gordiñe jan deu.* ☐ **okelarako ganadue.** Ganado para carne. || *Onek dire okelarakuek: asturianak, pirenaikak, eta bertziñek.* ☐ **okela saldie.** Caldo de carne.

**okelatzu, okelatze.** (OKELATSU) Carnoso, -a. Ik. *mamintzue, ederra.* Animaliei buruz esan daiteke *okelatze nahiz mamintzue, lagunei lodidxe.* || *Okelatzu lodi egoti laku da. Okela asko dekona, ba "Okelatzu dxak ori". Beste batzuk esaten dabe loditzu.* || *Txal bat lodi-lodi daunin: "Txala okelatzu dau" esaten da.* || *'Okelatze' lagunagaittik esta esaten, animalidxeri. Personari: "Ederra dau".*

**oker, okerra.** (OKER) **1.** Torcido, -a, encorvado, -a, doblado, -a. || *Oker dau.* || *Agure okerra.* || *Susen, okerri parik.* **2.** Travieso, -a, malo, -a. Ik. *geistue, txarra, bidxurre.* || *Diabruk bayo*

*okerrauk dire!* 3. Mal, daño. || *Ori ixeten da bedeinkasiñoye, okerrik ixen esteidxen.* 4. Mal, equivocadamente. || *Oker einde dau.* || *Es, neuk esan dot oker.* || *Nik igul esango pa okerreko letrakin be.* ☐ **oker egon.** Estar equivocado, -a. Sin. *errasoirik es euki.* || *Oker dau ori.* || *Kalamatrikie: ixildu bako erresaidxue. Bai, benetan be axe da, baya ba kalamatriki jeneral ba ume gastik eitten dabe berbetan ikesi-ikesi barik dasenak eitten dabe, da nastau eitte ittue geusak, da ba batzuk esango ittue susen, da beste batzuk okerrau, te ba, kalamatrikie.* ☐ **oker ein.** Causar mal, traicionar. Ik. *txarto ein.* || *Oker ein tzet.* ☐ **okerreko begittik sartu.** No tener simpatía por algo o alguien. || *Okerreko begittik sartu dxat.* ☐ **okerreko bidie.** Camino equivocado. ☐ **okerreko sulotik jun.** Entrar por mal camino la comida. || *Okerreko sulotik jun dxatek.* ☐ **okerretara.** Al revés. Ik. *aldrebes, aspikus ganera, idulidxetara.* || *Okerretara jantzi.* || *Sapatak okerretara dekosus.* ☐ **begi okerra.** Bizco, -a, de mirada torva. || *Begi okerra da.* || *Begi okerrak dekos.* || *Begi trabesa, begidxek oker dekosenari bei okerra ero begi trabesa.*

**okerrerridxa.** (OKERRERIA) Canallada, travesura, trastada. Ik. *sittelkeridxe.* || *Okerrerridxak eitten ibiltten da.* || *Okerrerridxe eitten dabenari, oker eitten dabenari lotza bakue esate dxako.* || *Kaskajue emen okerreidxak eitte ittunari-edo esate dxako: "Kaskaju alaku!"-ta.* || *Trastokeridxe ba okerridxa bat ta.* || *Trasteridxe da..., esate dxakona, edo ganaduri, edo mutiku bateri gaistu danin da gaistokeridxak eitte ittunien, okerridxak eitte ittuna.* || *Trespaskeridxe? Ba ondo es ibilttie. Igul ba eingo deu okerridxatxun bat eta ba, trespaskeridxe.*

**okerrune, okerrunie.** (OKERRUNE) Curvatura, comba. || *Okerrunie deko.*

**okertu, okertzen, okertuten.** (OKERTU) 1. Torcer(se). || *Okertzen doye.* || *Eskumakaldeko ormie okertu da ta laster jausi bi deu.* || *Arbolie okertute dau.* || *Erdi okertute ibiltten da.* || *Fillarmonikie olan joten dana, selan esangot neuk? Olan alderdi batetik eta bestetik e joten da, apurtxut okertu be eitten da.* || *Jitxe da okertu. Okertute geratu badxatzu geusa bat e berdi-ero, "Kaguen, onek jitxe artu dxok koño ba albora!".* *Jitxe ba, okertu!* 2. Hacer(se) pícaro, descarriar(se). Ik. *geistotu.*

**okil, okille.** (OKIL) Pájaro carpintero (*Picus viridis*). || *Okil kunak.* || *Okil abidxe.* || *Okille: orrek sulotzen dana arbola, iru, ero ya usteltzen doiña, abidxak olakuxe lekun eitte ittu orrek.* || *Berde antzeku da okille.* ☐ **okil nausidxe.** Variedad de pájaro carpintero. || *Okil nausidxe bastante aundidxe da. Oin be okille emen asko dabil. Orrek eitten dabe arbola sarretan sulue, eitten dabe olanik, orrek e kunarik etxako busteu orreri, orrek lelgotan eitten dabe sulu olanik trabesera, ta gero goitti bera.* || *Okil nausidxek olako sulu eitten deu, biribil-biribil-biribille, da gero goitti bera.* ☐ **okil txikidxe.** Trepador (*Sitta europaea*).

**okospe, okospie.** (OKOZPE, kokospe-bat.) Papada. Dena den, *papadie* gehiago erabiltzen da. || *Kabeserie da asturi nai muliri nai saldidxeri ipintte dxakona, apareju bet, da ugel utzeskue ixeten da. Sartze dxako olanik, olanik eukitten deu bat, olanik, gero emendik okospetik, emen musturrin be bai, da emen kabeseri arixe esate dxako.* || *Nardeidxe da... Emen estau, baya ganaduk eukitten dabe busterridxe, da busterridxek eukitten deu amen e okospien... Ganadun e... Ilte diriñien, narru gorde eitte san, da aixas narruas eitte san... Ser esangot nik? Emen okospiñ eukitte ban sartzeko, partikie sartzekue.*

**okotz, okotza.** (OKOTZ, kokots-bat.) Barbilla. || *Okotz lusie.* ☐ **okotz aspidxe.** Parte inferior de la barbilla. ☐ **okotzeko asurre.** Hueso de la barbilla.

**okotzaundi, okotzaundidxe.** (OKOTZ-HAUNDI, kokots-handi-bat.) Hociudo.

**okurridu.** (OKURRITU) Ocurrese. || *Okurridu ein dxako areri ori eittie.*

**ol, ola.** (OHOL) Tabla, madera. || *Nun da tranpa ola? || Egurre aretxa pentzetot sala lodidxe, alako lodidxerie! An ol meye barik, ol ikeragarri lodidxe! || Arek lo be basun eitte ben ikessiñek, ba antxe ipintten dan oltxuri kamañe: "Emen ipiñiko tzut oltxu bat, edo kamañetxu bat".* ☐ **oleskue.** Hecho con tablas, de madera. Ik. *egurreskue.* || *Eurkidxek oleskuek ixeten dire.* || *Egurreskue da oleskue bat da, baya egurreskue, esate baterako, lodidxe, geuse lodidxe bada, egurreskue esaten dxako, baya onen lodidakue, oneko lodidxe bada, oleskue.*

**ola.** (OLA) Ferrería. || *Or Gixaburuan be basan ola, Bengola. Somorrostrotik ekarri mandukin*

*miñerala ta urtute, sera eitte ben gero, da ango trokelak, aren golpie aste sanien, sera emoten, Nabarrixeti pe gabas be igerten dxakon.*

**olako, olakue.** (HOLAKO, horrelako) Como este, como ese (esa...), tal (como ese, esa...), semejante. || *Estou sekule usau esaten olakorik.* || *Bai, Elorza edo olako serbait. Ba, morrosku itzela! Bertzutan jo!, ondo eitte ban ak.* || *Guk estogu olakorik eitten.* || *Oiñ estau olakorik.* ☐ **olakorik, olako ...rik.** ¡Vaya!, ¡Ave María!, ¡Semejante!. || *Olakorik!* || *Olako pelikulerik!* ☐ **olakutan.** En tales casos.

**olakoxe, olakoxie.** (HOLAKOXE, horrelakoxe) Tal como, igual que ése (ésa...) mismo, exactamente igual que ése (ésa...). || *Da olakoxek dire orrek, sorgiñen kontuk.* || *Kontu asko esaten deu orrek, ixildu esta eitten-da. Aintxiñekunak be, amuma olakoxi euki ban orrek, amuma borrona. Da arek esanikuk-eta.* || *Atara ben askanin, baya atara ben kostata. Atara ben, baya estakitt e es sittuen ekarri Bilbotik edo nunondik olantxik e, olakoxik atarateko.*

**olan.** (HOLAN, hola-bat.) Así, de este modo, de ese modo. || *Alan edo olan.* || *Neuk olan pentzau dot.* || *Jeneral, adarrak ixeten dire olan gorantz, adar jagidxe esate dxako alakuri-tte.* ☐ **olan por olan.** Así como así.

**olandes, olandesa.** (HOLANDES) Raza de ganado vacuno. Ik. *erri beidxe.* || *Bueno, olandesa dire baltzak eta suridxe diriñak, da esne asko emoten dabenak. Baya onetan olandes asko, olanik, olandesa..., asko..., da busterridxen-da eitteko estau eukitten hainbeste indar olandesak.* || *Olandesa, bei olandesa da baltza ta suridxe dekona. Da ixeten da esnetzue.* || *Bei nabarra be suri-baltza ixeten da, baya estire ixeten olandesan modun esnetzuk.* ☐ Hona hemen olandesen eta bei nabarren arteko desberdintasuna: || *Da olandesa estaturan be txikitxuau da, da erropatzuaue, da esne geidxau emoten dakidxena. Da ostantzeko bei nabarrak e ba, ostantzin be badas, bardin das ostantzin be, da bei nabarrak ostantzekuek, dire bei nabarra pai, baya estire esnetzuk ixeten.*

**olantxik.** (HOLANTXERIK) Así, de este modo, de ese modo. || *Ori ein bi osu olantxik.* || *Olantxik ein bi san, bestera barik.* || *Niri olantxik erakutzi doste berbetan.*

**olata, olatie.** (OLATA) Oblada, oblea, pan ofrecido de ofrenda en la iglesia. || *Olatie*

*elixetan egote san. Amaittu siñ orrek. Opiltxuk ixete siriñ orrek. Da iltte sanien lagune, orre pe antxe, urte bi-edo, elixan ipintte sirin, beti. Olatie sakristauk-edo ipintte ban. Da gero an sepulturan, etzekue jute san, lutukue, etzin lagune iltte dxakona, lutukue. Da beren olatie eukitte ban an.* || *Aintxiñe elixan egon siriñ alakoxetxuk, olatak.* || *Olatak opiltxuk ixate sirien, sabaltzen sittuen domeka, da jai egun gustitan sepulturetan. Da luturik estekonari, ba trapu suri bet.* || *Arek bi dekosenari, ba olata bakotxari ba aittegure bat erresate tzen. Da ba areri abadiri pagau eitte dxakon: txakur aundi bi, nai peseta bat, nai arril bi, nai... Ba senbat diru dekon, arixebeste aittegure, edo senbat olata daun, arixebeste-ta. Arek olatak, arek opillek eitte sirien urtien askanien pagau. Da eitte sirin garidxegas.*

**olatu, olatue.** (OLATU) Ola. || *Itxosun olatu aundidzek daus.*

**olgau, olgetan.** (OLGAU, olgatu-bat., jostatu, jolastu) Jugar. || *Pelotan olgau.* || *Gura dosue olgau?* || *Olgetan san.* || *Amen gure katutxu one pe onek (sateruek) atrapau ittu oin, ekarri ittu orra, ta an bapes, olgeu eitten deu.* || *Len eskatzin be eurkidzek ibiltte gendusen, jarritte eoteko-ta, umik olgete ben an, eurkidzek naiku dandarres ibilite.*

**olgeta, olgetie.** (OLGETA) 1. Diversión, chanza. 2. Juguete. || *Olgetak kendu tzas.* ☐ **olgetan. 1.** Divirtiéndose, holgando, de fiesta, de juerga. || *Olgetan ibilli.* || *Gois gustidxen egon san olgetan.* || *Umik daus olgetan Merikan.* || *Olgetan egon as, erropak olan sikintzeko?* || *Olgetan dxabik.* || *Olgetan jun bidxuau.* || *Gu aintxiñe ibiltte giñiñ olgetan, da eskutetan da topetan ibiltte giñiñien, ba mamarru esate gendun.* 2. De bromas. Ik. *broman.* || *Olgetan esan deu.* || *Olgetan es sara ibilli, benetan bayo.* ☐ **olgetan ein.** Jugar. || *Epertargidxe? Ori e umik-edo batu, edo olgetan eitteko edo seoser eitteko batu be eitten da, da esta eitten.*

**ollanda, ollandie, ollendie.** (OILANDA) Polla. || *Arrautzek eitten asi orduko, ollandie esate tzagu guk da gero arrautzek eitten asten danien ollue.* || *Ollokidxe? Bai, olluri ollokidxe esate dxako. Ba ollue edo ollaskue edo ollendie edo ba, ollokidxe.*

**ollar, ollarra.** (OILAR) Gallo. || *Ollar burrukie.* || *Ollar burrukalaridxe.* ☐ **ur ollarra.** Gallo de agua. || *Ur ollarra da dotorie!* || *Ur ollarra? Ori txoridxe ixeten da. Ba ixeten da ollar txikitxu...*

*bai txikitxu bayo aunditxuau-edo, olan aundidxe-ta esta ixeten. Basun edo kanpun ibiltten da, baya emen e pasau eitten da edo, estai nik emen bixi be estot pentzetan eitten danik. || Ur ollarra bai, eoten dire bai. Ur ollarrak e dire e... selan esango tzu pa? Emen ikusi be esta eitten ur ollarrak. Orrek errekan-da ibiltten dire, seinde ollarra lako kangurtxuas, ur ollarra.*

**ollasko, ollaskue.** (OILASKO) **1.** Pollo. || *Txikitxuten ollaskuek da ollandak esiren... etxaken igerten, da gero piskat gangurtxue urtetan asten sanién igerten dxaken.* **2.** Joven rebelde, respondón. || *Selako ollaskotxue!* || *Ser ollaskotxue da ori!* || *"Ollasku garbidxas i!" saltoka-eta or dabillen gastiri ba, ollaskue.*

**ollo, ollue.** (OILO) **1.** Gallina. || *Ollun koipie. || Ollu lumak. || Ollu sorrIDXe. || Ollu lokie. || Ollue loka dau. || Ollue esarri tzet arrautzari. || Amen olluk, batzuk ixeten dire gris, grixetara, lumak dekesanak, gris, suri baltzak, igulak ixaten dire, suri-baltzak. Da beste batzuk ixaten dire gorriskak, segun ollarra selaku deken, gorrisurIDXe. Da gero egoten dire bal-baltza pe bai, da klase bat padau bal-baltza, 'castellanas negras' esate tzena be, arrautzi be suri-surIDXe, ederra eitten deu, baya suri-surIDXe eitten deu, geu pe saso baten euki gendusen baya oiñ estekeu, oin bertoko ollu dekeu. || EgastIDXe da oillue, oillarra edo txitxie; egastIDXe etzekue da. || A be sami bistan eukitten dabenak? Badaus ollu klase batzuk, au burun asi ta samie dana bistan eukitten dabena, lumeri barik. || Gure olluk egunien arrautze bat eitten dxok. || Gure olluk arrautzeginak sak. || AlbixarrIDXe ollue jasku!* **2.** Cobarde. Dena dela, Nabarnizen kobardie esaten da gehiago. □ **Leku** batzuetan ota esaten zaio oiloek lo egiten duten makilari eta Nabarnizen ere hala esaten den galdetu dut, baina *ollun lekue* esaten ei da beste barik. □ **ollo arrIDXe.** **1.** Bebedero, abrevadero de gallinas. Barandiaranek (*Tradiciones y leyendas de Euskal Herria*, La Gran Enciclopedia Vasca, 127. orr.) honako hau dio: "Pila de las gallinas. Este es el nombre que en Salcedo (Alava) recibe una piedra de forma cúbica, con un hoyo hemisférico en la cara superior, que sirve de abrevadero a las gallinas. En Galarreta la llaman ollorri (piedra de las gallinas): unas tienen cuadrada la cara superior y otras circular. De esta misma forma y para el mismo uso son las llamadas *Urontzie* "pila o vasija de agua" de Muxica, las *Oilloontzia*

"vasija de las gallinas" de Bidania, donde algunas tienen tres hoyos o cazoletas; las *Ollóntzia* de Andoain y las *Ollaska* (pesebre de las gallinas) de Oyartzun. En Nanclares de Ganboa he visto un antiguo sepulcro de párvulo labrado en piedra, que hoy hace de ollorri junto a una casa de labradores. || *Ollu arrIDXe da olluk jate daben arrIDXe.* **2.** Piedrecillas que engullen las gallinas. || *Arri soltiek jate ittus olluk, da areri esate dxako ollu arrIDXe.* □ **ollo korotza.** Excremento o estiércol de las gallinas. || *Ollu korotza onena! Edosetako, jeneru e... artzeko, baya urrIDXe. Ollu korotza modukorik estau esebe jeneru bisteko. Au beste... simeurren aldiñ ona. Ba ollu korotza guk Australian... Australian kamioyas nik ainbeste bija eitte naben ollu korotzetan granjara. An granja ikeragarrIDXe! Se bi mille ta iru mille ollu dekesanak, korotza ser parrilletan, da bera. Da an artun, bier txarra! Sakutan sartu te kamioye kargau ollu korotzas. Da a botate san tomari. Tomari erregadIDXun. || Ollu korotza moduko estau geuserik, esebes, jeneruri indar emoteko.* □ **ollo nabarra.** Gallina cuyo plumaje tiene mezclado el rojo y blanco. || *Ollu nabarra oixe da, neuk esan dotena, da grixe, illuntxue edo argitxuau, edo gorriskatxue, ba surIDXas mesklaute dasenak.* □ **ollo pinttie.** Variedad de pollo. □ **ollo saldie.** Caldo de pollo. || *ElejIDXan: lelengo sera, ollu saldie. Lapiko aundi bat egote san, axe einde. Da gero ganetik e gixau, gixae. Ene! Baya gixau bi dan moduku gero! Aintxiñeko ganadu.* □ **ollo satza.** Excremento o estiércol de las gallinas. || *Ollu satza? Bai, ibiltten da, arturi be bota leidxo euki eskerun, ollu korotza. Orturi jeneral botate dxake. Ortun sabaltzen da porruk ipiñi bi dirin lekun-edo sabaltzen da iderrak ipiñi bi dirin lekun-edo. || Edoseri botate dxako ollu satza. Arturi be botate dxako, naburi be botate dxako. GarIDXeri etxako botaten.* □ **ollo sorrIDXe.** Piojillo de las aves y especialmente de la gallina, totolate. (*Menacanthus stramineus*). □ **ollun tripak.** Viscera del pollo. || *Ollun tripak: ollu ilde ba, tripak kendu, te jeurti eitte us. Ollun tripak esate dxake ba jeurtitzen diriñ estiri, da ba berak dekosan barruko loidxeri, korotzak-edo. Da arrautziri bayo, ollun tripie olluk barrun eukitten daben sikiñerIDXeri geidxau esate tzeu. || Dana aprobetxatze ittue ollun tripak. Arrautze txikIDXe igul eukitte ittu olluk, arrautzi eitten badau, ta aprobetxau eitten da.* □ **ur ollue.** Pollo de agua.

|| *Emen berton estau ur ollurik.* || *Ori ollue, paitte modun.* || *Ur olluek eukitten deu paitti les e anak e se, se, se ori, esan gutena, erpa barik, sedie ori, telie.* || *Ur ollu be bai. Ba emen estabil. Ur ollu aundidxe ixeten da. Ba emen ikusi be esta eitten onetan eingerutan bes.*

**ollogor, ollogorra.** (OIOLOGOR, oilagor-bat.) Becada, sorda (*Scolopax rusticola*). || *Eper txakurre danari esate tzau, olloortan-da ondo eitten dabe.* || *Ara astaro jutun nitzen ollogor sasoyen, kasan sasoyen beti andik albotik pasau.* || *Mingorra da ollogor txikidxe. Mingorra esate dxako areri. Da bestiri ollogorran antzeku delako, mingorra esate dxako.* || *Mingorrak ollogorran tipue deko euki.*

**olloki, ollokidxe.** (OIOLOKI, oilaki-bat.) **1.** Carne de gallina. **2.** Ave de la familia de la gallina. || *Ollokidxe? Bai, olluri ollokidxe esate dxako. Ba ollue edo ollaskue edo ollendie edo ba, ollokidxe.*

**olloloka, ollolokie.** (OIOLOKA, oilaloka-bat.) **1.** Gallina clueca. **2.** Persona floja, de poca actividad y remango. Ik. *epela.* || *Ollolokie: geusa epelari. Orrek miiiii-miii "Olloloki laku dok ori!". Ollolokak ibiltten dire klo-klo-klo-klo! txitxa saintzen ba, da olloloki lakue.*

**ollotoki, ollotokidxe.** (OIOLOTOKI) Gallinero. Hitz honekin batera *gallinerue* ere esaten da, izan ere sarriago erabiltzen da.

**ollotu.** (OIOLOTU) Debilitar(se). *Makaldu* da berba honen sinonimoa, baita gehien korritzen duena ere. || *"Total ollotute dxak ori": makaldute egoti les.*

**olo, olue.** (OLO) Avena (*Avena sativa*). || *Olue garidxen artien urtete dabena da.* || *Olun asidxe.* || *Gari artien etroten da olue.* || *Olue gari artien egoten da. Bedar txarra da ori.* || *Olo solue: olue daun solue, olue erainde ba oluk urtetan daben solue.*

**Oma.** (OMA) Oma (barrio de Kortezubi colindante con Nabarniz). || *Bueno, iños-iños Omara be bai, baya orko Omako ure ur gitxidxe Gixaburuakun aldien. Gixaburuatik erreka aundidxe doye, da Oixeti bera bajatzen dana dala esaten dabe Allustittik sier. Da beres, ser esangot nik...?, Oman be erreka..., euritti ixen esik, erreka aundidxe esta pasaten. Da oiñ e estakitt e iñor jutun bada estakitt, geu aspaldidxon eskara errotara jun-de.*

**omar, omarra.** (OMAR) Natural del valle de Omaerota, donde están situados los caseríos de menos de altitud de Nabarniz.

**on, ona.** (ON) Bueno, -a. || *Apurtxut e sertute egon san, da beren buru botako ban arek. Estaki ser ei ban arek. Ondo gixon ona ixen san a, ondo alegrie-ta, baya a ju san.* || *Ganadu bedarra iguel amen jaten, da on bille dabil, arin korridu aurrera, on bille, obie topetan.* || *Esteko ideya onik.* ☐ **onena.** El, lo, la mejor. || *Iños entzu ot, geixu etziñ ama, da ure eskatu, ta goxaldien urten, etzien, artu ontzidxe da araxe iturrirre, uretan. Amari eruten. Antxe dago iturririk onena, urik onena Nabarriskue.* ☐ **onenien.** A lo mejor, por ventura. ☐ **onerakue.** Para bien. || *Onerakue dok.* || *Onerako eitte dxok.* || *Euren onerako ein dabe.* ☐ **onien.** A las buenas. || *Onien edo txarrien.* || *Oniñ-oniñ eskatu deu.* || *Oniñ-oniñ etorri da.* || *Onien, onien arregleu eskero, asko be obeto urtengo leuskidxu geusi, baya dana eurentzako gure one pe! Da estai, orrek gerrik beintzet oiñ arte danentzako kalti ekarri deu.* ☐ **on unadie.** Bonanza, buena racha, época de prosperidad. || *On unadie pasa dxako.* ☐ **onak egon.** Estar buenos, apañados. || *Onak gaus!* || *Onak gasak gu iñora juteko, esin dxuau au ein te!* ☐ **on ein.** Hacer bien, ser provechoso. || *On ein!* || *Onik estein (ez deuste egin), kalte eiste (egin deuste).* || *On ein tzo mansanillik.* ☐ Lar edaten denean, honela esaten da: || *Esteste onik ein.* ☐ **onena emon.** Ir en decadencia. || *Bueno, 'artzalde berandu' edosein sasoi ixaten da udan nai negun, ya gaberantz, artzaldie ya akabetan danien. Egunek e onena emonda dekonien.* ☐ **onera ein.** Mejorar. || *Arratzaldiek onera eitteko antza deko.* ☐ **onerantz jun.** Mejorar. || *Onerantz jun de.* ☐ **onetik atara.** Sacar de las casillas, hacer perder los estribos. || *Beren onetik atara deu.* ☐ **onetik urten, salbau.** Librarse de buena. || *Onetik urten deu!* || *Onetik salbau gara!* ☐ **onien egon.** Estar en condiciones óptimas. || *"Estau bere onin": estau kodesiñoitan-ero, igul estau ondo.* ☐ **onik euki es.** No tener provecho, bien o beneficio. || *Gerrik iñontzako onik esteko.* ☐ **ontzat artu.** Aceptar, admitir. || *"Ontzat artu deu": ya konforme dau.* || *Aguntie da "Aguntau ein deu-edo ba, "Aguntau eitten deu" edo "Esan ttunak ontzat artu ittu".*

**ona.** (HONA) **1.** Acá, a este lugar. || *Erdu ona!* || *Etorri ona!* || *Aberasteko etorri siren ona.* || *Onaxe arte.* **2.** Desde... hasta ahora. || *Igestik ona.*

□ **onaiño.** Hasta aquí. || *Txikitten-da? Eskolara-ta juteko-ta? Elixara-ta? Brustxukin, onaiño* brustxukin jaste sirin.

**onako, onakue.** (HONAKO) Tal como esto. || *Onako ser bat.* || *Au golda txikidxe da. Onakuk badaus gurin.* || *Sateruek sagun antzekuk dire. Katu pe onakorik estabe jaten.* || *Emen onako erri txikidxetan esebe etzan eitten, apartekorik esebes.*

□ || *Da erropi pe eukitten dau onako lekun sintturiña ta aidxue.* □ **onakoxe.** Igual mismo que. || *Onakoxe katxarruri esate gentzon, aundidxau nai txikidxau, edamena.* || *Onakoxe tela bat ta perkala.* || *Da axe koipie, txingerrak apartau, da axe koipe garbi-garbidxe pasau serien, pasadorien, onakoxe pasadorien, da koipe gasie botate san orretara pitxar morkutara.*

**onaldi, onaldixe.** (ONALDI) Bonanza, racha de buen tiempo. || *Denporiek onaldixe deko.*

**onan.** (HONAN) Así, de esta manera. Ik. *onetara.* || *Onan ein bi ok.*

**onango, onangu.** (HONANGO) De esta manera, así, tal como éste.

**onanik.** (HONANIK) Así, de esta manera. Ik. *onetara.* || *Onanik ipin dxok au.* || *Kaidie: olan deuna, alderdire, nibel estaun geusie "Kaidan dxak". Au onanik egon biarrin, "Apur bet kaidi dxekok".*

**onantxik.** (HONANTXERIK) Así, de esta manera. Ik. *alantxik.* || *Bueno, a be bierleku ederra! A txapel ori eldu-eldu eindakun artun de onantxik rast! asidxe ta ra! baldara edo sestora.*

**onantz, onatz.** (HONANTZ) Hacia aquí. || *Ni jungo nas emetik arantz, da su etorriko sara andik onantz, biderdi, ni arutz, da su onantz.* || *Onatzau etorri!* || *Onantz dator.* □ **-s onantzien.** De (...) a esta parte. || *Katakoxiñie basoko katue da. Bidi ikesi eskeruen etzera..., geuri be, untxe ondiño, untxe-untxe, aintxiñe estanien, illabebes onantzien atrapau ei ben gero, mutillek, ta ba tire ba ill eben, ollo bi garbittu eskusen.*

**onantza.** (HONANTZA) Hacia aquí.

**onaxe.** (HONAXE) Aquí mismo. || *Da onaxe satoesela, amen gure kamiñu egalin badas urkidxek.*

**onaxiñe.** Hasta aquí mismo. || *Onaxiñe dau gure mujonerie.*

**ondakin, ondakiñe.** (HONAKIN) Resto. Ik. *satarredixe.* || *Ondakiñek dire geratzen dirin satarredixak edo olan, on-ona kendu, da bestie geratzen da: ondakiñe.* || *Erretelak? Telak, orrek*

*plasan egoten dire dendan, satidxek. Sobretan dizenak, ondakiñek, satittu, da erretela arixe.* || *Pingue: esate baterako, txikidxeri be esate dxako, baya umieri, txikidxe danari be esate dxako pingue, eskasa danari-edo, baya pingue esate dxako, ba esate baterako, ondakiñeri, edo olanik, "Pingo bat geldittu da", "Pingo bat deket".* || *Artesako ondakiñek.* || *Teka-tekak eukitte ittu aidxenin, gorau-berau, da tekak eldute dekoseniñ e, erdi eldu barik, erdi eldute daunien ba sarritten tekak batze tzeus, da aidxena itxi itteu, da gero beste ondakiñek gelditze dxakosenin ba aidxen-da gusti batzu.* || *Mutxikiñe: sagarra edo madaridxe janda, a gelditzen dan ondakiñe, a jeurtitzen dana.* || *'Siestau' da iguel ondo ebei barik dau geusie, da gero siestau. Ondakiñek gero geratzen badi be: "Siestaik ori, lorriñe dxak eta!".* || *Brildrillek? Geuse apurrek-edo, ondakiñek-edo.*

**ondakindu.** (HONDAKINDU) Reducir a restos. Ik. *erdikindu.* || *Gausan bat, seoser, nai fruti, nai seoser ondakindute daunin, ba: "Erdikindute dau", edo "Ondakindute dau."* || *Ondakindu: ondakiñe istie, oindiño jateko modukue.* || *Ondakindu da amaitzen juti geusie. Ya jaten-ero basas, ero a akabetan, "Ya ondakindu deu".*

**ondamendi, ondamendidxe.** (HONDAMENDI) Perdición, ruina. || *Auxe da ondamendidxe!* || *Ondamendidxe da ya akabue, txarto dana.* || *Euri asko eitten badeu, "desastrie" esaten da jeneralien, "desastrie euridxen euridxas". Da jenerue txarto ikusten bosu, edo txarto ein dxako: "Ondamendidxe euki deu arek".*

**ondar, ondarra.** (HONDAR) Sedimento, poso, borra. □ Hemen landarra eta ondarra berben arte desberdintasuna zein den azaltzen zaigu: || *Ondarra esate dxako, esate baterako, itxosuen mari dabillen lekun gelditzen dana. Da landarra da emen baserredixen euridxe eitten dabenin-da ba dana basi-tte eoten da, ta basa landarra-edo arixe esate dxako.*

**ondasun, ondasune.** (ONDASUN) Bien, hacienda, riqueza. Ik. *aberastasune, onurie.* || *Ondasune? Ba diru asko eukitti-edo, diruk, diruk eukitti-edo. Etzik eukitti be bai, basuk eukitti be bai.* || *Ondasunek alperrik galdu ittu.*

**ondatu.** (HONDATU) 1. Destrozar, echar a perder. || *Personie ibili esiñik, ta jun esiñik-eta geratzen bada: "Ondatute geratu da".* || *Bitza deket ondaute.* || *Panplonan ero or dau. Gibela-ero dekola ondatute.* || *Beidxeri atzie ondatu dxako.* || —*Estaipa se emo gentzon, txarrik guk*

estu emon, allorbie-ta. —Mekaguen, allorbie!  
 Ondatu dosue ori! || *Librue tximurtute badau:*  
 “Ondatute dxak librue, etxuek balidxo”. || *Da iguel beye geixorik ero jeusitte-ero badau,* “A ya beidxe ondatu dok”. *Gixonari, nai personi be bai,* “A be ondatute dxak geixuas”. **2.** Arruinarse. “A arruiñau da total” modukoak entzuten badira ere, zentzu honekin ondatu da erabiliena. **3.** Perder(se), desaparecer. || *Makatzetan oin bat bes; orrek makatzak danak ondatu dxakusen.* **4.** Desmoronarse, quedar vencido, -a. || *Eiñ esiñik-ero,* “A be ondatu ok, esin leik ein”. *An esiñ ein proban da bai:* “Ondatu ok”. || “Ondatu ok”: ya ba galtzie, joku galdu ero a be... “Or ibili dok baya ondatu dxuek oinguen”. “Ondatu ok” galdu ein deula ta. □ **burue ondatu.** Perder el juicio. Sin. *burue galdu.* || *Burue ondatu dxakon.* □ **ur ondatue.** Charca, balsa; remanso, agua estancada. Ik. *ur batue.* || *Ur ondatue da, esate baterako, euri asko..., atzo gabas be ei ban saparradan bat, nik estot sentidu, baya euri asko eingo ban, se solun egalak arrastaute das-da. Da ur ondatu esate dxako, esate baterako, eitten deu euri saparrada bat, da biitatik, eta goidxetatik-eta, be pillau, de errekatxu eitten da, da i gero sakomunarik atrapeten badeu, antxe gelditzen da ur ondatue.* || *Ur ondatue: urek beres eitten deu sulu ba, urek emen solutan-da iguel. Emen solutan-da iguel. Gitxitten baya leku askotan igul e juten da, sulu eitten dau, ure, bera, urek e. Ikusko sendun olakue. Axe da ur ondatue. Dana lurre eruten deu, bera urek eruten deu, da onako suluk e bera.* || *Ur batu, da ondatue, kontixu bat tire are pe.* || *Ur ondatue? Amen berton dau, amen etze barridxe badau or ba, ortxe parin goikaldin dau solue, or sarri eitten deu urek ondatu. Arri bittartie kontixu topeten deu, da ure korrienten datorrenak, aspittik datorrenak gero kabeten tzo bera da goidxe bera, sulue bera.*

**ondiño, ondio.** (ORAINDINO) **1.** Todavía, aún. || *Ondiño esta etorri.* || *Ondiño jun barik sas mendira ala?* || *Oin be jeusi da or etzie, ondio denpora asko estala, jeusten dau, Arrolan.* || *Nobidxias ibilli san urtiitan, da nobidxik itxi ei ban beste batigeittik, eta beste bat artu. Gero eskondu san ondio.* || *Ondiño lo dxak a.* || *Pasau itturridxe. Itturridxe bakixu nun dauen. Itturridxe pasau te leuna bat. Antxe egon san Oraindiko txaboli esate tzena. Da oin be an dau ondio, ormak-eta an das.* **2.** Todavía más (en comparativas). || *Da selemiñe da ondiño be txikidxaue.* || *Ama ondiño be obeto.* || *Aberauko*

*etzi da barridxau ondiño.* || *Bai, bidxetara esaten da, aseri bustena be bai tte aseri bedarra be bai. Aseri bustena ondiño geidxau esaten da.* || *Txikidxena txigu esaten da, txoririk txikidxena, Txepetxa bayo txikidxau ondiño txigu.* □ **ondiño ontzo-ontzu.** Hace bien poco, muy recientemente. || *Geurin be txanklo bat egon san, da a bueltaka ibilli xan, da estaitt askanin ser ei eutzon. Ondiño ontzo-ontzu etorri dxat eskure, ta estaitt suten sartu banaben, etaitt ser ein neutzon.* □ **ontzu ondio.** Hace bien poco. || *Ontzu ondio ganera! Arek ondio karabidxan daua berrogetamar urte esta ixengo.*

**ondiñokogarren,** **ondiñokarren,**  
**oindiñoogarren,** **oindiñoogarren.**  
 (ORAINDIOKARREN) Todavía, aún. || *Ondiñokarren estau esperantzarik.* || *Da an iñor egong-ete da? Ango gixonak biarriñ ixango dire, ta an etzien estot pentzetan iñor be egongo danik ondiñokogarren.* || *Kaltzadi da bide bat, arrix einde dauna. Nabarrixen be, bai, lengo bide sarretan badau ondiñokogarren.* || *Bueno, ondiñokogarren be sebadie etxako esaten, baya ax be esango leidxo, sebadi.* || *Oiñ oindiñoogarren esta ibiliko ori, edo nik estot ikusi oin dabillenic kakarraldorik.* || *Esi barik dau oindiñoogarren!* || *Artu esi dau oindiñoogarren.* || *Asurre pe bai. Bai, nik auxe ausi ñaben da ondiñokogarren estaitt osatute daun e, estaitx, trakadarik ein barik e euki ñaben e apurtute.*

**1 ondo.** (ONDO) **1.** Bien. || *Ondo artu.* || *Ortik ondo pasau!* || *Ama semiri beti ondo eitten.* || *Ondo asidxe dok ori.* || *Ondo eiñen pague, jatostien palue.* || *Ondo esitte dau.* || *Ondo meresiko jubilasiñue.* || *Ondo kostata!* || *Ondo esanda dau bidxetara be.* **2.** Muy, bien. || *Ondo simela da bera!* || *Apurtxut e sertute egon san, da beren buru botako ban arek. Estaki ser ei ban arek. Ondo gixon ona ixen san a, ondo alegrie-ta, baya a ju san.* □ **ondo artu. 1.** Acoger bien. Ik. *begi ona sartu.* || *Ondo artun dot.* **2.** Tratar bien, dar buen trato. || *Alkar ondo artze sue.* || *Andri ondo artzen deu.* || “Ondo artu dau”, edo “Ondo tratau deu”-edo. *Bakixu, edo pregunte bat edo arreglu bat eitten dator, bakixu, edo mujoi bakixu ser diren, edososer diskusiñoyen, da “Ondo arreglau dire”. “Ondo artu dau” edo “Ondo arreglau dire”.* □ **ondo ein.** Satisfacer. || *Persona bateri, ba, geuse bat ondo eitte dxakonin, edo seoser emote dxakonin, edo*

laguntasune eitte dxakonin, ba "Ondo ein dxako." || Ondo eistek. ☐ **ondo esan.** Hablar cariñosamente. Ik. txarto esan. ☐ **ondo etorri.** Pegar bien, venir al caso. || Ondo dator ori berbie, baya esta esaten. || Euskeras ba ondo etorri dok.

**2 ondo, ondue.** (HONDO) **1.** Fondo. Ik. aspidxe. || Baldien ondue. || Arraukie da ondun geratzen dana. || Uren ondora jun da. || Barkue ondora jun dok. || Aren (Iñuidxako leixie) ondue estau bistan. **2.** (Al) lado (de), junto a. || Alkarren ondun daus. || Sure ondora jun nas. || Sure ondun egon nas. || Enbusteridxe? Ba "Enbusteridxek eitten dabe", norberari ba ondo esaten edo olani pa dausenin, norbera paraute dauniñ e jarritte edo dana dala, ba noberan ondora (katue) etorritte, alanik e bustena altzautte, norberan ondolik pasaute eitten danari. || Ur ondoku da san jun idie. **3.** Raiz, base, parte inferior. Ik. andobie, arbolondue, eperdidxe, sustrupue. || Lurren ondolik ebai dabe arbolie. || Ño, ondolik ebai dabe! || Nabue ganaduk jaten deu. Bestie arbidxe da. Orridxen diferentzi aundidxegirik estau eitten, baya ondun bai. Ondun arbidxe ixeten da sorrotza da txikidxe. || Sagar ondue ixeten da ebeitte gero, sagar onduk dxasak an. || Galondue: ori garidxe ebei tte gero. Oñ estau garirik eta. Artondue be bardiñ esan eitten da. Ondue, ondue ba ya an geratzen dan trukutze, ondue. || Atxan ondun dxauk geusie. ☐ **ondo bakue.** Sin fondo. || Or ei dau leixa aundi bat, sakona, ondo bakue.

**ondoas, ondoesa.** (ONDOEZ) Malestar, indisposición, molestia. || Ondoesas dxak beidxe. || Geixorik dxak ondoesas. || Ondoesa dxekok. || Beidxeri be emote dxaken, esne geidxau emon deidxen, jaten estaben beidxek igul seoser ondoesa-edo badeko, baya ostantzien beidxeri osalie es. || Inkesie? Ostantziñ ondoesa pe bai, batzuri eitte tze, da gero inkesie, igul eitte su, larri dauna pe bai: inkeseka.

**ondoratu.** (HONDORATU) Hundir(se), irse al fondo. Dena dela, Undidute dau bezalakoak ere entzuten dira.

**ondoren.** (ONDOREN) Consecuencia. Ik. atzie. || Ondoren txarra ekarriko deu.

**ondoridxu, ondoridxue.** (ONDORIO) **1.** Consecuencia. || Ondoridxue: datorren geusi edo etorri bi dabena. **2.** Descendencia, prole. || "Ondoridxurik etxekok orrek", igul iñor

espadxatoroko atzetik, beren familikorik-ero: "Ondoridxuri pe etxekok"-eta.

**ondorik.** (ONDORIK) **1.** (Por) detrás, tras, siguiendo. Ik. segidxen. || Ondorik dator. || Asko, sarrak eta gastiek, juten siren neskaren ondorik. || Eurres botatie: soltau, botau ganadu noberak eta doixela, "Eurres botadxosak". Ta bestela ixeten da nobera aurretik, da ganadu ondorik. **2.** Después de, tras, a continuación. Ik. ondun, ostien. || Jan ondorik.

**ondra.** (ONDRA) ☐ **ondrako mesie.** Funeral, honra fúnebre. Sin. enterruko mesie, okasiñoko mesie. || Eliskixune mesie da, nai e batabat iltten daniñ e ondrako mesi esateko. || Ondrako mesie enterruko mesi da.

**ondu, ontzen.** (ONDU) **1.** Mejorar. || Ondu dxok. **2.** Madurarse, fermentarse. || Sardae ontzen doye. || Oñ ondute dxak sardae, len txarra egon dok, baya oñ ondu ein dok. **3.** Sazonar, aliñar. || Txarridxek e olanik es tire nabo jatunek..., baya egositte, ba arto urune botata, ondute emote dxako, da ba jaten dabe, baya jeneral txarridxe geuse gosauuas asten da ganadu bayo. **4.** Mejorar, batir. || Proban be eurretik juten dana atzekuek ondu bayetz edo esetz esaten da. **5.** Hacerse bueno, -a. || Ba, oñ ondute dxak txakurre, len txarra suan baya. || Kartzelan sartu dabe, ia ontzen bada. **6.** Abonar, estercolar. || Baso lurre ekarten da..., ser esangot neuk? Oñ eskatzak eta etartiek-eta lurrekuk jeneral estaus, ba antxiñeko etzen batzuk eukiko dabe baya, olakoxe lurreri, lurre landu bakue... Baso lurre da ibili bakue edo ondute estaun lurre. || Lur barridxe esate dxako, esate baterako, ein gure da solo bat, da atxurtu, da ba ondu lekue, ta ba "Lur barridxe ein dabe", ortue eitteko edo solu eitteko.

**ondun.** (ONDOAN) Después de, tras, a continuación. Ik. ondorik, ostien. || Jan ondun.

**onenbeste.** (HONENBESTE) Tanto. Ik. ainbeste, orrenbeste. || Onenbeste oinkada. || Onenbeste diru emon tzo dotie. || Eguneke onenbeste pagaten dau jornala. || Pedrok onenbeste peseta deutzek sor. || Len bat iltzen basan be, ba onenbeste denporan erun eitte san lutue. || Gero ba onenbeste denporan agindu ban medikuk geldi egon bi dabela, ta alantxik geldi egon san, da ondo geldittu san. || Otie imintte su, ota sarra (karabidxen). Da otias artzen da. Lelengo egurras, da gero otias, onenbeste denporatik onenbeste denporara, gau eta egun.



**oneskero.** (HONEZKERO) Por ahora, para este momento, ya. || *Bein oneskero etorriko dxuan, se ordu pasaute dxak eta!* || *Oñeskero etorriko dxuan.* || *Persona bateri itxeitten daunin ba, agiri estaniñ-edo ba, "Urriñ etorriko da", "Oneskero urriñ etorriko da"-edo esate dxako.*

**onetara.** (HONETARA) Así de esta manera. Ik. *onan(ik).* || *Onetara ipin dxok au.*

**onexenbeste.** (HONEXENBESTE) Tanto (como esto). || *Bates beste onexenbeste.* || *Ipintxiña onexenbeste da*

**ongo, ongue.** Hongo. || *Ongue jakingo su ser dan. A kapeli dekona.* || *Ireillen, abustuen bueltan asten dire ongo banekak, baya gitxi. Au esta ongo parajie. Orrek goidxen, goiko mendixen ganin, edo Lekeittio partera, bastante. Baya jentie perretxikuten juten geidxau alegiten da.* || *Gero asten da ongue-ta, banakie urteten asten da. Da gero onguek asten direnin-de, euridxe ein da apur bet otza, freskue eitten badeu, danak urteten dabe, txarrak eta onak.* ☐ **ongotan.** Buscando hongos, recolectando hongos. || *Ongotan noidxek.* ☐ **ongo baltza.** Hongo negro (*Boletus aereus*). || *Ongo buru baltza.*

**onil, onille.** (ONIL, inbutu) Embudo pequeño que se utiliza para hacer los chorizos y morcillas. Baliteke Aragoi aldean erabiltzen den *fonil* hitzetik eratorria izatea. || *Txorixuk eta odolostik ipintteko katxarrotxue deitzen dxako onille.*

**ontasun, ontasune.** (ONTASUN) Bondad, benevolencia.

**ontza, ontzie.** (ONTZA) 1. Onza (medida de peso). || *Ontzi bai, ontzie, pisuko ontzie eitte dxako. Libre erdidxe, libre laurena, ontzie...* || *Urre gorrisko ontzie.* 2. Pulgada. || *Da ontzie meidi be bada, esan gu na, kasuas be. Oin guk estogus usetan-da. Len ontzie, danak meidan egote sirin.* || *Ontza bete lodittu da beidxe.* ☐ **ontza urrie.** Onza de oro. || *Ontza urrie, antxiñeko postura andidxena.* || *Antxiñe, ontza urrekue.*

**ontzi, ontzidxe.** (ONTZI) Recipiente, cacharro. || *Oridxo ontzidxe.* || *Petrolio ontzidxe.* || *Ontzi tapadune.* || *Kristelesko ontzidxe.* || *Ekarri ontzi bet ortik!* || *Txolota ontzi bateri esate dxako, ure edateko ontzidxeri.* || *Erluse eitten deu ontzidxek.* || *Ta bete-bete einde ipintte san, da gero ba (gastaye) iste san ontzi baten edo kasuela baten-edo iste san, da urek urten ixaten, urten, da urten eitte tzon.* || *Marmittie? Esta ontzi bat marmittie? Olan sarten antzeko bat?* || *Iños entzu ot, geixu*

*etziñ ama, da ure eskatu, ta goxaldien urten, etzien, artu ontzidxe da araxe iturrirre, uretan. Amari eruten. Antxe dago iturririk onena, urik onena Nabarriskue.* ☐ **itxosoko ontzidxe.** Barco. || *Bueno itxosoko ontzidxetan geidxau ibiliko san, gero emendik desaperesidu san.*

**ontzu.** (ORAINTSU) Reciente. || *Geu be jun gintzen? Nos jun gintzesan? Ontzu. Pasa dan astin.* || *Arek aintxiñeukuk dire, au ontzuauku da.* || *Bueno, au ontzuauku da, are burdiñeskuk dire onek.* ☐ **ondiño ontzu.** Hace bien poco. || *Ondiño ontzo-ontzu etorri dxat eskure, ta estaitt suten sartu banaben, etaitt ser ein neutzon.* || *Len ba saldidxe eukitte gendun, bier eitteko, bedarra, bedar berdi ganaduntzako ekarteko, se ganadurik len larrara eskendun ataraten, da gero ba saldidxori ondiño ontzu, ontzu kendu du, ontzu e bai, ontzu kendu du.* ☐ **ontzu ondio.** Hace bien poco. || *Ontzu ondio ganera! Arek ondio karabidxan daula berrogetamar urte esta ixengo.*

**ontzungo, ontzungue.** (ORAINTSUENGO) La última vez. || *Es, ontzungo egon sanetik, arreskero estok ona etorri.*

**ontzurengo, ontzurengue.** (ORAINTSURENGO) El, la, lo más reciente. ☐ **ontzurengo aldis.** La vez más reciente. ☐ **ontzurengo biderres.** La vez más reciente.

**onuntz, onutz.** (HONUNTZ, honantz-bat.) Hacia aquí. || *Beste idie asten dan lekuen ba ori be arantzau edo onuntzau asten da, baya ori beste idi moduen franko esta egoten. Ba an bat eta beste bat beste leku baten.*

**onure, onurie.** (ONURA, probetxu, etekin) 1. Beneficio, provecho. Ik. *ondasune.* 2. Condimento, aderezo, guiso. Esate baterako, lapikoan indarrak egiten direnean, honela esaten da: || *Onurie bota idxosu!* || *Onure apur bet.* || *Txorixu apur bet edo urdai apur bet edo... onurie esate tzeu.* || *Onurie da abonu ixeti les, "Onuri bota tzeke a pe areri", ero kasuliri, nai edoser, nai jatekuri be, geuse goxuk, edo orrek: "Onuri botata egon dok, eta goxo egon dok".* || *Bai, gosagarriidxe, bai, lapikokuri botate dxakona, onurie.* 3. Abono. || *Onurie da satza, abonue.* ☐ **onurie atara.** Gozar, disfrutar, aprovecharse de. || *"Onuri atara tzeke areri" da txupetie geusie.* || *Ak ondo atara tzeke onurie basuri.*

**onuregarri, onuregarridxe.** (ONURAGARRI) Beneficioso, -a, provechoso, -a, útil.

**oñestarrri, oñestarridxe.** (OINAZTARRI) Rayo que cae del cielo hasta el suelo. Ik. *oñestue*. || *Oñestarridxe jausi da*. || *Oñestarridxe ixeten da apurtu nei sue ataraten dabenin. Da onestue, ba, arek sastadak, dxis-dxis-dxis. Da oñestarridzek eitten deu ba, ortxe beyen geur sagar bat pe bai, ba apurtu*. || *Oñestarridzek lurrin sulo galanta ei ban*. || *Oñestarridxe fuertie bada, aren bueltako piñuk, dosena erdi bet siketu eitten dire*.

**oñestu, oñestue.** (OINAZTU, tximista) Relampago. || *Oñestuen sartadide*. || *Oñestue ein dxok*. || *Geur oñestue gogor dabil*. || *Oñestuk, trumoi gaistu ta oñestu asko dabillenien, esnie presku ixen arren, galdu eitte san*.

**oparo.** (OPARO) Abundante, copioso, -a; opíparo, -a. || *Lurre betien: dana erneten dauela bedarra, ona, nai eskasa, ba etorri biar estaben bedarra, etorten dala, da etorri bi dana be bai. Aberatza datorrenin, oparo datorrenin*.

**operasiño, operasiñoeye.** (OPERAZINO, operazio-bat.) Operación. || *Neu pe ori ein dot e... etena dana eiñ ñaben operasiñoeye ointxe urtebete*. || *Batzuk ernia esate tze, bestik etena. Guk bidxetara esateu, neu pe operasiño ointxe ya urtebete pasau da eiñ ñabena, ta ni pe barrenbarreniñ euki naben beyen*.

**opesidxu, opesidxue, ofesidxue.** (OFIZIO) Oficio. || *Bai, ofesidxu les da*.

**opil, opille.** (OPIL) Torta, panecillo. || *Opille? Len labako su etziñ eitten gendun. Lelengo sartze gendusen laban, ogidxe payo ariñau, opillek. Opillek esate gentzen. Opillek, biribillek edo biribill antzekuek, da ensegida errete sirien*. || *Opille ixete san meye, da tunturtu eitte san a erre ta gero, erre be ensegida eitte san*. □ **koipe opille.** Grasa que se extrae del ganado y una vez troceada y diluida se guarda para cocinar. || *Koipe gasie txarridxeri eitte dxakona da. Da beidxeri be eitte dxaken, edo txalari, sesiñeri be, baya ixete san e..., koipe opille esate dxakon areri. Da a eitte san e kasuela aundi baten-edo urtze sanien, ba botate san e kasuela aundi batera, da serak, arek txingerrak apartau eitte sirien, da bera, garbi-garbidxe, kasuela aundi batera botate san, da okitzen ixete san, da gero andixik lapikuri, indarrari-tte ba lantziñ apur bet eitte dxakon, gastau eitte san da*. || *Koipe opille? Ba, len..., oin be bai, iltten da sesiñe, da len be bai. Barrun eukitte ittue estartien koipik, eukitte itu. Arek koipiek eitten dire urtu. Suten ipiñi de urtu. Da gero eitten da..., ure ipintte dxako aspidxen e*

*kasulie edo palankani edo soser da urtu te artu burduntzalias edo sosegas da araxe uretara bota. Gero a siketzen danien koipe opille einde gelditzen da. Da len aprobetxau eitte gendun axe be ta oiñ esta aprobetxetan*. || *Koipe eitten dana estitan oten da, bueno ori estin ganin-da oten da ori, ori koipe opille. Opille eitten da, koipe opille eitten da ganaduk nai txarridzek barrun eukitten daben koipie urtu, da arek e txintxortak esate tze areri, serari e..., urtu te ara ba gatzan apurtxut einde, ogidxen barrun sartute, len jan eitte gendusen arexe pe. Da aexe esate dxaken txintxortak*.

**or.** (HOR) 1. Ahí. || *Badxusek kaseruek or*. || *Alde ortik! || Askar, sus ortik! || Emen es, orrantzau*. || *Tranguiek or da emen topeten dire*. || *Or ibilitte saus?* 2. Ese, -a, -o. Izen bati lagun eginik, erakuslearen balioa hartzen du. || *Da onek ortxe goidxen, onek tximinidzek ortxe goidxen, ortxe, ortik agetik eta ona agera burdiña bat teko, da a latza antxe burdiñari egoten da dingiliske*. □ **or konpon.** Ahí te las arregles. || *Or konpon Mari Anton!* □ **or-emen.** Aquí y allí. || *Mendi tontorra? Ba mendixen e, or-emen dasen arek e tontortxue, mendi tontorrak*. □ **or-emenka.** Por aquí y por ahí, aquí y allá. || *Len jaste sirien altara bat edo bi or-emenka ta eitte sirien e..., jente, ba jenti jute san domeketan lantxik elixara, da jute sirien ba altarak jantzitte dasen lekure, baya oiñ aspaldidxon be-esta jasten altararik*. || *Euririk estanien, ba lañue or-emenka, or-emenka, lañue ba soittute-edo, lañue agertzen da, mantxakiñ esate baterako, da areri laño soidxek esate dxake*.

**orandilla, orandillie.** Cierta clase de pera. || *Orandillie aintxiñeko klasie da. Len orandillie asko egote san onetan. Oiñ ikusi be esta eitten orandillarik*. || *Orandillie madaridxe da, bastante eundidxe. Orandillie bastante sasos etorten da*. || *Oin be orandillak bastante das, madaridzek. Len asko egon san orandilli*.

**orantzu.** (ORAINTSU) Recientemente. || *Ointxe orantzu artu dot karta bat*. □ **orantzu.** Mas recientemente. || *Es, orantzu pasau da*. || *Orrek ointxe eiñekuek dire orrek orantzueu eindekuek dire, oiñ alperrik daus baya*. || *Orrek orantzunguk dire*.

**orañel, orañela.** Orinal. || *Orañela da: gabas-da oyen aspidxen eukitten dan txixe-edo eitteku. Olako biribillek. Oiñ ikusi be esta eitten orañelik. Len orañela kuarture beti. Len ademaz es euen*

*komunik-eta etzin barruen. Komunek beti kanpuen. Kanpuen, edo arek ormadun eundidzek gorarte, da araxe jun biar. || Orañela? Oyen aspidxen oten dana, txixa artzeko.*

**orañen, orañena.** (ORAINEN) 1. Lunar. || *Orañena da diferentia, ya seinde lejas erreta eukitti les. Ori an eukitten dabe batzuk, arpeidxen, onako lekun be, igul onako satidxe, a areri esate dxako, orañena.* 2. Mancha de la piel. Horrela ere esaten zaie, hilekoak izanik seindun geratzen diren emakumeei aurpegian ateratzen zaizkien gorriueei. || *Orañena esaten dana eukite dabe batzuk arpegidxen-da; orañena ei da, andrie beren reglias, perioduen dauela garatzie enbarasada. || Orañena: arek mantxak ixete sirin, orañenak, geixue. Ori asaliñ egoten siñak. || Orañena: geixue, or etorten dana, narrun-de ganaduri etorte dxako orañena. Sarna modukue da ori.*

**orasiñoie.** (ORAZINO, orazio-bat.) Oración, rezo. Ik. *erresue.*

**1 oratu, oratzen.** (ORATU) 1. Agarrar. Ik. *eldu, kolpe ein. || Oratu bustenetik! || Dios, orrek oratu tze alkarri gogor! || Oratu idxosu gogor! || Arek adarrak oratzen badeutze noberan atzamarrari be miñ eitte tze. || Oratukeran miñ emoten dabe agiñek. || Susterra jeneral esate dxako ba, ortun ipintten diriñ e..., porruneri be sustreidxe esate dxake baya, asari-tte, nai koniflorari be beyen lurriñ oratute dekenari susterra esate dxako. || Esku bat eukitte ben oratzeko. || Txingie erutie? Ori plasan eitten dabe. Onenbeste killo erun bayetz da esetz. Oratu andik txingetatik-eta. || Bei bat eruten danien e sokatik-edo ba oratute, noberari segidxen eruten daniñ a be trallan doye.* 2. Aguantar, sostener. || *Oratu ixu! || Oratu iste. □ Lagun bi autuan badaude eta norbaitek zerbait entzun eta ihardesten badie, honela esaten da: Arek oratu tzek aren berbiri. □ oratu lekue.* Agarre.

**2 oratu, oratzen.** (ORATU) Atascarse el molino por acción de la masa. || *Artaberdik oratu eitte ban arridxe. Bai, ori eitte ban. Gero ein bixate san arridxe altzau, pikias a ori kendu, da atzera barridxe be ipiñi.*

**orbela, orbela.** (ORBEL) Hojarasca, seroja. || *Atx orbela. || Gastaña orbela. || Pago orbela. || Orbela edo olako satarreridxe. || Orbela kortara ekarte san aintxiñe, beidxeri aspidxen botateko. || Orbela da arbolari jeusten dxakona. Udegunien jeusten da, da ordun orbela ekarte san*

*ganaduntzako, aspireko. || Paguek-eta botaten deu orbela asko. Orbela piñuk esteko. Paguek, atxak, gastañik eta keixak. || Oiñ orbek batu be estou eitten.*

**orbeldun, orbeldune.** (ORBELDUN) (Rama) con hojas secas. || *Da suk esa dosune, erripe-ero iguel. Da se eitte san? An bota ganera ta eldu areri. Orbeldun adarra ipiñi beyen, da gero tatarres tiretu, da kargau gero beyen leku onin. Sarpan.*

**orbeltza, orbeltzie.** (ORBELTZA) Montón de hojarasca. || *Lodi badau, orbeltzie esaten da: "An dxak orbeltzie!"*

**orde, ordie.** (ORDE) Pago, compensación, sustitución. || *Ordie emon nentzun. || Odoloste ordie emon. □ Norbaitek gauzak egin barik uzten baditu, egingo dituenak honela esango du: Orren ordik neuk eingo tas.*

**ordena, ordenie.** (ORDENA) Orden, mandamiento. || *Emon tzat ordenie. || Ordenak emoten a pe badxakik! || Siderra san a, siderresko ogorleku sin danak. Ogerleku siderra. Arek balidxu euken. Arek e naitte desautxeute be, arek balidxu. Siderrak balidxo ban. Arek, askok arek, tontomendi geuk entregau gendusen, pilluk euki etzin-de. Estabela balidxoko, desautxeu eitte sittula danak eta, besti-tte. Ya tonto egon, da entregau. Se entregau eitteko ordenie emo ben ba. Da danak entregetan.*

**ordes.** (ORDEZ) En vez de, en lugar de. Ik. *-en lekuen. || A orren ordes etorri dok. || Kaleruen egur ordez arriketza botate gentzon. || Sure ordes neu jungo nas. || Orrittutie? Estaipa. Len e artiri eitte dxakosan e adarrak eta axekiñ eitte san beidxeri emoteko, ganetik, galtzun ordes.*

**ordesko, ordeskue.** (ORDEZKO) Sustituto, suplente. || *Ordsku da beste geuse bate, igula izenda be, ba ordezkue, bera estala, da emon tzu suri ba ordesku. Nik apurtuten sure erremintta bat, da beste bat emoten tzut, da "Ordsku emostek". || "Emoste ordeskue": neuk emo tzen geusiñ alderako, beste geuse bat emote baste, ba "Pagauste ordeskua". || Ordskue ixen dok a emon tzona be.*

**ordotz, ordotza.** (ORDOTS) Cerdo, puerco macho. Ik. *arkelie. || Emen txarri arrari ordotza esate dxako. Emeri arkelie.*

**ordu, ordue.** (ORDU) Hora. || *Ordutik ordure. || Andik ordu betera. || Ordu betiñ etorri dok Gerniketik ona. || Jateko ordue da. || Orduk jun da orduk etorri, da amentxe gaxak geldik. || Ordu*

da ogera juteko. || Orduen etorri da. || Botikie artu bi da bost ordurik baten. || Ordu ipiñirik es eban eukitten (arimenak). Udi ixeten basan, barandutxuau; negu ixeten basan, ariñau illuntze ban, da arintxuau. || Airoko pague esat dxako. Gero bota ebenien, ebaten askolaridzek egon sirin, au Luxia, lau ordun ebai bayetz, de esetz kortie, da es eban ebai. || Ordun jote gendusen garidzek, makiñan bai, baya esate baterako, emengo kopradiko gustidzek batze giñin, da ensegida, garidzek e ordu ta erdidxen, ordu bidxen da iru orduen. || Nekes bost ogorloko irebasten. Lau ogorloko orduen. Da gabas! Orduri pe es euen orduen. □ **ordu batak.** La una. || Baskal sasoye, eberdidxen ordu batetan edo amabidxetan-edo. || Ni e tabernatan enas oteko. Bidxar mesi ordu batan. Da andixik urten, da iru txikito edo lau edate dus etzera orduko, da kittu.

□ **ordu bi-ordu bidxetan.** A las dos en punto. || Ordu bi-ordu bidxetan sartu san biarrien. □

**ordu erdi.** Media hora. □ **ordu lauren.** Cuarto de hora. □ **ordurik ordure.** De hora en hora. □

**orduk emon.** Dar las tantas. || “Orduk emon artin”: gabak e, kontuk esaten denpori pasetan bada, ba orduk emon artin. Goixaldera arte be igul.

**ordubete, ordubetie.** (ORDUBETE) Una hora, hora completa. || Mermeladie ba eitten da, esate baterako, botate dxako asukerie beren tamañun, masustran tamañun-edo, da egosi eitten da ordubetiñ-edo, ordu bidxen-edo, nik estaitt. Neu pe esteket kostunbrerik itteko ta.

**orduen, ordun.** (ORDUAN) Entonces. || Orduen jun eingo geittuk? || Ordun edurtze itzelak eitte ittuasen. || Ogi kondue? Ogi apurtxut, sobretan dana, jan orduen. || Oiñ onek tratorak dausen les, arek egote siñ ordun beidxeekin labretako. Arie, ara orsdune. || Baya ordun ondiño egon san etzie bi dan moduku. □ **ordun denporan.** En aquellos tiempos. || Da ordun denporan, lengo denporan oingo modun ba okelarik-eta e-san ekarten karneseridxatik. || Errespontzue da abadiri emote dxakona, aitteguri erresetako, ba txakur aundidxe, edo nik estaitt ser ixate san ordun denporan. □ **ordun egunien.** En aquel día, en aquel mismo día. || Aparteko ogidxe eitte san ordun egunien. || Txorixuk ordun eguniñ estire eitten baya, dana dala, orixe da txarri gobernue. || Murtzillak-eta ba orduntxe eguniñ eitten dire, baya ba, txarri gobernue, ba axe txarridxe il de

ba... se esangot nik? Beren geusak e ipiñi-edo. || Enterradoretzie sankristauk eitten deu. Da sulu be bai, da origeittik etzeku be bat igul juten da, sulu eitteko, baya ordun egunin, iltten dan egunien, esta enterretan, urrengo egunien.

**orduko.** (ORDUKO) 1. Para cuando, antes de. || Pentzau naben, ointxe, geidxau etorri orduko. || Orduko es etorteko egon dok, da gero pentze dxok etortie. || Orduko etxok esan eser. || Eur ure da ya, urtzen dana, bota ala urtzen danin, "Ori eurreuridx-ok", eur ure, bigune, dana urtu, jeusi orduko. || Petroliuas usau gendun korrinti ipiñi orduko. || Galipota, da galipota sabaltzen. Da galipota orduko, len, arridxe botate san, arri tamañue, eskus ein biste san, da arexek arridzek plegetan be txilindru ibilte san. Da gero galipotin beti ba a sapaltzen be txilindru. 2. Por hora. || Orduko onenbeste kobrete dxok. □ **ara orduko.** Antes de llegar allí. || Ara orduko.

**orduntxe.** (ORDUANTXE) En aquel mismo momento; entonces mismo. || Ori jeneral e euri lanbru eitten dabeniñ, a euri se-setxu jeusten danien, orduntxe oten da goidxe soittute. || Otz sanin, beres ilte sanen gorpue, a ilte sanin, orduntxe gabiñ eitte dxaken gaubelie. || Askordiñek jeneral leidxe dauniñ agertzen dire, leidzek eitte ittunin, orduntxe agertzen dire, bitzetan, da atzamarretan be igul, belarridxetan be bai-tte. || Urridxen idie, idie ta artu ta danak orduntxe. Orduntxe illerik e..., biarrik geidxen eitten sana laku.

**ordureko.** (ORDURAKO) Para entonces, para aquel momento.

**ordurik.** (ORDURIK) Desde entonces. Ordutik nahiz ordurik esaten da, baina ordutik eurrera edo ordutik ona baino ez da esaten.

**ordutik.** (ORDUTIK) Desde entonces. || Ordutik ona ikesi deu susen ibiltzen. □ **ordutik kanpora.** Desde entonces. □ **ordutik eurrera.** A partir de entonces. □ **ordutik ona.** Desde entonces a ahhora. || Ordutik ona denpora asko jun da.

**orie.** (ORE) 1. Masa, pasta. || Taluk eitteko orie. || Ogidxe eitteko orie. || Ori siriñegidxe dau. || Bueno, amasie ta ori bat tire. Amasie ure botata eitte san, da ori be axe da. Emen orie geidxau esate san. 2. Masa de harina de maíz y agua que se da a las gallinas. || Ori arturunas eitteu emen. Arturunas da olan txitxe txikitxu dekosenari ba emote tzeu. || Ori txitxari eitte dxake arto

urunas. *Len eitte gentzen, baya oiñ estetzegu eitten, oiñ esta lengo modun artorik artzen-da.* || *Orie: oiñ axe esta eitten, errotara be eskara juten. Da arturunas eitten dxake olluri emote dxaken ori, arturunas, olan denpora otza daunin-da, negu partin-da, ba epel-berotxuas ori ein, de emote dxake, beru artu deidxen.* || *Len e negun-de olluk otzittu esteidxen, da beru eon deidxen, ur berotxuas einde, ori botate gentzen, aringarín jate ben-da. Oiñ ein bes!* **3.** Masa que se formaba cuando se calentaban las piedras del molino. || *Kanalak? Arnasi artu deidxen. Kanal barik itto eitte san. Arridxe berotu eitte san, da gero orie, masie eitte san.*

**oregano, oreganue.** (OREGANO) Orégano (*Origanum vulgare*). || *Oreganue bedar bateri esate dxako, a usein larritxu eukitten dabenari, tte batzuk e murtzillari eitte tzo.*

**1 ori.** (HORI) Ese. || *Ori etzie erosten netorrek.* || *Orregas basoyes?* || *Ori, gardostu eitten da ba esate baterako, egur bateri ba, igul, baltzen kolori emoteko, edo esetasune kentzeko, edo orretakoxe.*

☐ Elemento enfático de los vocativos. ☐ Jendea animatzeko honela esaten da: *Ori dok ori!* || *Ori dok eta ori! Ori dok eta! Olantxik! Ori dok eta!*

☐ Errieta egiteko: *Ori dok ori patxadie!* ☐ **ori berori.** Ese mismo, esa misma, eso mismo. ☐

**ori bouri.** Eso mismo. ☐ **origeittik. 1.** Por eso, - a. **2.** A pesar de eso. || *Negun gerri-gerridxen oiñ eskas (martidxen), baya negun gerri-gerridxen e gabonak eingerun, eurten esteu eiñ ain negu txarra origeittik baya.*

**2 ori, oridxe.** (HORI, beilegi) Amarillo. || *Ori antzekue da.* || *Marti sosuk piku oridxe eukitten deu.* ☐ Inor gaixorik badago, honela esaten da: *Ño, oridxe dxauk a!* || *Kolore oridxek dekos orrek.* || *Kolore oridxekin plantau da.* ☐ **ori-baltza.** Amarillo y negro. || *Da oridxe be bai. Oridxe be, ori-baltza be oten da (erubie), da oridxe..., bakarrik oridxe dana bayo, ori-baltza geidxau oten da.*

**oridxo, oridxue.** (ORIO, olio-bat.) Aceite, grasa líquida. || *Oridxu botate sus kollarakada bi edo olanik sarten baten, da eitten dosu berberanie apurtxu bet oridxotan pasau, bigundu deidxen.* || *Oridxo txipristiñak: bai, oridxuk e botate ittuniñ erretea dauniñ e txipristiñak botate ittunin, oridxo txipristiñak.* || *Oridxo txipristadak.* ☐ **oridxo ontzidxe.** Aceitera. ☐ **asa oridxue.** Potaje que se prepara añadiendo a la berza cocida ajos fritos y el

aceite con el que se han freído éstos. *Oridxo asie ere esaten da.* || *Asoridxu: ure ipiñi, uras ipiñi gatza ta oridxue, da egosi, da gero ba irakitten dabenin ba, asi bota ta egosi a be.* || *Asa oridxue: asie oridxuas ipintten dana.*

**oriska, oriskie.** (HORIXKA) Amarillento. || *Oriska egon dok.* || *Oriskie apur bat oridxe danari esaten dxako.* || *Bat suridxau eoten da, patata suridxe, barrue suridxe dekona. Baya barru oriski dekona a suridxe dekona bayo obi ixeten da.* || *Bueno, marroik-edo, egoten dire oriska antzeku pe.*

**oristu.** (HORIZTU) Amarillear; perder el color. Ik. *eskastu.* Inor gaixotu eta kolorge dagoenean esaten da. || *Oristute dau.*

**orittu.** (HORITU) Poner(se) amarillo, dorar(se), amarillear(se); palidecer. || *Frutie orittu.* || *Orittute deko kolorie.* || *Barrue orittu ein da.* || *Sagarra be eltzen doinien, igul berde-berde egon, da: "Orittu dosak".* || *Sagar umaue orittutakue da, ondo eindakue.*

**orixe.** (HORIXE) **1.** Ese, esa, eso... mismo. || *Bueno, orixe esateko egon nas.* || *Domu santu egune orrixeri eguneri esate dxako.* **2.** Por supuesto que. || *Posik etorko san a ostantzin. Oixe ettorko sana.* ☐ **orixe bai ...-na.** Eso sí que... || *Poskorra? Bai, poskorra be esaten da, da orixe bai elekena oingo umiek ser dan be, elekena asartauko.*

**orkatille, orkatillie.** (ORKATILA) Tobillo. || *Orkatillie trokatu.* || *Orkatilleko koskak.*

**orkoxe, orkoxie.** (HORKOXE) De ahí mismo. || *Da orixe Maxenekue, orixe beste kopradidxekue, Sabaletakue, orkoxie ixen san andrie.*

**orkoxeko, orkoxekue.** (HORKOXEKO) De ahí mismo. || *Orkoxeko pagu.*

**orma, ormie.** (HORMA) **1.** Pared. || *Ormara begire.* || *Orma bidxek jo.* || *Eskumakaldeko ormie okertu da ta laster jausi bi deu.* || *Gure orma sarrak sulue deko ta sarratu ein bigu, bestela axe otza sartzen da ta.* || *Onek karie ta lurre. Onek ormak. Kari eta lurre dau, aintxiñeko orma sarra.* || *Pasau itturridxe. Itturridxe bakixu nun dauen. Itturridxe pasau te leuna bat. Antxe egon san Oraindiko txaboli esate tzena. Da oin be an dau ondio, ormak-eta an das.* || *Torretxoridxek one bestik artu-eta jaten daben diabruiek. Amen ollotokidxetan-da orretan txi-txi-txi-txi de orma sulutan-da abidxak eitte ittunak di torretxoridxek.* **2.** Muro, cercado de piedras. || *Ormie ein.* ||

Munteye, len ardidxek eta basurdak, ba, jan esteidxen, ormien bueltan, arridxeekin. ☐ **orma bedarra.** Parietaria, planta que crece en los muros (*Parietaria officinalis*). || *Orma bedarra? Apurtxut liortxu dekona.* ☐ **orma idie.** Culantrillo, helecho pequeño que se cría en las paredes. *Ormidak* ere esaten da. || *Orma idie be eoten da, emen geurin be asten da, or, orman urtete daben idi lako txikitxuk ixeten dire.* || *Esate baterako, bei batek ein deu txala, da euki deu parto txarra. Da emote dxakon... orrixek, orma idak egosi, bueno, orrek idak euro payo, eurok eukitte daben sustreidxe, garbittu uretan, egosi, da axe ure egosi, ta axe ure emote gentzon beidxeri.* || *Ormetan asten danari orma bedarra esate tzeu.* ☐ **sestosko ormie.** Entramado, pared levantada a base de y tiras de madera. || *Aintxiñe eitte ei sittuen, etziri barruko partetik, esaten da se ba onek etziok, orre pes, one pes, kuartuk atarateko eitten eitte san sestuek, da sestu eitten da..., ba gastañias be eitten da, urretxias be eitten da, da ixeten dire ser esangot neuk?, onen lodierakuk, lodidxau pe bai ixeten dire ta eitte ittue, ormiri, cuarto atara bi dan lekun ormiri ipintte tzes..., ser esangot neuk?, joste ittue puntelak edo estaitt ser esate tzen, agik, age batzuk goidxe be sujetau eitten dabe, da arixe esate tze ori sertu, punteldu edo se esangot neuk?, ori sestue, da ipintten dire ortik, emendik, amendik da olantxik eta taka-taka bera bajatu, da segidxen-segidxen-segidxen sestosko ormi eitten da. Da batzuk ba surittute ba ipiñi, polittuau egon deidxen. Beste batzu pa merkiau eittigaittik-edo bape, eser be barik eñ olantxik ormi, ta arixas sestusko ormie ta listu.* || *Sestosko ormie Nabarrixen be ingo san, se neu pe ikusitte deket etze sar baten-da.*

**ormagin, ormagiñe.** (HORMAGIN) Manpostería. || *Albañelak dabis ormagiñen.* ☐ **ormagiñen.** Construyendo paredes.

**ornidu.** (HORNIDU, hornitu-bat.) **1.** Proveer, abastecer, suministrar. || *Ondo ornidute dau ori (arbolie) frutias.* || *Ondo ornidute dau diruas.* || *Txaparra da a ornidu bakue, txikidxe.* || *Kaltzadan naiku arri dau, arridxeikiñ orniduneku da.* **2.** Desarrollado, -a, crecido, -a. Ik. mutil eiñe. || *Ondo ornidute dxak mutille.* || *Agiñek ondiño orniduten dekos.* || *Agiñek ornidute dekos.* ☐ Emakume bulartsuei buruz honela esaten dute batzuek: || *Paparra ornidute dxak ori!* ☐ **jokue ornidu.** Depositar el dinero que se juega a las

cartas. Frai Bartolomeren *Idazlan Guztiak* liburuko 432. orrialdean esaldi hau aurkitzen da: "Jococo ornidute, edo tantu bacochoian errial bat baino gueijaco jocatutia, eragotzita dago Espainaco legueetan aberatseentzat ta guztientzat". || *Joko bat orniduti da nik e suri jokatuko deutzut, da ba joku ornidu dirue depositu ipiñi bi da, jokorako.* || *Jokue ornidu? Joku ipintten dabenien, alderdi bidxetakuk ba bateri emote tze diru, ornidu. Are bestik gorde eitten deu a diru joku eiñ arte, seiñek irabasten daben berari emoteko. Joku ornidu oixe.*

**orpo, orpue.** (ORPO, aztal) Talón. || *Orpopien.* || *Orpotik ariñau sulote sirin, da orreri sulote siriñien ipintte dxaken beste abarka sar baten sopittie.* ☐ **orpori pakue.** Zapatillas o calzado que tiene libre la parte del talón. || *Orpori pakuk: atzerik estekenak, sartzekuk.*

**orraittio.** (HORRATIO, horratik-bat., halere) A pesar de todo, con todo, sin embargo, aun así. || *Orraittio ein deu!*

**orrantz.** (HORRANTZ) Hacia ahí. || *Orrantz begire plantau gure bosu, bardin doste.*

**orrasidxe.** (ORRAZI) **1.** Peine. || *Buruen eukitten dabena, umik jeneral eukitten dabe olan kaspatxu lakue, da ori da sabeloidxe. Ori kentzeko, ba ser esangot neuk?, baseliñi-edo emote dxako buruen. Kajatxuk ote siren antxiñe. Da sabaloidxek gorantz urteten deu, artzaldiñ-edo, urrengo eguniñ-edo, orrasidxas gorantz-gorantz eitten deu, da orrasidxek kendu eitten deu.* **2.** Cuñas del carro. || *Orrasidxek eta siridxek erute ittu an burtardatzari eltzeko. An juten dire, burkanan eukitte ittu sulo bi, da an sartze dxako egurre.* || *Orrasidxe trabes doin burtartzari sartzen dxako.* || *Burdidxen kajie, axe kajie, ta gero arexe darois orrasidxek. Orrasidxek darois de gero estutu. Txistu, txistu bakixu selan joten daun burdidxek? Estosu entzun? Bai, txirriñek, arriuas aintxiñe, beidxek txiliñakin-de. Da arek, a orrasidxe edo a burtartzin senbat estu ipinttosun, ba txirriñe geidxau deu arek.* || *A satzetakue iste sendun kortan edo tejamanan, da inkete sentzon bestie, da gero a antxe burtartzin sartze san, da gero eitte sendun orrasidxeikin-de estutu, da gero taketak, da beidxentzat listu ote san a.* || *Orrasidxek? Arek e... Burterillie? Burpille esate tze askok, burterille bestik, erregurak... Arek goitti bera doixenak di burteresak. Da astue an trabes dabixenak, an beti gora... Arek kargete diñak ardatzari, burdi*

ardatzari. *Ta estutu, da nasaittu eitte sus are sididxeekin.* □ **orras estue.** Peine con púa por los dos lados. || *Orrasi estue: orrek ortzak sarratu-sarratu eukitte situsen, alderdi bidxetatik.* || *Orrasi estue: aintxiñe sorrIDXek eitteko atrapau. Ixete san ortzak xi-xi-xi-xi-xitzu, sorrIDXek eitteko, orras estue.*

**orraskera, orraskerie.** (ORRAZKERA) Peinado, manera de peinarse. || *Selako orraskerie euki deu!*

**orraspuru, orraspurue.** (ORRAZPURU, orratz buru) Cabeza del alfiler. || *Orraspuru suridxe.*

**orrastoki, orrastokidxe.** (ORRAZTOKI) Alfiletero.

**orrastu.** (ORRAZTU) Peinarse. || *Orrastu seittes! || Orrastu eingo nas! || Ule txarto orrastute-edo, da "Orrek dxekok ulekerie!". || Ule saporie? Bai, orrastu bari dekona. || Orrastute daunari etxako esaten saporie, saskille dekonari bayo.* □

**orrastu bet emon.** Dar una peinada. || *Orrastu bet emoidxosu orreri!*

**orratz, orratza.** (ORRATZ) Aguja. || *Orratzen burue.* □ **orratz buru baltza.** Aguja de cabeza negra que se usa para sujetar mantillas, etc. || *Orratz buru suridxe auxe da, burutxu dekona. Onixen antzeku ixeten da buru baltz-baltza, one payo eundidxau eukitten deu, buru baltz-baltza eukitten dabena. Len, oin barik, len ibilte san asko, mantillak elixara erute gendusenin, burun mantilli koloketako, paparri be koloketako. || Orratz buru baltzak burutxue biribil-biribille eukitten dabe. || (Zertarako?) Orratz buru baltza, ba, esate baterako, arantzak atarateko-ta. Len orratzas beti arantzie atarate san ba.* □ **orratz buru suridxe.** Aguja de cabeza blanca. || *Orratz buru suridxe: arek orratzak burutxu bet bouko ba, ba josteko estire, arek saltzeko dire olan, txikitxuk.*

**orraxe.** (HORRAXE) Ahí mismo. || *Orraxe jute siren len leixibi joten.*

**orrelako, orrelakue.** (HORRELAKO) Como ese (esa...), tal (como ese, esa...), parecido a eso (esa). Ik. *olakue.*

**orrenbeste.** (HORRENBESTE) Tanto(s), tanta(s). Ik. *ainbeste, onenbeste.* || *Enaben pentzetan orrenbeste diru eukiko sendunik. || Koño, orrenbeste estakixue la?, Orrenbesteko serik? || Len esan orrenbeste legerik. || Orrenbeste estok ixengo.*

**orrenbesteko.** (HORRENBESTEKO) Tan. || *Bai sube baltza be oten da, da baltza nik estakitt*

*orrenbesteko benenosu bada, gorridxe moduko benenosu bada.*

**orrenbesteraíño, orrenbestiño.** (HORRENBESTERAINO) Tan. Ik. *ainbesteraíño. || Orrenbestiño ondo.*

**orretara.** (HORRETARA) Así, de esa manera. || *Orretara ipiñi! || Ori estok orretara.*

**orri, orridxe.** (ORRI) 1. Hoja. || *Matz orridxe. || Naborridxe. || Lasto orridxe. || Orridxe jeusi. || Pago orridxe batzeko be gardastias eitte ben. || Orris jasten daus arbolak. || Orridxe urteten das. || Orridxe berdatzen asitte dau. || Da udan atxan orridxe be emote tzen ganaduri batzuk. Da paguna be bai. Siketi daunin-de.* 2. Hoja de papel. || *Elixik eskatu eitte tzen danari ya komuniñu einde dasenari ia se dotriñe dakidxen edo ba eitte tzen, da axe txartela. Da emote ban... olako orritxu bat emote ban: txartela.*

**orrittu.** (ORRITU) Cubrirse de hojas. || *Orrittu da ori be. || Orrittutie? Estaipa. Len e artiri eitte dxakosan e adarrak eta axekiñ eitte san beidxeri emoteko, ganetik, galtzun ordes.*

**orritze, orritzie.** (ORRITZA) Fronda, conjunto de hojas que forman espesura.

**orritzu, orritzue.** (ORRITSU) Frondoso, hojoso. || *Orritzue? Orri asko eukitti arbolik. Bedarra pe bai. Bedarra be iguel orri gitxias badau, e "Orriri pe etxak osue". Da besti an ainbeste orrias-da ori badau, "Orritzu dxak a!". || Arbol ori orritzu da. || Da orrek ipiskidxe gixetzas eitten dire. Orri txiki-txikitxuas asten da, orritzu, orritzu, dana orridxes beterik egoten da, da ixeten da goxatzue. || Orri sabala eukitten dabe (errebedarrak), olanik, da orritzu ixeten da, orri gorriskak eukitte ittu.*

**orro, orrue.** (ORRO) Grito, alarido, berrido. *Orrue gutxi esaten da, Nabarnizen orroye delako sarien entzuten dena. || Gixon bate pe sata eundidxe mendin baten eitten badeu: ño, fulanok orru galanta ein dxok. || Orrek eitte ittu orruiek. || Orrue ein deu.*

**orroye.** (ORRO) Berrido, grito; estruendo. Ik. *murruntze. || Olan sarata bau aundidxe eitten danin: orrek ein deu orroye! || Orroye: barku batek joten daben serari. || Barkuek jo dxok orroye! || Orroye ein deu. || Orrek eitte ittus orroyek!*

**orruke, orruka.** (ORROKA) Haciendo ruido, bramando. || *Orruka dau. || Barkuek orroka sak. || Orruka dxabik.*

**orrulari, orrularidxe, orrolaridxe.** (ORROLARI) Bramador, -a; mugidor, -a; aullador, -a. Animaliekin nahiz lagunekin erabiltzen da. Ik. *sarataridxe*. || *Orrularidxe sarataridxe da*. || *Sarataka deuna orrularidxe da*. || *Gixona be sarataka beti badabil: "Orrolari'dxok ori be!"*

**orrutz.** (HORRUNTZ, horrantz-bat.) Hacia ahí. || *Orrutz doi*.

**orsdun, orsdune.** (HORZDUN, horztun-bat.) Dotado de púas o puntas. || *Areketarako, solu labretako. Oiñ onek tratorak dausen les, arek egote siñ ordun beidxekin labretako. Arie, ara orsdune*.

**ortan.** (HORRETAN) ☐ **ortan egon.** Pensar de determinada manera. || *Ortan es egon!*

**ortosik.** (ORTOZIK) Descalzo, -a. Ik. *oiñutzik, kaltutzik*. || *Ortosik geratu*. || *Ortosik dau*. || *Ortosik juen nintzen Urkiolara promesa beteteko*. || *Beren albun semie ortosik eruala*.

**ortostu.** (ORTOZTU, oinustu) Descalzar(se). || *Ortostute dau*.

**ortu, ortue.** (ORTU, baratze) Huerto. || *Ortuko geusie*. || *Ortuko biarra eitten dabil*. || *Baya norberak jatekuk badas (erremolatxak), orrek esan dotenak, orrek gorritxuk ondo gorritxu dekenak, orrek ortun eraitten dire*. ☐ **ortu atxurre.** Azada de dos dientes para trabajar en la huerta. || *Atxurkula pe ortu atxurre esate tze*. ☐

**ortuko geusie.** Hortaliza, legumbre. || *Inderkatu: esate baterako, ser esangot neuk?, ortun eraitten da baiñak nai asak nai ba porruk nai ortuko geusie, da indarrik siketetan-da ure bota biar ixate dxake, baya ure bota esik-eta inderkatu eitten dire, indarra galdu eitten dabe*.

**ortuari, ortuaridxe, ortukaridxe, ortoaridxe.** (ORTUARI, barazki) Hortaliza, legumbre. *Ortuko geusie ere esaten zaio*. || *Kare bixidxe ona da ortuaridxentzako*. || *Da satz seye. Ortutarakota ba, solorako bayo geidxau ortutarako, ortuaridxentzako gasteta san*.

**ortulau, ortulaue.** (ORTULAU, baratzezain) Hortelano, -a. || *Ortulaue emen es, ortan bai. "Ortulau dok a", da ba ortu bakarrik dabilena da ori. Len kridxeu jute siriñin, ni enas sekule jun, baya amen baserridxetatik mutillek jute siriñ orra kalitara, arako ortu barridxu, da ortulau*. || *Ortulaue, bai, ortulaue ibiltten da, baya emen erridxen, emen estau ibiltten ortulaue. Ortulaue ibiltten dabe, neuk esango dot, ser esangot?,*

*olanik txaleta dekonak, da ortu dekonak, edo ortulaue ba, amengo ortuku bayo elegantiaue*.

**ortusantu, ortusantue.** (ORTUSANTU, hilerri) Cementerio. Etxerik gehienetan *kanpasantue* entzun dut; Intxaurraga baserrian, berriz, *ortusantue* aipatu zidaten. || *Enterrau te bidxamoniñ-edo ortusantun emote ben mesi*.

**ortxe-ortxe.** (HORTXE-HORTXE) Voz que se usa para azuzar al perro. Ik. *esarri*.

**ortz, ortza.** (HORTZ) Punta, púa (por ejemplo, de la horca). || *Lauortza gitxi useten da, ortza pe oker-okerrak dekos, alkarren kontra*. || *Gardak ixeten dire: orstxuk eukitte ittue, ba ser esangot neuk?, burdiñeskuk-edo, untzi lakuk, me-meyek*. || *Arie ixeten da, ortz utzek dekosen, esate baterako, lau kuadro antzeko eurrera estutxuaue, da arie ixaten da, ortzakin dauna, ortzak-ortzak, eta aspiko ortzak noixipeiñin ba kendu, te sorrostu eitte dxakosan, sorrotzak egon deidxen*. || *Antxe olan dekosen subilletan ortzak sartu bi dxakos. Ortzak errementaridxek ipintte tzos*. ☐

**ortz bikue.** Azada de dos o más puntas, bidente. Dena dela, Nabarnizen *atxurkulie* esaten da sarriago. || *Ortz bikue esate tze batzuk, beste batzuk esate tze laidxatxurre; guk atxurkulie esate tzeu, ortz bikue. Urkulie da les, olan biribille, ortz bias. Ori be len onek soluk-eta goldatu-te eitte sirin, da areas pikeu eitte san. Egaliñ atxurren be aretxas*. || *Pikau? Satittu a soidxe. Goldiek soi osue ataten deu, da gero garidxe ereitteko, a pikeu eitte san, satittu, pikeu atxurkulias. Ortz bikue esate tze batzuk areri be, guk guk e betik atxurkulie*.

**osaba, osabie.** (OSABA) Tío.

**osagille, osagillie.** (OSAGILE) Médico. Berba hau baino gehiago *medikue* erabiltzen da. || *Jeneral mediku geidxau useteue, oinguk osagillie be esaten dabe. Baya ori gitxi esaten da. Origeittik osagillie emen bayo geidxau esaten da erri eundixetan, esate baterako, Gerniken, medikue bayo osagillie gastiek geidxau ibiltten dabe*.

**osala, osalie.** (OZALA) 1. Bazofia, comida para cerdos, engordadero. || *Txarrixdei jaten emoteko osalie eitten da*. || *Oiñ osalie, ba, esta usetan, gitxi. Oiñ ostantzien emote tze ba pentzue. Ba len eitte san urunas, saidxas, da osalie; nabue-eta egosi, erremolatxi-te, da danak osalatu*. || *Osali da egosiñeku geusie, ba, ipiñi baldien, da arturune bota, edo garagarrurune bota, da osalature emon, nastaute emon*. || *Osali aixe esate dxakon, arturune, edo garagarrurune-edo bota naburi, edo erremolatxiri, da nastau ipiñi,*



da osalie esate dxakon. **2.** Revuelto que se prepara dar a las vacas, por ejemplo, cuando tienen mucha leche, o cuando están débiles, etc; o también templado a las gallinas en días de mucho frío. || *Olluek garaune jaten deu jeneralin. Da otz eitte dabenien, olan negu te eurre, ta denpora otzak eitte dabenien emote dxako osalie arto urunas, da berotxue emote dxakon. Ori ain bigune-ta barik, naiku siku emote dxakon olluri.* || *Beidxeri be emote dxaken, esne geidxau emon deidxen, jaten estaben beidxek igul seoser ondoesa-edo badeko, baya ostantzien beidxeri osalie es. Bueno bai, loditzen daunari tte olanik loditzeko ariñeu-te emote dxaken.* || *Beidxeri be pulpas-da, saidxas-da einde, osalie, osali da. Osali ixen badeuko, bai ganaduri nai txarridxeri emon.* || *Galtzu botate dxako osaliri, soltie, gero dijestiñoyen plantau deidxen. Galtzue. Galtzo birriñek, galtzu botaten badetzesu ba, gero besti, osali bera, masi da les, dijestiño laguntzeko.* **3.** Potaje, comida (figuradamente). || *Len osali bakixu seri esate gentzon? Txarridxeri emote dxakonari, Areri osali esate dxako. Da igul e kosiñan be igul eitte ittue or e... Txoko batera da "Ik ein dok osalie ik?".* || *Au da osalie?*

**osalatu.** (OZALATU) Embarrar(se), ensuciar(se), manchar(se). Ik. *basatu.* ☐ *Esate baterako, ganadua lohi dagoenean: || Dana osalatute dxak.*

**osasan, osasune.** (OSASUN) Salud. || *Osasun makalekue.* || *Makala da, osasun gitxikue.* || *Osasun alderdittik txarto dabil.* ☐ **osasan bedarra.** Menta. || *Len egon san geurin be. Oiñ e deseinde dau kontixu baya. Osasun bedarra olan useintxue, olan usein gosotxu eukitten deu.* || *Osasun bedarra badau, geurin be pillu egon san, da oin be sartute deket adartxu bat, ekarritte deket eta. Ori ixaten da..., orrek lorarik estau asten, orrek eukitten deu useiñe goxuau. Menta antzeku da.* || *Osasun bedarrak estau lorarik-eta asten, beres ixeten da... ba osasun bedarra olanik e gosatzu edo se esangot ixeten dala.* || *Menta bedarra da osasun bedarra antzeku tire. Estire bat baya. Bata da menta bedarra eta besti osasun bedarra.* || *Bidxek ibiltten dire. Batzuk naidxau izaten dabe osasun bedarra, da beste batzuk... da menta bedarra kontixu alkarren antzeku tis.* || *Osasun bedarrak useiñ itzela botaten deu. Lori esta. Bronku da. Arek estot pentzan lorarik ataten dabenik. Baya usein bet! Usein bet atate dxok! Da osasun bedarra esate tzeu. Ori e atzamarrin*

*kortadi-tte einde be, ipiñi eitte ben, seinda kipuli moduen, txarrikeridxe atateko.*

**osasungarri,** **osasungarridxe.** (OSASUNGARRI) Saludable, sano, -a.

**osasuntzu,** **osasuntzue.** (OSASUNTSU) Saludable. || *Osasuntzue estok.* || *Osasuntzu: geixorik sekule artu baku-edo: "Dios, ori gixona osasuntzu dok!"*

**osatu.** (OSATU) Curar(se). Ik. *kureu, sanie.* || *Gatxa osatu barik geldittu dxako.* || *Osatu dok.* || *Osatzera dxoyek.* || *Solittu eitten da a errenekue, da materittu be eitten da, da materidxe atara bi ixate dxako osatzeko.* || *Asurre pe bai. Bai, nik auxe ausi ñaben da ondiñokogarren estaitt osatute daun e, estaitx, trakadarik ein barik e euki ñaben e apurtute. Anbulatoridxora jun biar iza naben da antxe konpondu eusten.* || *Utzarriñe da (beidxen) erropie gogortutie. Otzak-edo eitten dabena da, erropan esnie gogortu. Utzarriñe axe da. Erropi gogortu. Uras, uras... Urek osatzen deu. Uras jo erropie. Gogor jo, gogor jo, da berotu. Ur otzas. Da ak eitte tzo, jo ta jo ta jo, golpeka, erropie gorrittu eitte dxako, da onantxi. Gero jatzi bi ixaten da, murgildute eukitten deu esnie ta. Utzarriñe esate dxako.*

**osbera, osberie.** (HOZBERA) Friolero, -a, muy sensible al frío. || *Osberie: Otz daunin, edo otz sentiduten danin: "Osbera dau".*

**osbero, osberue.** (HOZBERO) Templado, -a. || *Osberue ipiñi: erdis-erdikue, otza es berue. Berue, ta bidxek nastaute, ba osberue. Iguel itturridxe edo dana berue, edo dana otza barik, es berue, ya tenplan ipiñi. (Ur epela ya ixeten da, jeneralien, berotzen edo deuna.* || *Osberue: ba, iguel, denporie otza daunin, ba otza, baya euskidxek berotzen dabenin, osberue, otza ta berue.*

**oseru, oserue, oge serue.** (OHE ZERU) Dosel, cielo de la cama. || *Oge seru: oyen parien telie ipintte san goittik eutze jeusi esteidxen. Esate geuntzon oseru.* || *Oserue ba esaten da. Oingo umik estaipa badakidxen ser dan oserue. Oserue len esaten san, oye, lo eitten dan kuartun, edo gelan oyen pariñ egote san, ba, ixeriñ antzeko bat, bai, eote san, goiko apurreridxarik etorri esteidxen nobera daun lekure oserue egote san, egaletatik inkeute, da arixeru esate dxakon oserue. Oiñ oserurik estau eukitten.*

**osin, osiñe.** (OSIN) Pozo, fosa. || *Osiñe posu bata, ure eukitten dabena.* || *Osiñe da aska bat, aska bat, edo aski espada, posu bat, ure dekona bertan,*

da arixerri esate dxako osiñe. || Osiñe: ganaduk edateko, siketi daunin. Ostantziñ emen etziñ eukitte gendun, baya ba siketi dauniñ erute gendusen araxe; Osiñe deko ixena berak parajiek.

|| Guk e osiñe..., oiñ ure galdu eitten deu, eskapau eitte tzo ta, baya osiñe esate gentzona, or goidxen e, emendik e ba ordurik-eta estau, baya mendidxen goitti bera datorren ura artze ban, da aska itzela euki gendun einde, da an udan-da olan e erropak negun be bai, da oyetako erropak-eta dasenin-de ba araxe jute giñin. Da oiñ e aski be apurtu ben.

□ Recipiente. || Osiñe pentzate dot ixete sala eperdi sabala, olan punte estue, ori katxarrue. Oiñ esta ikusten.

**oskil, oskille.** (OSKIL) Albototador, -a. || Oskille: onan erristan dabixen umiri esate dxake: "Oskill alakuok!" || Oskille fundamentu asko estekonari esate dxako. □ Berba hau batik bat umeei esaten zitzaiea entzun nuen batean, baina beste berri-emaile batek ondorengo adibidean esan zidan bezala nagusiekin era erabiltzen da: || Bai, errixtan dabixenin be bai esate dxake: "Oskillek alakuok!", alkar joten dabixenin be, esate dxake bai. Baya ostantziñ oskille nausidxeri be esate dxake, fundamentu gitxiku-edo.

**oskirri, oskirridxe.** (HOZKIRRI) Escalofrío, tiritón. || Noberari pasaten dxakoniñ oskirridxe esaten da.

**oskol, oskola.** (OSKOL) Cáscara, corteza, cascarón. || Arrautz oskoletik urten deu. || Bai, mintze ixeten da a bigun-bigune ataten dabena. Oskolik estekonari mintzes, mintzes jaidxoten da, da ba mintze dekon arrautzi. || Babak eukitten dabe atziñ a, se esangot neuk? Kentze dxakena egosteko, atzien eukitten ddabe alako oskoltxu lako bat.

**osmin, osmiñe.** (HOZMIN) Frío penetrante, muy agudo. || Osmiñe dau.

**oso, osue.** (OSO) **1.** Todo, -a, entero, -a, completo, -a. || Osuen emoistek ori! **2.** Integro, -a, sin doblez, sincero, -a. Ik. *erdikidxe.* || *Erdikidxe: osu estan personie. Osu estana, gusurrek-eta olan esaten dittusena-ta: "Ori erdikidxe da!"* □ **oso-osuen. 1.** Sin malicia. || *Oso-osuen ein dxok, olako pentzamentu txarri parik. Nik au erlojue an istot, ta jausi, te apurtu eitten da: "Kaguen, oso-osuen itxi dxok, ondo eittekun-de".* || *Oso-osun esan deu.* || *Oso-osun etor san bera. 2.* Completamente, de golpe. || *Oso-osuen jausi de.*

□ **osuen.** Totalmente, completamente. || *Losorru*

*ixeten da an lo-lo daunien, eta ba saratias, osuen lo, edo goxo daunien esate dxako, "Lo-lo dau", losorrun.*

**osoko, osokue.** (OSOKO) Integro, -a, sin malicia.

|| *Osoku da dana siñistuten deuna. Dana siñistu. Nik esate tze edoser gusurre, ta eske "Oso-osoku ok ori!". Malixirik estekona.* || *Oso-osokue malixidxeri pakuri esate dxako: "Ori oso-osoku dok".*

**osorik.** (OSORIK) Entero, -a, completo, -a, integro, -a; integramente, completamente, enteramente. || *Ak biarbada eukiko ittus berreun urte. Ondiño osorik dau gero!* || *Da etziñ iltte sanin txala, orreri eitte dxakon burue oso-osorik lapiku baten edo galdaran sartun, egosi de dana okela jan berton, buruko okelie.* || *Erregiñeti da, nik esango neke dala, erregiñeti osorik esati da, ta arreiñetie ba berba bat, edo beste falta dabena da.* || *Astilli da apurtuten dan satidxe, an osorik deuna es, nahi tte txikidxe ixen.* || *Sentzunek oso-osorik dekos.*

**osotu.** (OSOTU, osatu-bat.) Completar. || *Osotu: inkeute ipiñi eskero.*

**ospa.** (OSPA) Fuera, largo de ahí. Ik. *alde ein.* □ **ospa ein.** Irse, largarse, pirarselas. || *Ospa ein deu.*

**ospakixun, ospakixune.** (OSPAKIZUN) Celebración, conmemoración. Gaur egun, *selebrasiño* ere esaten da.

**ospatu.** (OSPATU) Celebrar, conmemorar, festejar. Gaur egun *selebrau* esaten da gehiago. || *Selebrau be bai, ospatu bayo, oin selebrau geidxau esango da kontixu, euskerie nauku berbak, asko galdute dau. Baya bai, lengo sarra pe esate ben ospatu.* || *Ospatu: jaidxe eitten danin.*

**ospittal, ospittala.** (OSPITAL, ospitale-bat.) Hospital. || *Mikel ospittalera erun dabe.* || *Len argala! Oin be argala dau, baya len olakotxi egon san or ospittaliñ egonda etor sanin. Total jota! Bai, mejorau ein da, bai.* □ **Ospittala.** Cierta casa de Elexalde para retiro de los mayores del pueblo. || *Nabarrixen Ospittala ixena dekon etzie badau oin be, mutilsar bat antxe dau oin be.* || *Aintxiñeko denporetan esate ben sarrak, pobre asko san eta orduen erriko sarren batzarrien akordeu eben, se antza sarrak eitte besen batzarrak. Emengo pobriek beste erri batzutara limosna bille es jueteko, aste batien limosnie batze ben erridxen alderdi batetik eta beste astien bestetik.* || *Ospittala Elixaldien dau. Plasie,*

*pelotan eitten daben lekun de, antxe kamiñun urritxun, antxe bertan dau Ospittala.*

**osta.** (OSTERA) De nuevo. ☐ **osta atzera barridxen.** De nuevo, otra vez. || *Otzaldidxe esaten da: igul, persona batzuk amastadie euki, da bape gero igul alkarreas ibilli es, da osta atzera barridxen asi: "Otzaldidxe euki dabe, baya oin badabis, aiskidetu dire."* ☐ **osta be.** De nuevo. || *Urrengun osta be.* || *Osta be euridxe abidxeu deu.* || *Ka, barridxen barres osta be ein dxok au, biar au!* || *Da gero urrengo doiñien ostabe, markatxu eitten deu, da artue botaten da araxe markatxure. Da urrengo datorrenak osta be tapau eitten deu.* || *Txondorra apurkan-apurkan atara biar ixate san. Dana batera barik, bueltan-bueltan kendu ta gero bota osta be iduridxe. Iduridxe esate dxakon ganeko areri eutzeri. Iduridxa. Da bota, da osta be, bidxamoniñ osta be beste apur bet.* || *Urtik asko ak. Arek eukiko ittus larogetasortzi-amar urte. Bai. Da makalaldidxe be euki ban atzera. Da oiñ osta be martxi dabil.* ☐ **osta be barridxen.** De nuevo.

**ostantzeko.** (OSTERANTZEKO) El resto, lo demás. || *Ostantzeko serak.* || *Geuse ostantzeku.* || *Len bat iltzen basan be, ba onenbeste denporan erun eitte san lutue. Edo pentzeu e, len selakuk eitte sirin: ostantzeko erropakin basaus be, or argitzue bada, olako lekuen traputxu bet ipintte, en jeneral illune.* || *Erreñona suridxe da e! Suridxek daus klasik, suridxek daus erreñona, da ostantzekue, suri normala.* || *Erreñona be badau. Ostantzeko txikidxe badau, eundidxe be badau. Ba ainbeste klase das indarrak.* || *Gari lorie? Ba, gari lorie, estai selan esango tzut. Garidxe, garaune ein bi dabenien, seinde ostantzeko fruta lantxik, lora..., lori eukitten dau, loratxu lakue. Axe gari lorie.* || *Da ba asurre ba karnaseridxara jutun danin be igul "Une dekona ekarrixu!" edo "Une dekona estot gure ta ostantzeku ekarrixu!"*.

**ostantzien.** (OSTERANTZEAN) 1. Por lo demás, por otra parte, sino, de no ser así. || *Gure denporan asi siriñ iketza eitten mukurras. Ostantzin dana adakidxe sartzen du.* || *Labaiñie? Olan sorrotzak dire. Arekin jakiñ ein bi da kentzen, ostantzian ebei eingo leuke.* || *Eskerrak etorri dalako, ostantziñ ia sek pasau bi ban!* || *Grasidxak a etorri dxakon, ostantzin!* || *Arek ogeidu ein tzek eta, ostantzin badxuan an gerri!* || *Ogeidu ein tzek, ostantzian drogie eon dok.* ||

*Beyen estekot, ostantziñ erakutziko neuskixu selaku dan.* || *Posik etorko san a ostantzin. Oixe ettorko sana.* 2. De otra manera, en cualquier otra manera. || *Suten es, osterantzien.*

**ostasun, ostasune.** (HOZTASUN) 1. Frialdad. || *Ostasune deket.* 2. Enfriamiento, frialdad (de las relaciones), desafecto. || *Persona pe deke ostasune, alkarreas ibilli esta.*

**ostatu, ostatue.** (OSTATU) Hostal, posada. || *Ostatu da lo eitteko lekue.* ☐ **ostatu emon.** Hospedar, alojar, dar posada. || *Ostatue ain lekun emoste.*

**oste, ostie.** (OSTE) 1. Parte trasera, dorso, parte posterior. || *Ate ostien eskuteu.* || *Eberdi ostetxuen.* 2. Secuela. || *Gero olaku isten dau naparridxe ostie, edo leprie edo soser, jeneralien. Gure amak euki ban pasaute ori naparridxe ta matrallak danak pikorrak, denpora gustiko.* ☐ **osterik oste.** A escondidas, ocultamente. || *Osterik oste ibilli dire.* ☐ **ostien.**

1. A continuación, después, tras. Ik. *ondorik, ondun.* || *Jan ostien.* || *Gerra ostien jente asko ibilli sen galdute mendidxen.* || *Francon denporan da ostien be, kleruek indar andidxe euki ban.* || *Mesi emoten da, ta mesa ostien dantzak-eta.* || *Len dotriñara jun ein biar ixate san, domeka artzaldetan beti, eberdi ostien.* 2. Pero, mas, sin embargo. || *Orrek danak kontuk dire ostin, sorgiñek egote siña ta au selako sorgiñek...* ☐ **lo ostie.** Despertar, humor al despertarse. Ik. *altzaukerie.* || *Lo ostie? Ba siestatik altzeu te iguel grrre-gragh!, "Lo osti dxeket"-ta Loguretik kendu esin deuna. Lotatik altzau, da ba altzaukera txarra igul eukitten deu, ba "Lo osti dxekok orrek".* || *Lo ostie? Lo eindakun akordeten dan sasoi edo estaipa nik. Umiri be esate dxake "Lo osti txarra deke".* || *Batzuk umore txarra igul eukitten dabe lo ostin da ba "Lo oste txarra deko".*

1 **ostera, osterie.** (OSTERA, txango) Vuelta. || *Osterie da: olan leku batera jun, de etorri eittie. Esan gurot pa, etze batera nai bajo batera jutun bada: "Ein dot osteri." Bueltie emotekotan, ba buelta bat emon deu, bueltie olan pasiun nei olan. Baya baso batera, nai jun da etorri, nai etze batera, nai edonora, ba ordun "Osterie ein deu".* || *Eitte gendun Gernikera osteri illin baten.* || *Jornadi da burdidxe kargeten dabe bedarras, jornada bedarra. Edo jornada aspiarridxe. Osterie, bijie.*

**2 ostera.** (OSTERA, aldiz, aitzitik) Al contrario, en cambio, pero. || *Bestie, ostera, ara jun dok. || Ganaduk eitten daben erridxetiri murrue esate dxako. Ostera gixonak, edo personak eitten daben erridxetiri "Burrue ein dabe".*

**ostikada, ostikadie.** (OSTIKADA) Patada, coz, puntapie. || *Ostikadak bota. || Emon ostikada bat! || Personik ainkias joten badau: ostikadi.*

**ostikalari, ostikalaridxe, ostikularidxe.** (OSTIKOLARI) Pateador, -a, coceador, -a. || *Asto ostikolaridxe.*

**ostiko, ostikue.** (OSTIKO) Patada, puntapie, coz. || *Ostikue emon. || Ostikos jota bota dabe.*

**ostikoka.** (OSTIKOKA) A patadas, a coces, a puntapies. || *Ostikoka bota. || Ostikoka ein deu. || Ostikoka ein tzo. || Txala ein bi dabenin, ya asten diriniñ ostikoka les, geldik egon esiñik les: "Beidxe sentidute dau".*

**ostikopeko, ostikopekue.** (OSTIKOPEKO) Insignificante, de poco valor, despreciable. Ik. ankapekue. || *Ostikopie: moskolie esate batera. Moskolie, ba, maxa. Ostikopekue esaten da ba seinde persona max bateri, edo olako bateri: "Ori ostikopekue bayo estok!". Seinde ya fama txarreko ori. || Ostikopeku? Beyen ganin daun geusa bat-edo ixen biko deu. || Ostikopekue geuse maxari be esate dxako ta. Maxari, esan gutena, seinde tatarres dabillen geuse bat. Menosa esati laku da ori. "Ori ostikopeko garbidx-ok!". || Ostikopekue da ankapekue. Eskastzat, eskastzat.*

**ostikopien.** (OSTIKOPEAN, oinpean, hankapean) Pisoteando, pateando. || *Ostikopien: ainka aspidxen seoser sapaltzen danin, da gausa bat ainka aspidxen ibiltten bada, ba ostikopien. || Ostikopiñ ibilli dxok. || Arri txikidxe ixeten danin ba, "Arritxu bat estrepesau dot", edo "Ostikopiñ artu dot"-edo.*

**ostostan.** (OZTA-OZTAN) Con gran dificultad, difícilmente, a duras penas, apenas. Ik. *apapun, justu-justu. || Kanpasantue egon san..., bueno neuk ostostan esautu naben neu eskolara asi netzenin, kanpasantu sarra esate tzen.*

**ostru, ostrue.** (OSTRO) Raíz. *Ostrue* berba gutxi erabiltzen da Nabarnizen, normalean *sustreidxe* edo *susterra* esaten da. || *Ostrue sustreidxe da, arbolak ondun eukitten dabena. || Ostru ona deko. || Ostrue: ori arbola baten sustreidxe ixen lei, nai landara baten..., nai... ser esangot neuk?, asa baten beye, ba ostue da. Baya emen etxako esaten ostrue, emen sustreidxe, edo susterra. || Landarik ostruk eukitte ittu.*

**ostu, osten.** (OSTU, ebatsi) Robar. || *Dirue ostu este niri. || Ori ostunekue dok. || Bótie, adarreskue. Geu pe euki gendun, da geuri ostu eskuen. || Ostu ein deust. || Beti osten ibiltten da. || Da garbittu eskuen, ostu, nun itxi san, se ein san, da kittu! Galdu. || Da gero antxe sartu, amar asunbreko garrafokada ardaue. Da es eutzon ostu! Barre eitteko esta! Da Seberinak iños esan tzon Bitorreri: "Bittor, ondiño suri soñeko txapela be ostu ingo tzue!".*

**ostu-ostuke.** (OSTU-OSTUKA) A hurtadillas, ocultamente.

**ota, otie.** (OTE) Argoma, tojo (*Ulex europaeus*). || *Ota moltzue. || Ota montoye. || Ota pillotzue dau or. || Otie dau or pranku! || Otiek siketu eitten deu lurre. || Ota aundidxe dau. || Kodañas ebateko moduku bayo eundidxau dau otie. || Dana troski dxak eta otik urtete dxok. || Otie imintte su, ota sarra (karabidxen). Da otias artzen da. Lelengo egurras, da gero otias, onenbeste denporatik onenbeste denporara, gau eta egun. □ **ota-bedarra.** Argoma y hierba que crece entre la argoma. || *Ota-bedarra? Orko mendikue. Oiñ or estau iñor, baya or eitte san otie, oti tte bedarra, batera. Oti tte bedarra ekarte gendun mendittik. Da baitte askok e aspiarridxe eitteko be. Guk geuk, emen bixi giñen da guk e idie. Baya or Ikuistan da Gabikan da orretan jute siren mendire. Orra, Galarrei bakixu nun dauen? Paltzuan, da or-ta. Orrek eitte ben kodañas ebai, da apur bet usteldu eitte saniñ e, ordun ekarte ben ota-bedarra. || Ota-bedarra useten dau... Askarako be bai. Askarako, berdi tte txikidxe badau. Da ostantziñ asko usete ben len esan dotena, aspiarridxe eitteko be bai. || Da a ota-bedarra ba asko gusturau jate dxuen a lasto santarra bayo. □ **ota karabidxe.** Horno calero a base de argoma. || *Ota karabidxe oteyas eitte san len. Oiñ egurresku pe badaus. Guk egurreskue eitte gendun, baya ori da kalerue; da bestiri karabidxak, aintxiñe eundidxek, sabalak. Areri ein biste dxakue lelungotan arridxekin kargie ipiñi, seinde laba bat eitti les, da arridxen an. Da gero betik sue ta sue ta sue ta sue, erre. Da bestik es: kalerue eitte dxako, emon sue, berotu, bota egurre, da ya beru-beru-beru einde daunin, egun baten berotzen euki, da gero eitte dxako egurre, mukurre, esate baterako, metro ta erdi-edo, bete a sulue; gero, arridxe ba meidie, ba iru-lau botzak arri, da pekatzen bada asko, ostabe, egurre ta arridxe; da erres, erres, erres, betik***

atara. *Da besti etxak ataraten, bestien ein bi deu, dana erre arte.* || *Ota karabidxak ixen siren arek eundidxek, sabalak.* || *Ota karabidxe pe, es ainbeste, baya luganetan einde. Oiñ ota karabidxa bajuau ixate sales, ak e, esate baterako, olako montor baten kontrara ein leidxen.* || *Amen berton bat ganera urran, Kurtzianetik e ona datorren e bidin. Oin be esa netzon semiri selan ota karabidxie an esautu naberen suten.* □ **ota kodañe.** Rozón, especie de guadaña tosca, corta, gruesa y ancha, que sujeta a un mango largo, sirve para rozar argoma, zarzas, etc. *Sasi kodañe ere deitzen zaio, baina izenik zabalduena ota kodañe da. Ik. bedar kodañe.* || *Ota kodañe da laburre, da bedar, ba, lusie.* || *Da sasi ebateko kodañe barik, ota kodañe; se aintxiñe oti ebate san orrekin txikidxeekin, da oin be axe daroi ixena.* □ **ota saille.** Argomal. || *A be badxak dana ota saillek, danak otak sak.* □ **ota sarra.** Argoma vieja. || *Ota sarra karabidxarako.* □ **erbi otie.** Especie de arbusto con forma de paraguas y bajo el cual se refugia la liebre.

**otabaso, otabasue.** (OTABASO) Argomal. || *Otabasue da oti asten dana, edo ota aundidxe dauna-edo, otabasue ba, ser esangot neuk?, bedar garbidxe estana, ota asko dauna. Ori baso gustidxeri esate dxako, edo eingeru gustidxeri, otie asten danari.*

**otakodañe.** (OTAKODAIN, otasega) Rozón, guadaña tosca, gruesa y ancha que se usa para cortar argoma. || *Ota kodañe: laburre, lodidxe ta sendue.*

**otalarra, otalarrie.** (OTALARRA, otalarre-bat.) Pieza en la que alterna la argoma con el pasto. || *Otalarrie be esaten da. Da otalarrie, ota utze bayo, bedarra eukitten deu nastin. Da "Otarri dau, ta ba ganaduk jateko moduku dau".*

**otaleku, otalekue.** (OTALEKU) Argomal.

**otalora, otalorie.** (OTALORA, otalorie-bat.) Flor de la argoma. || *Otalorie esaten da, otik lorie eukitten deu oridxe.*

**otalur, otalurre.** (OTALUR) || *Otalurre dau basolurren.* || *Otalurre? Otie asten dan hurre troski-edo ixeten da.*

**otatxur, otatxurre.** (OTATXUR, otaitzur) Azada de dos púas, bidente (para argomales). || *Len otatxurre ibiltte san..., oiñ ikusi be esta eitten kortan be, ekarri be esta eitten-da, nik estaitt askanengo geurin be nox egon dan. Ixeten da*

*atxurkuli lakoxie, baya atxurkulik eukitte ittu, atxurren eitteko, arek agiñek, edo ortzak eukitte ittu apur bet biribille parik, sabalkak eukitte ittu, Da otatxurrek eukitte ittu –an kortan ibiltteku ixete san– biribillek, biribil-biribil.* || *Otatxurre kortan ibiltte san, beidxen aspidxe astintzeko, edo atarateko.*

**otatza, otatzie.** (OTATZA) Argomal, tojal, abundancia de argoma. || *Otatza aundidxe dau or!* || *Otatzie da ota asko deun lekue.*

**otatzu, otatzue.** (OTATSU) Abundante en argoma. || *Otatzue: lekue, ota askok urteten deun lekue. Dana beti bedarra barik, otik urteten deun lekue: "A be leku otatzue dok".* || *Urkemendixe: gitxi produsiten dabenari-edo, otatzu danari-edo: urkemendi.*

**otoitz, otoitza.** (OTOITZ) Plegaria, oración. □ **otoitz ein.** Rezar. Elizako berba da, baina kalean erresau esan ohi da. || *Beti otoitz eitten eutzon Begoñako Ama Birjiñari.*

**1 otz, otza.** (HOTZ) 1. Frío. || *Otz aundidxe dau.* || *Denpora otza dau.* || *Otzas kikildute dxak.* || *Otzas il da. Da otz eitte dabenien, olan negu te eurre, ta denpora otzak eitte dabenien emote dxako osalie arto urunas, da berotxue emote dxakon.* || *Frailleulidxe: orre pe..., bueno, udan, bero eitten dabenien, mendixen-da ugerittu eitte dxakos ganaduri. Gero otzak asten diriñin beres eskutetan dire.* || *Bei mantie? Bueno, kortan esta ibiltten. Bai, otz aundi bat badau, lei aundidxe ta otz aundi bat badau, ba ordun ipintte dxako e txal txikidxe dekonari.* || *An posu batzu daus da aretantxe egote san. Baya oin ganera daus sikiñ egalak. Da arrankaridxeke estabe esaten ba epela bi daula? Erreka otzeidxe barik, euskidxeke joten deun e... Geidxau joten deuna, arrankaridxe geidxau egoten dala. Oiñ estaitt bape egoten dan or.* 2. Frío, -a, que no se emociona. || *Ori otza da.*

□ **otz egon.** Hacer frío. || *Abrigue esaten dxako neguen otz daunin jansten dana, ganerengo jansten dana, abrigue.* □ **otz ein.** Hacer frío. || *Udiik ein dxeskuk agur ta asi dok otz eitten.* || *Otz eitten dau.* □ **otz euki.** Tener frío. || *Da amen berton be igul otz-ero badau, esango tzu "Bota idxok tapagarri geidxau, otz dxekot eta".* □

**atzeko otzik ez pasetie.** Expresión que se dice sobre alguien que no demuestra temor o no se echa a atrás ante el trabajo duro o en duras condiciones. || *Ori da, esate baterako, euski berun be biarrin boutzo, "Arek etxok atzeko otzik pasauko!"*

Beruas-da aguntetan deula biarrin. || Bero aundidxe dau, te sois esate baterako bedar ebaten, edo labretan soluen, da ordun esaten da: "Esteu atzekotzik pasauko". || "Atzeko otzik etxok pasauko" geusa askotarako esan leike. Iguel, eguski berue, ta biarrin-da "Are pe etxok atzeko otzik pasauko!", galdias. Da beste batzuk igul e paluas ero manduri nai ori, da "Kaguen, are ba atzi ori berotu tze!", "Atzeko otzik etxok pasau!" areri be. || "Estau atzeko otzik pasauko!": esan gure deu ba, bera aundidxe dauela ta ba, "Atzeko otzik estau pasauko, es!", onetan biarra, esaten apur bet gorputze makurtute eitten dan atxurren, nai kodañas, nai edosegas da ba: "Atzeko otzik estau pasauko!"

**2 otz, otza.** (HOTS) Ruido, estruendo; sonido, son. □ **otzin-otzin.** A cada golpe, a cada ruido. || *Motor batek falleten deu iguel, da golpie emon dak-dak-dak, da "Otzin-otzin falleten dxak".* || "Otzin-otzin falleten deu": ba noisnai fallau eitten deu-edo. □ **egur otza.** Ruido o estruendo que se produce, por ejemplo, cuando se derriba un árbol. || *Sokias lotu alderdi bistatik trontziri, da (Airoko pague) arraÑe sa les, trontzie, da jan ein tzen asko, da sokakin batetik amar lagun igul, da bestetik beste ainbeste, da ondias ebei san, keye daridxola trontzian. Da gero eun lagun ingeru sokakin tireka. Aixes san, bai, astokeridxa! A egur otza! A ixen san! Geur ixen balitz, Diputasiñoi jaubetuko san.* □ **kanpa otza.** Sonido de la campana. || *Kanpa otzak dire.* □ **purruska otzin.** Riendo ruidosamente. || *Barreska dxak, purruska otzin dxabik a barreska.* || *Purruska otzin dxabik.* □ **tiro otza.** Ruido o estruendo que se produce cuando se despara un tiro.

**otzakil, otzakille.** (HOTZAKIL) Friolero, -a. || *Otzakillori!*

**otzaldi, otzaldidxe.** (HOTZALDI) **1.** Enfriamiento. **2.** Enfriamiento en las relaciones. || *Otzaldidxe esaten da: igul, persona batzuk amistadie euki, da bape gero igul alkarreas ibilli es, da osta atzera barridxen asi: "Otzaldidxe euki dabe, baya oin badabis, aiskidetu dire."*

**otzara, otzarie.** (OTZARA) Cesta de mimbre. **Ik.** bedar otzarie, kinttela, leixibe otzarie, sestue, kanpasue, kopaleta, sestillie, sestokapelie. || *Asto otzarak.* || *Otzarie nausidxe ixeten da; sestue txikidxe.* || *Da gastañakiñ eitte sittuen otzarak, oiñ estaitt eitten baittue baya, onenbeste urte biar*

*ixeten deu, lau-edo, olanik bigun egon deidxen bera. Da bera, otzarak eitteko-ta, euren gustoku, oiñ estaitt senbat urte biar ixate ittu, urte asko estau biar ixaten. Sartu, da..., aillarak, aillarak esate tzen orreri. Sartu te estaitt senbat denbora biar ixate ban, olan urte asko es, estai lau badire, bost badire, iru badire, estai senbat ta. Tamañoku eitte saniñ e setioneku-edo, bigun daula bota eitte san. Bota, da gero surittu, da atarete tzesan sumetzak, otzarari eitte dxakesan e..., inketan dxaken-da. Sumetzak sillari be bai. Onek e gastañakiñ ataraneko sumetzak. Txikidxauek, aundidxauek, otzarak-edo eitteko onenbesteko sabalak es, edo au bayo sabalauk. Da oiñ estaipa nik segas eingo ittuen baya, sumetzak.* □ Otzararen antzekoa kinttela da, baina azkeneko hori txikiagoa da. **Ik. kinttela.** || *Bueno, esango tze batzuk kinttel otzari be igul baya oneri jeneral kinttela esate dxako, da otzarie da onen doblekue edo eundidxaue.* || *Otzari esate dxako aundidxeri, da txikidxeri kinttela edo kintteltxue.*

**otzarakada, otzarakadie.** (OTZARAKADA) Cantidad que contiene un cesto. || *Olan udegonien, arto sarrak akabetan diriñien edo akabaute dasenien, alakoxe otzarakada bat edo bi, labako su ein, da ogidxek-eta atara labatik, da labi da beru egoten da ondiño, da alakoxe otzarakada bat edo otzarakada bi bota, da gero andik egun bire-edo atarate gendusen, ya labiri berotasune junde.* || *Muntoidxe len geu pe eitte genduen, gastañak on siriñ asko da geu pe gastañak batu de muntoidxe eitte gendun. Otzarakadak batu, da pillu eitte gendun.* || *Kapeleri da, esate baterako, otzarak. Otzari bakixu ser dan. Otzari bete arte, otzarakadi da, ta besti gero andik gora... baitte burdidxe, nai beste geusa bat gora eitten badxok, "Joder, kapelerias ipin dxok!". Gorakue, a sobrie. Kapeleri esate dxako areri.*

**otzatxu, otzatxue.** (OTZARATXU) Cesta pequeña de mimbre. || *Otzatxukin. Otzatxuek egote siñ ilan, otzatxuek, sesteruk eindekuek. Da arekin.*

**otzikera, otzikerie.** (HOTZIKARA) **1.** Escalofrío. **2.** Pupa, calentura, erupción en los labios. || *Otzikeriek urten deu.* || *Otzikeriakin dxabik dardaran.*

**otzittu, otzitzen.** (HOTZITU, hoztu-bat.) **1.** Enfriar(se), refrigerar(se). || *Kipurrie beres formaten da, selan otzitzen doyen, alan sertzen da.* || *Ille otzittu eitten da.* || *Ixerdidxe otzittu dxat.*

|| *Ur beru botate dxakon, da gero otzitzen sanien, ba ganaduri emote dxaken.* || *Ide bedarra emote dxake loidxe bota eraitteko, loidxe bota esiñik dasenien. Ba ostantziñ e esteutzeu emoten, baya loidxe bota esiñi dasenien, batu bedarrak eta egosi, ure otzitzen danien emote dxake.* || *Txarridxe iltten danin, beres, odola atarate dxako, ta itxi eitten da otzittu artin. Da gero otzittu te gero, ba goixin satittu eitten da.* || *Teli, esnie otzittukeran beti eitte dxako.* **2.** Refrescar, enfriarse el ambiente. || *Otzittu ein deu.* || *Otzittu ein deu denporik.* || *Denpori gordinduti da esate baterako, igul denpora ona dau da ensegidako baten mudau deu denporie, da otzittu ein deu, da orixe da denporie gordindutie.* **3.** Enfriarse, resfriarse, acatarrarse. || *Otzittu nas.* || *Otzittute nau.* **4.** Enfriarse (las relaciones), perder el entusiasmo. || *Len lagunek ixan sirin, ba ya otzittute das alkarregas.*

**otzo, otzue.** (OTSO) Lobo (*Canis lupus*). ☐ **otzo kunie.** Lobezno.

**otzune, otzunie.** (HOTZUNE) Racha de frío. || *Otzunak eitte ittu.* || *Iguel ordu bete, edo egun bat otza, da urrenguen beru eitten deunin: otzunak.*

**oyu, oyue.** (OIHU) Grito, chillido. Azentua lenengo silaban du (*óyue*).

**oyuke.** (OIHUKA) Grito, chillido. Azentua lenengo silaban du (*óyuke*). || *Emen 'oyuke', baya 'diarre's esaten da geidxau, "Diarres dau".*

### 3. P letra

**pa.** (PA) (haur.) Beso. ☐ **pa ein, emon.** Besar. || *Patxu bat emon!* || *Pa ederra emon tzo.*

**paga, pagie.** (PAGA) Paga. Ik. soldatie. || *Urteko pagie.*

**pagadi, pagadidxe.** (PAGADI) Hayedo. || *Len dana pagadidxe egon san, ta piñurik es san egon.*

**pagamentu, pagamentue.** (PAGAMENTU, pagamendu-bat.) Pago, recompensa. || *Eskatu eidxok erresibue, euk ein doan pagamentuena.* || *Sixie pagamentue ixete san.*

**pagau, pagaten, pagetan, pageten.** (PAGAU, pagatu-bat.) Pagar. || *Plasutara pagau.* || *Sorriñ artutie da pagau barik artun, gero pagetako.* || *Len laborias pagaten san.* || *Arek mille ta bosteun pagate eusten.* || *Pagau biko su ori!* || *Bixidxas pagauko su ori!* || *Pagau ste ordeskwas.* || *Errenta egune? Domu santu eguneri. Errenti len, errenti pageta ei xan domu santu egunin, edo*

*sortzi egun aurrerau edo sortzi atzerau, antxe eingerun.* || *Alboki da tratu bet-ero eiñ eskero, ba "Euk pagaukok albokie!" esate san tratu eitten bada. Ordun, tratu eiñ esiñik igul, de "Bueno, onexenbeste, da euk pagetako albokie". Se alboki len edoseri eitte dxakon olan tratu eiñ eskero. ☐*

**eskun pagau.** Pagar al contado. ☐ **eskure pagau.** Pagar al contado.

**pago, pague.** (PAGO) **1.** Haya (*Fagus Sylvatica*). || *Pago adarra.* || *Pago orbela.* || *Pago burue.* || *Paguk iñusi, ta ostabe barridxen emoten dabe adarra, andik urte batzutara.* **2.** Haya (madera). || *Atxagas be eitte san. Len iketza geu pe asko ibiltte gendun, saltzeko. Da paguas eitten da onena. Artias be eitten da, artias eitten dana ba ixeten da..., se esangot neuk?, agunte geidxau dekona, edo ba geidxau agunteta ban iketza. Da paguna be ona ixete san.* ☐ **pago baltza.** Clase de haya de madera resistente. || *Pago baltzak gidxerri geidxau.* || *Pago baltza gogorra ixen dok a!* ☐ **pago burue.** Copa del haya. || *Pago burukiñ iketza eitte san. Ba eurek bola utzekin. Arek es sin pageten ainbeste, se adarras... Adarra geidxau pagate ben asko be.* ☐ **pago eskurre.** Hayuco, bellota del haya. || *Pago eskurre: bueno, pagu pe asten deu, baya paguna esta. Artina, da atxana alkarren antzekuk dire, igul-igultzat pe bota lix, alkarren antzekuk dire baya. Paguk estittu asten alakuk. Paguk aste ittu, ser esangot?, paguna, esate baterako, bi les eitten dire, da sabaldu eitte dxako eskurre bisteratute.* ☐ **pago iñustue.** Haya desmochada. Ik. *pago motza, pago tantaidxe.* || *Iñustue a adarra ebei tte baju sabaldu eitten dasenak. An pagu badaus Mugireko etzatzen, are di pagu iñustuk. Da pagu tantaidxe das sekule mostu bakuek. 'Mostu' guk 'ebei' esate tzeu, da 'mostu' esate tze askok.* || *Lorategieta bayo apurtxu goratxuau egon san panaderidxe itzela. Da araxe erute ben egurre astillatu bier. Astilla metro bat eingeruko luserako astillie. Da paguk ein biste sin. Aretxak es sittuen gureisten. Pague. Da danak e olantxik e geidxenak eitte siren. Iñustu. Iñustu esate dxakon ba adarra mostu, suk esan dosuna. Pago motza esate tze batzuk, pago motza. Pago iñustu.* ☐ **pago motza.** Haya desmochada. *Pago iñustue gehiago esaten da. Ik. pago iñustue, pago tantaidxe.* || *Pago motzak, egurrerako.* ☐ **pago tantaidxe.** Ejemplar de haya brava, que no ha sido desmochada para hacer leña. Ik. *pago iñustue, pago motza, pago*

*tantaidxe. || Alako pagorik emen e... Berton alako tantairik ikusi be esta eitten oin. Len egon san. An Posusarreta bakixu sein dan. Antxe egon san pago tantai ederra, da bota ei ben.*

**pagu, pague.** (PAGU) Paga, recompensa. || *Ondo eiñen pague, jatostien palue.*

**paitta, paitte, paittie.** (PAITA) Pato (*paittie*). *Patue, baina, geroago eta sarriago entzuten da. || Paitta kunie. || Paittie: orrek kua-kuu eide ibiltten diriñak. || Ori ollue, paitte modun. || Ur olluek eukitten deu paitti les e ankak e se, se, se ori, esan gutena, erpa barik, sedie ori, telie.*

**paixan, paixana, faixana.** (FAISAN, *fasai-bat.*, *nauder*) Faisán (*Phaisanus colchicus*). *Faixana ere entzuten da. || Faixana da, baya paixana esanda be, aittuten da igul, pentzatot nik, baya beres faixana. || Emen paixanak txoridxei esate dxake, txori batzuei, ollo antzeko txori batzuei. || Emen esta paixanik oten. Ori itxos pariñ-edo esta ibiltten paixana?*

**paixie.** Tipo de costura con ganchillo. || *Paixie ser da, gantxillukiñ eitten dana? Aridxas da olanik e umiri edo gasteri erakuste dxakena, paixie, eskolan lelengo ikesi gendun geusie. Orixe ixate san paixie. Pir bakarrik e puntu eitten ikesteko. || Paixie? Paixi bai, gantxukiñ eitten da baya oiñ estakitt gantxillukiñ eitten bada be. Bai, nire denporan bai, ekitte san.*

**pala, palie.** (PALA) **1.** Pala (herramienta). || *Burdiñesko palie. || Palias betete san burdidxe. || Da gero solora botate ben karie, palias sabaltzen ben burdittik, danin-danin-danin. **2.** Diente de la markadora.*

**palanka, palankie.** (PALANKA) Palanca. || *Kanteran-da palankakiñ eitte san. Barrenu da sulu eitteku, da palanki da e arridxe mobittekue, suluk olan ein de ereiñ eittekue. Bidxek dekedas. || Palankie burdiñesku ixeten da, burdiñeskue, galtzerosku edo nik estaitt selaku ixaten dan. □ **palanka jokue.** Juego de la palanca. || *Palanka jokue aintxiñe eitte san, oin jentik estau olan kantzau gure. || Palanka jokue Nabarnixen eitte san, baya aintxiñe akabau san ori, len aintxiñau geidxau eitte ei xan, palanka jokuk-eta geidxau eitten ibiltte siren, baya neuk baten ikusi nabek bakarrik, palankie egon, da jaurti, seiñek urrunau jaurti.**

**palankana, palankanie.** Palangana. || *Da gero eitten da..., ure ipintte dxako aspidxen e kasulie edo palankani edo soser da urtu te artu burduntzalias edo sosegas da araxe uretara bota.*

*Gero a siketzen danien koipe opille eide gelditzen da.*

**palankari, palankaridxe.** (PALANKARI) Lanzador de palanca.

**palasidxu, palasidxue.** (PALAZIO, *jauregi*) Palacio. || *Palasidxue etze eundidxeri, edo etze elegantiri esate dxako.*

**palatu.** (PALATU) Palear, acarrear la tierra desde abajo hacia arriba. || *Lurre palatu? Palias e —a palie lurreku bakixu selaku ixeten da?— ba lurre..., barrenata artu edo palias altzau. || Palatu dabe ta goldaketan asiko dire. || Palatute deke.*

**paleta, paletie.** Instrumento para sacar las cenizas del fuego bajo. || *Palatie eskatziñ ibiltten da. Au da sueri apur bet eraitteko-edo.*

**palillu, palillue.** Palillo, mondadientes. Ik. *sotza, sostorra. || Palillue da useten dana maidxetan, baya sostorrak dire arek txikidxek, metxuk.*

**palmera, palmerie.** (PALMONDO) Palmera.

**palo, palue.** (PALU) **1.** Palo. || *Palotxue. || Paluas jo. || Artik ori palu ori! || Ori palue meye dok. || Palukiñ eitten daben dantzie ixengo da ori. || Ondo eiñen pague, jatostien palue. || Kakue da palo lusie. || Akuluri guk e punti ero gana esate tzeu. Gana. Gana bakixu ser dan. Untzie. Untzi sartze dxako olako palo bateri, da axe da gana. Da batzuk esate tze ba akulu puntie, akulu gana. **2.** Golpe, porrazo. □ **baña palue.** Palo que se coloca para que trepen por él el tallo de las vainas. || *Baña paluk e dire are paluk, bañari ipintte dxakon palo altu. || Baña paluk ixeten dire meyek eta altuk.**

**palokada, palokadie.** (PALUKADA) Palazo.

**paloma, palomie.** Paloma. *Usue ere esaten da. || Palomie usuri esate dxako.*

**paltzu, paltzue.** (FALTSU) Falso, traidor. Ik. *gusurtidxe. || Paltzue da ori!*

**paltzukeri, paltzukeridxe.** (FALTSUKERIA) Falsedad, felonía, traición.

**panaderidxe.** Panadería. || *Jeneralien dana biribille ixete san len aintxiñe ogidxe. Panaderidxetan be bai. Da oin daus klase gustidxek. Oiñ eitte ittue olakuek, da ritxe be bai, eitten dabe, baya ritxi esta esaten. || Lorategieta bayo apurtxu goratxuau egon san panaderidxe itzela. Da araxe erute ben egurre astillatu bier. Astilla metro bat ingeruko luserako astillie. Da paguk ein biste sin. Aretxak es sittuen gureisten. Pague.*



**panadero, panaderue.** Panadero, repartidor de pan. || *Astin bitten panaderue, eguenetan da domeka goixetan.* || *Pistola sopie? Sopie, nik estaitt oin pistolarik eitten badabe panaderuk. Len pistoli eitte ben sopi eitteko.* || *Panaderuk e ogidxe, guk ogi siku ekarteu ganaduntzako. Sikeutakue ekartesku. Merki da a sikue. Da mokotza pe or pasko ostien, mokotzak eure pe eukitte ittues botata orra.*

**panderero, pandererue.** Persona que toca el pandero.

**pandero, panderue.** (PANDERU) Pandero. || *Da soñu te panderu ixete sin, oingo trikitilaridxen tipora. Da kobrau, kobralaridxe bat, da dantzako kobrau beti.* || *Emen baserriidxetan-da, len panderu ibilte san, fillermoniki ibilte san. Oiñ esta esebe ibilten.*

**panparroi, panparroye.** (FANFARROI) Fanfarrón. Ik. *arrue.* || *Berba panparroyek.* || *Panparroye da gixon arro bat.*

**panparroikeridxe.** (FANFARROIKERIA) Fanfarronería, valentonada.

**panpliñe, papliñe.** Pamplina, dicho o cosa de poca entidad. || *Papliñe da seinde enbusteru ixeti les. Enbusteru esate dxako ba, antzin. "Papliñak eittera", "Koplak eitten". Igul esate tzu batek "I panpliñetan abil" edo "Koplatan abil".*

**panpliñoso, panpliñosue.** Fanfarrón. || *Panpliñosu? Bai. Panpliñosu dana berak esaten, au te ori tte gusurre ta gora ta, panpliñosue.* || *Panpliñosu da fanfarroye.*

**pantaloï, pantaloïe.** (PANTALOI) Bragas. || *Kulerue? Len areri pantaloïtxuk esate dxaken.* || *Pantaloïe? Bai, esaten da. Kuleru pe bai. Bidxetara esaten da, baya oiñ e geidxau esango neke kuleruk ibilte dirilla ta kuleruk esate dxakola. Pantaloïek len ibilte sirin, da arek ixete sirin de belaunetaraiñokuk erute sittuen, puntillekin-de ta.*

**pañelo, pañelue.** Pañuelo. Ik. *sapidxe.* || *Buruko pañelue.* || *Partikerako pañelue.* || *Samako pañelue.* || *Moko pañelue.* || *Pañelue agiridxen dekosu, ikusten dxatzu.* || *Buruko sapidxe eitten daniñ emen esta usau... Pañelo bat esangot, pañelo aundi bat ixeten dala, da ipintten da iru pikure.*

**papa.** (PAPA) (haur.) Pan.

**papada, papadie.** Papada.

**papalardo, papalardue.** (PAPALARDO) Atontado, -a, lelo, -a, lerdo, -a, tonto, -a. Ik. *tentela.*

**papar, paparra.** (PAPAR) Pecho. || *Papar gorridxe.* || *Txantxagorridxe ba alan papar gorritxu eukitten dabena ixeten da.* || *Goru ipintte san, jeneral papარიი ipintte san, jeneral papარიი ibilte ben, olan paparrin, da amuri esku batas kolpe, da bestias tiretu, da bueltaka-bueltaka, ardatza bueltaka-bueltaka-bueltaka dala, aridxe itte san.* || *Bidxeek dire antzekuek. Ba ixengo da iguel, marrotxuau ixengo da beste... Beste mosoluek, mosolu danak, au papar buelti au, au buelti au, jeneral suridxe eukitten deu, suridxe, edo suriskie.* ☐ *Batek bularrak ederrak baditu, honela esaten da: Paparra ornidute dxak ori!* ☐

**paparreko orratza.** Broche (de adorno).

**papardo, papardue.** (PAPARDO) 1. Castañola (*Brama brama*). || *Papardue arraiñeri esate dxako, narru kentze dxakon arrain bateri.* || *Papardue arraindunek ekarte ban. Bixiri pe es ittun ekarten, baya seinde bixirik balego les, arek atrapau te, itxosun atrapau te segidxen les ekarte sittuen.* 2. Bobo, -a, atontado, -a. || *Papardu alakue!*

**paparsuri, paparsuridxe.** (PAPARZURI) ☐ **basakatu paparsuridxe.** Garduña. || *Iru askonar eta beste basakatu paparsuri bat, basakatu paparsuridxe, erdera garduño, da illadan arrapau nittun.*

**papartzu, papartzue.** (PAPARTSU) Pechudo, -a. Ik. *bulartzue.* || *Papartzu? Ba papartzu, onek e eundidxe dekosena-edo.*

**papau, papaue.** (PAPAO) Bobo, -a, atontado, -a. Azentua lehenen go silaban du. || *Ori da papaue!*

**papelera, papelerie.** Papelera.

**paper, papera, papela.** (PAPER) 1. Papel. || *Komuneko papela.* || *Aintxiñe esan papelik egon da arexegas surittute san etzie.* || *Len elixik emote ban buldie. Paper batzuk emote sittusen, Aitte Santuk emonikuk, edo nik estaitt selan ixete sirin, barau gordetekuk-edo, karidade eittekkuk-edo.* || *Papera esaten da. Bueno, oingo umik papela be bardiñ esaten dabe.* || *Paperesku ixete san sakutue.* 2. Papeleo. || *"Etzi orrek esteko garbittasunik": noberagantzeko diru asko gastau bier e..., jauberik estekona se..., paper asko ein bi da ta. Ba esate baterako, len saldu banak edo lengue ill ein da, da barridxeri agindu tzon baya papelik ein bari tau.*

**papo, papue.** (PAPO) Papo, carrillo, mejilla. || *Papo galantak dekos.* || *Umik-eta eukitte ittu paputxuk.*

**paputz, paputze.** 1. Papos. || *Paputzek esan gure deu..., bedarra paputze oten da sarritten. Paputze da arpei aundixas da paputze, matraill aundixxe esati les. Jeneru be esaten da "Bedar paputz onek" esan leidxo edo "Asaburu paputz onek" bistias baya gogortu barik, paputze.* || *Paputze da einde bai baya alimentu gitxias eiñekue. Paputze da olanik e ein por eiñekue.* || *Persona paputze.* || *Paputze: olan matrailla aundixuk dekoselako-edo.* 2. Tizón, enfermedad del maíz. Ik. *artaputze.* || *Paputze bai, a paputze, onek esate baterako, artaburuk egoten dire burue koskorra bakarrik eta garaurik es, da "Paputzek e desak".* 3. Parado, -a, calmoso, -a, sin vigor. || *Paputze: ori geldidxeri-edo pentzatot esate dxakola.* || *Paputze seri esate dxakon esangot, apur bet ganorabaku danari. Papo eundixxe tekosenari be bai, paputzek.* || *Bueno, persona bateri olanik e esan bi dxakoniñ e ba asarre daniñ-edo, berba gustoku esaten estaniñ-edo ba, "Paputz alaku!" ba personiri be esate dxako, ixen es arren be ba.* || *Paputze: ganora barik eiñeku.* 4. Papo, carrillo, mejilla. || *Papus galantak asitte dekos.* || *Paputz ederrak deko.*

**par, parra.** (PAR) A la par, a la vez. || *Par ein dabe.* || *Parriñ ein dabe.* || *Parres jutie? Bardiñin juti ixengo da.* ☐ *Esate baterako, pilota jokoan galtzen dabilenak bestearen puntuazioa berintzen duenean, honela esaten da: || Parrin dabis.* || *Musin, nai jokun be, iguel lelengotan jute sara irebasten, edo galtzen, da "Ba, kittutu ein dxuau", lauten juten bada, da gero irebasi. Da parra eitten badeu, ba kittutu. 'Kittututie ixen bi de parra'.* ☐ **parra ein.** Empatar (r gogorra ahoskatzen da). || *'Kittutu' da par eittie. "Kittutuko atau!" igul saplasu ataraten deu batek, eta "Kittutuko atau!".* *'Kittutu' da beste bat berak emongo tzola, ta parra.* || *Kittutu: ya atzetik jun, de gero atrapatzen badabe, parra eitten badabe, "Kittutu du". Diru galdutaku atzera irebasi, parra ein.*

**parabola, parabolie.** (PARABOLA) Mentira. Ik. *gusurre.* || *Paraboletan asi.* || *Ño, ak bota dxok parabolie!* || *Orrek botate ittu parabolak!*

**parada, paradie.** (PARADA) Parada, lugar donde de para el paso de la presa. || *An usun paradie ote san itzela!* ☐ **paradako iskue.** Toro semental. || *Paradako iskue fulanok deko.* || *Paradakue, beidxeri botateko.* ☐ **paradan egon.** Estar al acecho. || *Erroidxen paradan egon.*

**paradixu, paradixue.** (PARADISU) Paraíso. || *Paradixun egongo sak.*

**paraje, parajie.** (PARAJE) Paraje, lugar, sitio. || *Gure parajien ori gitxi usetan da.* || *Beti elixien parajeko kaskuen.* || *Eibarretik etorri sirin, au parajie ikusten.* || *Singerie: urtzu dan parajie. Lur bigune, da urtzu dana, da ainki-ta apur bet berantz eitten dabena, da singerie.* || *Gustuk egote sin. Batzuk labako artoko urune talu eitteko gurau ixete ben. Da beste batzuk es. Amen parajien es san labartorik eitten... Amen Nabarrixen aixartue. Ostera, or e Errigoitti aldien dana labartue, laban igerra.*

**parau, paraten, paretan, paratzen.** (PARAU, paratu-bat.) 1. Ponerse, situarse. || *Su ondun paretan jun da.* || *Danak geldi parau ta pater nosterra erresau.* || *Len laidxetan be eitte gendun, parau lau-edo illadan, da bost-edo, da laidxak sartu barrure, eraiñ-eraiñ ein, de soidxe atarate san.* || *Ogeta lau orduan mundun bestaldien paraten dire abioidxas oin.* 2. Aderezar, preparar. || *Ollogorrak-eta, pospoliñek-eta goso-goso paretan dire arbidxekin.* || *Arek dorau-dorau paraten direnien.* 3. Terminar en, transformar. || *Posu eoten dana, bilinbolu, olan. Da gero sapotu eitten dire, lusero dauseniñ ainkatxuk urtete tze, da gero ba bustena be jeusi eitte dxako, da sapuk paretan dire.*

**pardel, pardela.** (FARDEL) 1. Torpe, desmañado, -a, rudo, -a. || *Ori pardel (d)ok!* || *Ori pardel ori guri segidu esiñik dator!* ☐ Soroan ganadua ondo erabili ezin denean honela esaten da sarritan: || *Au pardelau!* 2. Vago, -a. Ik. *alperra.* || *Ori da pardela!*

**pardillie.** Cierta variedad de setas. || *Pardillie setie da.*

**pare, parie.** (PARE) 1. Par, pareja. || *Pare bat persona etorri da.* 2. Frente, delante. || *Kuartuen parien.* || *Ortxe dau parin.* || *Paretik kendu seittes!* || *Da bueltekeran, abioyek justu-justu kueban pariñ eitte ben buelta, Gernikera juteko.* || *Oserue len esaten san, oye, lo eitten dan kuartun, edo gelan oyen pariñ egote san, ba, ixeriñ antzeko bat, bai, eote san.* || *Da lotu eitte dxakon gora, goiko burdidxek e arasak eukitte ittu olan albutan, erreillan paritan.*

**pareja, parejie.** Pareja. || *Saldidxek parejan ipintte ikusi nittun baten, sera, garidxe trilletan diardueta-ta. Baya amen esta usau olanik.* || *An gixon parejie badxak.*

**parka.** (PARKA, barka-bat.) ☐ **parka eskatu.**

Pedir perdón. || *Parka eskatu deu.* || *Auspestu: ba igul parka eskatzen doixena pe, igul makurtu eitten dire, ba arexe 'auspestu'.*

**parkasiño.** (PARKAZINO, barkazio-bat.)

Perdón, remisión. || *Esteko parkasiñori pe!*

**parkatu, parkatzen.** (PARKATU, barkatu-bat.)

Perdonar. || *Sorrak parkatu ei dxuates.* || *Maixuk asko parkatze tze.* || *Txikidxauk dirilako geidxau parkatze tze.*

**parkeske.** (PARKESKE, barka eske-bat.)

Pidiendo perdón. || *Parkeske jun de.*

**parranda, parrandie.** (PARRANDA) Parranda.

Ik. *errondie, juergie.* || *Gau gustidxe parrandan pasau deu.*

**parra-parra.** (PARRA-PARRA, barra-barra-bat.) En abundancia, abundantemente, copiosamente. Ik. *pirri-parra.* || *Ño, parra-parra bota tze!* || *Euridxe be asko eitten badeu:*

*"Parra-parra eitte dxok euridxe".* *Eduurre, edo edoser.* || *Parra-parra dirue irebasten deu.* || *Dirue parra-parra dabil.*

**parrastada, parrastadie.** (PARRASTADA)

Chorro. Esatarako, alturatik hona ura jausiko balitz: || *Ño, ur parrastadie!* || *Ur parrastadie jeusi dxako.* || *Parrastadie ixte lei ure, ixte lei saldie, se parrastadie jeusten dan ure da.*

**parrastadaka.** (PARRASTADAKA)

Profusamente, abundantemente. || *Ure parrastadaka dabil.*

**parrel, parrela.** (PARREL) Parra, pérgola, emparrado. || *Mas parrela.* || *Parreleko matza.* || *Kibidixen parrelak.* || *Sagarra pe parreliñ ipintte dire.* || *Ipiñi estakak-eta sartute, da gero an trabes lotu serak, tomatik-eta, parrelin, gora, da tomatik selan asi, alan lotu, alan lotu ta parrelin.*

*Ganera, arlun bayo gosau egoten dire.*

**parrelpe, parrelpie.** (PARRELPE) Bajo el emparrado. || *Parrelpie: matza badau, te ba parrelin badau matza, ba parrelpie.*

**parrille, parrillie.** (PARRILA) Parrilla de madera que cuelga de la pared y que se utiliza para dar de comer al ganado. Hitza eta tresna bera nahikoa berriak dira.

**parsela, parselie.** (PARTZELA) Parcela (porción pequeña de tierra). || *Parselie: lur sati bey, baso sati bet.*

**parte, partie.** (PARTE) **1.** Parte, pedazo, porción.

|| *Lau libre ogidixen sortzigarren partie.* || *Txarridxe iltten da. Partiduteku bada, partiduten*

*da illuntzien. Aparidxe ipintten da ta jaten da da bakotxa beren parti artu te ba, etzera.* **2.** Paraje, zona, sitio. || *Len erlik euki gendusen, an solun goiko partetxun.* **3.** Territorio (referido a municipios). || *Gernike partien olan esaten da.* || *Da pagotxa, pagotxa bai esate dxakon, emen bertan ainbeste es, baya or e Lekitto partetik edo ortik pagotxa.* || *Ori kobie Ereñoko partin jeusiko da.* || *Gixabura partera. Bai, baya beste alderdire be bai. Gomis Bekue esate tze an etze bi. An be-be-beyen.* **4.** Notificación, informe, comunicación. ☐ **parte artu.** Tomar parte, intervenir, participar. || *Parte artu deu.* ☐ **parte emon.** Avisar, predecir. || *Oin dala sortzi egun emon neutzun parte.* || *Eurretik parte emon, ia basatos edo es basatos.* || *Lelengo parte emostek, e!* || *Eusun artiñ ixete san, da pasu dekonak, ba a be pasetan da, a be bai, a be bai tte danari emote dxaken parte, "Bide konpontzi dau".*

**parteko, partekue.** (PARTEKO) Participante. || *Airoko pague, neu be parteku ixenda nau botaten. Bai, mutikue. Neuk eukiko nittusen amar-amabi urte.*

**partera, parterie.** Partera. || *Parterie? Andra bat partutan ibiltten dana.*

**partidu, partiten, partiduten.** (PARTIDU, partitu-bat.) **1.** Partir, dividir. || *Terrenu partiduten dabena mujoye esaten da.* || *Txala be olan partiten, len ixete san, laurena ixaten da erdidixen erdidxe, da lau lauren eitte sin txalak emen aintxiñe etzitarako.* **2.** Repartir, distribuir, dar. || *Nik deket asidxe, neuk partidu dot asidxe.*

|| *Ur emotzaillie da ure emoten dabena. Ure partiten deu: ur emotzaillie.* || *Da ba etze baten igul emongo ban ba txokolatie, da beste etze baten intxaur batzuk, eta ba arexe batu, gero arexe partidu, te jan.* || *Da gero ba, txokolati, edo intxeurrek, edo batze gendusenak, ba, askotan errixtan einde akabeta gendun, beste askotan ba partidu eitte gendusen errixtan ein barik; iños eusoko andra bate pe partidu eskusan, da ba, olantxik. Jeneral guk geuk partidu eitte gendusen, partidu gitxi gorabera, ba partidu toketan dana.* || *Galtzue, ta negureko jateko iste san, sabaidxe bete, da artu be ara asko artze san da lantziñ e txapatxu batzuk e emon ganaduri e, bakotxiñ otzaratxu bet-edo ekarri tte partidu danari axe, da goixin ba axe partidu, da siku emon.* || *Txarridxe iltten da. Partiduteku bada, partiduten da illuntzien. Aparidxe ipintten da ta jaten da da bakotxa beren parti artu te ba, etzera.* || *Ba*

*bokosu suk e esni partiduteko "Beseridxe dxekoatek" eta beseridxeri emon bi tzat lenau.*

**partike, partikie.** (PERTIKA, endaitz) Pértigo, lanza del carro. Ik. *burpartikie*. || *Onek albo bixtakuk di arasak. Onek trabeskuek trangak, eta au partikie, erdikue, au atzetik eurrera arteku da.* || *'Larakue': a, ganaduek burteran, larakue partikeran esartzen dxako.* || *Busterridexas bustertu eitte sirin, edekin lotze sirin bekokidxek. Burdidxen partiki sartzeko, ba se esangot neuk?, sulo bat eukitte ban. Da burdidxen partikan sartzeko sirin ganaduk. Da busterridxen partikie, antxe ganaduk eukitten daben..., edik esate dxaken, narruskuk ixete sirin. Da antxe sartzeko dxakon burdidxe partikie, antxe busterridxen suluen.* || *Partikie esate dxako burdidxek dekonari, edo narrak dekonari, busterridxen sartzekuri.* || *Partikan sartzen dana da larakue. Partikik eukitte ittu, ba ser, olanik e, sulu-sulu-suluk eukitte ittu, da antxe eurrerau jun, edo atzerau jun-edo ba antxe sartzen dana.* || *Bueno, joku bat san da etzan, olgetan ibiltte gendun, burdidxen atzin plantau lagun bi edo iru edo lau, dana dalakue, da beste bat eurreko partikan plantau, da axe altzetan, gora ta bera, kirrinkarran.* || *Partiki da beidxen busterridxen sartzeko sana. Adaburuen. Adaburuk erute ban e onakoxe sulue, da antxe sartzeko san ori, burpartikie. Da adaburuas.* □

Hona hemen nardekie eta partikie berben arteko desberdintasuna: || *Nardekie da partikie ba tire. Bueno, ba tire ta estire. Nardekie da..., oiñ esta ibiltten nardekari pe. Partiki da burdidxena, narrena, osun datorren..., katiakiñ-edo lotute oten da beyen, da beidxen erditik etorten dana. Burdi partikiri be bardiñ esate dxako, partikie. Edo "Partikes gora dau", edo "Partikes bera dau". Nardeki solte ixeten da, da katiakiñ ibiltten da. Len ibiltte san soluen, arikin, sestuas be bai, bostortzas be bai, da nardeki areri esate dxako.* □

**partikes gora** edo **bera**. Con el pértigo hacia arriba o hacia abajo. || *Partikes gora: ori da burdidxe partikes gora igul eukitten da jun esteidxen edo mobidu esteidxen. Da partikas bera be bai oten da.*

**partikera, partikerie, patrikerie.** Bolsillo que llevaban las mujeres atado de la cintura. *Partikerie nahiz patrikerie esaten da, baina lehenengo forma entzuten da gehien.* || *Partikerako pañelue.* || *Aintxiñe partikarak gerridxen lotute ibiltte sittusen andrak.* || *Partikerie? Ondiño gurin batabat nun o nun*

*ongo da. A gerridxen lotute ibiltte san, da oiñ estabe..., estou ibiltten oiñen gonarik, da goniek eukitte ban olanik esku sartzeko lekue, an barruen, partikarie ixeten da, da an barrun gordete san edoser, diru be bai. Ba edoser geusa gordete san.* □ **malen partikarie, malen patrikadie.**

Bolsa que las mujeres llevaban bajo la falda atada a la cintura para llevar el dinero y a la que accedían a través de una sesgadura hecha en la falda. || *Enbrak eukitte ben aintxiñe onan, gonik kortadie euken, esta? Ba emendik gerrittik lotute erute ben poltzie: malen partikarie.* || *Malen partikarie da enbrak aspittik ibiltze ebena. Oiñ esta olakorik usetan.* || *Andraskuk erute ben malen patrikarie, goniñ aspittik sartunde olanik. Gonik eukitte ban onek, irrikittue ametik, da gero esku sartzeko ben.*

**patrikera.** (PATRIKERA) Bolsillo que llevaban las mujeres atado de la cintura.

**pasa, pasie.** Pasa, seco. || *Okan pasie.* □ **iko pasie. 1.** Higo seco. || *Emen oiñ iko pasarik esta oten. Ba len e... Emen ba, esan gutena tabernatan be iko pasak kajak ote sin. Iko pasie. 2.* Persona floja, de poca actividad y remango. Ik. *epela, tentela.* || *Iko pasie da mantzu esati les. Bai, geusa noblie, mantzue. "Iko pasa garbidxok ori!". Iko pasi ixeten da les... || Iko pasie? Bai. Ori be pelmi esati les. A umela esan gutena, suabi. Ta iko pasi suabi ixete dan les "Iko pasa garbidxok ori!" ba ori be bai. || Ta gero igul alan tentel modun daunari be "A da iko pasiori!".*

**pasada, pasadie.** Zurra, paliza. □ **pasadie emon.** Zurrar. Ik. *aidiau.* || *Ori aidiauti da ba, esate baterako, pasadi emoten batzasu bateri, "Majo audiau dxuk andik".*

**pasadixu, pasadixue.** (PASADIZO) Suceso, acontecimiento; incidente. || *Pasadixu kontetan dabis.*

**pasador, pasadora. 1.** Pasador, colador. Sin. *irastekue.* || *Da axe koipie, txingerrak apartau, da axe koipe garbi-garbidxe pasau serien, pasadorien, onakoxe pasadorien, da koipe gasie botate san orretara pitxar morkutara. 2.* Pasador, barreta de hierro sujeta con grapas a una hoja de puerta o ventana, o a una tapa, y que sirve para cerrar corriéndola hasta hacerla entrar en una hembrilla fija en el marco. || *"Pasadora emon" esaten da.*

**pasau, pasaten, pasetan.** (PASAU, pasatu-bat.) **1.** Pasar. || *Errekie pasau.* || *Da errekan selan pasau eskendun jakin.* || *Parte batetik bestera*

pasau. || Gero atxegi aundi bet pasau bi de olan, olako arridxe. Antxe pasetan gatx egote san. || Emetik es sara pasauko! || Batzuk goixin pasaten basirin, bestiek arratzaldien. || Egun onak pasa dogus. || Txipristadak etorten dire, kotxie-edo pasetan danin. || A etze barridxe pasetan danien, apurtxu arantzaxuau junde, olan artzen da apurtxu bet, baya bertan das. || Basun edo kanpun ibiltten da, baya emen e pasau eitten da edo, estai nik emen bixi be estot pentzetan eitten danik. || Pasau itturridxe. Itturridxe bakixu nun dauen. Itturridxe pasau te leuna bat. Antxe egon san Oraindiko txaboli esate tzena. || Arexen barrentxutik pasau nas. **2.** Pasar, suceder. || Atzo goixeko sortziretan pasau san. || Arrittu da pasau danas. || Lastimagarridxe ixen da ori pasetie. || Apatx bittarteku esate tzeu orreri. Apatx bittartiñ eitte dxakue solittu. Da len e ganaduek udebarridxen eitte dxakon ori asko ganera. “Kaguen, se pasate dxakok?”, “Apatx bittarteku dxekok”. **3.** Pasar, transcurrir. || Enas jun pasa dan urtin. || Gastarue pasaute deko. **4.** Filtrar, colar. || Kafie pasau. || Txanu pasaixu! || Esnie pasau ixe bitzadorin! || Da gero esnie eitte san..., ligerra artze banin, esnie gogortute gelditze san, gogortute edo seinde bigune eote san ondiño, da gero a ra-ra-ra marka batzuk eiñ e, kutxilluas, da a gero pasau eitte san, pasau eitte san pasadorien edo trapu baten-edo, pasau eitte san, da urek atarate dxakosan, urek atara, urek atara. **5.** Perder la sazón o empezar a pudrirse las frutas. || Frutie paseute dau. **6.** Sentar mal. || Edanak pasetan deu. **7.** Pasar; sufrir; aguantar. || Estualdidxe pasau deu. || Larriune itzela pasau dxok! **8.** Curar. || Asto naparredixe pa egun bat edo bi geldirik egon eskerun, ba pasetan, naiku arin pasetan da. || Bai, igurtzi eitten da, da igurtzidas e, estaipa, oiñ arte igurtzidas pasetan ixen da baya, estaipa pasauko bada igurtzidas be, asko eiñ eskerun pasau esin. **9.** Pasar sobre el fuego, asar ligeramente. || Emen burduntzidxen gastik-eta, sarrak e ainbeste estabe, estu ibiltten, baya suten, sarritten ba txorixu badau eskeitte, txorixu satidxe kendu te antxe suten pasaten da burduntzikue. Da okeli be pasaten da. Gure ixen eskerun e okelie satidxe ba pasau e suten, da ba “Burduntzidxe pasaute”. **10.** Pasar un apero de labranza sobre el campo de cultivo. || Ba mamin gitxi dekonien, esate baterako, nai arias pasau, nai goldias pasau..., bueno goldik berak ataraten deu sokille..., ba

sokille eukitten badeu, sokiltzue lurre oten da. || Solue pasau dabe.

**pasau.** (PASAU, pasatu-bat.) Pasado, algo más de la medida que se señala. || Errotik bera pe jate ei deu euneko bat pasau. Bota eun kilo gari, da urune einde gero pixau te larogetaemeretzi... || Eun killo pasau deko. || Batzuk ernia esate tze, bestik etena. Guk bidxetara esateu, neu pe operasiño ointxe ya urtebete pasau da eiñ ñabena, ta ni pe barren-barreniñ euki naberen beyen. || Eukitte ban bolantik e ba kargatan erute ban burdidxe lako lau bider geidxau. Akorten nas burdidxen, ba geidxen be, amabi kinttel, tonelada erdi pasautxu ortxe. Da orrek erute sittuen lau tonelada be bai.

**pase, pasie.** (PASE) Paso, migración. || Txori asko doiñin, “Geur dxak pasie!” Txori asko doi, “Pase itzela dxak or!”. || Txoridxen pasie. || Onek kanpotik etorten dire biragarruk. Berton be egoten dire banekak baya kanpoko biragarru... pasie egoten da ba sarridxen. || Usuk euki dxok pasie. || Usu pasi dxak.

**paseko, pasekue.** (PASEKO) De paso, migratorio, -a. || Orrek txirritxorruk paseku di. Orrek negun etorten dire, da amen ibiltten dire igul egunetan, da gero alten dabe ostabe. || Da one bestik, pospoliñe pe, galeperra esate tze askok. Orre pe paseku die. □ **paseko txoridxe.** Ave de paso, ave migratoria. || Paseko txoridxek: martxan doixen orrek. Berton geratzen diña barik, martxan orrek juten di ba uso manduk.

**pasientzi, pasientzidxe.** (PAZIENTZIA, eroapen, jasankortasun) || Esteko pasientzirik. || Orrek deko pasientzidxe! || Ori pasientzi aundikue da. || Pasientzi bakue asitte! || Nasaidxe da, pasientzi eundiku da.

**pasiu, pasiue.** (PASEO) Paseo. || Apapa ein: esate baterako, umi artu, ta entreteniduteko, “Goixan apapa!”, ta umi artu, ta ba pasiun jun, edo ba umie entretenidu-edo. || Igul basois pasiuan da “Ai, se ariñ ein dau!”. || A igul e illuntzetxun jun pasiun Lekerikera-edo, ta ure daun lekun e burun eurretik eta danin pasauko dxatzu. A da sagusarra. || Igul batzuk etorten dire pasiun ero, eta: “Orre pe esteke biar aundirik astegun buru suridxen olan etorteko”.

**pasiuleku, pasiulekue.** (PASEOLEKU, pasealeku-bat.) Paseo (sitio para pasear).

**pasko.** (PAZKO) Pascua. || Paskue ixeten da... Ser esangot neuk? Lelengo... Paskuk ixeten dira

garixuman... Bueno garixumi pasaute segidxen datosen paskuk ixeten dire paskuk, lelengo paskuk. Da gero beste pasko batzuk be etorten dire atzerau. || Mokotza iru musturreko ser bat ixeten da, arrautzie ganin, ya labatik atara ta gero, Amabitxik erregalaute eutzon bere besutakori pasko egunien. || Axentziduk ixeten dire, ba garixumie akabau, paskotik jeneral ba berrogeigarren eguniñ ixeten dire asentziduk. Jesukristok serure igo bana, esaten dabe. || Paskutan mokotza. Paskutan ixete san ori. || Panaderuk e ogidxe, guk ogi siku ekarteu ganaduntzako. Sikeutakue ekartesku. Merki da a sikue. Da mokotza pe or pasko ostien, mokotzak eure pe eukitte ittues botata orra. □ **paskaskue.** Cumplimiento de la Pascua. || Oiñ estakitte esango badeu, se orixe oingo gastik astute espadeke paskasku ser dan be. || Paskasku ein: konfesau, da komulgeu. || Paskoaskue bete: urtin baten eitte san len konfesau, te komulgau, te paskoaskue esate dxakon orreri. □ **paskutan.** Por Pascua, en los días de Pascua. || Paskutan konbidauk-eta askok eukitte basen. || Oin ba eitten dabena, oiñ e tabernatan-ero igul eitten dabe basatoste dala ta. Ba ori, ostantzien paskutan. □ **pasko pentekostie.** Pascua de Pentecostés. □ **pasko txala.** Ternera que se solía sacrificar en Pascua. || Pasko txala? Len paskutan txala iltte salako, pasko txala. Da "Paskutako asten dasak". || Pasko txala? Bai, asi eskerun. Ba pasko txala ixeten da txala ba eundidxe bada, edo ederra bada edo ba estimasiño sartzen badabe e serak e, tratantik-edo, pasko txala. || Jeneralien emen ostantzien sesiñe esate dxako emen. Sesiñe entzungo sendun. Sesiñe len emen iltte san, negun. Pasko txala, jaidxetarako iltte san txala.

**paso, pasue.** (PASO) 1. Paso. || An pasorik pestau! || Baya erute san atxur me bat. Mendire, edo basora-edo doixenien, esate baterako, bidie katittute badau ureas, edo basias-edo, axe libretako, arixeru pasu eitteko. Basatxurre esate dxakon. || Eusun artiñ ixete san, da pasu dekonak, ba a be pasetan da, a be bai, a be bai tte danari emote dxaken parte, "Bide konpontzi dau". || Arek e pasue itxi bi tzo bestiri, ta segaiitti ba ta, ba alantxi daulako einde legi. || An estau gero pasorik. Arregluas ein bi da ori, danan konformidadias. || Berak leges esteko pasorik, baya pagau eitten deu, berari komeni dxakolako. || Koño, bestela ein dok andik buelti eitti, se jun

baintzan, estok euki pasurik eta. 2. Pasada. || Askanengo pasue anilluren emote dxake. 3. Alcance. || Bailariñi ixeten da, bailariñak esate dxake..., are sorrotzak estire, espabese arik eukitten daben biarra les eitten deu, da eitten deu ba, ser esangot neuk?, paso geidxauku esango dot, da mamin gitxiau ereitte tzona lurreri, paso geidxaukue. 4. ¡Paso! (palabra del mus y de otros juegos de cartas).

**pasodoble, pasodoblie.** (PASODOBLE) Pasodoble. || Soltie, trikitrikidxek eta gero gure denpora ramoli egon san, da gero soñu-jotzailla pe bai. "Ointxe jo bi dau pasodoblie", Ointxe jo bi dau tangué", "Ointxe jo bi dau baltza", da bakixu.

**pasto, pastue.** Pasto. || Orrek ardi errebañue artu, te juten dire ba orra, pastue, jatekue deun lekure. || Pastue: ganaduk jan bi daben sikuri, ba sikue, nai galtzu ixen, nai bedar siku ixen, pastu esate dxako, ganaduntzako pastu. || Berdiri es, igerrari, sikuri esate dxako pastue.

**pastore, pastorie.** (PASTORE, artzain) Pastor. Ik. ardi saiñe. || Oisko pastorie. || Emengo berbetie da "pastorie". || Ardi saiñe edo pastorie, jeneralien pastorie. || Arrolan egon san pastorie, da eukitte sittun —oiñ esta iñor be bixi— baya eukitte sittun ardidxek. Da Siertzakorta ixena dekon beste etze bat egon san, Arrola bayo berau, arantzau, da are pe bai. Da arek e Arrolaku pe iños e emote ban olanik gastaye. Da arek Siertzekortakuk saltzeko gastaik eitte sittusen. || A bai, Lusio pastorie. Bai, bai, Lusio. A kiputze san, Mendaroku-edo, orku. || Da ak e biarrik e es eban berak eitten, golperi pe. Arexek ardidxek saindu te... Alper itzela san, bueno! Pastoriek jeneralin dire alperrak, golperi pes. □ **pastor elektrikue.** Alambre o cinta que, al tocarse, da descargas eléctricas y que se coloca para que los animales no pasen a un terreno. || Amen artotzara etorte dxaku ori basurdie urtaro, da or ipiñi bistu pastor elektriku, bueltan. Ostantziñ e arto danak apurtu. Da a ipiñi eskero esta juten.

**patal, patala.** (PATAL) Pesado, -a, tardo, -a, lento, -a. || Pausu motela dekonari esate tzeu patala. || Patala biskorra estanari esate dxako. || Patala da jagi txikidxe. || Jagi patala. || Patala esate tzeu guk jagi gitxi eitten deunari.

**patar, patarra.** (PATAR) Torpe, patoso, -a. || Ainka kaltzau esiñik dabillena: "Selako patarra sa ori!"

**patari, pataridxe.** (PATARI) Alimaña, animal dañino. Ik. *pistidxe*. || *Ikusten espadosu se ixen dan*. || *Pataridxe edo ganadue*. || *Pataridxe da, seiñde, katue, aseridxe, da orrek, txakurre edo*. || *Pataridxen bat ikusi dot*. || *Beidxek, ta onek, estire pataridxek*. || *Pataridxe egon da ortxe, seoser pataridxe ixen da*. || *Personie espada, ba pataridxe, ya beste gustidxek pataridxek dire*. || *Guk, seinde, seiñe, astu bada, kaballue bada be, gabas, ikusten esposu, da saratie be entzuten bosu, susena edo: "Ori lagune esta ixen, pataridxen bat ixen da"*. || *Onek e jaten dabe ori, animalidxe. Nai ardidxe, nai... Mendidxen, da atzetik asten dire jaten. Gero ortik igerte dxako se pataridxe ixen dan. Pataridxe danak estabe jaten igul. Es. Onek aseridxek odola txupeten deu emenditxik. Da ementxe agin suluk eitte ittu. Emen, gorgoille edo albotik. Ordun bakixu aseridxe ixen dana*. □ *Hona hemen pataridxe eta pistidxe berben arteko desberdintasuna: || Bueno, pistidxe esate dxako geusa benenosu danari edo benenu dekola pentzetan danari esate dxako pistidxe. Pataridxek e dana tire, txakurre pe bai, katu pe bai. Da beidxeri beidxek eta txalak esate dxake baya are pe pataridxe tire*. □ Kortako animaliei ere esaten zaie mesprezuz edo zakartzen direnean. || "Ori pataridxe txarra da" esakune hau kortako animalientzat ere erabili lei, mesprezuz. □ **baso pataridxe.** Animal salvaje. || *Baso pataridxe dire aseridxek, askonarrak-eta. Baso pataridxe dire. Baso pataridxe esaten da basuen bixi dirilako, basoko sera dirilako*.

**patata, patatie.** (PATATA) Patata. (*Solanum tuberosum*). Motak: *gorridxe, suridxe, baraka*. || *Patata arlue*. || *Patati eraitten dabil*. || *Sildute daus patatak*. || *Leidxek erre dau patatie*. || *Bat suridxau eoten da, patata suridxe, barrue suridxe dekona. Baya barru oriski dekona a suridxe dekona bayo obi ixeten da. Da patata gorridxe be badau. Len gorridxe eraiñ eitte gendun, da oiñ estau eraitten gorririk. Oin suridxe eraitteu. Da orixe, suridxe urte gustidxen eitteko modukue. Da gorridxe ba ixaten da, barru be naiku eukitten deu gorridxe, ser esangot neuk?, ixeten da suridxe bera bayo, ori suri..., barru gorriskatxu edo oriskatxue dekona bayo ba se esangot neuk? Ixeten da olan kastetako-ta, patata gorridxe obiau ixeten da olan ariñ kastetako. Suridxe ostantziñ e luseruau, a barru oriskatxu dekon suridxe luseruau eukitteke ixeten da. || Len patatie lili koloreku be egon san, aintxiñe, ta barru suri-*

*suridxe eukitte ban are pe. Lili eukitte ban ganetik jeneral arek patatik, da oiñ ikusi be esta eitten alako patatarik. Patata bastu ixengo san kontixu.*

□ **patata kokue.** Insecto de la patata, nombre con que se llama también al escarabajo. Ik. *eskarabajue*. □ **patata kuadrue.** Parcela del huerto en que se cosecha patata. || *Soluen eskiña baten patata kuadru eder bat ereitten da*. || *Patata kuadrotxu ein dot*. □ **patata urtie.** Año con buena cosecha de patata. || *Patata urte da*.

□ **porru patatie.** Puerro con patatas. || *Porru patatie: porrue, da porru irakitten daunin patatak sartze dxakos, da porru patatie, egosten danin*. □ **Besterik botatzen zaion galdetuta, honela erantzun didate:** || *Bai, oridxue, gatza, da olan botate dxako oridxu, te gatza, da kipuli aiñ osue espada, sati bet, edo txikitxu, edo osu-edo, da kipuli be botate dxako, ta ba orixe da porru patatie*.

**patatatza, patatatie.** (PATATATZA) Gran cantidad de patatas. || *Patatie dau!*

**paternoster, paternosterra.** (PATERNOSTER) Paternóster. Ik. *aitegurie*. || *Danak geldi parau, ta paternosterra erresau*.

**patin, patiñe.** (PATIN) **1.** Pozo para sacar agua, aljibe. || *Patiñe: ure atarateko sulo bat, ures beteten da beres, da ba andixik ure artu*. || *Patiñe agortu dok*. **2.** Canalón, conducto que recibe y vierte el agua de los tejados. || *Ori tubu esta patiñe, patiñe da beyen daun sulue, ure artzen dabena, da patiñe*.

**pattar, pattarra.** (PATTARRA) Licor, aguardiente. || *Koñaka da pattarra*. || *Sasi okanak txikidxek dire. Arek jatekuk es. Arekin sera eitten da: pattarra*.

**1 patxada, patxadie.** (PATXADA) Calma, tranquilidad. || *Ori dok ori, patxadie!* || *Patxadie da trankil egotie les*. || *Auri dok patxadie, ori!* || *Patxadas dau*. || *Patxada galantekue dok ori be!* || "Tenplaue da": *trankil dauna, patxadas dauna*. || *Edo tenpleu daun geusa batek "Patxadie, ori da patxadie!"*. □ **patxadan eon.** Estar en calma, tranquilamente. || *Sosiguskue da patxadan eoten dana*.

**2 patxada, patxadie.** (FATXADA) Fachada. || *Etzin patxadie urrutu ein dxaku*. || *Patxadie arrekalatu ein da*. || *Etzik onantz deko patxadie*. || *Etzin patxadie nora begire dau?*

**patxadasko, patxadaskue.** (PATXADAZKO) Flemático, -a, calmoso, -a, lento, -a.

**patxaran, patxarana.** (PATXARAN) Pacharán. || *Amen esta eitten patxaranik eta!*

**pausu, pausue.** (PAUSO) Paso. || *Pausue ein. || Pausu entzu dot goidxen. || Pausu motela dekonari esate tzeu patala. || Pausu laburre deko. || Pausu lusie deko. || Emendik bost pausure dau. || Jun seixe bost pausu eurrerau! || Bost pausu eixus! || Traskille da, traskille, edozelanik ibiltten dana jantzitte ta igul. Pausus tropi eta, "Traskil garbidx-ok ori!".* ☐ **pausu lusin.** Rápidamente, dando zancadas. || *Pausu lusin jun da.* ☐ **pausu otza.** Ruido de pisadas. ☐ **pausu tropie euki.** Ser muy torpe al andar, tropezarse mucho. || *Pausu tropie deko orrek.* ☐ **pausun jun.** Llevar el paso. || *Pausun jun da.*

**pausukada, pausukadie.** (PAUSOKADA) Zancada. || *Selako pausukadak emote ittu ak!*

**paute. 1.** (Comer) vorazmente, a dos carrillos, devorando. Ik. *mauke.* || *Paute-paute jate dxok. 2.* Onomatopeya del tiro. || *Ametik tiruk entzute sin. Bai, or frenti lusero on san or e Gipuskuan. Ba, amendik entzute sin tiruek. Ta Illunsarretik, bueno! Klaru-klaru-klaru. Da lantzin tiro bat botate ben, paute ta paute!. Tiruek nik pentot jeurti por jeurti, eñ esteidxen bata bestiri kruseu-ero. Gero apurtu saniñ e, bueno! Ordun gero dana! Ordun bai tirue! Ba aman berton es san bota.*

**peka, pekie.** (PEKA) Peca. || *Saidxe lako antzeko koloreko satixu-satixuk eukitte itunak: pekak.*

**pekatari, pekatari dx.** (PEKATARI, bekatari-bat.) Pecador, -a.

**pekatu, pekatue.** (PEKATU, bekatu-bat.) Pecado. || *Pekatu ixate san baltzigun eittie. || Konfesetaku jute danin, konfesorik —oin konfesorarik estau baya— pregunteten deu ba: "Damutzen sara ein dosusen pekatukaittik?". Bayetz, edo esetz esate dxako. Da orixe da damue, noberak artzen daben sentidu-edo.* ☐ **pekatu ein.** Pecar.

**pekatzu, pekatzue.** (PEKATSU) Pecosos, -a. || *Pekatzue? Pekak euki leis, arpeidxen pekak, peka-peka-peka-pekak. Dana pekatzu arpidxe dekena pe oten dire. || Pekatzu da.*

**pekostu.** (PEKOZTU, bekoroztu-bat.) Ensuciarse, pringarse. Ik. *loittu, sikindu.* || *Pekostu dosu dana!*

**pekotz, pekotza.** (PEKOTZ, bekorotz-bat.) Boñiga, excremento del ganado o caballería. Ganaduarenari *pekotza* esaten zaio, zaldienari

*pekotza* nahiz *korotza*, asto, txakur eta gainerako animalienari *korotza* eta lagunari *kaka*. || *Ganadun pekotza. || Pekotz moltzue. || Pekos pillue. || Saldi pekotza. || An pekotz tartin pasau biar eurrera jaten emoten. || Txalak pekotza siriñe eitten deu. || Irauleko satza: ori kanpoko satza. An kanpun, len e emen be eitte san e astu egote saniñ e, da pekotza dana batu te dana leku batera ein de irauleko satza.* ☐ **asto pekotza.** Boñiga de burro. || *Asto pekotza aintxiñe bakixu setako usete san? Erliri estidxe atateko, keye eitteko. Keye eitten deu asto pekotzak. Erliet keyek e kendu eitten dittu. Guk estidxe euki gendun, da asto pekotzas eitte san erliet kendu. Keye botaten deu, keye satarra, da fuera! A bastartu, erlie bastartu ein bi dabe panalak kentzeko. Axetako usete san. Solorako be bai.* ☐ **pekotz ein.** Defecar (el ganado). "*Beidxek pekotz ein deu*" nahiz "*Beidxek pekotza ein deu*" esaten da.

**pelaje, pelajie.** Pelaje, greña. Ik. *sapie, saparie.* || *Orrek deko pelajie!*

**peligru, peligrue.** (PELIGRO, peril) Peligro. *Arraskue ere esaten da. || I, kontun ibilli adi, orrek peligrue dxok aspiñ arrapetako ta! || Ak esaten deu, perretxikue jan da asten bada arin molestasiñoye edo sera eitten, ba estekola peligrurik. || Medeliñe euki baleu, es eukon peligru te eser. || Apapuen? Nos jeusiko. "Kontu txo, apapun dxak eta!". Bakixu e peligru esan biarrin, "Kontu, txo, apapun dxak ori tte!". Bakixu, 'apapun' da antxe es jeusi es... 'Apapun' da ortxe dingiliske dauna. Arbola bat edo adar bat. Adarra bakixu ser dan, arbolñ adar bat, "Txo, kontu, apapun dxak ori tte, ori badxatok eta!".*

**peligroso, peligosue.** Peligroso. || *Txo, kontun orreas, peligosue dok eta.*

**pelota.** (PELOTA, pilota-bat.) Pelota (para jugar).

☐ **pelotan.** (Jugando) a la pelota. || *Leku batzutan pilotan esaten dabe, amen berton, emen pelotan esaten dabe. || Seminaridxuen ikesten egon sanien, pelotan jokatze ban asko.* ☐ **pelota partidue.** Partido de pelota. ☐ **putzesko pelotie.** Pelota hinchada. || *Aintxiñe ba pelotiti putzesko pelotie esate dxakon.*

**pelotaka.** (PELOTAKA, pilotaka-bat.) (Jugando) a la pelota. || *Pelotaka sakeruk oten dire.* ☐

**pelotaka ein.** Jugar la pelota. || *Pelotaka ein bieu.*

**pelotaka, pelotakie.** (PELOTAKA, pilotaka-bat.) Partido de pelota. Sin. *partidue.* || *Pelotakie: pelotaridxek eitten dabena. || Pelotakie dau geur.*



**pelotaleku, pelotalekue.** (PELOTALEKU, pilotaleku-bat.) Frontón de (pelota). Ik. *frontoye*.

**pelotari, pelotaridxe.** (PELOTARI, pilotari-bat.) Pelotari. || *Eskusko pelotaridxe.* || *Ostantzin, sakerue frontoitán pelotaridxeri esate tze sakerue.*

**pena, penie.** (PENA) Pena, dolor, aflicción, desconsuelo. Min fisikoari dagokionean, esan daiteke *miñe* eta *minberie* baino askoz latzagoa dela, ezin jasanezko oinazea alegia. || *Nik deketas penak!* || *Selako penak dekotas!* || *Pena negargarridxe, aguntau es eitteko modukuk!* || *Urdeilleko penie deket.* || *Penie artu dot.* || *Golpe artzen bosu, "Miñ ein dosu", orduen "Penie ein dosu" esta esaten, espabe "Miñ ein dosu".* Da igul atzamarrin nai eskuen-edo, ta min deket, besoko miñe edo ankako miñe edo gorputzeko miñe, baya bestie, penie ixeten da ya geixue, ori gorputzetik datorrena. || *Penas dabil.* || *"Beidxe urrumeka dau": miñ-edo, peni-edo dekonin-edo urruma txikitxuk eitte ittu.* || *Kejuri: ori miñeri eitte dxakon sera. Esate baterako, pena baten, kejurie, "Kejuri deko", agiñeko miñe dekesu, ta ba kejurie dekesu. Sufrimentuen sera, kejurie. Edoser, buruko miñe nai e... Kejurie, bai, esaten da.* □ **penetan.** En medio de grandes dolores. || *Igul an olan doye bat, ta bestik e baki ser dekon "Etena dxekok eta ori penetan dxabik, etenas".*

**penagarri, penagarridxe.** (PENAGARRI) Penoso, sensible, doloroso. || *Damugarridxe da: geuse bat ein, de gero ba ondo ikusi es-edo, "Penagarridxe ixen da olan eittie", damugarridxe.*

**pendejo, pendejue.** Pendejo, latoso. || *Pendejo sara!*

**pendis, pendíxe, pendesa.** (PENDIZ) **1.** Cuesta, repecho, pendiente. Ik. *aldatza, aldapie, erripie.* || *Aldatza danien esaten du: "Ori da bide pendixe!"* || *Pendixe: ser esangot neuk?, olan erripi dauna-edo, pendixe.* || *Bide pendesa da.* **2.** Lugar incómodo o peligroso para trabajar; trabajo incómodo o peligroso. || *Pendixe da, leku txarra da ori, leku txar bat, biar eitteko leku txarra da pendixe. Biar eitteko baso bat-edo txarra dauna, pendixe. Peligrosue. Goitti beran, edo leku altubajuek edo arri bittartiek edo miñ eitteko moduko leku dauselako.* || *Bier txarra, edo pendesin daun geuse bateri eltzeko-edo: "Balorra euki bi da gero gixonak a eitteko!"* || *Pendixe? Pendixe jeusi biarrin daun geusa bateri, edoser geusari, pendixe.* || *Dios, pendesa dok a!* || *Arraskutzue be bai. E pendes baten be "Ño. leku arraskutzun*

*jun dok a!". Arraskutzue da pendiente baten nos jeusiko juti les. Da "An egon dan arruskue!".* **3.** Pesado, -a, agobiante, fastidioso, -a.

**penitentzidxe.** (PENITENTZIA) Penitencia. || *Manga da garixumin sartuerie, manga ori. Kuaresma, kuaresman sartzen da, miercoles de Cuaresma, garixumin sartu. Da manga da, mangak esan gure deu jataldidxe eittie. Garixuman ba penitentzidxe esta? Gero, da mangak axe esan gure dau, jataldidxe, manga.*

**penpanue, panpanue.** Brote, pimpollo en los árboles. || *Beste arbola pe, gaste dausenin, adarretan da danin ba urpiñe, onako ser bat, da ari panpanue.* || *Orrek daroye panpanue!* || *Ño, orrek bota dxok panpanue!* || *Penpanue da, arboliri-edo urtete tzo pepitik edo olan. Penpanue esate dxako areri.* || *Arboliek igul emote ittus adarrak albora-ta, gora be bai te, da ba indar eundidxe badeko: "Orrek panpanu onak dekos!"* edo *"Panpanu eskasak dekos!"* Panpanue axi esate tzeu, arboliri urtete tzen adarrari. || *Landarik, soloko landari pe panpanu emoten deu; da mendiku pe ba olanik an orridxe urte bi tzonin, a puntie panpanu da*

**pentekostie.** (PENTEKOSTE) □ **pasko pentekostie.** Pascua de Pentecostés.

**pentzamentu, pentzamentue.** (PENTSAMENTU, pentsamendu-bat.) **1.** Pensamiento, reflexión. Ik. *gomutie.* || *Ori pentzamentue alperriku dok.* || *Oso-osuen ein dxok, olako pentzamentu txarrik.* || *Burun dabil pentzamentue.* **2.** Sueño (buen sueño o pesadilla). || *Pentzamentu txarra euki dxok.* || *Pentzamentu ona euki dxok.* **3.** Intención, propósito. || *"Neugandu dxuatek": iguel terrenu bat be, estau osue, seuk artzeko ori dabixue alegiñe, ero pentzamentue, da esin dosu ein, de gero igul ba eittosu te, ba "Neugandu dxuat!".* || *"Inpentzan atrapeten" esaten bosu da... Inpentzan, esan gu deu pentzamentun barik atrapau dosule, sorpresan ein dosule atrapau.*

**pentzau, pentzeu, pentzaten, pentzetan, pentzetan.** (PENTSAU, pentsatu-bat.) Pensar. *Uste dot* baino gehiago *Pentzeto pa* esaten da. || *Pentzau te ein.* || *Seoser eittie pentzate deko.* || *Pentzaten egon nas.* || *Neure artien pentzau dot.* || *Neuk olan pentzau dot.* || *Egon gara pentzetan etorriko sarela.* || *Estabe pentzau olakue, txarrik dekonik.* || *Neuk pentzaten dodanes, ak es eban etorri bier.* || *Ori pentzetosu?* || *Esбайдxen dxabik, pentzetan se ein.* || *San jun idie txikitxuau da. Es*

*pentzau asko egongo danik amen erri onetan. || Osasun bedarrak useñ itzela botaten deu. Lori esta. Bronku da. Arek estot pentzan lorarik ataten dabenik. Baya usein bet! Usein bet atate dxok! Da osasun bedarra esate tzeu. □ Gauza haundi bat esaten denean, honela esaten da sarri: Pentzau! || Persona baltzik sekule ikusi barik. Pentzeu be! Da oiñ e Gerniken berton edosenbat ikusten dire.*

□ **pentzau esiñe.** Impensable. Gauza harrigarri bati buruz honela esaten da: || *Ori da pentzau esiñe!* □ **pentzau bes.** Ni pensar, ni imaginar. || *Lastasaue: a asaue lotute, garidxe ebeitte. Len alakoxik einde argi eitte san. Es san egoten besterik eta; farola edo axe linternie, pentzau bes!, ikusi bes linternarik!*

**pentziño, pentziño.** (PENTSINO, pentsio-bat.) Pensión, retribución. || *Pentziño txikidxe deko.*

**1 pentzu.** (PENTZU, pentzudan-bat.) □ **-en pentzuran.** A cargo de, bajo la responsabilidad de. || *Mayordomu da agintzen dabena, ordesko ipintte dekona. Nik, esate baterako, sure pentzuran... 'Pentzuran' be esate tzeu guk. Estakit aittuten bosu 'pentzuran'. Ba sure pentzuran dau ori geusie. Suk agintzoso se ein bi dan suk agindu kridxaduri edo biargiñeri. Mayordomue. □ -en pentzura. A cargo de, bajo la responsabilidad de. || *Iñon pentzura bixi da. || Sure pentzura gaus. || Dirudune ixen eskero: "Dirun pentzura gaus".**

**2 pentzu, pentzue.** (PENTSU) Pienso, forraje (comida del ganado). || *Oiñ osalie, ba, esta usetan, gitxi. Oiñ ostantzien emote tze ba pentzue. || Ganbelie ixeten da eguresko askatxue, pentzu emote dxakona ganaduri. || Saldidxe euki gendun, len astu euki gendun, asturi be bai, te olan pentzu les emote gentzon garagarra. || Birriñe urun ligorra da. Pentzureko.*

**peotza, peotzie.** (PEONTZA) Oficio de peón. || *Peotzan asi san birrien.*

**peoi, pioi, peoye.** (PEOI) Peón. || *Pioi modun biar eitten deu.*

**pepelue.** (PEPELO). Tonto. || *Pepelu esate dxako, ba esan gure deu pepeluek tontu dala. Inoranti dala esan gure deu pepeluek. || Pepelue? Ba iñonik entzuten estabena. || Bai, pepelue, bestin serik e konprenditen estabena-ta, pepelue.*

**pepelontzue.** (PEPELONTZO) Pelma.

**perejil, perejille.** (PERREXIL) Perejil (*Petroselinum hortense*). || *Perejil adar bat. || Ekarrixue perejille, patatak saltza berdiñ*

*ipintteko. □ Hurrengo adibidean aipatzen den bezala, beheragoko herri batzuetan perretxille esaten da. || Guk perejille esatou, da or e betik perretxille esaten deu.*

**perille, perillie.** Perilla. || *Perillie itxi deu.*

**perkal, perkala.** (PERKAL) Percal (tela de algodón). || *Onakoxe tela bat ta perkala.*

**perlesidxe.** (PERLESIA) Perlesía, debilidad muscular producida por la mucha edad o por otras causas, y acompañada de temblor. || *Perlesidxegas dabil. || Perlesidxe deko.*

**permixu, permixue.** (PERMISO, baimen) Permiso. || *Permixue eskatu. || Permixurik badauket Gernikera juteko. || Amak emon deutzo permixue alabieri Gernikera juteko. || Tabaku eraitteko permixue eskatu biar ixate san. || Len gidxie bier ixate san, oin be biar ixaten da batzutan, esate baterako, seoser permixu eskatzeko, edo ayuntamenture jun, de eskatu biar ixate san-edo, da ba antxe emote daben papela ixate san gidxie.*

**pernil, pernille.** (PERNIL, urdaiazpikoa) Jamón. || *Pernille? Edoseiñas eitten da, norberak gure dabenas. Beres atzekuas eitten da. Mamin geidxau eukitten deu de atzekuas eitten da.*

**peros, perosa.** (PEROZ) Enardecido, -a, exaltado, -a.

**perostu.** (PEROZTU) Enardecerse, exaltarse, acalorarse, enfervorizarse. || *Perostute dau. || Perostute: beren lekutik urtenda, arrotute.*

**perra, perrie.** (PERRA, ferra-bat.) Herradura. *Erradurie* ere esaten da. || *Saldi perrie. || Perrie ipiñi bi dxako. || Perri esate dxako..., jun dan aspaldidxon estous geuk beidxek perrau, estous busterridxen ibiltten-da baya, perri da geusa bat dana burdiñeskue, ta beidxeri anka aspidxen ipintte dxake, da eukitten deu olanik, e miñe olanik eukitten deu, da untzekin josten dxako. || Perrie beidxeri ipintten dxakena da apatxetan. || Erreduri da beidxen apatxen ipintte dxakona. Perrie batzuk esate tze, bestik e areri be erreduri esate tze. Saldidxenari be perrie nai erredurie.*

□ Intxaurraga baserrian, berriz, azaldu zidaten *perrie* eta *erredurie* ez zirela bat. *Perrie* ganaduari ezartzen zaio eta belarritxo bat edukitzen du apatxari lotzeko. *Erredurie* zaldi aziendari ezartzen zaio eta ez du belarririk izaten. || *Erreduri saldidxena da. Perrie ganaduna. Perri da belarritxuas, belarritxu gora dekona,*

*olan sartu te a belarritxue apatxiñ inketaku ixete san.*

**perradore, perradorie.** Herrador. Erradorie ere esaten da. || *Apatxetaku bai, apatx bittarteku te esateu, bittarteku esate tzeu guk. Olan igul ganadu len egote sin, bittarteku, eitte dxakon olako bitterti solittu, da bittarteku deko ta kurau eitte san, erun perratokire ta. Perradori esan, guk perradori esate tzeu, erradori beste batzuk.*

**perratoki, perratokidxe.** (PERRATOKI, ferratoki-bat.) Herradero, lugar para herrar. Ik. *eunteidxe.*

**perrau, perreten, perretan.** (PERRATU, ferratu-bat.) Herrar, poner herraduras. || *Len ganaduek perreten sirien, ganaduek eta manduek eta astuek eta.* || *Bei perreteko erradurak domiñetako, malluke bi euki gendusen.* || *Miñ eukiko deu onakoxe lekuen da au liñau beidxek e perretan diriñien okertu eitte dxako, emen e buelta gustidxen untzak joste dxakos beidxeri, da perrie olantxik e, e an goidxen eukitten daben gantxue okertute ipintte dxako.* || *Eunteidxe? Ori selaku ixete dan esango tzut. Ori Nabarrixen egon san ba. Oiñ estau baya beidxe, perretako beidxe sartze san atzeko partetik. Gero lotu eitte san. Ankak altzeta dxakosan da perrau eitte san, perrakin.*

**perreteridxe.** Ferretería.

**perretxiko, perretxikue.** (PERRETXIKO) Seta. Honako hauek dira perretxikorik ezagunenak: *urdiñe, ongo perretxikue, urritxa, arrautze perretxikue, rubilloye, mikalue, setoridxe.* || *Perretxikotan ibilli.* || *A da ba perretxikotan balientie, arek jakingo deu.* || *Perretxikuten jun de erlojue topa naben nik mendidxen.* || *Perretxiko asko batu naben nik, asko!* || *Ramon, perretxikue sein da jateko modukue?* || *Oin perretxikuk galdu ein dire. Oiñ e basutan sikin dau les, da estaules e ori, pagorik-eta, atxa ta len bayo gitxiau. Piñun estatos.* ☐ *Nabarnizen perretxikue nahiz setie esaten da, baina ez dira bat, izan ere, perretxikue setie baino handiagoa izaten da, ondorengo adibideetan azaltzen den bezala:* || *Seti da txikidxe. Onek e marti setie areri be perretxiku esate tze, baya guk estetzeu esaten orreri perretxiku. Setie.* || *Perretxikue: urdin perretxikue, urritxa perretxiku, da robilloi be perretxiku da orreri perretxiku aundidxauri esate tzeu perretxiku. Onguri be 'seti' estetzeu esaten. Perretxiku. Onguri be esan eitte dxako perretxikuten. Beste batzuk esaten dabe igul*

*"Ongotan noidxek". Da beste batzuk "Gu perretxikuten goidxek". Baya perretxiku ya dana jote ittu, dana, jenerala jote ittu perretxikuk. Baya seti da marti setie da onek txikidxek.* ☐

**perretxikuten.** Buscando setas. Aurreko puntuan aipatutakoaren ildotik, *perretxikuten* eta *setatan* bereizten dira. Hala ere, askotan *perretxikuten* esaten inolako bereizketarik egin barik. || *"Mendire perretxikuten dxoik". "Setatan dxoik" be bai esaten dabe, baya 'perretxikuten' da dana jenerala. Da ori besti da setie: marti setie. Au robilloye be perretxiku esate dxako, baya txanpiñoiri seti esate tzeu. Or daus klasik.* ☐ **perretxiko abidxie.** Setal.

**persona, personie.** (PERTSONA) Persona.

**pertxa, pertxie.** (PERTXA) **1.** Percha. **2.** Percha o barra sobre la que duermen las gallinas. || *Olluek-eta lo eitteko lekue da pertxie.* || *Pertxan daus olluk.* || *Pertxara jun dire olluk.*

**pertxeta, pertxetie.** (PERTXETA, pertxeta-bat.) Mujer muy elegante. || *Ori da pertxetie!* || *Pertxetie: olan dotore salie danari, umiri esate dxake: "Pertxetie alakue!"*

**persekusiñoie.** (PERTSEKUZINO, pertsekuzio-bat.) Persecución.

**peseta, pesetie.** (PEZETA) Peseta (unidad monetaria). || *Orrek Ayuntamiento pagau eitte basen. Albixarraidxe lau peseta sala pentzot, kuna bi peseta, peseta, bai.* || *Mille peseta ordun diru eundidxe san.*

**peska, peskie.** Pesca. ☐ **peskan.** Pescando. || *Jose peskan ibil dok.* || *Peskan jun nas.* || *Peskan gabis.* || *Ni neu sekule enas dedikau peskan.* ☐ **peskan ein.** Pescar.

**peskadore, peskadorie.** Pescador. || *Peskadori da arrantzun dabillena. Bueno, saltzen dabenari be peskadori esate dxake, ta arrain saltzailli be bai. Arrain saltzailli geidxau, "Arraindune dator"-edo.* || *Peskan afesiñoi kasan lantxik egoten da. Nik ikustotas an Bittoridxara bidiñ a subidxen. An egoten da! Peskadore danak... Gu Bittoridxara bastante sarri juten gara ba. Alabi te dause les an e, ara. An peska sasoin libre dauniñ e are danak beti egoten dire egalak euren kañoberakin.*

**peskante, peskantie.** Pescante para levantar la piedra de arriba del molino. || *Peskantie? Onek arridxek altzetakue.*

**peste, pestie.** (PESTE) Peste, mal olor. || *Usein pestie.* || *Selako pesti dau emen!*

**petaka, petakie.** 1. Petaca, estuche de cuero para guardar el tabaco. || *Petakie narruskue ixete san.* || *Petakie tabakue gordeteko kaja bat ixeten da.* 2. Vulva de la perra. || *Petakie beru dxak orrek gero!* || *Igul esate tze “Petakie beru dxabik”.*

**petral, petrala.** (PETRAL) Sinvergüenza, insolente, ceporro, -a. Ik. *eskasa.* || *Ori da petrala!* || *Petral utze da.* || *“Petrala dok!” Ori da ba seinde..., formal-ero estabillena.*

**petrolio, petroliue.** (PETROLIO) Petróleo. || *Petroliuas usau gendun korrinti ipiñi orduko.* || *Saiñe ekarri eitte san, seinde petroliu lantxik.* □

**petrolio argidxe.** Luz de petróleo. || *Oin baserridxe ixen arren, nik estot entzun petrolio argidxe iñok eukiko dabenik. Ostantziñ ondo be esaututen dot nik petroliu.* □ **petrolio ontzidxe.**

Lámpara de petróleo. || *Petrolio ontzidxe sertxu bat ixate san, kajatxu bat, da sera eukitte ban, da bota axe petroliue, metxi ipiñi, da metxias eitte ban argidxe. Ya eskeitte ipiñitta ixate san argidxe, nire txiki denporan.* || *Petrolio ontzidxe ekarrik, a illun dxak eta.* || *Petroliuas ego nitzen gasolinie ataraten. Txipristiñie ei ban, artu deu sue, buuuu! danari artun sue, neu be praketatik dana sue.* || *Karburun ontzidxe asko be eundidxau da. Da petrolio ontzidxe ba txikitxu, ondiño guriñ eongo da, txikitxu ixeten da, petrolio ontzidxe biribilskue, petroliu be ekarri tte botate dxakon, da ba metxi be bai, da bistu te karburu payo argi txikidxau eitten deu baya ba.*

**petxu, petxue.** (PETXU, petxa-bat.) Pecha, impuesto, tributo. || *Oiñ inpuetuk-eta esate dxake, baya ba petxue oindiño esaten da.* || *Usie ixete san erridxena. Jauberi baku laku ixete san. Baya are pe etziren eoten..., are pe edo ango etzeku espada, beste etzekue edo bestekue, are pe ebei eitte sittuen. Ebate sittunak erridxek ipiñiñeko petxu pagau bi xan.*

**piesa, piesie.** (PIEZA) Pieza, tronco. || *Guk e trongue, piesie. Or e lusiri, materidxalekuri piesi esate dxako.* || *A piesik galtzeru dxekok.*

**pikardidxe.** (PIKARDIA) Picardía. || *Orrek deko pikardidxe!*

**pike, pikie.** (PIKA, piko-bat.) Cuesta muy pendiente. || *Aldatz pikie.*

**pike, pikie.** (PIKA) 1. Yunque sobre el que se golpea el filo de la guadaña u hoz con el martillo. Ik. *pikemallue.* || *Da kodañe piketako bakixu, aspiko kodie da... Bai, ari a kodañe piketen dana bakixu selan dan. A da piki. Da besti da mallue.*

*Pike-mallue. Aspiku, pikie, da a goikue, mallue. Mallu edo malluki-edo.* || *Pikie: kodañe, nai serri, nai piketako a, tauke-tauke-tauke eitten dana.* 2. Piqueta, martillo de punta aguzada para picar la piedra del molino. || *Artaberdik oratu eitte ban arridxe. Bai, ori eitte ban. Gero ein bixate san arridxe altzau, pikias a ori kendu, da atzera barridxe be ipiñi.*

**pike, pikie.** (PIKA) □ **pike ein.** Picar. Ik. *ainke ein.* || *Moskittue da eltxu diferente die. Eltxu da... esteu pikerik eitten. Da moskittuk sastasu itzelak eitte ittu. Bi die orrek.* || *Eltxu dana igul ibiltten da, ainbeste eltxu, begidxetara eta dana, baya orrek pikerik estabe eitten. Da moskittu pai. Sastasu eitten dabe.* || *Moskittuk pike eiste.* || *Olluk pike eitten deu.*

**pikeka, pikuka.** (PIKOKA, mokoka) A picotazos, picoteando. *Pikeka gehiago esaten da pikuka baino.* || *Olluk pikeka dabix.* || *Bata bestiri pikeka dabis.*

**pikemallu, pikemallue, pikamallue, pikumallue.** (PIKA-MAILU, sega-mailu) Conjunto de yunque y martillo, usado para afilar la guadaña. *Pikamallue nahiz pikamallukie esaten da. Ik. pikie.* || *Emen pikemallu esate tzeu baya esate dxako —oin serrari pe esta ibiltten da— serrak piketa sirin mallukie, da arixeri esate dxakon.* || *Kontixu bat tire, pikamallukak eta pikamallue. Da kodañe be ba, oin be kodañe arexas, pikamalluas piketan dire ta.* || *Pikemallue kodañe piketako nai serri piketako ixeten da.* || *Guk esate tzeu , kodañe piketakue, pikumallue. Pikumallue. Da areri bestiti, onek alanbrik arregletekuri-tte, mallukie.*

**pikemalluke, pikemallukie.** (PIKA-MAILUKA, sega-mailuka) Martillo de segador (para afinar guadañas)

**pikeu, piketen, piketan.** (PIKAU, pikatu-bat.) 1. Picar. || *Prailleulidxek geidxau piketan dau.* || *Agiñe pikete tzo artaberdik, asko emon eskero.* 2. Deshacer eñ tepe o tormo. || *Guk atxurkulie esate tzeu, ortz bikue. Urkulie da les, olan biribille, ortz bias. Ori be len onek soluk-eta goldatu-te eitte sirin, da areas pikeu eitte san. Egaliñ atxurren be aretxas.* || *Pikau? Satittu a soidxe. Goldiek soi osue ataten deu, da gero garidxe ereitteko, a pikeu eitte san, satittu, pikeu atxurkulias. Ortz bikue esate tze batzuk areri be, guk guk e beti atxurkulie.* 3. Afilar la guadaña o la hoz. || *Pikamallue kodañi piketako usetan da.* || *Pikau ein bi da, motzittute dau.* || *Atxurkulie*

esta piketean. **4.** Picar (la pared). || *Ormie morteruas eitten da sarpiau. Apur bet pikeu, garbittu, te gero sarpieu. || Albiñelak useten dabena, ladrillue sertzeko-ta, areri piketie esate tzau. || Albañelak-eta, olanik e surittu-edo ein gure dabe, txa-txa-txa-txa, piketen badabe ormie.* **5.** Enojar(se). || *Kakapirridxe da estue, edosegas piketen dana.* **6.** Picar, pinchar, agujerear. || *Len mutikutan, oiñ esta ainbeste usetan, baya len karnaseruri esaten: "Es pikau gero pusikie!". Atara, da pustu eitten da.* **7.** Hacer cortes en la corteza del árbol para que éste tome mayor anchura. || *'Pikeu' da pika-pika, jo ta jo ta markak ein. Dana pikaute itxi. Ariñ asteko, intxaurreri ein bi ixate dxako ori. Intxaur landarie ebei tte lodittu ariñau eitten da, pikeute ipintte. Asala, olan satidxe kendu. Asi, lodittu eitten da. Ori estakigu e! Ba ori baten bayo sarridxau entzu ein dot nik ori, intxeurreri ein bi ixete dxakola, asala ebeidxe ein, da asala ebeite nasaittu deidxela. Batzuk eitten dabe ori oin be. Oiñ onek beste arbolak es. Piñuk eta sagarrak eta orrek es. || Arbolie askorias jota pikau, te ba bota. || Askorias joten bada ba, pikau eitten da.*

**pikixoi, pikixoye.** (PIKATXOI) Pico. || *Pikixoi da au, a troska baltza atarateku ta. A sulotzekue, arridxe sulotzekue. Onek sulotu, ta gero onas atara. || Pikixoi da, kamiñu-de eitten jute giñenien, arridxe jote gendunien...*

**pikoka.** (PIKOKA, mokoka). A picotazos, picoteando. || *Pikoka dabil.*

**pikor, pikorra.** **1.** Grano de la piel. || *Gero olaku isten dau naparridxe ostie, edo leprie edo soser, jeneralien. Gure amak euki ban pasaute ori naparridxe ta matrallak danak pikorrek, denpora gustiko.* **2.** Picor. || *Pikorra? Pikorra au emen granotxu batzuk emoten dabena-edo. Ba esteko ainbeste ser e..., ainbeste inportantzidxe. || Bai, gorrittu eitten da, pikorra be emoten deu. || Pikorra deket.*

**piku, pikue.** (PIKO, moko) **1.** Pico de las aves. || *Piku lusie. || Marti sosuk piku oridxe eukitten deu.* **2.** || *Buruko sapidxe eitten daniñ emen esta usau... Pañelo bat esangot, pañelo aundi bat ixeten dala, da ipintten da iru pikure.*

**pikukada, pikukadie.** (PIKOKADA). Picotazo. || *Pikukadie emon.*

**pila, pilie.** Fila. ☐ **pilan.** En fila.

**pillau, pilleu, pilletan.** (PILAU, pilatu-bat.) Amontonar, reunir. Ik. *metatu.* || *Bedar pillue,*

*olanik euridxe-ta datorrenien, pillau apur bet eitten dire ta pillue eitten da, bedar pillotxue. || Iketza eitteko, olan, leuniñ ipintten dabe, da egurrek pillau-pillau eitte ittues. || Bedarra ebai eitten daniñ, pillau eitten da bedarra, orreri deittuten dxako asmela. Gure gastetan munteye, gastaña munteye eitte san orrekin. Pilleu, lakatzak, batun, jo ta bota kakuas bera, da batun, de pilleute ipiñi. || Oiñ esta eitten satz seri paya makiña bat aspiarri basutatik ekarritte, satza, beidxe aspidxen dekena batu de pillau eitte san. Pillau, ba ein deidxela, erre, satza erre. || Batzuk satza esate tze, bestik simeurre. Asitzeko geidxau. Se len asko biste san. Da eitte be alan, da gero pillau. Urtin baten kendu, te atza bota otie ta aspiarri satarra-ta botate besan, an ein deidxen ori. || Arrastilli? Kari atateko guk au usete gendun. A olan txapa sabaltxue die, sei ortz eukitte ittu, da aren bittartien arridxe, kanterako arridxe be joten diñin pilletako-ta arrastilli.*

**pillo, pillue.** (PILO) Montón, cúmulo; haz; cantidad grande. || *Jente pillue. || Orrek diru pillue deko. || Ume pillu dau. || Orrek (sagar) ustel asidxok kendu pillotik! || Saskarie? Bai, saskarie, bedar e ondakiñek solun e, solu garbitzeko batzen diriñak eskobarias, batzen diriñak; arixerri esate dxake. Da pillotxuk ein, de su emon erre deixen. || Ota pillotzue dau or. || Satorrak joten deu da lur pilluk atarate ittu. || Sator sulu bai, bakit ser dan! Bai, kalte eitten deu, se asko egon es arren, ba ataraten daben lurre... moltzuek, emen pillo bat, an pillo bat or pillo bat eta arek e kalte eitten deu, arek e bedarra ixeteko, nai edosetan eitten deu kalte. || Urte pillotxu. Ori ixen sala ixengo dire berrogetamar urte bai. || Ori itxi bena urte pillu da. || Eulitzue? Eskatzari esate baterako, eskatziñ euli pillue ta igul a..., eulitzu: "Eulitzu dau eskatza". || Emen artze siriñ arto pilluk, kamaran kabidu esiñik ibiltte gendusen, da oiñ apurtxut, asitterako. || Pillu ein, de pillun eukitte san batute, da ba gero solora botate san. ☐ Hala esaten zaie euria hasten duenean egiten diren belar piloei. Ik. *pillau.**

**pil-pil.** (PIL-PIL) Onomatopeya de la ebullición. || *Pil-pillin makillaue ipiñi. ☐ pil-pillin.* Al pil-pil. || *Makallu pil-pilliñ ipiñi deu.*

**pingo, pingue.** (PINGO) Algo pequeño. || *Ume pingue esate dxake umiri: "Ume pingue, gusurre esauste ba!". || Pingue: esate baterako, txikidxeri be esate dxako, baya umieri, txikidxe danari be*

esate dxako pingue, eskasa danari-edo, baya pingue esate dxako, ba esate baterako, ondakiñeri, edo olanik, "Pingo bat gelditu da", "Pingo bat deket".

**pinporta, pinportie.** (PINPORTA, pikor) Grano; grumo. || Naburi urtete tze olanik pinportatxu batzuk, sanbrotxu batzuk urtete tze, da arek sanbruek eukitten dabe artxu suri bat barruen, koko suritxu bat, da nabun sanbruek esate dxake. || Asten da aundidxe, taketa les asten da, da urtete tze olako..., ser esangot neuk?, olako pinporta les-edo urtete tze beti gora, da arixeri urtete tzen lorak, asto larrosi esate tzeu. || Umik olgeta gendun geuk marigorri atrapaute kokotxu bat ixeten da marigorri, gorri..., gane gorritxuas, da sertzuk eukitte ittu, olako pinportatxu batzuk eukitte ittu baltzak, da gorridxe ixeten da ta egan ibiltten da. || Sanbrotxuk ixeten dire pinportak. Guk arixeri esate tzezu, sanbrotxu txiki batzukin. || Sanbrotxuk arpidxen nai gorputzin. Gorputziñ urteten dabe orrek pinportak. Da ori esate dxakon ba..., seri esangot?... Pinportak geusa gitxidzek-edo, txikidzek ixeten dire, olan sanbrotxu txikidzek. || Granue eitten da asi, da eundidxe eitten da, bonie. Da pinportie es, pinporti da geusa txikidxe. || Bonak ixeten dire..., bonari eitte dxake..., asten dire pinporta payo aunditxuauek da puntan eitte dxake materitxu.

**pinnta, pinttie.** 1. Pinta, mota. || Gero andraiñ okana be badau, garratz-garratza da berau. Berdeska pinnta gorritxukin. || Suri pinttatxuk eukitte ittu orrek tolosanik. 2. Que tiene pintas o motas. || Bei nabarra da suri-baltza, pinttie. || Pinttie esate tzezu gorri-suridxeri be. □ **indar pinttie.** Variedad de alubia moteada. Ik. *pinttanue.* || Ori ixeten da gorridxe, baya olako tantatxu lakuk eukitte ittu, suridzek. Da esate tzezu tolosanie, da indar pintti be bai, bardiñ esan leidxo, baya jeneral guk tolosani esate tzeu.

**pinttanue.** Variedad de alubia, también conocida como tolosana. Ik. *tolosanie.* || *Pinttanue,* da erreñona bat dire. *Tolosanie* be orixe da. || *Indar pinttanue* esate tzezu olan es gorridxe, ta es suridxe estanari, da baya orreri indarriori esate dxako, emen jeneral ba pinttanue esate dxako, baya esate dxako tolosanie, jeneral.

**pinttau, pinttetan.** (PINTAU, pintatu-bat., margotu) Pintar. || *Goidxe pinttau* bi da. || *Kara ille san.* A kara bixidzek es eban balidxo pinttetako. *Aintxiñe* eskatzak-eta be karias eitte suasen.

**pintture, pintturie.** (PINTURA) Pintura. || *Gallarrai* mendidxe da. *A erres dau,* a garbi dau ganera juteko. *An fletxak,* eta orrek badaus *pinturias* einde, topetako bera.

**pintxe, pintxie.** Pinche. || *Pintxie* esan leidxe mutil koskor bat-edo, dana seoser ikesten dabillena, edo *pintxe* modun dabillena-edo.

**pintxo, pintxue.** Pincho. || *Inpernuko katue?* Arek e langostatxuk e. *Batzuk aundidxauk* tire, beste batzuk txikidxauek. *Lurriñ oten dire,* danak e... ser esangot neuk?, *dekesenak euren e..., pintxotxuk-pintxotxuk* lepun de gorputz gustidxen dekesenak.

**piñadi, piñadidxe.** (PINADI, pinudi-bat.) Pinar. *Piñadidxe* gutxiago erabiltzen da. || *Dendariñeko piñadidxe.* || *Piñadidxe* garbitu. || *Aren* solo barridxen dao piñadi ederra!

**piñu, piñue.** (PINU) Pino. *Piñue* ez da arbolie. *Arbolak* paguek, *atxak* eta horiek dira. || *Piñu* egurre. || *Piñu* txerpidxe. || *Piñue* atara. || *Ni* jaidxo nitzen bueltan, *Nabarrixen* piñurik ondiño egon bes. || *Len* dana pagadidxe egon san, ta piñurik es san egon. || *Ereñoko* mendidxen daus piñu sarrak, aundidzek, altuek. || *Arek* piñuk ogei urte dekos. || *Ori* beti entzu ot, es isteko urkuladun piñurik, al bada beintzet kendu, naitte lodidxe da ederra egon, a urkuli boko, andik eitten da apurtu... *Jeneralien* e! *Batzuk* es, baya eunetatik larogetamar apurtzeko. □ **piñu**

**adarra.** Rama del pino. □ **piñu asidxe.** Piñón (semilla del pino). □ **piñu bolie.** Piña. Ik. *piñuburue.* □ **piñu-botatzaillak.** Derribador de pinos. □ **piñu kokue.** Procesionaria, orugas de distintas especies de lepidópteros que causan estragos en los pinos, encinas y otros árboles, que caminan enlazadas una tras otra, formando filas de gran longitud. || *Piñu kokuk,* gero, *jeusittakun,* *kordan* juten dire beyen. || *Orrek* piñu kokuk, bai!

*Jolin,* orrek egoten dire..., oiñ es ainbeste, oin botikie botaten dabe. *Len* pitan, da alkarren jote juten dire orrek illadan. *Ba* moltzun egoten dire danak, olantxik. *Da* beye jote danin, dana sabalduten di, da gero illadatan juten dire. || *Piñu kokuek* geittu sak eurtten be. *Siketie* eitten badeu, *negu* ona eitten badeu, *geitxen* dire orrek asko.

□ **piñu kokun moltzue.** Nido de la procesionaria. □ **piñu landarie.** Esqueje de pino. || *Txerpidxe* esate dxako piñu landariri, eitten danari ba. *Txerpidxe,* ereittosu asidxe, da areri txerpidxe esate dxako, etzerako piñu landari ekarten danari, txerpidxe. *Len* emen e a Julianek

askotan eitte ban txerpidxe. Piñu landari etziñ artze ban arek. || *Da txerpidxe esate dxako piñu landarie ereitten dana be txerpidxe.* □ **piñu orridxe.** Hoja del pino. □ **piñu librau.** Limpiar de maleza y ramas una parcela de arbolado. || *Piñu libreti da, piñu sasidxas edo sikiñe badau, ba arek andik kentzie. Da beste batzuk arrama esate tze. Guk adarra esate tzeu orreri be. Beti guk adarra. Da askok arrama esate tze. Arrama garbittu te piñu librau. Da lagun txikitxue sasidxas-da igull oten da, ta a garbittu bi da urten deidxen ondo.* || *Piñu libreten ongo san.* □ **piñu sartu.** Plantar pinos. || *Len asko san emen, atxa asko san emen baya danak iketzen siren, pasa dan denporan danak iketzen siren da gero piñue sartu.* || *Bastar atxurre da au, sendu da au. Au da basun e... Solun-de barik e, basorakue, piñu sartzekue, bide barridxe eitteko, da dana iguel.* || *Piñu sartu ben danin.* □ **piñu sartzie.** Planta de pinos. || *Piñu sartzi be eitte san. Ordun erridxe piñuk onek, oin botaten detzanak, erriku di orrek.*

**piñuarte, piñuartie.** Pinar. Ik. *piñadidxe.* Multzo zentzua hartzen du *-arte* atzizkia erantsita. Ik. *arriartie, bedarrartie, sasiartie.* || *Bertatik aurrera segidu bixu, etze sarra topeko su antxe, mendidxen kontra, piñuarte baten.*

**piñuburu, piñuburue.** (PINUBURU, pinaburu-bat.) Piña. Ik. *piñu bolie.*

**pipe, pipie.** (PIPA) Pipa (de fumar). || *Pipie ixotu.* || *Oiñ esta ikusten pipie fumetan gixonik, baya lenguok, sarrak pipan fumeu eitte benak, fumadoriek, pipan fumetan dabenak.*

**piperr, piperra.** (PIPER) Pimiento. || *Piper landarie.* || *Piper saille.* || *Ortun, porruk eta piperrak.* □ **piperr bedarra.** Cierta tipo de hierba que nace junto al excremento del ganado. || *Ori piperr bedarra esate dxako onek e... Ganadun pekotzin dator ori. An dekeu guk satza, da a satza botaten bosu solora, gero ure atrapa-edo, euridxe-edo eitten daunien agertuten da a bedarra.* || *Ori piperr bedarra da altu-altutxue ta batzuk klase bat e deko, sustreidxe gorri-gorridxe. Da besti deko suridxe. Da a baten ataten bosu, estator barridxen. Baya a bestie ataten bosu edo apurtu-edo eitten bosu, atzera barridxen dator.* □ **piperr berdie.** Pimiento verde. || *Berderi pe jaten dire (piperrak), erreta. Imiñi ganeko asala kendute, da satidxe, satidxe ebrak ein, da kastetan dire emen be.* □ **piperr gorridxe.** Pimiento rojo. □ **piperr kordie.** Ristra

de pimientos. □ **piperr lodidxe.** Pimiento grande. Sin. *piperr neusidxe.* □ **piperr neusidxe.** Pimiento grande. Sin. *piperr lodidxe.* □ **piperr potie.** Lata de pimientos. Sin. *piperr latie.* □ **piperr txorixerue.** Pimiento choricero.

**piperrmin, piperrmiñe.** (PIPERMIN) Guindilla (pimiento pequeño y picante). || *Piperrmiñe miñe dekonari, erreten dabenari esate dxako.* || *Piperrmiñe txikidxaue da, da beste piperra aundidxaue da, da jeneral min gitxiau eukitten deu piperr nausidxe. Da piperrmiñe txikitxu ixeten da ta a ortun daula dakigu selaku dan.* || *Piperrmiñe: miñe dekonari, erreten badeu. Berdiri be bai, piketan badeu.*

**pipersale, pipersalie.** (PIPERZALE) Aficionado, -a al pimiento.

**pipitta, pipittie, pepittie.** (PIPITA) Pepita que se forma antes de dar la flor o el fruto. || *Ondiño loratu estok ein, baya pipittan dxak, laster loratuko dok.* || *Lorie ein barik deuna, pipittan esaten dogu: "Pipittan dau larrosie".* || *Pipittan dau sagarra.* || *Pipittie da lelogotan lorie sabaldu orduko dekona. Lelogotan urtete tzo olako biribil-biribiltxuk, pipittik, eta gero a sabalduten lora.* || *Pipittie: nai iderra, nai babi-edo, ya loran badau, loratu bayo ariñau pipitti eukitten deu, da ya "Pipittan dau".* || *Lori emoteko dauna, lelogo pipittan plantetan da, da gero ba sabaldu eitten da, da lorie.* || *Begidxe ba eukitten dau an... Or ataraten dau bera babilie. Da pepittie ba, pepittie ixeten da loran daunien. Lorie bestie.*

□ **pipittera.** Manera de injertar en la que se hace un pequeño corte en la corteza y se introduce el injerto. Sin. *asalera.* Ik. *astillarra.* || *Pipittera da asaletik eitten dana. Da besti sartu bi da barrure, astillara.* || *Pipitti ta gusti ipintte su a bestie, eitteko gora. Da ori bestiari es, astillara eitten dana, ganiñ ebeite, da de barrure sartzen dana ebeite. Da ori su diñosuna pipittie, pipittin puntan euki bi deu orrek, artzeko. Ori olan asalera esate tze emen pipittera.* || *Pipittera edo asalera mendau.* || *Pipittera estitti da asalera.* □ **babin pipittie.** Ojo de la haba. || *Pipittie: babilie e garantzen daniñ e a ganetxun eukitten dabena, arixerie esate tzeu babin pipittie.* || *Da arek eukitten deu, babilie, atzien eukitten deu... A jateku ba kendu eitte dxako, a eukitten dabena baba garaunek. Ori da pipittie.*

**pirin-paran.** (PIRIN-PARAN, firin-faran-bat.) Ganduleando. || *Ori or dabil pirin-paran, ser eiñ*

*estakidxela. || Pirin-paran dabil ori. || Pirin-paran: kantzaute, ibiltteko gogorik es, da olan dabiliena.*

**pirri, pirridxe.** (PIRRI) Puntilloso, -a, cascarrabias. || *Selako pirridxe da ori!*

**pirri-parra.** (PIRRI-PARRA) **1.** En abundancia, abundantemente, copiosamente. Ik. *parra-parra.* || *Pirri-parra bota.* **2.** (Hablando) constantemente, con locuacidad. || *Barretzu da beti berbetan, da pirri-parra dabiliena, barretzue.* **3.** Despacio, lentamente, arrastrando los pies (referido al andar). Ik. *tirri-tarra.* □ **pirri tte parra.** Despacio, lentamente, arrastrando los pies (referido al andar). Ik. *tirri tte tarra.* || *Pirri-parra dabiliena geldigeldi dabiliena be bada ta. Bai, amen olan tirri tte tarra... Batzuk esaten dabe "Bai, ori pirri tte tarra badxabik". Beste batzuk esaten dabe "Tirri tte tarra dxabik". || Berbetan da pirri-parra: gusurre ta abarra.*

**pirrileria, pirrilerie.** (PIRRILERA) Diarrea. Ik. *beraskue.* □ **pirrilerie euki.** Tener disentería. Ik. *beraskue euki, beraskuas ibili, pirripirridxe euki, siriñetan ibili, tripetatik egon. || Pirrilerie deko.*

**pirripirri, pirripirridxe.** (PIRRI-PIRRI) Diarrea. □ **pirripirridxe ibili.** Tener disentería. Ik. *beraskue euki, beraskuas ibili, pirrilerie euki, siriñetan ibili, tripetatik egon. || Igul e obrementu eitten sunin be, "Kaka siriñetan abil"-edo, bakixu. Edo "Pirripirridxe dekek"-edo. Bakixu pirripirridxe be igul, tripetatik sasenien, txorrun sasenien.*

**pirrist (da) parrast, pirri-parra.** Sin ton ni son. Gutxi esaten da, *ganora barik* gehiago esaten da. || *"Pirrist da parrast dabil": ba esate baterako, esni-edo jeusten bada, "Pirri-parra ibili osu, te jeurti dosu". Pirrist-parrast be bardin.*

**piskat.** (PIXKA BAT) Un poco. Inoiz entzun dut, baina *apur bet* esaten da normalean. Kanpoan ikasitakoa da. || *Piskat: bueno ori, amen piskat be esaten da, baya geidxau esaten da piskat bayo, 'apur bet', 'berdure apur bet', edo ba 'ogi apur bet', edo ba..., 'apur bet'. Normalin piskat esteu esaten. || Geuk esteu usetan olan piskat esatie. Bai, umik-eta, umik-eta esaten dabe, "Piskat payo estote gure". || Apari ariñe esaten da emen, berdure piskat ta beste arrain piskat edo olan.*

**pista, pistie.** (PISTA) Pista. || *Kamiñuek dire kotxiek-eta dabixenak, ostantzin, propidxue da lengo bidie. Onek bestiek esaten dxakue*

*eskabadoriek-eta eindexu ori, ba pistak. || Oin pistie ein dabe lengo bidetik.*

**pista, pistie.** (PIZTA, makar) Legaña. || *Begidxen pistak eukitte ittu. || Pistas beterik egoten da. || Pistie sikiñe da.*

**pistatzu, pistatzue, pistotzue.** (PIZTATSU, makartsu) Legañoso, -a. Honela baino gehiago *pistojue* edo *pistojie* esaten da.

**pistidxe.** (PIZTIA) Alimaña venenosa. Ik. *pataridxe.* || *Pistidxe esate dxakona ba benenu dekon geusi da, benenu dekon pataridxe da.* □ Hona hemen *pataridxe* eta *pistidxe* berben arteko desberdintasuna: || *Bueno, pistidxe esate dxako geusa benenosu danari edo benenu dekola pentzetan danari esate dxako pistidxe. Pataridxek e dana tire, txakurre pe bai, katu pe bai. Da beidxeri beidxek eta txalak esate dxake baya are pe pataridxe tire.* □ Beste berriemaile batek, berriz, desberdintasuna tamainak ematen zuela zioen: || *Pistidxe txikitxuau dalako esango dxako iguel.*

**pistoja, pistojie.** Legañoso. Ik. *pistatzue.*

**pistajo, pistojue.** Legañoso. Ik. *pistatzue.*

**pistola, pistolie.** (PISTOLA) Pistola (barra de pan). Emiliano Arriagak *pistola* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Panecillo largo, angosto y mus tostado, casi *churrumiau*, que se emplea para hacer la sopa llamada de *pistola*". || *Len pistolie egote san, sopie eitteko pistolie. Luse, da turrou edo gogortxue, bigune barik. || Pistolie? Ori be sopi eitteko, eguerdiko sopie.* □ **pistola sopie.** Sopa que se hace con el pan conocido como pistola. || *Pistola sopie? Sopie, nik estaitt oin pistolarik eitten badabe panaderuk. Len pistoli eitte ben sopi eitteko. Da oiñ estaitt eitten badabe baya ba axe da pistola sopie. Ogi gogortxu edo pistolie, bigune barik gogorrau ixeten da. Pistola sopie arixe esate dxako.*

**pittilin, pittiliñe.** (PITILIN) Pene. Hiztegi batzuetan haur hizkeratzat jotzen bada ere, nagusiekin ere erabiltzen da ondoren argitzen den legez. || *Bueno, nausidxeekin be, bai esaten da nausidxeekin be, da umiri geidxau esate dxake nausidxeri bayo. Ik. pittue.*

**pittin, pittiñe.** (PITIN) Pequeñín. □ Umeari esaten zaio txikitxua denean. || *Au pittiñau! || Au pittintxu da ta! || Pittintxu, geure pittintxu ori! || Pittiñori, geure pittiñori etorri seitte ona! □ Katakumeari ere esaten zaio: -Au pittintxu, etorri*



ona, *pittintxu!* ☐ Gauza bat txikia edo polita denean ere esaten da: *Geuse pittiñe*.

**pittin-pittin.** (PITIN-PITIN) A menudo. Ik. *sarri*.  
|| *Pittin-pittiñ etorten da seosen bille*. || *Bueno, "Pittin-pittiñ etorten da" bayo, "Noisnai etorten da" geidxau esaten da*.

**pittinke.** (PITINKA) Poco a poco, lentamente. Sin. *apurke-apurke*. || *Pittinke-pittinke esanda be, aittuten da, baya emen apurkapurke geidxau esaten da*.

**pittue, pitue.** (PITO) Pene. Ik. *pittiliñe, txilibitue*.  
|| *Txilibitue? Ba ser dala esangot? Txix eitten dana. Gixoneskuk txix eitten dabenari batzuk txilibitu esate tze. Da beste batzu pa esate tze, umik-eta pitu esate tze*. || *Idixille? Idixillen bustena. Idixen bustena siketute. A joteko. Ori da saldidxeri e makillas-da jo biarren, puntan ipintte tze ugela-edo. Da idixille, sille. Da ori eitte ben aintxiña. Pittue. Pittu da. Da a siketu de idixille esate tzen. Alakoxias-da eitte ittuen. Da onen baserridxetan-da karrerako saldidxek-edo makillas jo biarrin, axe. Idixille esate tzen*.

**pitxar, pitxarra.** (PITXER) Jarro. || *Lurresku pitxarra*. || *Kuartillo arda pitxar suridxe da basotxue*. ☐ **pitxar morkue.** Vasija grosera, jarra despotillada. || *Morkuk? Orrek pitxarrak, apurtzeko sirin pitxarrak: morkuk, pitxar morkuk. Orrek bastuk ixate sirin. Da ori uretarako eskendun ibiltten, espabese txarridxe iltte sanin, koipe gasi gorteko*. || *Da axe koipie, txingerrak apartau, da axe koipe garbi-garbidxe pasau serien, pasadorien, onakoxe pasadorien, da koipe gasie botate san orretara pitxar morkutara*.

**pitxerkada, pitxerkadie.** (PITXERKADA) Jarra (contenido de una jarra). || *Pitxarkada ardaue*.

**pitxi, pitxidxe.** (PITXI, bitxi-bat.) Joya, adorno, alhaja; ropa preciosa. ☐ Askotan umeei esaten zaie, esaterako, arropagatik: *Selako pitxi politte!* edo *Pitxi politte dekesu gero!* ☐ Larrosa bat eman ezker ere honela esaten da: *Aiba pitxi politte!*

**pixarra, pixarrie.** Pizarra. *Pixarrak* ikasle bakoitzak erabiltzen zituzten txikiak ziren. Ikasle guztientzat erabiltzen zena handia zen, egurrezkoa, eta *tablerue* esaten zioten. || *Pixarrak txikidxek siren, noberak aurriñ eukitteko*.

**pixau, pixeten.** (PISAU, pisatu-bat.) Pesar. || *Pixeten doiñien, ganaduna ixeten da erraldie, txarridxena arru*. || *Len laborie oin bayo geidxau*

*eraiite san, da artze san da meiduten. Batzuk naidxau ixete ben imillaunas meidutie, beste batzuk pixaute*.

**1 pixu, pixue.** (PISU) 1. Peso. || *Pisue eukan arek, da lurre busti sanien, estakak eta gusti, tomatin da burdiñan pisuas parrela bera*. || *Pixu aundidxeidxe deko*. || *Pixu ariñe deko*. || *Pixu gitxiko gixona*. || *Gero pixu emote tzo urek. Artu te txupeu eitten deu te*. 2. Peso, carga. || *Tiki-taka-tiki-taka ibiltten dana da pendolie. Da pixuk eukitte ittu, sortzi egunik sortzi egunera emote dxako kuerdie, ra-ra-ra-ra, da aste bat eitte tze pixuk bajatzeko, da gero ba domeketan e —len aittek eitte ban— gero ba domeketan pixuk altzau eitte dxakosan erlojuri, te ostabe aste gustidxe eote san*. ☐ **pixure.** Pesando el género. || *'Tantora' da..., begire esaten dabe batzuk. Baya tantora da ba ser dekon estakidxela saldu bi osu, onenbesteko baten. Da oin danak jentie, oin danak pixu ikusten juten dire, pixure, baya len es, len bueno!, len gure aitte tratanti ixen san, da tantora eroste basen*.

**2 pixu, pixue.** (PISU) Piso. || *Bueno, pixue esate gu gu pe, se etzie ixen leike basterrekue, kalie be pixue esate gu*.

**pixutzu, pixutzue.** (PISUTSU) Pesado, -a, de mucho peso. || *Pixutzue da*. || *Masu be bai, masu be bai, baya malmaixe, almaixe-edo, malmaixe-edo. Ixeten da kobresku, ori katxarru, pixutzu-pixutzu. Da ixeten da katillutxu lako ontzidxe*. || *Arek esteu eukitten arek ladrilluk eukitte irrur sulorik, ba a osu ixeten da, da pixutzu be bai. Txapako ladrillue esate tzeu te, txapan ipintten dan ladrillu esate tzeu*.

**plan, plana.** (PLAN) Plan, proyecto. || *Plana ipin dabe*.

**planpin, planpiña.** Pamplín, tontería; lisonja u obsequio insincero o inoportuno. || *Planpiña orrek ein deu*. || *Apropos? Tranpas. Apropos ba planpin dabilela, faltzidxen dabilela. Planpin da ba engañau edo serien dabillena, apropos*.

**planta, plantie.** (PLANTA) Apariencia, facha, traza. || *Aberatza da baya plantie geidxau*. ☐ **plantie/plantak ein.** Simular. || *Aberatz plantie ein, da pobre bixi*. || *Ikusi esteun plantie ein deu. (esikusi ein) || Plantak eitte ittu, baya esta lelie*. || *Tonton plantak eitte ittus*. || *Soro plantak eitte ittu*. || *Umie neusidxen plantak eitten ibiltten da*. || *Esku botateko plantie ein tzo*. || *Da jakittune da eser estakidxela asko esaten deuna, asko dakidxela planti ein, da "Jakittun ok ori, jakittune! Danak*

*jakitte sak!*". || *Su sas atzekera-edo jarritte, da etorri besti atzetik eta planta bat eitte tzo ba... Ori da "Sustu sartustek!"*. || *Planti ein tzek baya jo etxok ein.*

**plantau, plantetan.** (PLANTAU, plantatu-bat.) Plantarse, ponerse. || *Kolore oridxeekin plantau da.* || *Politte plantau da.* || *Nerbidxoso plantau nas.* || *Lurre astertu eitten deu siketu deidxen, arue plantau deidxen.* || *Txoridxe jaten plantau de.* || *Oyen alboskera plantau da.* || *Ba, atxurras len seintzen beti. Onan atxurre artun, da plantau onduen, da jeneralien juten dabe eberdidxen amabidxen bueltan, da euskidxe sartu eidxeran olan, goixien be goixetik.* || *Artak artu esiñik plantetan da.* || *Kankana: ori ote san gona bat, aspittik jasteku ta, plantxeta ben, uretan busti, da almido frankuas, da astiñ-astin planteta san.* || *Lanie moltzotute: trokuk einde eoten danin, gogortute les eoten danien ba eitten da ba olanik e, ser esangot neuk? Gogortasunek-edo, olan sati gogorra les plantetan dire sati batzuk.* || *Okelie..., bera nekesau eingo da igul, okelie baya olanik e garrastu eitten da, jateko modukue plantau, da espada kastetan ba garrastu eitten da.* || *Orrantz begire plantau gure bosu, bardin doste.* || *Galtzu botate dxako osaliri, soltie, gero dijestiñoyen plantau deidxen. Galtzue. Galtzo birriñek, galtzu botaten badetzesu ba, gero besti, osali bera, masi da les, dijestiño laguntzeko.*

**plantxa, plantxie, prantxié.** Plancha de hierro del fuego bajo. || *Sorgiñen kontu pa, plantxiñ aspidxen eukitte bela unturatxue gordeta ta axe eskutan eitte bela plantxias, da gero tximinidxen gora igote bela sorgiñek-eta, bai esate ben.* || *Beko suen prantxie.* || *Prantxie? Ser da? Aulako katxarro bat lapikuri, beko suko lapikuri atziñ ipintte dxakona? Len emen be egon san, da oin Jangoikuk jakingo deu nun dauen. Se ori ba negun otz dauniñ ixotute dau, baya ostantziñ ixotu esta eitten.*

**plantxau, plantxetan.** (PLANTXAU, plantxatu-bat.) Planchar. || *Kankana esate dxako geuse bat, almidoyas plantxetan dana, astin-astin gelditzen da.*

**plasa, plasie.** (PLAZA) 1. Plaza. || *Nabarrisko plasie.* 2. Plaza, explanada sobre la que se hacía el baile. || *Orrek soñu joillak-eta bai. Orrek e ganera pagau ein biste ben plasie. Bueltie, artu terrenue eurentzako, se an seusen iru lau leku ononak, da besti lekuk igul goi bera-ta dana.* 3. Mercado, plaza. || *Danak juen siren Gernikeko*

*plasara.* || *Plasa ona egon da.* || *Kapoyek gero plasan saldu eitte ittue.* || *Orko jentie bendejias jun dok plasara.* || *Plasara ibiltten da bendajias.* || *Plasara jun de fruta saltzen.* || *Da jentie erute gendun, igul lau lagun, de plasarako jenerue, sagarra, olako karruas.* ☐ **plasa mutille.** Joven que va a la plaza al baile y le gusta la juerga. || *Plasa mutille da.* ☐ **plasa neskie.** Joven que va a la plaza al baile y le gusta la juerga.

**plaso, plasue.** Plazo. || *Plasue: olan gause bateri ipiñi ain denporatarako diru pagetako edo seosetako, da aixeri bai plasue esate dxako.* || *Plasue bete dxako.* || *Plasue etorten deko.*

**plast.** (PLAST) ¡Zas! (onomatopeya del golpe). || *Astue? Olako taket bana artun, de goitti bera plast eta plast eta plast-eta, garaunek bera, da koskorrak artun, de... bera be koskorrak igul batzuk pasetan dire iguel. Baya ugerittesune auri ixete san.* || *Manga-manga plast, tostadak sakure tas!" Tostadak jaten dire, naidxe, naidxe, naidxe jan. Manga axe da, gero garixumin penitentzidxe datorrelako da.*

**plasta.** (PLASTA) Onomatopeya del nevar copioso. || *Eurtie? Eurre plasta-plasta goitti bera eur eitten dabenñ eurti axe da, da kanpu surittu.*

**plastada, plastadie.** (PLASTADA) Bofetón. Sin. *arpeikue, belarriondokue, sapladie, saplasue.* Ik. *belarriondokue.* || *Plastadie emon tzo.* || *Selako plastadie emoste!* || *Emongo tzut plastada bat!*

**plastasue.** (PLASTAZO) Bofetada, torta. ☐ *Hona hemen plastasue eta plastadie berben arteko aldea:* || *Plastasuen plastadi bayo gogorrau da.*

**plastikue.** (PLASTIKO) Plástico. || *Oiñ es. Oin plastiku ipintte tze danak kontixu. Ba len or basutan nok erungo ban, len plastiku nok ibili eitte ban ba? Oin dana plastiku dau egal gustitan. Ba len es. Len e axe eitte dxakon, soidxe. Baya meti eitten jakiñ ein bi da.*

**platanu, platanue.** (PLATANO) Plátano (*Platanus* sp.). || *Arek plasetan-da egoten diriñ orrek arbolak, Nabarrisko plasan badas oiñ estakitt, len egon siriñ amen be, orrek orri sabaltxu eukitten dabenak, da platanu arbolak, ba emen be esate dxaken.*

**plater, platera.** (PLATER) Plato. ☐ **plater asala.** Plato llano. || *Atara plater asalak.* ☐ **plater sakona.** Plato hondo.

**platerkada, platerkadie.** (PLATERKADA) Plato, contenido de un plato lleno.

**plausta.** (PLAUSTA) Onomatopeya de la caída. || *Plausta! (jeusi eskero).*

**plaustada, plaustadie.** (PLAUSTADA) Golpe producido al caerse. || *Plaustadie artu deu.* || *Bueno, plaustadie nik esango neke plaustadi esate dxakola jeusten dan persona bateri, artzen daben golpie, plaustadie.*

**plaustie.** Holgazán, -ana. || *“Ori da plaustie!” bai, alperrari edo olan esate dxako.*

**playa, playie.** (PLAIA, hondartza) Playa.

**pleittu, pleittue.** (PLEITU, auzi) Pleito. || *Oiñ atie be esta asko esaten, oin pleittue esaten da-ta, baya atie ba, "Atie ipiñi tzo", "Atie ipiñi deu"-te... Da ori ba, juesin-edo sartzen dana-edo ixeten da kontixu, ati ori.* || *Beti dabil pleittuk ipintten.*

**plen.** (PLEN) Colmado, -a, muy lleno. || *Erreka bat-edo doyenien goidxen, esaten da: “Plen-plen doye ure.” Osea goraiño.* || *“Errekie plen doye”: ures beterik juten danin.*

**plisti-plasta.** (PLISTI-PLASTA) Onomatopeya del chapoteo, del sonido que hacen las manos o los pies al batir al agua.

**plixigas, plixigasa.** (PLEXIGLAS) Plexiglás, resina sintética que tiene el aspecto del vidrio (del ing. *plexiglass*, vidrio flexible). || *Plixiglaxa? Ba are pe lenau urte ben, olan gabardiñi be esta ixeten, gabardiñe antzeko bat e me-meye ixeten dana, arixe esate tzeu plixiglaxa.*

**plomo, plomue.** Plomo.

**pluma, plumie.** Pluma para escribir.

**pobre, pobrie.** (POBRE) Pobre. || *Egunero pasaten siren pobriek sakue lepuen da aterik ate.* || *Urtik ixen siriñ eskasak eta oin dana pranko. Oin pobrerik estau.*

**pobresidxe.** (POBREZIA) Pobreza. || *Pobresidxe deke.* || *Pobresidxen bixi dire.*

**pobretu.** (POBRETU) Empobrecer. || *Pobreute dau.* || *Pobretu ein da.*

**poderoso.** ☐ **alkar poderoso.** Firma de un documento por ambos cónyuges, en el que se especifica que, una vez muerto uno de ellos, el otro podrá disponer de todos los bienes. Ik. *poderoso.* || *Alkar poderoso einde daus.* || *Alkar poderoso ein dabe, notariadxera junde.* || *Alkar poderoso ein dabe andra-gixonak.* || *Bata bestiñin poderoso einde daus.*

**polaña.** (POLAINA) Polaina. *Polañak* oinetakoen gaintetik janzten dira. || *Polañak dire ointako batzuk, seinde ser esangot neuk?, katiuska ixeti*

*les-edo, olako gorasko, uretan-edo, ur asko danin, edo euri asko danin-edo ibiltten diriñari.*

**polistu.** (POLIZTU, politu-bat., edertu) Embellecerse. Ik. *dotoretu, politte plantau.* || *Polistu ein da.*

**polit, politte.** (POLIT) Lindo, bonito. Ik. *dotorie.* || *Politte plantau da.* || *Selako pitxi politte!* || *Egunin bayo egunin polittau dau.*

**politto.** (POLITO) Bien, adecuadamente, lindamente. || *Politto adornau dabe.* || *Politto doye.* || *Len bayo politxuau da.* || *Da batzuk ba surittute ba ipiñi, polittuau egon deidxen. Beste batzu pa merkiau eittigaittik-edo bape, eser be barik eiñ olantxik ormi, ta arixas sestusko ormie ta listu.* ☐ *Isurkariez hitz egiten denean, ugaritasuna ere adieraz dezake.* || *Errekie politto doye.* || *Politto bete dire errekek.* ☐ *Askotxo edaten denean ere esaten da. Sin. edanda.* || *Politto edanda.* || *Alabiek: -“Ene, gure aitte politto dator!” Aittek: -“Amak artuko doste faltan bat!”* || *A, politto doye ori!* || *Txurruipiñ eitte dxok ak politto!* ☐ **politto emon.** Sentar bien alguna prenda, estar bien. || *Politto emoten tzu.* || *Politto emoten dosu.* ☐ **politto euki.** Sentar bien alguna prenda. Ik. *ederto.* || *Politto dekesu.* || *Politto deko ulie.* || *Ide bedarra arixeri esate dxako. Da adornutze pe ibiltten da, da politto emoten deu, larrosakin.*

**pol-pol.** (POL-POL) Onomatopeya del hervor suave. || *Pol-pol dau irikitten indarra.*

**poltza, poltzie.** (POLTSA) Bolsa. Ik. *ixil poltzie.* || *Da alakoxiri kentze dxake, ligerra esate dxako. Esnie edan, da geldittute dxaken..., poltza bat eukitten dabe barruen. Da il, da poltzi kentze dxaken, da gero sera areri musturre lotu eitte dxakon, da sakutu, ba eskei eitte san siketzeko.* || *Ur sorru? Sera, txal jaidxo orduko datorren ur sorrue, poltzie.* || *Enbrak eukitte ben aintxiñe onan, gonik kortadie euken, esta? Ba emendik gerrittik lotute erute ben poltzie: malen partikarie.*

**poltzero, poltzerue.** (POLTSERO) El que lleva la bolsa del dinero en las cuestaciones. ☐ *Esaterako, Santa Agedan diru eske ibiltzen denean, honela esaten da: || Poltzeru or dau.*

**poltzikue.** (POLTSIKO, sakela) Bolsillo. *Poltzikue* nahiz *poltzillue* esaten da. Ik. *ixil poltzie, partikerie, poltzillue.*

**poltzillue.** Bolsillo. *Poltzikue* nahiz *poltzillue* esaten da. Ik. *ixil poltzie, partikerie, poltzikue.*

**popa.** (POPA) Trasero, culo. ☐ **popatik artu.**

Tomar por (el) culo. Ik. *atzetik artu.* || *Su popatik artzen jun!* ☐ **popatik bialdu.** Mandar a tomar por (el) culo. Berriemaile baten arabera, honela gizonezkoek baino ez dute esaten.

**porlan, porlana.** (PORLAN) Cemento. Ik. *sementue.* || *Porlanik bakuk.* || *Porlanesku da.* || *Porlanes ein dabe.* || *Obratarako biosu karie. Kari bi da derrior. Aintxiñe eitte san itxosoko landarras da karias morterue. Da gero obran ormi eitteko porlana apurtxut bota.*

**porra, porrie.** (PORRA, borra-bat.) **1.** Porra, mazo metálico con mango de madera que se utiliza para golpear la cuña, estacas, etc. Sin. *masie.* || *Porri da arridxe apurtzeko be bai, sididxe joteko be bai. Sididxe bakixu ser dan? Astiltzeko egurre. Da a joteku be porrie. Burdiñeskue. Astune.* || *Siridxe esate dxako areri. Burdiñeskue. Porrie bestie, jotekugeittik.* || *Onek e basun piñu botaten-da ibilte giñenien, usete gendusen sididxe. Igul, piñuek, igul piñu pe kaidi eukitten deu ba bera edo gora. Da igul e, estosu gure bera juterik. Edo alanbrie, edo kalti eingo deu te ona gurosu bota edo ara. Ordun sartze dxakos e... Ara gure bosu, emendik. Da a joteku be porri da.* ☐ Hona hemen *porrie* eta *mallue* hitzen artean dagoen desberdintasuna: || *Mallu da porri ba antzerasku dire. Erdi antzerasku dire. Guk e basun usete gendun, pago botaten-da ibilte giñenin, sididxe sartzeko, porrie. Da mallu da karabidxarako ta kalerurako-ta, arridxe apurtzekue. Da bata da porrie, da besti mallue. Da gero arridxe jotekue, matxukie.* **2.** Porra, dinero que se recolecta. || *Porri da ori sera eitten dana be, batzen dana be porri esate dxako. Diru bat.*

**porrilla.** (PORRILA) Enfermedad del ganado que se manifiesta por la aparición de heridas o costras en las pezuñas. Sin. *apatxartekue, apatxetakue, apatx bittartekue.* || *Porrillak ganaduk eukitte ittue. Ixaten dire ainketan eukitte ittuen... Ser esangot neuk? Eridatxun batzuk-edo, kostratxun batzuk-edo, alakuk ixaten dire porrillak. Apatxetan eukitte ittue. Apatxartekue be esate dxake.* || *Porrilla da beidxek eukitten daben geixue.* || *Porrilla anketan eukitten dabe. Apatxa usteldu eitten da.*

**porrot.** (PORROT) Descalabro. ☐ **porrot ein.** Desmoronar(se), desplomar(se) (por ejemplo, el piso de una casa). || *Porrot ein deu arek!*

**porru, porrue.** (PORRU) Puerro (*Allium porrum*). ☐ **porro orridxe.** Hoja del puerro. || *Ori lior-liorra ixeten da. Lior-liortxu lusie, porro orridxen antzien.* ☐ **porru patatie.** Puerro con patatas. || *Porru patatie: porruas eitten da patatie egosi.* || *Porru patatie: porrue, da porru irakitten daunin patatak sartze dxakos, da porru patatie, egosten danin.* ☐ Besterik botatzen zaion galdetuta, honela erantzun didate: || *Bai, oridxue, gatza, da olan botate dxako oridxu, te gatza, da kipuli aiñ osue espada, sati bet, edo txikitxu, edo osu-edo, da kipuli be botate dxako, ta ba orixe da porru patatie.* ☐ **altza porru!** Exclamación de ánimo en los bailes y romerías. || *Altza porru! (esaera bat, erromeridxetan dantzan dabilenin).*

**porrusalda, porrusaldie.** (PORRUSALDA) Caldo de puerros. || *Porrusaldie da porruas eitten dan saldie.*

**portakixun, portakixune.** (PORTAKIZUN, portaera) Conducta, comportamiento.

**portal, portala.** (PORTALE) Portal. Ik. *etartie.* El exaldeko etxeetakoei *entradie* ere esaten zaio.

**portau.** (PORTAU, portatu-bat.) Portar(se), comportar(se).

**portu, portue.** (PORTU) Puerto.

**portxiripa.** De chiripa, por casualidad. *Portxiripa* nahiz *portxiripas* esaten da. || *Portxiripa ikusi dot.* || *Portxiripa atrapau deu trena.* || *Portxiripa ixen da.*

**portziño, portziñue, porsañue.** (PORTZINO, portzio-bat.) Porción, cantidad. || *Kantiñie: ori jeneral, guk alanik ibilte giñen, esnie portziño txikidxen nonora, alhora-edo, eusoko etzera erun biar bada, olakoxe kantintxue ibilte gendun.* || *Portziñue sera da, se esangot neuk?, kantidade bat-edo.* || *Poltzi esate tze asko paya. Plastikuek onek e okelie sartuteko lotu eitte ittues ba. Porsañuetan ipiñi. Da areri batzuk esate tze sakutuk, baya arei esate tze poltzak.*

**pos, posa.** (POZ) Alegría, júbilo, regocijo. || *Selako posa deko.* || *Aren posa pe jun dosak.* ☐ **posen poses.** De pura alegría, de tanta alegría. || *Posen posas siñistu esiñik dau.*

**posarren.** (POZARREN) Muy contento, con mucho gusto. Ik. *kontentus.* || *Posarren jun dok.*

**posgarri, posgarridxe.** (POZGARRI) Agradable, que alegra, que da gusto. || *Geusik ondo urtete daunin: "Au posgarridxe ixen da!"* || *Atzegiñe: geuse posgarri bat jausten danin-edo ba.*

**posgarriskue.** (POZGARRIZKO) Agradable, que alegre, que da gusto. || *Notixi posgarrisku da ori.*

**posik.** (POZIK) Contento. || *Beste sagarra pe posik jate gendusen.* || *A ju san posik!* || *Posik etorko san a ostantzin. Oixe ettorko sana.* || *Posik bixi da.* || *Arpei poskorreku da.* || *Posik dauneko arpeidxe.* || *Da estidxe emote ei tzen, ogidxe ebei sati bi, da ogi bidxen erdidxen estidxe, unteu-unteu einde estidxe. Da posik, posik a be!*

**poskari, poskaridxe.** (POZKARI) Alegría, felicidad. || *Onek deko poskaridxe!* || *Poskaridxas bitzetan dxak!*

**poskor, poskorra.** (POZKOR) Alegre, que tiene buen humor, que está contento por cualquier motivo. || *Poskorra? Bai, poskorra be esaten da, da orixe bai elekena oingo umiek ser dan be, elekena asartauko. Poskorra, olan umiri, olan posik dabixen umiri-edo "Poskor dabil"-edo, "Poskortasunas dabil"-edo, "Poskorrak dire"-edo. Baya oiñ ori berbi ori estakipa, geuk sarro pai, bakigu ser dan be, baya oingo umik estakit pakidxe be ser dan.* || *Poskorra da, posik dabilenari, umiri be esate dxake: "Poskor dabis".* || *Aringaringe dabixenari-tte, "Umik posik dabis", "Poskor dabis".* || *Arpei poskorreku da.*

**poskortasun, poskortasune.** (POZKORTASUN) Alegría. || *Poskortasunas dabil.*

**posotza, posotzie.** Charcal. || *Kristelak ei dire ur posotzatan.* || *Ur posotzie? Ba bidien norberak jun bi daben lekun edo olan ur posotzie, ur posotzie, lantzin leku baten, arantzau-orruntzau, ur posotzie.* || *Ur posotzi dau.*

**pospolin, pospoliñe.** (POSPOLIN, galeper) **1.** Codorniz (*Coturnix coturnix*). Emiliano Arriagak *pospolín* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "(e. onom.) La codorniz, por imitación a su canto". || *Da one bestik, pospoliñe pe, galeperra esate tze askok. Orre pe paseku die.* **2.** (Persona) linda y pequeña. || *Pospoliñe esaten da neska politte bada.*

**pospolo, pospolue.** (POSPOLO) Cerilla. Nabarnizen *mistue* berba ezagutzen duten galdetu dutenean baietz erantzun didate, baina eurek *pospolue* esaten dute. || *Piñuk-eta botaten dauna da brie. Da arek, a pospoluas e emote tzesu, da da! su artzen deu ak, brik.* ☐ **pospolo kajie.** Caja de cerillas.

**postasun, postasune.** (POZTASUN) Alegría. || *Postasun itzela artu deu.* || *Postasune deko.*

**poste, postie.** Poste. || *Argidxen postie.*

**postre, postrie.** (POSTRE) Postre. || *Postrie? Bai. Egon eskeruen nai fruti nai pastela nai dana dalakue, oten dana.*

**postu.** (POZTU) Alegrar(se). || *Asko postu da.*

**posture, posturie.** (POSTURA) Apuesta. *Apostue* ere esaten da, baina oso gutxi erabiltzen da. *Ik. trabesa.* || *A posturi einde, estai senbat posture einde. Bost mille ogorloko-edo posture einde.* || *Emen "Apostu ein dot" bayo geidxau esaten da, ba, "Posturie ein dot", edo "Trabesa ein dot".*

**posturesale, posturesalie.** (POSTURAZALE) Aficionado, -a a las apuestas. || *Posturesalie da ori!*

**posu, poso, posue.** (POZU, putzu-bat.) Charca. *Ik. ur potxidxe, ur txarkue.* || *Ur posuek.* || *Presie ein, detenidu ure ta beko posue baldakiñ utzittu ta an agertzen siriñ angillak.* || *Uregasidxu lelengotan sapaburu lakoxi ixeten da, da beres sapaburue, onetan posutan ibiltten dana.* || *Len be geuk ortxe etzaurrien umik txikidxe siriñin sarratu ein gendun posu, ume bat itto esteidxen. Ostantziñ ortxe etzaurrin, geure etzaurrin dau posu galanta, da sarratute dau arridxeekin.* || *Posuek eitte siren, ganaduk-eta ure edateko-ta.* || *Nik badakit nun dausen oin be san jun idak. Erreka onduen, poso onduen, ure onduen.* ☐

**posutxue.** Charco. Askotan *ur posutxue* entzuten da. *Txarkue* ere esaten da: *Or txarkue dxak.* || *Posutxue txikidxe da. Eundidxe eitten dabe ganaduek-eta ure edateko-ta: posue.* ☐

**txixe posue.** Charco que se forma al orinar. || *Bueno, txixe posue, esate baterako, beyen ganiñ umik txixe eitten badeu, da ba posutxue ixan deu, ta ba arixe esate dxako "Txixe posu ein deu!"*

**pot, pota, fota.** (POT) Chozna, pan francés. *Ik. fota.* Emiliano Arriagak *fot* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Panecillo francés, largo y angosto usado casi exclusivamente para tomar el chocolate". || *Pota: panaderuk eitte bena, pota esate dxako. Pota, ta gasteta sana, ogi modun estan gastetan. Gasteta san armosuten sopak eitteko, da pota esate dxakon. Suridxe ixete san, normala. Formie, ba ser esangot neuk?, ixete san txikidxaue, olanik, da loditxuaue, sopak eitteko modukue.* || *Emen e..., bai, pota nik pentzetot len esate sala geidxau. Oiñ estu eitten potik.*

**potaje, potajie.** (POTAJE) Potaje. || *Potajie? Bai, lapikikuri be, egositte dauniñ esate dxako. || Potajie lapikoku da, inddarra.*

**pote, pótie.** (POTE) Bote (recipiente). || *Potie? Poti esate dxako lori sartzen dan ontzidxeri.*

**potei, poteidxe.** (POTAI, pota) Colodra, estuche de agua para la piedra de afilar. || *Poteidxek gerridxen ipintten siren, arridxe sartun de kodañe sorrostuteko-ta.*

**potenteidxe.** Pila de agua bendita. || *Potenteidxe? Elixan oten dan e..., entradan-edo oten dana. Da elixara jute garañin, antxe ur bedeinkatue artu te aittiaren ei tte, da barrure. || Potenteidxe arri eundidxe ixeten da, dana biribille ta ur bedeinkatu eukitten dabena.*

**potijo, potijue.** Botijo de unos dos litros de capacidad. || *Potijuek: orrek basora-ta be igul erute siren. || Oñ emen estau-te, geurin be len egote san potijue, txorrotxu bi eukitte ittu, bat txikidxe, ta beste eunditxuaue, potijo biribille, ba astias, mendire ibiltte gendun uras, da potijue. || Lurresku ixete san potijue, da ure berotu esteidxen, ba olan euskitten-da apartiñ eskendun isten, ure berotu esteidxen, baya olan aixik, edo korrinteun daben lekuen, an lurresko ontzidxen ure esta berotzen. || Potijue aintxiñe geu pe eukitte gendun, de ibiltte genduen, lurreskuk ixete sirien, da denpora ona daunin de beru daunin, mendire eruteko uregas, da ure konserbeta san fresku potijuen. || Ori potijue ixeten da lurreskue, da ure eukittekue. Len mendire..., aspaldidxon enas jun bein be, estaitt mendidxori selaku dan be ta nigaittik gure daben moduku egongo da, baya len mendire erute gendun potiju lurreskue, lurreskue ta alderdi batetik eukitte ban ba olan sorrotxue, olanik, da beste alderdittik eukitte ban sabaltxuaue, da andixik e sera, sabaltxuaue dekon lekutik itturridxen bete eitte gendun. Da gero ba mendire erun, da mendidxen egarridxe kentzeko edo edateko ibiltte gendun: potijue. □ Hona hemen potijue eta potiñe berben arteko desberdintasuna: || Bai, kontixu bat tire, potijue ta potiñe. Potijue nik pentzetot txikidxau ixaten dala potiñe bayo. Se oin potiñe ba nik estot ikusten, da geu pe eskeu te. Potiñe naidu eundidxe ixeten da, ta itturritik ure ekarteko ibiltte san.*

**potin, potiñe.** (POTIN) 1. Botijo de unos seis u ocho litros de capacidad. || *Ure egote san potiñin len. Lurreskuk ixete siriñ orrek, lurresko katxarrie. Sulo bi, bata edateko, ta bestie ure botateko. || Emen etziñ aintxiñe egote san potiñe*

*ure eukittekue. || Potiñek aintxiñe bai egon siren. Neuk apurtu naben neuri be jeusitue. Bai, itturrire jun, de uregas, da gero burun ekarte san ba onanik altzau gora ta. Da jeusi dxaten, da an apurtu san. Orrek eukitten deu astatxue, kolpeteko. Da onanik ure atarateko sorruotxue, bestaldetik. || Da potiñe, potiñe be aunditxuari esate dxako potiñe da, orixe da potiñe, aundidxaue (potijue bayo). || Gero mendire eruteko, potiñek ibiltte sirien, apurtzen dirin potiñek. Nire gixona sanak naidxau ixete ban potiñe erutie emendik. Ure freskuau egoten da potiñin. || Potiñek eukitten deu..., alderdi batiñ eukitten deu txorrotxue, da beste alderdidxen estau eukitten txorrotxue, olako begitxu eukitten deu. Da ure antxe potiñien freskuau konserbete san beste lekutan bayo. || Bueno, potiñe..., oñ estau, apartau sala pentzetot, geurin be on san e! Da mendireko ibiltte gendun, ure eruteko. Da feskuau, lurreskue ixen eskeruen, freskuau konserbau eitte san geispiñ ipiñitte. Da alderdi batetik eukitte ban txorrotxu, olan edateko. Da bestetik eukitte ban bera uras beteteko..., bueno eukitte ban olan sulo biribiltxue, da andixik bete eitte san itturridxen. A sulo biribille ixete san beteteko, ures beteteko. Da a txorrotxue eukitte bana beste alderdittik, ure edateko. 2. Regordete. || Potiñe da bola bat les ixeti les, "Potiñ-ok ori!". Potiñe bakixu setaraku dan, ure erutekue. Da a txikidxe, biribille ixete da les, ba alako mardul te txikidxe, ba potiñe. 3. Perfecto, del gusto del que lo hace. || Potin-potiñe geratu da. || Bai, geuse bat einde daunin ba noberen gustora-edo, urtete dabenin ba, "Potin-potin geldittu da".*

**poto, potue.** (POTO) 1. Bote (recipiente). || *Poto esate dxako ba, esate baterako, oneri. Artzосу esni edo ure-edo ta ba artu deu. || Potue edateko da, da ure eukittekue be bai. 2. Hondonada, pequeña depresión del terreno. || Esate baterako, basuen badau olako sulo bat, areri esate dxako pótue. Potu.*

**potola, potolie.** (POTOLO) Regordeta, gordinflona, obesa.

**potolo, potolue.** (POTOLO) Regordete, gordinflón, obeso. || *Potolo-potolo dau.*

**potolona, potolonie.** Regordeta. || *Txikidxe bada, da mardue, ordun potoloni esate dxako.*

**potro, potroe.** (POTRO) Testículo, huevo, cojón. Ik. barrabille. || *Aren (billotzan) bolari —bai, txarto esanda dau baya— potruk (esate dxake).*

**potrojoder.** Fastidioso, -a. || *Potrojoder: bestiri adarra jo ta kristonak eitte tzesena, "I as potrojoder, i!"*. || *Potrojoder? Orrek eitten dabillena, potrojoder esate dxako. Ba igul e gusurre ta abarra ta... "Ori potrojoder dok!"*.

**potroso, potrosue.** (POTROSO) 1. Potroso, afortunado. 2. Tacaño, -a.

**potxi, potxidxe.** (POTXI) 1. Hoyo que se hace con la azada para sembrar. Arbolak landatzekoari *sulue* esaten zaio. || *Ereitteko potxidxe*. || *Mistu: osea, lau dekosus potxi baten, lau arto, esaterako, ta kendu eitte tzesus bi, ori da mistu eittie, isten dosus bi tte kendu beste bi*. || *Potxidxe: esate baterako, baiñak eraitten diriñin, nai artu eraitten da, nai inddarra be eraitten da, ba atxurras potxitxuk eitten dire, da arexe botaten da asidxe*. 2. Charco. Ik. *ur posue*. || *Ur potxidxe dau emen*. || *Potxidxe posu bayo txikidxaue da*. 3. Hoyo que los muchachos practican en el suelo, generalmente junto a una pared, y sirve para jugar al boche con nueces. J. M. Barandiaranen arabera (*Tradiciones y Leyendas de Euskalerrria*, La Gran Enciclopedia Vasca, 138. orr.) Markinan *potxillue* esaten zaio, Ataunen *prottea* eta Oiartzunen *txulo*. || *Potxike: potxitxu bat ein, da antxe potxidxen sartu kañekie, kañeki-edo, intxaur-edo, kañeki-edo*.

**potxike.** (POTXIKA) Juego infantil que consiste en introducir nueces en un agujero. || *Potxi-potxike: atzamarras jo, ta potxin sartzen, intxeurrak*. || *Potxike aintxiñe e eskolan ibiltte giñin, geuk eitte gendun kañikakin, bota olani pa, bestie ateti botate bana, axe joten, da potxike esate gentzon*. || *Potxike ixeten da, ein potxitxu bat, da kañikak antxe sartzie*. || *Potxike: potxitxu bat ein, da antxe potxidxen sartu kañekie, kañeki-edo, intxaur-edo, kañeki-edo*.

**potxola.** (POTXOLO) Rechoncha, regordeta; querida. || *Potxolatxue!*

**potxolo, potxolue.** (POTXOLO) Rechoncho, regordeto; querido. || *Potxolue? Ba olan ume txikidxe edo eunditxuau-edo troko-trokotxu danari*.

**potxongue.** (POTXONGO) Se le dice cariñosamente a los niños. || *Ba potxongue emen esta esaten hainbeste baya ba potxongue jeneral olakoxiri (potxolue) esate dxako*.

**poun.** (PAUN) (Haur.) Caída. ☐ **poun ein.** Caerse. || *Poun ein deu*.

**praile, praille.** (FRAIDE) Fraile. || *Praile doye*.

**prailleuli, prailleulidxe, frailleulidxe.** (FRAILE EULI, fraide euli-bat.) Mosca borriquera, según R. M. Azkue, llamada así por su color semejante al del hábito de ciertos frailes (*Hippobosca equina*). Beste toki batzuetan *mandaulidxe* esaten zaiona da. Nabarnizen *mandaulidxe* zer den ezagutu eta esan ere egiten da, baina duda barik gehien korritzen duen berba *prailleulidxe* da. || *Prailleulidxek dire beidxei inketan dxakesanak, agustuen, berotzen asten danien, ganadueri inketan dxakosanak*. || *Prailleulidxek dire orrek sapalak*. || *Prailleulidxek ganaduri tukurre asko atarate tze; ganadu batzuri, danari es, tukurre atarate tze*. || *Guk prailleulidxe esate tzeu, da bestik espatie, baya guk prailleulidxe beti. Arek ainkadi! Inkeute geratzen dire bertan, arik eta..., isten badxako, arik eta odoles bete arte alde estau eitten, sastasu nausidxe!, da arek jo, ta plast bertan ilten dire. Sapalak dire, lusekak, inkeute geratzen dire musturre sartute bertan*. || *Beste batzuk espata aundidxe esate tze orreri. Ba guk frailleulidxe, guk geuk axe. Baya espati, da frailleulidxe bat dire*. || *Frailleulidxe: orre pe..., bueno, udan, bero eitten dabeniñen, mendidxen-da ugerittu eitte dxakos ganaduri. Gero otzak asten diriñin beres eskutetan dire*. || *Prailleulidxek bertan gelditzen dire, lusik. Da ser eitten dabe? Inkeu, da geldik inkadi te tripi dana bete arte odoles*.

**praka, prakie, frakie.** (PRAKA) Pantalón. || *Praka laburrek*. || *Praka lusik*. || *Panasko prakak*. || *Maonesko prakak*. || *Praka pare bat*. || *Praka bitzuk*. || *Prakak laburtu*. || *Ik ein tzek traskadie prakari!* || *Praketara kaka ein deu*. || *Praka pe eukitten dabe aidxue, ori, sintturi pasetako*. || *Kaguen, txingerra etorri dxatek praka ganera!* || *"Fraketan artu esiñik": lodi-lodidxe dana*. || *"Fraketan be kabidu esiñik dabil": arroputze*. || *Prakari adabi ipintten dabil*. || *Prakak adabetan dabil*. || *Orrek prakak ederto adabeute dxabixek*.

☐ **praka barrenak.** Bajos del pantalón. || *Gero kaltzerdidxen ganetik praka barrenak kordelas lotzen dire*. ☐ **praka laburrin.** En pantalón corto. || *Praka laburrin dabil*.

**prakadun, prakadune.** (PRAKADUN) Que lleva pantalones; hombre.

**prakaerre, prakaerrie, frakerrie.** (PRAKERRE) Cascarrabias. || *Ori da prakaerrie!* || *Frakerrie? Bai, aintzat estaun personigeittik. Bete ekiñin dabillena*. || *Erdi geustanari esate dxako*

*prakaerrie. Gixoneskuri esate tze ori prakaerrie.*  
|| *Prakaerrie? Prakaerri ba..., ori seinde burlatzat esati les, "Prakerri ori!"*.

**prakanasai, prakanasaidxe.** (PRAKANASAI)  
Cachazudo, flemático. || *Prakanasai: alkarrerri burle eitten.*

**prakatxiki, prakatxikidxe.** (PRAKATXIKI)  
Pequeñajo, -a. || *Prakatxiki: gixon txikidxeri, prakatxiki. Ori ixena ipiñitte eukitten dabe batzuk emen.*

**prakatzu, prakatzue.** (PRAKATSU) De muslos gordos. || *Prakatzue ixeten da isterrak-eta lodi dekosen. Jeneralien. Ganadu pe isterrak-eta lodi, "Dios, prakatzu dok ori, prakatzu!". Isterrak mardu.*

**pranko, prankue, frankue.** (PRANKO, franko-bat.) Mucho(s), abundante. || *Otie dau or pranku!*  
|| *Artue pranku badao kamaran, ba txarridzek loditzen erresa.* || *Patatie pranku jentiek ereitten deu.* || *Lurre pranku dau.* || *Urtik ixen siriñ eskasak eta oin dana pranko. Oin pobrerik estau.*  
|| *Geurin be bai, esnie franko dekeunien, baya etzerako bakarrik.* || *Ure franko deko itturidzek.*  
|| *Sementerie satz frankuas-da ipintten da.* || *Asukerie ba franku botate tzeu ba gosu urten deidxen.* || *Franku dxak indarra.* ☐ **pranko bixi.**  
Vivir holgadamente. || *Pranko bixi dis arek.*

**pranko, franko.** (FRANKO) **1.** Franco, generoso, liberal. || *Ori borondate asko dekonari "Franku da ori personie!".* || *Beso sabala, frankue, asko emoteko dekona, borondate onekoa.* || *Orrek andra-gixonak pranku dosak.* **2.** Grande. || *Franku: aundidxe eta sabala.* || *Totolue: lodidxe dana ta franku dana.*

**prantzes, prantzesa.** (PRANTSES, frantses-bat.) Francés, -a. Gehienetan *prantzesa* ahoskatzen da, baina tarteka *frantzesa* ere entzun dut. ☐

**prantzes arridxe.** Muela de molino proveniente de Francia, utilizada para moler trigo. Ik. *Okako arridxe, Trebiñoko arridxe.* || *Prantzes arridzek orrek gogorrak. Sei edo saspi satikuek.* || *Prantzes arridzek, garidxe eidxoteko.* ☐

**prantzes bedarra** edo **prantzesa.** Aguaturma, topinambur (*Medigaco sativa*). || *Baya ori prantzesa ereitten sanien, ori prantzesa agostuen ipintte san, ereitte san agostuen, da gero emon kortetxu bat urridxen da gero udebarridxen, martidxen edo, ebai, total da ya kendu, ya amaitsu eitten san ori, ori esan barridxen sertzen, ereiñ ein biar urrengo urtin be. Ori urtiñ-urtiñ*

*erein biar.* || *Prantzes bedarra agostun edo olan ereitten san. Da gero kortetxu bat emote dxakon da gero udebarridxen ebaten san da ya gero labrau, kendu. Prantzesa aintxiñe egote san, oiñ es ta ereitten ori.* || *Prantzesa esate dxakon bedar bat, etziñ artzeko. Da asidxe, ba sati bat itxi asitterako, da sati bat, eta asidxe be batu eitte gentzon urrengo urtiñ eraitteko. Da ba, a be asi bedarra san.* || *Prantzesak burue gorri-gorridxe asten deu, da gero apurkan-aurkan a gorrittasune be asittu eitten da, da oiñ erain be esta eitten prantzesi paya prantzesa geuk asko eraitte gendun. Nabun artiñ eraitte san, da lengo kortie serrias ebate san da nabu apartaute, da gero nabu kendu eitte dxakon e prantzesak akabetakun, da a nabu kendutakun barridxen aste san prantzesa, da arixerri iste dxakon satitxu bat e..., olako sati bat-edo asidxe batzeko, prantzesari, da gero a eltze sanien..., gero frantzesa bigarren biderrin ebate saniñ e gero a satitxu eltze sanien batu eitte san, gero urrengun eraitteko, datorren urtiñ eraitteko a batu eitte san.* || *Prantzesa oiñ estau..., baya len prantzesa egote san. Areri txapel gorri-gorridzek urtete tzon eldutakun.* || *Prantzesak e bai, baya korte bat bakarrik. Solun erein biste san, da olaku aste san, ederra! Da gero luserotxuau badau, ya luseruei badau, txapelak urtete tzon, txapela esate gentzon, onen tamañoko ori, lodi-lodi-lodidxe, gorri-gorri-gorri-gorri-gorridxe. A gero asittu eitten da, da askok eitte ban asidxe etziñ artun. A siketzen itxi, sail bat, da siketutakun, da garandu..., etzera ekarri tte euskidxen e garandu, da atzera..., esan gutena, ereiñ or udebarridxen.* || *Prantzesak esate ben a txapel gorridxe eiñ eskero ganaduntzako estaula balidxo. Balidxo bai! Baya probetxurik estekola, a sustantzirik es.* || *Txapel bedarra? Txapel bedarra, txapeldute daun bedarra bai, txapel bedarra aintxiñe egote san. Frantzesa txapeltze san. A txapeldu eitte san a. A txapela, goidxek urtete tzon gorri-gorri-gorri-gorridxe, txapelatxu les, "Txapeldute dxak".* || *Prantzes bedarra? Bai, aintxiñe eraitte sana, prantzes bedarra. Udebarridxe eitte sana, prantzes bedarra. Oin galdute orrek. Prantzes bedarra, ederra. Orri ederrak. Udebarridxen ganaduri emote dxakona, ule sarra botateko.* || *Ule sarra botateko, ona. Apur bet siriñe eitten deutzo. Prantzes bedarra geusa ederra.* ☐ *Andere Gorienaren arabera, prantzesa eta beste toki batzuetan esaten den pagotxa bat dira.* || *Pagotxa? Bai, ori bedar bateri esate dxako. Pagotxa, ori batzuk..., guk emen*



*prantza esate gentzona, orreri bedarrari. Oiñ erain be esta eitten. Len eraitte san, nabu eraitte san lekun-edo, ba gana jatekue ugeritzeko. Baya len solutan, soluk-eta etziri les e..., ser esangot neuk, soluk-eta..., selan esangot? Len e soluri –ba soluk esate dxaken bai, baya landa iste sirin soluri ba... “Oin landi dau solu barik”-edo, baya. Da pagotxa, pagotxa bai esate dxakon, emen bertan ainbeste es, baya or e Lekitto partetik edo ortik pagotxa. □ prantzes euskaldune. Vasco continental. || Da batzuk klaru eitten dabe berba e! Prantzes euskaldune esate tzeu. Arek sarratu eitten dabe, gu payo sarratuau. An Kalifornian asko. Baya gu Kalifornian eskara ibili. Aidojon gu. Baya olan jai eundidxe eitte saniñ etorri eitte siren euren e geusak salzen. Sertzuk ekarte sittusan? Geusak e, kalendaridxuk eta ardi narruk.*

**prast.** (PRAST) Onomatopeya de despegamiento, desprenderse, soltarse. || *Txindurri arridxe: ori prast-prast apurtzen dana, arri troski, ori da arri..., esan gu tona, kolorien normal antzeku, baya txindurri arridxe apurtu eitten da ori prast-prast.*

**predikasiño, predikasiño.** (PREDIKAZINO, predikazio) || *“Berbaldi bet e ein dxue an“da, predikasiño bat esati les. || Predikasiño? Abadik eitten daben sermoi be bai.*

**pregunteu, preguntetan.** (PREGUNTAU, preguntatu-bat., itaundu, galdetu) Preguntar. || *Aterik ate nabil preguntetan neurri interesatzen dxaten geusie. || Pregunte idxosu ori geusie. || Sayatuko nas preguntetan.*

**pregunte, preguntie.** (PREGUNTA, itaun, galdera) Pregunta. || *Ia, ein preguntak!*

**pregunteka.** (PREGUNTAKA, itaunka, galdezka) Preguntando.

**premidxu, premidxue.** (PREMIO) Premio. || *Meresidu deu premidxue.*

**premiñe, premiñie.** (PREMINA, premia-bat.) Necesidad, apremio, urgencia, premura. || *Premiñi badekosu? || A pe misteko premiñie dxekok. || Arek badeuko premiñie atarateko. || Da ordun ba eusoko gustidxe batzen dire erretille bat eitteko, olanik etzi premiñan badau. || Orrek makiñik koipin premiñie badxok! || Kanpu premiñan dau, te euridxe eingo baleu! || Laguntasune ixeten da premiña baten basaus, laguntzen etorri basintzon, "Arek eiste laguntasune!". || “Barru txarra dako etzik” esaten da konpontziñoen premiñan badau, estue*

*edo gela txikidxe dekoselako. || Antxe baso barrenien, da erreki be bertan euen komentzoso, premiñi egon eskero.*

**premiñesko, premiñeskue.** (PREMINAZKO, premiazko-bat.) Necesario, -a, preciso, .a. || *Premiñesku dosu ori? || Premiñesku ixengo su?*

**prentza, prentzie.** (PRENTSA) Prensa para hacer sidra, mosto, etc. || *Prentzie da sagarrak apurtzekue.*

**prentzau.** (PRENTSAU, prentsatu-bat.) Prensar.  
**preokupeu.** Preocupar. || *Preokupeute dabil ori be ta!*

**preparatiña. 1.** La preparación, pago que se cobra por preparar un alimento. Ik. *preparatiña. || Batzuk esaten dabe ipintxiña, da bestik esaten dabe preparatiña. Ba emen bidxetara be usetan da ori, bertan Nabarrixen be. Batzuk igul esango tzue "Ba, preparatiña onenbeste, da beste batzuk esango tzue "Ipintxiña onexenbeste". 2.* Suficiente calidad o cantidad como para prepararlo. || *"Preparatiñik etxekok!": gitxi dalako, ero eskasa dalako geusie. || Geuse bat erute tzesu, ya geuse eskasa jateko, nai edoser, "Orrek etxekok preparatiñik, orrek geusi orrek, ori estok ona ta". Ba, geusa gitxidxeri be arexe esate tzagu, "Ipintxiñi pe-etxekok", ero "Preparatiñik etxekok".*

**preparau, preparaten, preparetan.** (PREPARAU, preparatu-bat.) Preparar(se), disponer(se). Ik. *manieu. || Maxa? Ori ba, ser esangot neuk?, estala preparetan edo ba, masa. Edo "Maxtasune deko".*

**presa, presie.** (PRESA) Presa. || *Presatik andapalara juten da ure. || Presie ein, detenidu ure ta beko posue baldakiñ utzittu ta an agertzen siriñ angillak. || Ure jun da gero, presie ein! || Urtxakurre ur ondun egoten da, berentzako presie eitten deu.*

**presidxu, presidxue.** (PREZIO) Precio. || *Presidxue altzau, karutu, merketu. || Gorakadie ein deu presidxuek.*

**presiñue.** (PRESINO, presio-bat.) Presión. || *Uren presiñuas.*

**preskau.** (PRESKAU, freskatu-bat.) Refrescar(se). || *Euridxe ein bierrixena dau. Euri apur bet eingo baleu, kanpuk presketako-edo!*

**presku, preskue.** (PRESKU, mertxika) **1.** Prisco (árbol). || *Badau arbola bat, preskue deitzen dana, da aste ittu feskiek. 2.* Prisco, fruto autóctono parecido al melocotón. || *Preskue diferentie da. Preskuri olanik kendu, eiñ erdittik bi ta asurre solte garatzen dxako. Baye melokoiri eitte tzosu baya apurtu esta eitten, asurreri inkeute garatzen*

*dxako.* || *Albertxikue da frute bat, preskun antzeku-edo, presku bayo ba fiñau ixaten da.* || *Ixaten da, melokotik estire, e..., albarikokes-edo, olan esate dxake eureri, preskuri. Preskuk apur bet mingostxuauk ixaten dire, arek dultza-dultzik bayo. Da ixeten dire erdidxen asurre dekenak barruen, da ganin ba, ba se esangot neuk?, albarikoke lakuk-edo, preskuk esate tzeu te.*

**preso, presue.** (PRESO) Preso. Ik. *katigue.* || *Presue gartzelatik etara.* || *Presue libre itxi.* || *Preso dau.* || *Preso erun dabe.*

**prest.** (PREST, gertu) Listo, -a, dispuesto, -a, preparado, -a. || *Prest dau edosertarako.* || *Prest saus?* || *Txikittute prest ipiñi, da gero urek irakitten dabenin ureri botate dxako, botate dxako asukeri be gosatzeko.* || *Da lelengo meye, su einde, da gero ba egur lodidxe errete sittunin da labi be ba gorittute gelditzen da, ta ba gero artu sartzeko, nai ba ogidxe sartzeko, nai ba... labi prest oten da egurrek errete.* □ *Hiltzeko gutxi falta zaionari buruz honela esaten da.* || *Ya gorako prest dxak ori.*

**prestau.** (PRESTAU, prestatu-bat.) Preparar, arreglar. || *Jatekue prestau.* || *Lur seye egoteko, lurre prestau ein bi da. Amengo lurrek estires beres setzen.* || *Okelie apartaute deku, baya prestau barik tau, piperra-ta, gatza-ta biar ixate ittu te ba.*

**prestu, prestue.** (PRESTU) Formal, honrado, -a, recto, -a, juicioso, -a.

**primerako, primerakue.** (PRIMERAKO) Muy bueno, de primera (clase). || *Primeraku da!*

**primeran.** (PRIMERAN) Estupendamente bien. || *Primeran urte dxok, bai!* || *Primeran nau, txarrik esteket-eta, ondo nau.*

**prisa, prisie.** (PRISA, presa-bat.) Prisa. *Prisa deko nahiz Prisi deko entzun dut.* || *Prisas doye Jose.* || *Prisa dabil orrek.* || *Arek usaba aberatza deke, ta esteko prisarik saltzeko.*

**prisaka.** (PRISAKA, presaka-bat.) De prisa. || *Biarriñ e prisa-prisaka iñori berba eitteko astiri pes!*

**prist.** □ **prist ein.** Hau baino gehiago txirrist ein esaten da Andere Goirienaren arabera. || *Prist einde ibiltten dana pospolu barik.* || *Prist ein? Ba priste, laban eiñ-edo. Emen bai, prist be esaten da ta prist bayo geidxau laban.*

**proba, probie.** (PROBA) Prueba, competición. || *Domekan etorriko dire ididxeekin proba eitten karreterurik onenak.* || *Probie eon ei xan atzo*

*Nabarrixen, da guk jakiñ estou ein.* || *Larraku da solte ta mendidxen dabixenak. Jeneraliñ e ba normalak. One besti tie ba saldi tirarakuk eta probarakuk esate dxakue oin ba.* || *Arrastan bai. Ori arran doyenien. Esate baterako, proban badoyes, arrastan esaten dabe, arridxe arran dabilrelako, arrastan esate dxako areri be.* || *Da proban dabillenari be, igul, jo ta jo ta jo ta jo ta eiñ es, da "Lusetasune artu dxok orre pe!".* □

**proban ein.** Competir. || *Bei mantie? Iños probarik ikusi dosu? Ba beidxeri, proban einde, ixerdittute egoten diriñin lepun ipintte dxakena.* □

**idi probie.** Arrastre de piedra (con bueyes), prueba de bueyes. □ **saldi probie.** Arrastre de piedra (con caballos), prueba de caballos.

**probalari, probalaridxe.** (PROBALARI) Participante en juegos de deporte rural.

**probaldi, probaldidxe.** (PROBALDI) Prueba, competición. || *Are gantxuk dire eskutan ibiltten diñak, tireka, gantxuek. Orrek probaldidxen eitteko gantxuek.*

**probaleku, probalekue.** (PROBALEKU) Probadero de bueyes. *Probalekuek engantxue izan dezake edo ez.* Ik. *engantxue.*

**probarri, probarridxe.** (PROBARRI) Piedra de arrastre de las pruebas. || *Proban ibiltteku arridxe, probarridxe.* || *Arridxe ipinttosu... Arridxe bakixu ser dan, probarridxe, es emengo arridxe. Probako arridxe.*

**probau, probetan.** (PROBAU, probatu-bat.) **1.** Probar(se) (un vestido...). || *"Majarik saus" esate dxako ba erropa bat probetan danin, edo ikusten danin-edo: "Ondo dekosu, majarik saus".* **2.** Probar, degustar, catar. || *Ezkeko txorixu di, eurtenguk. Ondiño probau barik dekogus.*

**probetxu, probetxue.** (PROBETXU) Provecho. || *Probetxu ein dixuela!* || *Barrue txupau eitten deu (askidxe), te ganera be asten da, baya bai ganaduk jan eitten dau be, baya ixeten da probetxu bakue, edo ser esango neu? kalte eitten dabenerako.* || *Berbenie: probetxu bako bedar bat.* || *Landara eskasa bada be, esate su "Ipintxiñik etxekok orrek!". Se obie ipiñi bi da les, ba ipintxiñik estekola, se esteule probetxurik eser emongo-ta.* || *Prantzesak esate ben a txapel gorridxe eiñ eskero ganaduntzako estaula balidxo. Balidxo bai! Baya probetxurik estekola, a sustantzirik es.* || *Ididxe pai, olantxik e ein biar basan e, obra aundi bet-edo beuken. Ididxe, nire tiok e ididxe euki basen, basotik idi ekarteko,*

gero ba askanaldin. Ostantzin dana beidxe. Se beidzek deko probetxue, esni emoten deu. Ididzek esteko. Ididzek axe biarra bakarrik. Da amen e biarrrik ididxentzakorik e es san dediketan basutatik oingo modun e tronguk ataterik es olakorik. Da eitte sana beidxe kin.

**promes, promesa.** (PROMES) Promesa. || “Promes bat ein deu”, ba ori da geusa bat e agindunekue. ☐ **promesa ein.** Prometer. || Promesa ein deu Begoñara juteko.

**propidxo, propidxue.** (PROPIO) 1. Propio, específico. || *Ixetes a da, ixetes, propidxue.* 2. A propósito, expresamente. || *Bakotxak beri ixengo deu, ta ademas propidxo ortakoxe einde ixengo da.* || *Besti, kiñu da ba begidxas ero orras, edo igul eskuas be. Baya kiñu da begidxas ein bi dana. Kiñu, propidxu, begidxas ein bi da.*

**proposiñoye.** (PROPORTZINO, proportzio-bat.) Proporción. || *Orren proposiñoyen au aundidxaue da.*

**prosesiñoye.** (PROZESINO, prozesio-bat.) Procesión (religiosa).

**puesta, puestie.** Posta, tajada o pedazo de carne. || *Puestak: ba esate baterako, emen estau baya, txarridxen puesti da, esate baterako, ba onenbesteku pe estire ixeten, baya puestak eitten dire, txarridxen puestak, gatza emote dxake, da gero gordeteko, berderik-edo esaten da alan jaten espada, ba eskeitte ipiñi, da siketu eitten da. Da puesti da ba satidxe, nai ixen lei urdeidxe, da ixen lei txalena be, txalen okeli be, da gatza artun de gero, ba eskei eitte sirin, oiñ eskei be esti eitten, eskei eitte sirien, da siketu eitte sirien.*

**puja, pujie.** (PUJA) Puja, licitación. || *Pujan dabis.*

**pujadore, pujadorie.** Pujador, -a, licitador, -a, persona que puja en una subasta. || *Pujadoriek: batek, esate baterako, nik pujetot soser, neuk gure doten objetu bat, da beste batek geidxau esaten batzo, ba pujadorie ba.*

**pujau, pujetan.** (PUJAU, pujatu-bat.) Pujar. || *Subastan pujau.*

**pulidu.** Pulir. || *Pulidu da garbittu geusa bat.*

**pulmoni, pulmónidxe.** Pulmonía. || *Pulmonidxe geixu da. || Biridxetaku hainbeste etxako esaten, pulmonidxe.*

**pulpa, pulpie.** Pulpa, residuo de la remolacha. || *Pulpie: ganaduri emote dxakena, erromaletxie txikittute. || Oin nik estakit pulparik ibiltten badabe, len geuk ekarte gendun. || Pulpie: erromaletxie siketute. Txikittute siketu, da eitten da*

*gorde, baya emen eskendun eitten ori, ekarri eitte gendun pulpie, da ain karu be etzan ixeten. Da ekarri eitte gendun, da gero uretan beratú, da emote dxaken beratunekue. Igul ba artu botate dxaken nastaute, edo saidxe be igul, birriñe be igul nastete dxakon, da nastaute ba emote dxaken ganaduri. || Pulpie? Ba len geu pe kasteta gendun de oiñ estau kastauten, bedarra be pranku deu te. Pulpie da erromalatxias eitten dabe. Erromalatxie makiñias txikittuten dabe, txikittu, txikittu te ba arexe satidzek, arixek, axe siketute. Da emote dxako beratute ganaduri. Emote gentzen geu pe. Da oin ba ikusi be esta eitten. || Pulpie ixeten da... estakitt oiñ eitten badabe, oiñ ikusi be esta eitten da, len e dendan ote san. Da ixeten deye erromalatxak txiki-txiki-txikittute, erromalatxak eta sakutan saltze sittun sera lantxik, babi lantxik.*

**pulpittu, pulpittue.** (PULPITU) Púlpito.

**pultzu, pultzue.** (PULTSU) Pulso.

**punba.** (PUNBA) Onomatopeya de caerse. Haur hizkerako hitza da. ☐ **punba ein.** Caerse. || *Punba ein deu. || Ume txikidxeri, da berbetan ikesteko dausenin, ba "Punba ein dot", edo "Punba ein dosu", esate dxaken umiri.*

**punbala.** (PUNBALA) Onomatopeya de caerse.

Haur hizkerako hitza da. ☐ **punbala ein.** Caerse. || *Ume bat jeusten daniñ "A, punbala ein dosu?"*

**puntada, puntadie.** (PUNTADA) 1. Puntada (de la aguja). || *Puntadie da orratzas eitten dana.* 2. Puntada, indirecta con que se zahiere a una persona. || *Puntadie: bat asten daniñ burle eitten-edo, igul puntadatxu bota deutzo, suk gure estosune entzu ba, da!, puntadie.* ☐ **albora puntadie.** Punto al lado. || *Aspidu: josten, au olan bueltie artzie. || Aspildu? Onek, onek, onek albora puntadias, albora puntadias pasau, da orixe da aspiltzie.*

**puntako, puntakue.** (PUNTAKO) Sobresaliente, extraordinario, -a, excepcional.

**punte, puntie.** (PUNTA) Punta, extremo, vértice, cumbre. || *Mendi puntie. || Solo puntie. || Miñen puntie. || Piñun puntie. || Lapixen puntie. || Punte sorrotza. || Illunsar puntetik itxosue ikusten da. || Osiñe pentzate dot ixete sala eperdi sabala, olan punte estue, ori katxarrue. || Da naiku untze eundidxe ixeten da. Puntie be eukitten deu biribille, da bera untze estutues-estutues juten da, sartzeko, da punta estue eukitten deu betik, josteko goitti bera. || Bonak ixeten dire..., bonari eitte dxake..., asten dire pinporta payo aunditxuauek da puntan*

eitte dxake materitxu. ☐ **puntes punte.** De cumbre en cumbre. Ik. *ganes gan.* || *Mendi puntes punte juten gara.*

**puntel, puntela.** (PUNTEL) Puntal.

**punteldu.** (PUNTELDU) Apuntalar. *Punteleu* ere esaten da. || *Kuarto atara bi dan lekun ormiri ipintte tzes..., ser esangot neuk?, joste ittue puntelak edo estaitt ser esate tzen, agik, age batzuk goidxe be sujetau eitten dabe, da arixe esate tze ori sertu, punteldu edo se esangot neuk?, ori sestue, da ipintten dire ortik, emendik, amendik da olantxik eta taka-taka bera bajatu, da segidxen-segidxen-segidxen sestosko ormi eitten da.*

**punteleu, punteletan.** (PUNTELAU, puntelatu-bat.) Apuntalar. *Punteldu* ere esaten da, baina, antza denez, erabiliagoa da *punteleu*. || *Ormi puntelau.* || *Agie, olan obran dabixenin be, ba geldi egon deidxen betik, punteletie.* || *Ipiñi agi ta ba betik puntelau ein bi da arek eta sujetau artin.* || *Punteleu? Ba selan esangutala? Age bat e betik punteleti be bai.* || *Aldamiñu albañelena da, da punteleu esaten dabe beste batzuk.* || *Punteleti da, au jeusi biarrin badau, emetik ipinttie, da punteleu.*

**punterengo, punterengue.** (PUNTARENGO) 1. Eminente, sobresoliente. || *Punterengu da.* ☐ Esaterako, frutari buruz: || *Bai, presidxu punterengu deko arek!* || *Punterengo jantzidxe da ori.* 2. *Punterengue* baino gehiago arantzengue esaten da. || *Punterengue: goidxen dauna.* || *Punterengo etzi.*

**punteru, punterue.** Instrumento con el que se hace una muesca sobre la superficie que se ha de taladrar o agujerear. || *Punteru da e seinde burdiñan... Sulu eitteko taladru bakixu ser dan. A taladruk puntan, punteruas eitten batzesu ori, aulan onako lekun bata nai bestera jute dxatzu a, sain. Da punteruas ta! Markeu, an markatxu eitten deu, sin... da antxe markan gero eitten deu taladruk.* || *Ori punterue onek ibiltten dabena ixeten da, arotzak-eta. Punteru da e... sulue burdiñan punteruas ein biosu. Punteru esate tzeune, garridxe... onek e eskabadorak a, aras ibiltten dire ta-ta-ta-ta-ta-ta. A punteru esate tze areri. Emen mallukias eitten danari, punterue. Mallukias e eittosu burdiñe bat, punterue.* || *Punteru da burdiñan eitten dauna, punteru.* || *Punterue olan marketaku ixete san.* || *Broki ostantzin beittu se eitten deun. Amen espokosu e sulotxu einde, broki lelengotan esta an katitzen,*

*olan ibiltten da bata nai besti. Amen sulotxu einde boukosu ori punteruas, punterutxuk eitten deu olakoxe igul-igula. Da gero an sulotxun inketen da brokie.*

**puntu, puntue.** (PUNTU) 1. Punto (instante, momento). || *Ointxe da puntuen.* 2. Puntual. Ik. *sasoidxen.* || *Puntuon etor da.* || *Puntu-puntun etor da.* || *Irurek puntun dire.* ☐ **puntuon.** En un instante, enseguida. Ik. *gerotxuau.* || *Puntuon da: oindik apur batera.* || *Puntuon jungo gara.*

**puntxeta.** 1. Estoque, florete. || *Puntxeta esate dxako..., seri esangot? Ganadu ilttekuri be bai, da seoser punteletan dabenari be bai.* 2. Punzón para agujerear las abarcas. Ik. *abarka sididxe.* || *Aintxiñe abarkak etzin joste sittun aittek. Da sulu-ta eitteko, puntxeta ibiltte ben.* || *Da abarka sididxe ote san, baya etziriñ igula ixeten. Puntxeta lusie, sera, puntie sorrostute.* 3. Instrumento con el que se agujerea la tripa del ganado al que se le han acumulado gases. || *Puntxeta da beidxe pustute badau, ba sulotzeku.* || *Puntxeta esate dxako ganaduk ta deskoidun aixi-edo eitten badire, axe sulotzeku da puntxeta.* || *Sagar bat janda katittu, katittu saman, da iruntzi es ein. Da gero orrek, a pustuten doye, an esin deu..., ori pustu eitten da da gero errementeu. Da lagune egon balitz ordun an, da puntxeta sartun, a salbau eingo san.* || *Puntxeta da orrek ganaduk sulotzen diña aixetute daunin. Bai, puntxeta propidxu ixena..., puntxeta, oin beste geusa bat igul ongo da puntxeta esate dxakona. Puntxeta da e..., ori, ganetik deko porrut barrun e..., puntxeta..., a sartze dxako ganaduri barrure, aixi daunin, tripe ori, de arek atarate tzesue de bera besti bertan itxitte, kordelas lotute, arik eta aixi danak urten arte. Ueku isten dau, seinde falta berna olan eoti les, da a jo ta barrun sartze su da an geratzen da ta gero puntxeta atara. Aixik andik urtete tze.* 4. Aguijada, aguijón. Kasuren batean, *akulue* esateko entzun dut, baina, horretarako, *akulue* da gehien korritzen duen hitza. || *Puntxeta da, esate baterako, ganadu bat ibiltten danien-edo, ariñau ibiltteko-edo, ba ipintten dana puntxeta esate dxakola pentzetot nik.*

**puñeta, puñetie.** Masturbación (del hombre). || *Gorputzerako txarrena, debildu eitten deu orrek puñetiek.*

**pupu, pupue.** (PUPU) (haur.) Dolor, daño, pupa. Ik. *miñe.* || *Pupu deko.*

**purgatoridxo, purgatoridxue.** (PURGATORIO, garbitoki) Purgatorio. || *Purgatoridxue: arimak juten diña.* || *Purgatoridxoko arimak dirurik estabe biar, baya abadiiek bi dabe.*

**purra.** (PURRA) ¡Pita! (voz para llamar a las gallinas). || *Purra, purra!*

**purruska.** (PURRUSKA) ☐ **purruska otzin.** Metiendo ruido con la boca, por ejemplo, al reir. || *Barreska dxak, purruska otzin dxabik a barreska.* || *Purruska otzin dxabik.*

**purruskada.** (PURRUSTADA) Resoplado, refunfuñando. || *Purruskada dxak beti.* || *Purruskada baten: "A be purrustada galanta ein dxok!".* Da iguel segindun botzo: "Purruskada deutzek".

**purruskadaka.** (PURRUSKADAKA) Resoplado, refunfuñando. || *A asarre dxak purruskadaka.*

**purrustada, purrustadie.** (PURRUSTADA) 1. Resoplido. || *Ganaduek purrustadie ein dxok!* || *Saldidiek, eta onek eitten dabe sarritten ori purrustadie.* Baya ya puske, kantzauek putzek atarate ittu. || *Txarridiek eitte ittusak purrustadak!* 2. Mofa, refunfuño. || *Purrustadie ein dxok makala!* || *Olan, barre eitten daniñ eitten dirin serak, saratak, edo ijuidiek purrustadak dire, barre purrustadak.*

**purrustadaka.** (PURRUSTADAKA) 1. Resoplado. || *Onesk basurdak-eta: "Frrrrum!", eta "Kaguen, purrustadaka dxabik!".* || *Purrustadaka? Bai, uskerra bota eskerun.* 2. Refunfuñando. || *Igul astuk nai saldidiek edo orrek e fuuuuuu!, "Kaguen, purrustadi ein dxok!".* Da personi be olanik igul e txarto ein tzena... edo esan guna gustora estaula bestigaittik, esate tzu igul "Bai, usaba purrustadaka dxabik". ☐ **barreska**

**purrustadaka.** Riendo a carcajadas. || *Barreska purrustadaka egon dok.* || *Barre purrustadie? Bai, barreska da purruskadaka barreska.*

**purrut.** (Haur.) Cuesco, pedo. ☐ **purrut ein.** Hecharse un pedo.

**puru, purue.** (PURU) Cigarrillo puro. || *Metxeru guk esate gentzon areri.* Alan einde, metxa gorridxe, da an ixotu te gero brasias sigarrue nai purue.

**purus.** (PURUZ) A fuerza de. || *Biarran purus.* || *Ibillien purus.* || *Da ba egarridxe..., olan egarperi dana-pa, ixerdi asko-ta botaten danin:*

*"Egarridixen purus ba edoser edaten da, arda, nai ure, nai sardaue, nai txakoliñe".*

**puske.** (PUZKA) Resoplado. Esaterako, aldatz gora arnasestuka ibiliz gero halaxe esaten da. || *Puske asi da.* || *Puske doye.* || *Kantzaute puske.*

**pusla, puslie.** (PUSLA) Ampolla, quemadura. || *Kallue iguel eittosu atxurras-edo ibiltte.* *Kallue da, gogortu eitten da kallue.* Da pusli ein de batera eitten dana, puslik urteten deu. *Pusli guk arixi esate tzeu.*

**puslatu.** (PUSLATU) Ampollar, producir ampollas. || *Puslie: esate baterako, atzamarra solittute, ta materidxe einde dau, da "Solittute deko, puslatute dau".* || *Persona bat e erre eskero, puslatu eitten dire.*

**pustilla, pustillie.** (PUSTILA) 1. Burbuja. || *Pustillak: euri saparrada eundidxe danin, urteten dabe arek, selan esangot neuk?, euridxe goitti bera joten daben lekun-de urteten dabe alako pustillak, tantak.* || *Pustillak esate dxake, selan esangot?, pustillak dire euri saparrada aundidxe daunin be, tantak gogorrek diriñien, urteten dau pustillak, gero apurtu eitten dire, estire gelditzen, da irteten dabe, tanta gogorrek diriñien, euridxe joten daben lekuen, ba pustillak urteten dabe, gero ba des eitten dire.* || *Pustillak: euridxe asko, indertzu eitten dabenin saparradie, orrek beyen ganin, tanti jeusten dan lekun, gero ba des eitten dire.* || *Pustillie? Ba ure, euri saparradi daniñ uretan urteten dabe arek.* Da gero urten ala, ser esangot neuk? *Apurtu eitten dirilla?* || *Pustilli da a be uretara urteten deu ba edoser botata.* Areri *pustillak.* Euridxe be bai ataten deu *pustilli.* 2. Ampolla, quemadura. Horri, berez, *puslie* esaten zaio gehienetan, baina kasuren batean edo bestean *pustillie* ere entzun dugu. *Anpollie* ere esaten da. || *Bai, anpollie ori be bada, Baya ori anpollie erderaskuri geidxau esate dxako.* Ba *tire, pustilli baya geidxau eman anpolli esaten da.* || *Urrutute? Asala kendu te ba aragidxe agertu, an pustilli daun lekuen aragidxe.*

**pustu, pustuten.** (PUZTU) 1. Inflar, hinchar. Ant. *ikoldu.* || *Globue pustu.* || *Pusiki da txalak, eta txarridxe pe eukitten dabena.* Len *mutikutan, oiñ esta ainbeste usetan, baya len karnaseruri esaten: "Es pikau gero pusikie!".* Atara, da *pustu eitten da.* || *Arku esate tzeu areri tripie asten dxakonari, arkue, an e pustute deuna be "Arkue asi dxakok".* 2. Hinchar el estómago del ganado cuando se atragantaba con algún alimento como el nabo, o cuando comía hierba mala. || *Pustu-da, ori*

ganaduek eitten dire, jateko txarra edo artu, benenue artzen badeu be, nai... len nabo asko eukitte san emen, nabue saman inkete badxakon pustu eitten sirin da es atzera, es eurrera, da gero komeridxe egote sirin. || Puntxeta da beidxe pustute badau, ba sulotzeku. || Esate baterako, bedar e txarra janda edo artzen badeu nabu-edo, sagarra nai edoser saman, pustu eitten da, da pustu te errementau..., are lobiri errementau ein tzo untxe pasa dan illien e olako bei batek sagarra artun da iñor egon es an da pustute errementau. || Pustu esaten da iguel aixie, aixetute badau be: "Pustute dxok estomague". || Beidxeri be kalte eitte batzo seosek, pustu eitten da. || Ori sekule bedarra be txarra san, asko emoteko. Sekule bedarra berun emoten badxakon pustu eitte san ganadu.

**putekeridxe.** (PUTAKERIA) Putada. Berri-emaile baten arabera, berba hau gizonetako baino ez dute erabiltzen.

**putz, putze.** (PUTZ) 1. Soplo, soplido. || Dultzeiñie len egote san. A putz asko biste ban orrek dultzeiñik. Ori joten gitxik eitte ban. || Bart ein ttus aixe putzek!. || Aixiek dabixek putzek! || Aixik putzek ein dittus. || Atzo edo arañegun edo noix ixen sen? emen galantak ein sittun putzek. 2. Cosa podrida, floja. ☐ **putz ein.** Soplar. || Geuse bat beru daunin, esnie-edo, beru daunin-edo, saldie, edo olakorik: "Ein putz, ein surrut. || Putz! || Txiribitue: putz einde jotan dana, sirri-sirri. ☐ **putzek ein, atara.** Resoplar. Ik. puske. || Saldidxe, eta onek eitten dabe sarritten ori purrustadie. Baya ya puske, kantzauek putzek atarate ittu. ☐ **aixe putza.** Ramalazo de viento. || Ointxe be badire gitxiau edo askuau aixen putzak. || Axe putzak dire, euridxe ingo deu. || Axe onek dabix putzek!

**putzesko, putzeskue.** (PUTZEZKO) Hinchado, -a. ☐ **putzesko pelotie.** Pelota hinchada. || Aintxiñe ba pelotiti putzesko pelotie esate dxakon.

**putzittu.** (PUTZITU, puztu-bat.) Inflar, hinchar. || Putzittu ixe globue! || De puxiki eitten da txarridxe ilten danin, ataraten danin putzittu, da aundidxau eitten da putzittute,

**puxike, puxikie.** (PUXIKA) 1. Vejiga. || Pusiki da txalak, eta txarridxe pe eukitten dabena. Len mutikutan, oiñ esta ainbeste usetan, baya len karnaseruri esaten: "Es pikau gero pusikie!". Atara, da pustu eitten da. || Txorixuk ein, de

puxiki eitten da txarridxe ilten danin, ataraten danin putzittu, da aundidxau eitten da putzittute, da lusero euki gure diriñiñ e txorixuek, ba siketzen daniñ a puxikie, putzittuneko puxikie, ba sartzen dire ba txorixuk, baya iños eskendun sartu txorixu siketu bakorik. Siketu e txorixu pe, da sartzen siriñ antxe. 2. Enredador, -a, embrollador, -a. || Puxikiori! (lorriñe)

#### 4. R letra

#### 5. S letra

**pa.** (PA) (haur.) Beso. ☐ **pa ein, emon.** Besar. || Patxu bat emon! || Pa ederra emon tzo.

**paga, pagie.** (PAGA) Paga. Ik. soldatie. || Urteko pagie.

**pagadi, pagadidxe.** (PAGADI) Hayedo. || Len dana pagadidxe egon san, ta piñurik es san egon.

**pagamentu, pagamentue.** (PAGAMENTU, pagamendu-bat.) Pago, recompensa. || Eskatu eidxok erresibue, euk ein doan pagamentuena. || Sixie pagamentue ixete san.

**pagau, pagaten, pagetan, pageten.** (PAGAU, pagatu-bat.) Pagar. || Plasutara pagau. || Sorriñ artutie da pagau barik artun, gero pagetako. || Len laborias pagaten san. || Arek mille ta bosteun pagate eusten. || Pagau biko su ori! || Bixidas pagauko su ori! || Pagau ste ordeskua. || Errenta egune? Domu santu eguneri. Errenti len, errenti pageta ei xan domu santu egunin, edo sortzi egun aurrerau edo sortzi atzerau, antxe ingerun. || Alboki da tratu bet-ero eiñ eskero, ba "Euk pagaukok albokie!" esate san tratu eitten bada. Ordun, tratu eiñ esiñik igul, de "Bueno, onexenbeste, da euk pagetako albokie". Se alboki len edoseri eitte dxakon olan tratu eiñ eskero. ☐ **eskun pagau.** Pagar al contado. ☐ **eskure pagau.** Pagar al contado.

**pago, pague.** (PAGO) 1. Haya (*Fagus Sylvatica*). || Pago adarra. || Pago orbela. || Pago burue. || Paguk iñusi, ta ostabe barridxen emoten dabe adarra, andik urte batzutara. 2. Haya (madera). || Atxagas be eitte san. Len iketza geu pe asko ibiltte gendun, saltzeko. Da paguas eitten da onena. Artias be eitten da, artias eitten dana ba ixeten da..., se esangot neuk?, agunte geidxau dekona,

edo ba geidxau agunteta ban iketza. Da paguna be ona ixete san. ☐ **pago baltza**. Clase de haya de madera resistente. || *Pago baltzak gidxerri geidxau.* || *Pago baltza gogorra ixen dok a!* ☐ **pago burue**. Copa del haya. || *Pago burukiñ iketza eitte san. Ba eurek bola utzekin. Arek es sin pageten ainbeste, se adarras... Adarra geidxau pagate ben asko be.* ☐ **pago eskurre**. Hayuco, bellota del haya. || *Pago eskurre: bueno, pagu pe asten deu, baya paguna esta. Artina, da atxana alkarren antzekuk dire, igul-igultzat pe bota lix, alkarren antzekuk dire baya. Paguk estittu asten alakuk. Paguk aste ittu, ser esangot?, paguna, esate baterako, bi les eitten dire, da sabaldu eitte dxako eskurre bisteratute.* ☐ **pago iñustue**. Haya desmochada. Ik. *pago motza, pago tantaidxe.* || *Iñustue a adarra ebei tte baju sabaldu eitten dasenak. An pagu badaus Mugireko etzatzen, are di pagu iñustuk. Da pagu tantaidxe das sekule mostu bakuek. 'Mostu' guk 'ebei' esate tzeu, da 'mostu' esate tze askok.* || *Lorategieta bayo apurtxu goratxuau egon san panaderidxe itzela. Da araxe erute ben egurre astillatu bier. Astilla metro bat eingeruko luserako astillie. Da paguk ein biste sin. Aretxak es sittuen gureisten. Pague. Da danak e olantxik e geidxenak eitte siren. Iñustu. Iñustu esate dxakon ba adarra mostu, suk esan dosuna. Pago motza esate tze batzuk, pago motza. Pago iñustu.* ☐ **pago motza**. Haya desmochada. *Pago iñustue gehiago esaten da. Ik. pago iñustue, pago tantaidxe.* || *Pago motzak, egurrerako.* ☐ **pago tantaidxe**. Ejemplar de haya brava, que no ha sido desmochada para hacer leña. Ik. *pago iñustue, pago motza, pago tantaidxe.* || *Alako pagorik emen e... Berton alako tantairik ikusi be esta eitten oin. Len egon san. An Posusarreta bakixu sein dan. Antxe egon san pago tantai ederra, da bota ei ben.*

**pagu, pague**. (PAGU) Paga, recompensa. || *Ondo eiñen pague, jatostien palue.*

**paitta, paitte, paittie**. (PAITA) Pato (*paittie*). *Patue*, baina, geroago eta sarriago entzuten da. || *Paitta kunie.* || *Paittie: orrek kua-kuu einde ibiltten diriñak.* || *Ori ollue, paitte modun.* || *Ur olluek eukitten deu paitti les e ankak e se, se, se ori, esan gutena, erpa barik, sedie ori, telie.*

**paixan, paixana, faixana**. (FAISAN, *fasai-bat.*, *nauder*) Faisán (*Phaisanus colchicus*). *Faixana* ere entzuten da. || *Faixana da, baya paixana esanda be, aittuten da igul, pentzatot nik, baya beres*

*faixana.* || *Emen paixanak txoridxei esate dxake, txori batzuei, ollo antzeko txori batzuei.* || *Emen esta paixanik oten. Ori itxos pariñ-edo esta ibiltten paixana?*

**paixie**. Tipo de costura con ganchillo. || *Paixie ser da, gantxillukiñ eitten dana? Aridxas da olanik e umiri edo gasteri erakuste dxakena, paixie, eskolan lelengo ikesi gendun geusie. Orixe ixate san paixie. Pir bakarrik e puntu eitten ikesteko.* || *Paixie? Paixi bai, gantxukiñ eitten da baya oiñ estakitt gantxillukiñ eitten bada be. Bai, nire denporan bai, ekitte san.*

**pala, palie**. (PALA) **1.** Pala (herramienta). || *Burdiñesko palie.* || *Palias betete san burdidxe.* || *Da gero solora botate ben karie, palias sabaltzen ben burdittik, danin-danin-danin.* **2.** Diente de la markadora.

**palanka, palankie**. (PALANKA) Palanca. || *Kanteran-da palankakiñ eitte san. Barrenu da sulu eitteku, da palanki da e arridxe mobittekue, suluk olan ein de ereiñ eittekue. Bidxek dekedas.* || *Palankie burdiñesku ixeten da, burdiñesku, galtzerosku edo nik estaitt selaku ixaten dan.* ☐

**palanka jokue**. Juego de la palanca. || *Palanka jokue aintxiñe eitte san, oin jentik estau olan kantzau gure.* || *Palanka jokue Nabarnixen eitte san, baya aintxiñe akabau san ori, len aintxiñau geidxau eitte ei xan, palanka jokuk-eta geidxau eitten ibiltte siren, baya neuk baten ikusi naben bakarrik, palankie egon, da jaurti, seiñek urrunau jaurti.*

**palankana, palankanie**. Palangana. || *Da gero eitten da..., ure ipintte dxako aspidxen e kasulie edo palankani edo soser da urtu te artu burduntzalias edo sosegas da araxe uretara bota. Gero a siketzen danien koipe opille einde gelditzen da.*

**palankari, palankaridxe**. (PALANKARI) Lanzador de palanca.

**palasidxu, palasidxue**. (PALAZIO, *jauregi*) Palacio. || *Palasidxue etze eundixeri, edo etze elegantiri esate dxako.*

**palatu**. (PALATU) Palear, acarrear la tierra desde abajo hacia arriba. || *Lurre palatu? Palias e —a palie lurreku bakixu selaku ixeten da?— ba lurre..., barrena artu edo palias altzau.* || *Palatu dabe ta goldaketan asiko dire.* || *Palatute deke.*

**paleta, paletie**. Instrumento para sacar las cenizas del fuego bajo. || *Palatie eskatziñ ibiltten da. Au da sueri apur bet eraitteko-edo.*

**palillu, palillue.** Palillo, mondadientes. Ik. *sotza, sostorra*. || *Palillue da useten dana maidxetan, baya sostorrek dire arek txikidxe, metxuk.*

**palmera, palmerie.** (PALMONDO) Palmera.

**palo, palue.** (PALU) 1. Palo. || *Palotxue*. || *Paluas jo*. || *Artik ori palu ori!* || *Ori palue meye dok*. || *Palukiñ eitten daben dantzie ixengo da ori*. || *Ondo eiñen pague, jatostien palue*. || *Kakue da palo lusie*. || *Akuluri guk e punti ero gana esate tzeu. Gana. Gana bakixu ser dan. Untzie. Untzi sartze dxako olako palo bateri, da axe da gana. Da batzuk esate tze ba akulu puntie, akulu gana*. 2. Golpe, porrazo. ☐ **baña palue.** Palo que se coloca para que trepen por él el tallo de las vainas. || *Baña paluk e dire are paluk, bañari ipintte dxakon palo altu*. || *Baña paluk ixeten dire meyek eta altuk*.

**palokada, palokadie.** (PALUKADA) Palazo.

**paloma, palomie.** Paloma. *Usue ere esaten da*. || *Palomie usuri esate dxako*.

**paltzu, paltzue.** (FALTSU) Falso, traidor. Ik. *gusurtidxe*. || *Paltzue da ori!*

**paltzukeri, paltzukeridxe.** (FALTSUKERIA) Falsedad, felonía, traición.

**panaderidxe.** Panadería. || *Jeneralien dana biribille ixete san len aintxiñe ogidxe. Panaderidxetan be bai. Da oin daus klase gustidxe. Oiñ eitte ittue olakuek, da ritxe be bai, eitten dabe, baya ritxi esta esaten*. || *Lorategieta bayo apurtxu goratxuau egon san panaderidxe itzela. Da araxe erute ben egurre astillatu bier. Astilla metro bat eingeruko luserako astillie. Da paguk ein biste sin. Aretxak es sittuen gureisten. Pague*.

**panadero, panaderue.** Panadero, repartidor de pan. || *Astin bitten panaderue, eguenetan da domeka goixetan*. || *Pistola sopie? Sopie, nik estaitt oin pistolarik eitten badabe panaderuk. Len pistoli eitte ben sopi eitteko*. || *Panaderuk e ogidxe, guk ogi siku ekarteu ganaduntzako. Sikeutakue ekartesku. Merki da a sikue. Da mokotza pe or pasko ostien, mokotzak eure pe eukitte ittues botata orra*.

**panderero, pandererue.** Persona que toca el pandero.

**pandero, panderue.** (PANDERU) Pandero. || *Da soñu te panderu ixete sin, oingo trikitilaridxen tipora. Da kobrau, kobralaridxe bat, da dantzako kobrau beti*. || *Emen baserriidxetan-da, len*

*panderu ibiltte san, fillermoniki ibiltte san. Oiñ esta esebe ibiltten*.

**panparroi, panparroye.** (FANFARROI) Fanfarrón. Ik. *arrue*. || *Berba panparroyek*. || *Panparroye da gixon arro bat*.

**panparroikeridxe.** (FANFARROIKERIA) Fanfarronería, valentonada.

**panpliñe, papliñe.** Pamplina, dicho o cosa de poca entidad. || *Papliñe da seinde enbusteru ixeti les. Enbusteru esate dxako ba, antzin. "Papliñak eittera", "Koplak eitten". Igul esate tzu batek "I panpliñetan abil" edo "Koplatan abil"*.

**panpliñoso, panpliñosue.** Fanfarrón. || *Panpliñosu? Bai. Panpliñosu dana berak esaten, au te ori tte gusurre ta gora ta, panpliñosue*. || *Panpliñosu da fanfarroye*.

**pantaloí, pantaloie.** (PANTALOI) Bragas. || *Kulerue? Len areri pantaloitxuk esate dxaken*. || *Pantaloie? Bai, esaten da. Kuleru pe bai. Bidxetara esaten da, baya oiñ e geidxau esango neke kuleruk ibiltte dirilla ta kuleruk esate dxakola. Pantaloiek len ibiltte sirin, da arek ixete sirin de belaunetaraiñokuk erute sittuen, puntillekin-de ta*.

**pañelo, pañelue.** Pañuelo. Ik. *sapidxe*. || *Buruko pañelue*. || *Partikerako pañelue*. || *Samako pañelue*. || *Moko pañelue*. || *Pañelue agiridxen dekосу, ikusten dxatzu*. || *Buruko sapidxe eitten daniñ emen esta usau... Pañelo bat esangot, pañelo aundi bat ixeten dala, da ipintten da iru pikure*.

**papa.** (PAPA) (haur.) Pan.

**papada, papadie.** Papada.

**papalardo, papalardue.** (PAPALARDO) Atontado, -a, lelo, -a, lerdo, -a, tonto, -a. Ik. *tentela*.

**papar, paparra.** (PAPAR) Pecho. || *Papar gorridxe*. || *Txantxagorridxe ba alan papar gorritxu eukitten dabena ixeten da*. || *Goru ipintte san, jeneral paparriñ ipintte san, jeneral paparriñ ibiltte ben, olan paparrin, da amuri esku batas kolpe, da bestias tiretu, da bueltaka-bueltaka, ardatza bueltaka-bueltaka-bueltaka dala, aridxe itte san*. || *Bidxe dire antzekuek. Ba ixengo da iguel, marrotxuau ixengo da beste... Beste mosoluek, mosolu danak, au papar buelti au, au buelti au, jeneral suridxe eukitten deu, suridxe, edo suriskie*. ☐ *Batek bularrak ederrak baditu, honela esaten da: Paparra ornidute dxak ori!* ☐ **paparreko orratza.** Broche (de adorno).



**papardo, papardue.** (PAPARDO) 1. Castañola (*Brama brama*). || *Papardue arraiñeri esate dxako, narru kentze dxakon arrain bateri.* || *Papardue arraindunek ekarte ban. Bixiri pe es ittun ekarten, baya seinde bixirik balego les, arek atrapau te, itxosun atrapau te segidxen les ekarte sittuen.* 2. Bobo, -a, atontado, -a. || *Papardu alakue!*

**paparsuri, paparsuridxe.** (PAPARZURI) □ **basakatu paparsuridxe.** Garduña. || *Iru askonar eta beste basakatu paparsuri bat, basakatu paparsuridxe, erdera garduño, da illadan arrapau nittun.*

**papartzu, papartzue.** (PAPARTSU) Pechudo, -a. Ik. *bulartzue.* || *Papartzu? Ba papartzu, onek e eundidxe dekosena-edo.*

**papau, papaue.** (PAPAO) Bobo, -a, atontado, -a. Azentua lehenen go silaban du. || *Ori da papaue!*

**papelera, papelerie.** Papelera.

**paper, papera, papela.** (PAPER) 1. Papel. || *Komuneko papela.* || *Aintxiñe esan papelik egon da arexegas surittute san etzie.* || *Len elixik emote ban buldie. Paper batzuk emote sittusen, Aitte Santuk emonikuk, edo nik estaitt selan ixete sirin, barauae gordetekuk-edo, karidade eittekuk-edo.* || *Papera esaten da. Bueno, oingo umik papela be bardiñ esaten dabe.* || *Paperesku ixete san sakutue.* 2. Papeleo. || *“Etzi orrek esteko garbittasunik”:* noberagantzeko diru asko gastau bier e..., jauberik estekona se..., paper asko ein bi da ta. Ba esate baterako, len saldu banak edo lengue ill ein da, da barridxeri agindu tzon baya papelik ein bari tau.

**papo, papue.** (PAPO) Papo, carrillo, mejilla. || *Papo galantak dekos.* || *Umik-eta eukitte ittu paputzuk.*

**paputz, paputze.** 1. Papos. || *Paputzek esan gure deu..., bedarra paputze oten da sarritten. Paputze da arpei aundidxas da paputze, matraill aundidxe esati les. Jeneru be esaten da “Bedar paputz onek” esan leidxo edo “Asaburu paputz onek” bistias baya gogortu barik, paputze.* || *Paputze da einde bai baya alimentu gitxias eiñekue. Paputze da olanik e ein por eiñekue.* || *Persona paputze.* || *Paputze: olan matrailla aunditxuk dekoselako-edo.* 2. Tizón, enfermedad del maíz. Ik. *artaputze.* || *Paputze bai, a paputze, onek esate baterako, artaburuk egoten dire burue koskorra bakarrik eta garaurik es, da “Paputzek e desak”.* 3. Parado, -a, calmoso, -a, sin vigor. || *Paputze:*

*ori geldidxeri-edo pentzatot esate dxakola.* || *Paputze seri esate dxakon esangot, apur bet ganorabaku danari. Papo eundidxe tekosenari be bai, paputzek.* || *Bueno, persona bateri olanik e esan bi dxakoniñ e ba asarre daniñ-edo, berba gustoku esaten estaniñ-edo ba, “Paputz alaku!” ba personiri be esate dxako, ixen es arren be ba.* || *Paputze: ganora barik eiñeku.* 4. Papo, carrillo, mejilla. || *Papus galantak asitte dekos.* || *Paputz ederrak deko.*

**par, parra.** (PAR) A la par, a la vez. || *Par ein dabe.* || *Parriñ ein dabe.* || *Parres jutie? Bardiñin juti ixengo da.* □ *Esate baterako, pilota jokoan galtzen dabilenak bestearen puntuazioa berintzen duenean, honela esaten da: || Parrin dabis.* || *Musin, nai jokun be, iguel lelengotan jute sara irebasten, edo galtzen, da “Ba, kittutu ein dxuau”, lauten juten bada, da gero irebasi. Da parra eitten badeu, ba kittutu. ‘Kittututie ixen bi de parra’.* □ **parra ein.** Empatar (r gogorra ahoskatzen da). || *‘Kittutu’ da par eittie. “Kittutuko atau!” igul saplasu ataraten deu batek, eta “Kittutuko atau!”.* *‘Kittutu’ da beste bat berak emongo tzola, ta parra.* || *Kittutu: ya atzetik jun, de gero atrapatzen badabe, parra eitten badabe, “Kittutu du”. Diru galdutaku atzera irebasi, parra ein.*

**parabola, parabolie.** (PARABOLA) Mentira. Ik. *gusurre.* || *Paraboletan asi.* || *Ño, ak bota dxok parabolie!* || *Orrek botate ittu parabolak!*

**parada, paradie.** (PARADA) Parada, lugar donde de para el paso de la presa. || *An usun paradie ote san itzela!* □ **paradako iskue.** Toro semental. || *Paradako iskue fulanok deko.* || *Paradakue, beidxeri botateko.* □ **paradan egon.** Estar al acecho. || *Erroidxen paradan egon.*

**paradixu, paradixue.** (PARADISU) Paraíso. || *Paradixun egongo sak.*

**paraje, parajie.** (PARAJE) Paraje, lugar, sitio. || *Gure parajien ori gitxi usetan da.* || *Beti elixien parajeko kaskuen.* || *Eibarretik etorri sirin, au parajie ikusten.* || *Singerie: urtzu dan parajie. Lur bigune, da urtzu dana, da ainki-ta apur bet berantz eitten dabena, da singerie.* || *Gustuk egote sin. Batzuk labako artoko urune talu eitteko gurau ixete ben. Da beste batzuk es. Amen parajien es san labartorik eitten... Amen Nabarrixen aixartue. Ostera, or e Errigoitti aldien dana labartue, laban igerra.*

**parau, paraten, paretan, paratzen.** (PARAU, paratu-bat.) **1.** Ponerse, situarse. || *Su ondun paretan jun da.* || *Danak geldi parau ta pater nosterra erresau.* || *Len laidxetan be eitte gendun, parau lau-edo illadan, da bost-edo, da laidxak sartu barrure, eraiñ-eraiñ ein, de soidxe atarate san.* || *Ogeta lau orduan mundun bestaldien paraten dire abioidxas oin.* **2.** Aderezar, preparar. || *Ollogorrak-eta, pospoliñek-eta goso-goso paretan dire arbidxekin.* || *Arek dorau-dorau paraten direnien.* **3.** Terminar en, transformar. || *Posu eoten dana, bilinbolu, olan. Da gero sapotu eitten dire, lusero dauseniñ ainkatxuk urtete tze, da gero ba bustena be jeusi eitte dxako, da sapuk paretan dire.*

**pardel, pardela.** (FARDEL) **1.** Torpe, desmañado, -a, rudo, -a. || *Ori pardel (d)ok!* || *Ori pardel ori guri segidu esiñik dator!* ☐ Soroan ganadua ondo erabili ezin denean honela esaten da sarritan: || *Au pardelau!* **2.** Vago, -a. Ik. *alperra.* || *Ori da pardela!*

**pardillie.** Cierta variedad de setas. || *Pardillie setie da.*

**pare, parie.** (PARE) **1.** Par, pareja. || *Pare bat persona etorri da.* **2.** Frente, delante. || *Kuartuen parien.* || *Ortxe dau parin.* || *Paretik kendu seittes!* || *Da bueltekeran, abioyek justu-justu kueban pariñ eitte ben buelta, Gernikera juteko.* || *Oserue len esaten san, oye, lo eitten dan kuartun, edo gelan oyen pariñ egote san, ba, ixeriñ antzeko bat, bai, eote san.* || *Da lotu eitte dxakon gora, goiko burdidxek e arasak eukitte ittu olan albutan, erreillan paritan.*

**pareja, parejie.** Pareja. || *Saldidxek parejan ipintte ikusi nittun baten, sera, garidxe trilletan diarduela-ta. Baya amen esta usau olanik.* || *An gixon parejie badxak.*

**parka.** (PARKA, barka-bat.) ☐ **parka eskatu.** Pedir perdón. || *Parka eskatu deu.* || *Auspestu: ba igul parka eskatzen doixena pe, igul makurtu eitten dire, ba arexe 'auspestu'.*

**parkasiño.** (PARKAZINO, barkazio-bat.) Perdón, remisión. || *Esteko parkasiñori pe!*

**parkatu, parkatzen.** (PARKATU, barkatu-bat.) Perdonar. || *Sorrrak parkatu ei dxuates.* || *Maixuk asko parkatze tze.* || *Txikidxauk dirilako geidxau parkatze tze.*

**parkeske.** (PARKESKE, barka eske-bat.) Pidiendo perdón. || *Parkeske jun de.*

**parranda, parrandie.** (PARRANDA) Parranda. Ik. *errondie, juergie.* || *Gau gustidxe parrandan pasau deu.*

**parra-parra.** (PARRA-PARRA, barra-barra-bat.) En abundancia, abundantemente, copiosamente. Ik. *pirri-parra.* || *Ño, parra-parra bota tzek!* || *Euridxe be asko eitten badeu: "Parra-parra eitte dxok euridxe".* *Edurre, edo edoser.* || *Parra-parra dirue irebasten deu.* || *Dirue parra-parra dabil.*

**parrastada, parrastadie.** (PARRASTADA) Chorro. Esatarako, alturatik hona ura jausiko balitz: || *Ño, ur parrastadie!* || *Ur parrastadie jeusi dxako.* || *Parrastadie ixle lei ure, ixle lei saldie, se parrastadie jeusten dan ure da.*

**parrastadaka.** (PARRASTADAKA) Profusamente, abundantemente. || *Ure parrastadaka dabil.*

**parrel, parrela.** (PARREL) Parra, pérgola, emparrado. || *Mas parrela.* || *Parreleko matza.* || *Kibidxen parrelak.* || *Sagarra pe parreliñ ipintte dire.* || *Ipiñi estakak-eta sartute, da gero an trabes lotu serak, tomatik-eta, parrelin, gora, da tomatik selan asi, alan lotu, alan lotu ta parrelin.* *Ganera, arlun bayo gosau egoten dire.*

**parrelpe, parrelpie.** (PARRELPE) Bajo el emparrado. || *Parrelpie: matza badau, te ba parrelin badau matza, ba parrelpie.*

**parrille, parrillie.** (PARRILA) Parrilla de madera que cuelga de la pared y que se utiliza para dar de comer al ganado. Hitza eta tresna bera nahikoa berriak dira.

**parsela, parselie.** (PARTZELA) Parcela (porción pequeña de tierra). || *Parselie: lur sati bey, baso sati bet.*

**parte, partie.** (PARTE) **1.** Parte, pedazo, porción. || *Lau libre ogidxen sortzigarren partie.* || *Txarridxe iltten da. Partiduteku bada, partiduten da illuntzien. Aparidxe ipintten da ta jaten da da bakotxa beren parti artu te ba, etzera.* **2.** Paraje, zona, sitio. || *Len erlik euki gendusen, an solun goiko partetxun.* **3.** Territorio (referido a municipios). || *Gernike partien olan esaten da.* || *Da pagotxa, pagotxa bai esate dxakon, emen berton ainbeste es, baya or e Lekitto partetik edo ortik pagotxa.* || *Ori kobie Ereñoko partin jeusiko da.* || *Gixabura partera. Bai, baya beste alderdire be bai. Gomis Bekue esate tze an etze bi. An be-be-beyen.* **4.** Notificación, informe, comunicación. ☐ **parte artu.** Tomar parte,

intervenir, participar. || *Parte artu deu.* ☐ **parte emon.** Avisar, predecir. || *Oin dala sortzi egun emon neutzun parte.* || *Eurretik parte emon, ia basatos edo es basatos.* || *Lelengo parte emostek, e!* || *Eusun artiñ ixete san, da pasu dekonak, ba a be pasetan da, a be bai, a be bai tte danari emote dxaken parte, “Bide konpontzi dau”.*

**parteko, partekue.** (PARTEKO) Participante. || *Airoko pague, neu be parteku ixenda nau botaten. Bai, mutikue. Neuk eukiko nittusen amar-amabi urte.*

**partera, parterie.** Partera. || *Parterie? Andra bat partutan ibiltten dana.*

**partidu, partiten, partiduten.** (PARTIDU, partitu-bat.) 1. Partir, dividir. || *Terrenu partiduten dabena mujoye esaten da.* || *Txala be olan partiten, len ixete san, laurena ixaten da erdidxen erdidxe, da lau lauren eitte sin txalak emen aintxiñe etzitarako.* 2. Repartir, distribuir, dar. || *Nik deket asidxe, neuk partidu dot asidxe.* || *Ur emotzaillie da ure emoten dabena. Ure partiten deu: ur emotzaillie.* || *Da ba etze baten igul emongo ban ba txokolatie, da beste etze baten intxaur batzuk, eta ba arexe batu, gero arexe partidu, te jan.* || *Da gero ba, txokolati, edo intxeurrek, edo batze gendusenak, ba, askotan errixtan einde akabeta gendun, beste askotan ba partidu eitte gendusen errixtan ein barik; iños eusoko andra bate pe partidu eskusan, da ba, olantxik. Jeneral guk geuk partidu eitte gendusen, partidu gitxi gorabera, ba partidu toketan dana.* || *Galtzue, ta negureko jateko iste san, sabaidxe bete, da artu be ara asko artze san da lantziñ e txapatxu batzuk e emon ganaduri e, bakotxiñ otzaratxu bet-edo ekarri tte partidu danari axe, da goixin ba axe partidu, da siku emon.* || *Txarridxe illtten da. Partiduteku bada, partiduten da illuntzien. Aparidxe ipintten da ta jaten da da bakotxa beren parti artu te ba, etzera.* || *Ba bokosu suk e esni partiduteko “Beseridxe dxekoatek” eta beseridxeri emon bi tzat lenau.*

**partike, partikie.** (PERTIKA, endaitz) Pértigo, lanza del carro. Ik. *burpartikie.* || *Onek albo bixtakuk di arasak. Onek trabeskuek trangak, eta au partikie, erdikue, au atzetik eurrera arteku da.* || *‘Larakue’: a, ganaduek burteran, larakue partikeran esartzen dxako.* || *Busterridxas bustertu eitte sirin, edekin lotze sirin bekokidxek. Burdidxen partiki sartzeko, ba se esangot neuk?, sulo bat eukitte ban. Da burdidxen partikan sartzeko sirin ganaduk. Da busterridxen partikie, antxe*

*ganaduk eukitten dabena..., edik esate dxaken, narruskuk ixete sirin. Da antxe sartzeko dxakon burdidxe partikie, antxe busterridxen suluena.* || *Partikie esate dxako burdidxek dekonari, edo narrak dekonari, busterridxen sartzekuri.* || *Partikan sartzeko dana da larakue. Partikik eukitte ittu, ba ser, olanik e, sulu-sulu-suluk eukitte ittu, da antxe eurrerau jun, edo atzeratu jun-edo ba antxe sartzeko dana.* || *Bueno, joku bat san da etzan, olgetan ibiltte gendun, burdidxen atzin plantau lagun bi edo iru edo lau, dana dalakue, da beste bat eurreko partikan plantau, da axe altzetan, gora ta bera, kirrinkarran.* || *Partiki da beidxen busterridxen sartzeko sana. Adaburuen. Adaburuk erute ban e onakoxe suluena, da antxe sartzeko san ori, burpartikie. Da adaburuas.* ☐ *Hona hemen nardekie eta partikie berben arteko desberdintasuna: || Nardekie da partikie ba tire. Bueno, ba tire ta estire. Nardekie da..., oiñ esta ibiltten nardekari pe. Partiki da burdidxena, narrena, osun datorren..., katiakiñ-edo lotute oten da beyen, da beidxen erditik etorten dana. Burdi partikiri be bardiñ esate dxako, partikie. Edo “Partikes gora dau”, edo “Partikes bera dau”. Nardeki solte ixeten da, da katiakiñ ibiltten da. Len ibiltte san soluen, arikin, sestuas be bai, bostortzas be bai, da nardeki areri esate dxako.* ☐ **partikes gora edo bera.** Con el pértigo hacia arriba o hacia abajo. || *Partikes gora: ori da burdidxe partikes gora igul eukitten da jun esteidxen edo mobidu esteidxen. Da partikas bera be bai oten da.*

**partikera, partikerie, patrikerie.** Bolsillo que llevaban las mujeres atado de la cintura. *Partikerie nahiz patrikerie esaten da, baina lehenengo forma entzuten da gehien.* || *Partikerako pañelue.* || *Aintxiñe partikarak gerridxen lotute ibiltte sittusen andrak.* || *Partikerie? Ondiño gurin batabat nun o nun ongo da. A gerridxen lotute ibiltte san, da oiñ estabe..., estou ibiltten oiñen gonarik, da goniek eukitte ban olanik esku sartzeko lekue, an barruen, partikarie ixeten da, da an barrun gordete san edoser, diru be bai. Ba edoser geusa gordete san.* ☐ **malen partikarie, malen patrikadie.** Bolsa que las mujeres llevaban bajo la falda atada a la cintura para llevar el dinero y a la que accedían a través de una sesgadura hecha en la falda. || *Enbrak eukitte ben aintxiñe onan, gonik kortadie euken, esta? Ba emendik gerritik lotute erute ben poltzie: malen partikarie.* ||

*Malen partikarie da enbrak aspittik ibiltze ebena. Oiñ esta olakorik usetan. || Andraskuk erute ben malen patrikarie, goniñ aspittik sartunde olanik. Gonik eukkitte ban onek, irrikittue ametik, da gero esku sartze ben.*

**patrikera.** (PATRIKERA) Bolsillo que llevaban las mujeres atado de la cintura.

**pasa, pasie.** Pasa, seco. || *Okan pasie. □ iko pasie. 1.* Higo seco. || *Emen oiñ iko pasarik esta oten. Ba len e... Emen ba, esan gutena tabernatan be iko pasak kajak ote sin. Iko pasie. 2.* Persona floja, de poca actividad y remango. Ik. *epela, tentela. || Iko pasie da mantzu esati les. Bai, geusa noblie, mantzue. "Iko pasa garbidxok ori!". Iko pasi ixeten da les... || Iko pasie? Bai. Ori be pelmi esati les. A umela esan gutena, suabi. Ta iko pasi suabi ixete dan les "Iko pasa garbidxok ori!" ba ori be bai. || Ta gero igul alan tentel modun daunari be "A da iko pasiori!".*

**pasada, pasadie.** Zurra, paliza. □ **pasadie emon.** Zurrar. Ik. *aidiau. || Ori aidiauti da ba, esate baterako, pasadi emoten batzasu bateri, "Majo audiau dxuk andik".*

**pasadixu, pasadixue.** (PASADIZO) Suceso, acontecimiento; incidente. || *Pasadixu kontetan dabis.*

**pasador, pasadora.** 1. Pasador, colador. Sin. *irastekue. || Da axe koipie, txingerrak apartau, da axe koipe garbi-garbidxe pasau serien, pasadorien, onakoxe pasadorien, da koipe gasie botate san orretara pitxar morkutara. 2.* Pasador, barreta de hierro sujeta con grapas a una hoja de puerta o ventana, o a una tapa, y que sirve para cerrar corriéndola hasta hacerla entrar en una hembrilla fija en el marco. || *"Pasadora emon" esaten da.*

**pasau, pasaten, pasetan.** (PASAU, pasatu-bat.) 1. Pasar. || *Errekie pasau. || Da errekan selan pasau eskendun jakin. || Parte batetik bestera pasau. || Gero atxegi aundi bet pasau bi de olan, olako arridxe. Antxe pasetan gatx egote san. || Emetik es sara pasauko! || Batzuk goixin pasaten basirin, bestiek arratzaldien. || Egun onak pasa dogus. || Txipristadak etorten dire, kotxie-edo pasetan danin. || A etze barridxe pasetan danien, apurtxu arantzaxuau junde, olan artzen da apurtxu bet, baya bertan das. || Basun edo kanpun ibiltten da, baya emen e pasau eitten da edo, estai nik emen bixi be estot pentzetan eitten danik. || Pasau iturridxe. Iturridxe bakixu nun*

*dauen. Iturridxe pasau te leuna bat. Antxe egon san Oraindiko txaboli esate tzena. || Arexen barrentxutik pasau nas. 2.* Pasar, suceder. || *Atzo goixeko sortziretan pasau san. || Arrittu da pasau danas. || Lastimagarridxe ixen da ori pasetie. || Apatx bittarteku esate tzeu orreri. Apatx bittartiñ eitte dxakue solittu. Da len e ganaduek udebarridxen eitte dxakon ori asko ganera. "Kaguen, se pasate dxakok?", "Apatx bittarteku dxekok". 3.* Pasar, transcurrir. || *Enas jun pasa dan urtin. || Gastarue pasaute deko. 4.* Filtrar, colar. || *Kafie pasau. || Txanu pasaixu! || Esnie pasau ixe bitzadorin! || Da gero esnie eitte san..., ligerra artze banin, esnie gogortute gelditze san, gogortute edo seinde bigune eote san ondiño, da gero a ra-ra-ra marka batzuk eiñ e, kutxilluas, da a gero pasau eitte san, pasau eitte san pasadorien edo trapu baten-edo, pasau eitte san, da urek atarate dxakosan, urek atara, urek atara. 5.* Perder la sazón o empezar a pudrirse las frutas. || *Frutie paseute dau. 6.* Sentar mal. || *Edanak pasetan deu. 7.* Pasar; sufrir; aguantar. || *Estualdidxe pasau deu. || Larriune itzela pasau dxok! 8.* Curar. || *Asto naparredixe pa egun bat edo bi geldirik egon eskerun, ba pasetan, naidu arin pasetan da. || Bai, igurtzi eitten da, da igurtzidxas e, estaipa, oiñ arte igurtzidxas pasetan ixen da baya, estaipa pasauko bada igurtzidxas be, asko eiñ eskerun pasau esin. 9.* Pasar sobre el fuego, asar ligeramente. || *Emen burduntzidxen gastik-eta, sarrak e ainbeste estabe, estu ibiltten, baya suten, sarritten ba txorixu badau eskeitte, txorixu satidxe kendu te antxe suten pasaten da burduntzikue. Da okeli be pasaten da. Gure ixen eskerun e okelie satidxe ba pasau e suten, da ba "Burduntzidxe pasaute". 10.* Pasar un apero de labranza sobre el campo de cultivo. || *Ba mamin gitxi dekonien, esate baterako, nai arias pasau, nai goldias pasau..., bueno goldik berak ataraten deu sokille..., ba sokille eukitten badeu, sokiltzue lurre oten da. || Solue pasau dabe.*

**pasau.** (PASAU, pasatu-bat.) Pasado, algo más de la medida que se señala. || *Errotik bera pe jate ei deu euneko bat pasau. Bota eun kilo gari, da urune einde gero pixau te larogetaemeretzi... || Eun killo pasau deko. || Batzuk ernia esate tze, bestik etena. Guk bidxetara esateu, neu pe operasiño ointxe ya urtebete pasau da eiñ ñabena, ta ni pe barren-barreniñ euki naben beyen. || Eukitte ban bolantik e ba kargatan erute*

*ban burdidxe lako lau bider geidxau. Akorten nas burdidxen, ba geidxen be, amabi kinttel, tonelada erdi pasautxu ortxe. Da orrek erute sittuen lau tonelada be bai.*

**pase, pasie.** (PASE) Paso, migración. || *Txori asko doiñin, "Geur dxak pasie!" Txori asko doi, "Pase itzela dxak or!".* || *Txoridxen pasie.* || *Onek kanpotik etorten dire biragarruk. Berton be egoten dire banekak baya kanpoko biragarru... pasie egoten da ba sarridxen.* || *Usuk euki dxok pasie.* || *Usu pasi dxak.*

**paseko, pasekue.** (PASEKO) De paso, migratorio, -a. || *Orrek txirritxorruk paseku di. Orrek negun etorten dire, da amen ibiltten dire igul egunetan, da gero alten dabe ostabe.* || *Da one bestik, pospoliñe pe, galeperra esate tze askok. Orre pe paseku die.* □ **paseko txoridxe.** Ave de paso, ave migratoria. || *Paseko txoridzek: martxan doixen orrek. Berton geratzen diña barik, martxan orrek juten di ba uso manduk.*

**pasientzi, pasientzidxe.** (PAZIENTZIA, eroapen, jasankortasun) || *Esteko pasientzirik.* || *Orrek deko pasentzidxe!* || *Ori pasentzi aundikue da.* || *Pasintzi bakue asitte!* || *Nasaidxe da, pasientzi eundiku da.*

**pasiu, pasiue.** (PASEO) Paseo. || *Apapa ein: esate baterako, umi artu, ta entreteniduteko, "Goixan apapa!", ta umi artu, ta ba pasiun jun, edo ba umie entretenidu-edo.* || *Igul basois pasiuan da "Ai, se ariñ ein dau!".* || *A igul e illuntzetxun jun pasiun Lekerikera-edo, ta ure daun lekun e burun eurretik eta danin pasauko dxatzu. A da sagusarra.* || *Igul batzuk etorten dire pasiun ero, eta: "Orre pe esteke biar aundirik astegun buru suridxen olan etorteko".*

**pasiuleku, pasiulekue.** (PASEOLEKU, pasealeku-bat.) Paseo (sitio para pasear).

**pasko.** (PAZKO) Pascua. || *Paskue ixeten da... Ser esangot neuk? Lelengo... Paskuk ixeten dira garixuman... Bueno garixumi pasaute segidxen datosen paskuk ixeten dire paskuk, lelengo paskuk. Da gero beste pasko batzuk be etorten dire atzerau.* || *Mokotza iru musturreko ser bat ixeten da, arrautzie ganin, ya labatik atara ta gero, Amabixik erregalaute eutzon bere besutakori pasko egunien.* || *Axentzidzuk ixeten dire, ba garixumie akabau, paskotik jeneral ba berrogeigarren eguniñ ixeten dire asentzidzuk. Jesukristok serure igo bana, esaten dabe.* || *Paskutan mokotza. Paskutan ixete san ori.* || *Panaderuk e ogidxe, guk ogi siku ekarteu*

*ganaduntzako. Sikeutakue ekartesku. Merki da a sikue. Da mokotza pe or pasko ostien, mokotzak eure pe eukitte ittues botata orra.* □ **paskaskue.**

Cumplimiento de la Pascua. || *Oiñ estakitte esango badeu, se orixe oingo gastik astute espadeke paskasku ser dan be.* || *Paskasku ein: konfesau, da komulgeu.* || *Paskoaskue bete: urtin baten eitte san len konfesau, te komulgau, te paskoaskue esate dxakon orreri.* □ **paskutan.**

Por Pascua, en los días de Pascua. || *Paskutan konbidauk-eta askok eukitte basen.* || *Oin ba eitten dabena, oiñ e tabernatan-ero igul eitten dabe basatoste dala ta. Ba ori, ostantzien paskutan.* □ **pasko pentekostie.** Pascua de Pentecostés.

□ **pasko txala.** Ternera que se solía sacrificar en Pascua. || *Pasko txala? Len paskutan txala iltte salako, pasko txala. Da "Paskutako asten dasak".* || *Pasko txala? Bai, asi eskerun. Ba pasko txala ixeten da txala ba eundidxe bada, edo ederra bada edo ba estimasiño sartzen badabe e serak e, tratantik-edo, pasko txala.* || *Jeneralien emen ostantzien sesiñe esate dxako emen. Sesiñe entzungo sendun. Sesiñe len emen iltte san, negun. Pasko txala, jaidxetarako iltte san txala.*

**paso, pasue.** (PASO) 1. Paso. || *An pasorik pestau!* || *Baya erute san atxur me bat. Mendire, edo basora-edo doixenien, esate baterako, bidie katittute badau ureas, edo basias-edo, axe libretako, arixeri pasu eitteko. Basatxurre esate dxakon.* || *Eusun artiñ ixete san, da pasu dekonak, ba a be pasetan da, a be bai, a be bai tte danari emote dxaken parte, "Bide konpontzi dau".* || *Arek e pasue itxi bi tzo bestiri, ta segaitti ba ta, ba alantxi daulako einde legi.* || *An estau gero pasorik. Arregluas ein bi da ori, danan konformidadias.* || *Berak leges esteko pasorik, baya pagau eitten deu, berari komeni dxakolako.* || *Koño, bestela ein dok andik buelti eitti, se jun baintzan, estok euki pasurik eta.* 2. Pasada. || *Askanengo pasue anilluren emote dxake.* 3. Alcance. || *Bailariñi ixeten da, bailariñak esate dxake..., are sorrotzak estire, espabese arik eukitten daben biarra les eitten deu, da eitten deu ba, ser esangot neuk?, paso geidxauku esango dot, da mamin gitxiau ereitte tzona lurreri, paso geidxaukue.* 4. ¡Paso! (palabra del mus y de otros juegos de cartas).

**pasodoble, pasodoble.** (PASODOBLE) Pasodoble. || *Soltie, trikitrikidzek eta gero gure denpora ramoli egon san, da gero soñu-jotzailla*

pe bai. "Ointxe jo bi dau pasadoble", Ointxe jo bi dau tangué", "Ointxe jo bi dau baltza", da bakixu.

**pasto, pastue.** Pasto. || Orrek ardi errebañue artu, te juten dire ba orra, pastue, jatekue deun lekure. || Pastue: ganaduk jan bi daben sikuri, ba sikue, nai galtzu ixen, nai bedar siku ixen, pastu esate dxako, ganaduntzako pastu. || Berdiri es, igerrari, sikuri esate dxako pastue.

**pastore, pastorie.** (PASTORE, artzain) Pastor. Ik. ardi saiñe. || Oisko pastorie. || Emengo berbetie da "pastorie". || Ardi saiñe edo pastorie, jeneralien pastorie. || Arrolan egon san pastorie, da eukitte sittun —oiñ esta iñor be bixi— baya eukitte sittun ardidxek. Da Siertzakorta ixena dekon beste etze bat egon san, Arrola bayo berau, arantzau, da are pe bai. Da arek e Arrolaku pe iños e emote ban olanik gastaye. Da arek Siertzekortakuk saltzeko gastaik eitte sittusen. || A bai, Lusio pastorie. Bai, bai, Lusio. A kiputze san, Mendaroku-edo, orku. || Da ak e biarrik e es eban berak eitten, golperi pe. Arexek ardidxek saindu te... Alper itzela san, bueno! Pastoriek jeneralin dire alperrak, golperi pes. □ **pastor elektrikue.** Alambre o cinta que, al tocarse, da descargas eléctricas y que se coloca para que los animales no pasen a un terreno. || Amen artotzara etorte dxaku ori basurdie urtaro, da or ipiñi bistu pastor elektriku, bueltan. Ostantziñ e arto danak apurtu. Da a ipiñi eskero esta juten.

**patal, patala.** (PATAL) Pesado, -a, tardo, -a, lento, -a. || Pausu motela dekonari esate tzeu patala. || Patala biskorra estanari esate dxako. || Patala da jagi txikidxe. || Jagi patala. || Patala esate tzeu guk jagi gitxi eitten deunari.

**patar, patarra.** (PATAR) Torpe, patoso, -a. || Ainka kaltzau esiñik dabillena: "Selako patarra sa ori!"

**patari, pataridxe.** (PATARI) Alimaña, animal dañino. Ik. pistidxe. || Ikusten espadosu se ixen dan. || Pataridxe edo ganadue. || Pataridxe da, seiñde, katue, aseridxe, da orrek, txakurre edo. || Pataridxen bat ikusi dot. || Beidxek, ta onek, estire pataridxek. || Pataridxe egon da ortxe, seoser pataridxe ixen da. || Personie espada, ba pataridxe, ya beste gustidxek pataridxek dire. || Guk, seinde, seiñe, astu bada, kaballue bada be, gabas, ikusten esposu, da saratie be entzuten bosu, susena edo: "Ori lagune esta ixen, pataridxen bat ixen da". || Onek e jaten dabe ori, animalidxe. Nai ardidxe, nai... Mendidxen, da

atzetik asten dire jaten. Gero ortik igerte dxako se pataridxe ixen dan. Pataridxe danak estabe jaten igul. Es. Onek aseridxek odola txupeten deu emenditxik. Da ementxe agin suluk eitte ittu. Emen, gorgoille edo albotik. Ordun bakixu aseridxe ixen dana. □ Hona hemen pataridxe eta pistidxe berben arteko desberdintasuna: || Bueno, pistidxe esate dxako geusa benenosu danari edo benenu dekola pentzetan danari esate dxako pistidxe. Pataridxek e dana tire, txakurre pe bai, katu pe bai. Da beidxeri beidxek eta txalak esate dxake baya are pe pataridxe tire. □ Kortako animaliei ere esaten zaie mesprezuz edo zakartzen direnean. || "Ori pataridxe txarra da" esakune hau kortako animalientzat ere erabili lei, mesprezuz. □ **baso pataridxe.** Animal salvaje. || Baso pataridxe dire aseridxek, askonarrak-eta. Baso pataridxe dire. Baso pataridxe esaten da basuen bixi dirilako, basoko sera dirilako.

**patata, patatie.** (PATATA) Patata. (*Solanum tuberosum*). Motak: gorridxe, suridxe, baraka. || Patata arlue. || Patati eraitten dabil. || Sildute daus patatak. || Leidxek erre dau patatie. || Bat suridxau eoten da, patata suridxe, barrue suridxe dekona. Baya barru oriski dekona a suridxe dekona bayo obi ixeten da. Da patata gorridxe be badau. Len gorridxe eraiñ eitte gendun, da oiñ estau eraitten gorririk. Oin suridxe eraitteu. Da orixe, suridxe urte gustidxen eiteko modukue. Da gorridxe ba ixaten da, barru be naiku eukitten deu gorridxe, ser esangot neuk?, ixeten da suridxe bera bayo, ori suri..., barru gorriskatxu edo oriskatxue dekona bayo ba se esangot neuk? Ixeten da olan kastetako-ta, patata gorridxe obiau ixeten da olan ariñ kastetako. Suridxe ostantziñ e luseruau, a barru oriskatxu dekon suridxe luseruau eukitteke ixeten da. || Len patatie lili koloreku be egon san, aintxiñe, ta barru suri-suridxe eukitte ban are pe. Lili eukitte ban ganetik jeneral arek patatik, da oiñ ikusi be esta eitten alako patatarik. Patata bastu ixengo san kontixu.

□ **patata kokue.** Insecto de la patata, nombre con que se llama también al escarabajo. Ik. eskarabajue. □ **patata kuadrue.** Parcela del huerto en que se cosecha patata. || Soluen eskiña baten patata kuadru eder bat ereitten da. || Patata kuadrotxu ein dot. □ **patata urtie.** Año con buena cosecha de patata. || Patata urte da. □ **porru patatie.** Puerro con patatas. || Porru patatie: porrue, da porru irakitten daunin patatak

sartze dxakos, da porru patatie, egosten danin. □

Besterik botatzen zaion galdetuta, honela erantzun didate: || *Bai, oridxue, gatza, da olan botate dxako oridxu, te gatza, da kipuli aiñ osue espada, sati bet, edo txikitxu, edo osu-edo, da kipuli be botate dxako, ta ba orixe da porru patatie.*

**patatatza, patatatzie.** (PATATATZA) Gran cantidad de patatas. || *Patatzie dau!*

**paternoster, paternosterra.** (PATERNOSTER) Paternóster. Ik. *aitegurie*. || *Danak geldi parau, ta paternosterra erresau.*

**patin, patiñe.** (PATIN) **1.** Pozo para sacar agua, aljibe. || *Patiñe: ure atarateko sulo bat, ures beteten da beres, da ba andixik ure artu.* || *Patiñe agortu dok.* **2.** Canalón, conducto que recibe y vierte el agua de los tejados. || *Ori tubu esta patiñe, patiñe da beyen daun sulue, ure artzen dabena, da patiñe.*

**pattar, pattarra.** (PATTARRA) Licor, aguardiente. || *Koñaka da pattarra.* || *Sasi okanak txikidxek dire. Arek jatekuk es. Arekin sera eitten da: pattarra.*

**1 patxada, patxadie.** (PATXADA) Calma, tranquilidad. || *Ori dok ori, patxadie!* || *Patxadi da trankil egotie les.* || *Auri dok patxadie, ori!* || *Patxadas dau.* || *Patxada galantekue dok ori be!* || *"Tenplae da": trankil dauna, patxadas dauna.* || *Edo tenpleu daun geusa batek "Patxadie, ori da patxadie!"*. □ **patxadan eon.** Estar en calma, tranquilamente. || *Sosiguskue da patxadan eoten dana.*

**2 patxada, patxadie.** (FATXADA) Fachada. || *Ezin patxadie urrutu ein dxaku.* || *Patxadie arrekalatu ein da.* || *Etzik onantz deko patxadie.* || *Ezin patxadie nora begire dau?*

**patxadasko, patxadaskue.** (PATXADAZKO) Flemático, -a, calmoso, -a, lento, -a.

**patxaran, patxarana.** (PATXARAN) Pacharán. || *Amen esta eitten patxaranik eta!*

**pausu, pausue.** (PAUSO) Paso. || *Pausue ein.* || *Pausu entzu dot goidxen.* || *Pausu motela dekonari esate tzeu patala.* || *Pausu laburre deko.* || *Pausu lusie deko.* || *Emendik bost pausure dau.* || *Jun seixe bost pausu eurrerau!* || *Bost pausu eixus!* || *Traskille da, traskille, edozelanik ibiltten dana jantzitte ta igul. Pausus tropi eta, "Traskil garbidx-ok ori!"*. □ **pausu lusin.** Rápidamente, dando zancadas. || *Pausu lusin jun da.* □ **pausu otza.** Ruido de pisadas. □ **pausu tropie euki.**

Ser muy torpe al andar, tropezarse mucho. || *Pausu tropie deko orrek.* □ **pausun jun.** Llevar el paso. || *Pausun jun da.*

**pausukada, pausukadie.** (PAUSOKADA) Zancada. || *Selako pausukadak emote ittu ak!*

**paute. 1.** (Comer) vorazmente, a dos carrillos, devorando. Ik. *mauke*. || *Paute-paute jate dxok.* **2.** Onomatopeya del tiro. || *Ametik tiruk entzute sin.* *Bai, or frenti lusero on san or e Gipuskuan. Ba, amendik entzute sin tiruek. Ta Illunsarretik, bueno! Klaru-klaru-klaru. Da lantzin tiro bat botate ben, paute ta paute!. Tiruek nik pentot jeurti por jeurti, eiñ esteidxen bata bestiri kruseu-ero. Gero apurtu saniñ e, bueno! Ordun gero dana! Ordun bai tirue! Ba aman berton es san bota.*

**peka, pekie.** (PEKA) Peca. || *Saidxe lako antzeko koloreko satixu-satixuk eukitte itunak: pekak.*

**pekatari, pekatariidxe.** (PEKATARI, bekatari-bat.) Pecador, -a.

**pekatu, pekatue.** (PEKATU, bekatu-bat.) Pecado. || *Pekatu ixate san baltzigun eittie.* || *Konfesetaku jute danin, konfesorik —oin konfesorarik estau baya— pregunteten deu ba: "Damutzen sara ein dosusen pekatukaittik?". Bayetz, edo esetz esate dxako. Da orixe da damue, noberak artzen daben sentidu-edo.* □ **pekatu ein.** Pecar.

**pekatzu, pekatzue.** (PEKATSU) Pecosos, -a. || *Pekatzue? Pekak euki leis, arpeidxen pekak, peka-peka-peka-pekak. Dana pekatzu arpidxe dekena pe oten dire.* || *Pekatzu da.*

**pekostu.** (PEKOZTU, bekoroztu-bat.) Ensuciarse, pringarse. Ik. *loittu, sikindu.* || *Pekostu dosu dana!*

**pekotz, pekotza.** (PEKOTZ, bekorotz-bat.) Boñiga, excremento del ganado o caballería. Ganaduarenari *pekotza* esaten zaio, zaldienari *pekotza* nahiz *korotza*, asto, txakur eta gainerako animalienari *korotza* eta lagunarenari *kaka*. || *Ganadun pekotza.* || *Pekotz moltzue.* || *Pekos pillue.* || *Saldi pekotza.* || *An pekotz tartin pasau biar eurrera jaten emoten.* || *Txalak pekotza siriñe eitten deu.* || *Irauleko satza: ori kanpoko satza. An kanpun, len e emen be eitte san e astu egote saniñ e, da pekotza dana batu te dana leku batera ein de irauleko satza.* □ **asto pekotza.** Boñiga de burro. || *Asto pekotza aintxiñe bakixu setako usete san? Erliri estidxe atateko, keye eitteko. Keye eitten deu asto pekotzak. Erliiek keyek*

e kendu eitten dittu. Guk estidxe euki gendun, da asto pekotzas eitte san erliek kendu. Keye botaten deu, keye satarra, da fuera! A bastartu, erlie bastartu ein bi dabe panalak kentzeko. Axetako usete san. Solorako be bai. ☐ **pekotz ein.** Defecar (el ganado). "Beidxe pekotz ein deu" nahiz "Beidxe pekotza ein deu" esaten da.

**pelaje, pelajie.** Pelaje, greña. Ik. *sapie, saparie.* ☐ *Orrek deko pelajie!*

**peligru, peligrue.** (PELIGRO, peril) Peligro. Arraskue ere esaten da. ☐ *I, kontun ibilli adi, orrek peligrue dxok aspiñ arrapetako ta!* ☐ *Ak esaten deu, perretxikue jan da asten bada arin molestasiñoye edo sera eitten, ba estekola peligrurik.* ☐ *Medeliñe euki baleu, es eukon peligru te eser.* ☐ *Apapuen? Nos jeusiko. "Kontu txo, apapun dxak eta!". Bakixu e peligru esan biarrin, "Kontu, txo, apapun dxak ori tte!". Bakixu, 'apapun' da antxe es jeusi es... 'Apapun' da ortxe dingiliske dauna. Arbola bat edo adar bat. Adarra bakixu ser dan, arbolin adar bat, "Txo, kontu, apapun dxak ori tte, ori badxatok eta!".*

**peligroso, peligosue.** Peligroso. ☐ *Txo, kontun orreas, peligosue dok eta.*

**pelota.** (PELOTA, pilota-bat.) Pelota (para jugar).

☐ **pelotan.** (Jugando) a la pelota. ☐ *Leku batzutan pilotan esaten dabe, amen berton, emen pelotan esaten dabe.* ☐ *Seminaridxuen ikesten egon sanien, pelotan jokatze ban asko.* ☐ **pelota partidue.** Partido de pelota. ☐ **putzesko pelotie.** Pelota hinchada. ☐ *Aintxiñe ba pelotiti putzesko pelotie esate dxakon.*

**pelotaka.** (PELOTAKA, pilotaka-bat.) (Jugando) a la pelota. ☐ *Pelotaka sakeruk oten dire.* ☐

**pelotaka ein.** Jugar la pelota. ☐ *Pelotaka ein bieu.*

**pelotaka, pelotakie.** (PELOTAKA, pilotaka-bat.) Partido de pelota. Sin. *partidue.* ☐ *Pelotakie: pelotaridxe eitten dabena.* ☐ *Pelotakie dau geur.*

**pelotaleku, pelotalekue.** (PELOTALEKU, pilotaleku-bat.) Frontón de (pelota). Ik. *frontoye.*

**pelotari, pelotaridxe.** (PELOTARI, pilotari-bat.) Pelotari. ☐ *Eskusko pelotaridxe.* ☐ *Ostantzin, sakerue frontoitan pelotaridxeri esate tze sakerue.*

**pena, penie.** (PENA) Pena, dolor, aflicción, desconsuelo. Min fisikoari dagokionean, esan daiteke *miñe* eta *minberie* baino askoz latzagoa dela, ezin jasanezko oinazea alegia. ☐ *Nik deketas penak!* ☐ *Selako penak dekotas!* ☐ *Pena negargarridxe, aguntau es eitteko modukuk!* ☐

*Urdeilleko penie deket.* ☐ *Penie artu dot.* ☐ *Golpe artzen bosu, "Miñ ein dosu", orduen "Penie ein dosu" esta esaten, espabe "Miñ ein dosu".* Da igul atzamarrin nai eskuen-edo, ta min deket, besoko miñe edo ankako miñe edo gorputzeko miñe, baya bestie, penie ixeten da ya geixue, ori gorputzetik datorrena. ☐ *Penas dabil.* ☐ *"Beidxe urrumeka dau": miñ-edo, peni-edo dekonin-edo urruma txikitxuk eitte ittu.* ☐ *Kejuri: ori miñeri eitte dxakon sera. Esate baterako, pena baten, kejurie, "Kejuri deko", agiñeko miñe dekesu, ta ba kejurie dekesu. Sufrimentuen sera, kejurie. Edoser, buruko miñe nai e... Kejurie, bai, esaten da.* ☐ **penetan.** En medio de grandes dolores. ☐ *Igul an olan doye bat, ta bestik e baki ser dekon "Etena dxekok eta ori penetan dxabik, etenas".*

**penagarri, penagarridxe.** (PENAGARRI) Penoso, sensible, doloroso. ☐ *Damugarridxe da: geuse bat ein, de gero ba ondo ikusi es-edo, "Penagarridxe ixen da olan eittie", damugarridxe.*

**pendejo, pendejue.** Pendejo, latoso. ☐ *Pendejo sara!*

**pendis, pendixe, pendesa.** (PENDIZ) **1.** Cuesta, repecho, pendiente. Ik. *aldatza, aldapie, erripie.* ☐ *Aldatza danien esaten du: "Ori da bide pendixe!"* ☐ *Pendixe: ser esangot neuk?, olan erripi dauna-edo, pendixe.* ☐ *Bide pendesa da.* **2.** Lugar incómodo o peligroso para trabajar; trabajo incómodo o peligroso. ☐ *Pendixe da, leku txarra da ori, leku txar bat, biar eitteko leku txarra da pendixe. Biar eitteko baso bat-edo txarra dauna, pendixe. Peligosue. Goitti beran, edo leku altu-bajuek edo arri bittartiek edo miñ eitteko moduko leku dauselako.* ☐ *Bier txarra, edo pendesin daun geuse bateri eltze-edo: "Balorra euki bi da gero gixonak a eitteko!"* ☐ *Pendixe? Pendixe jeusi biarrin daun geusa bateri, edoser geusari, pendixe.* ☐ *Dios, pendesa dok a!* ☐ *Arraskutzue be bai. E pendes baten be "Ño. leku arraskutzun jun dok a!". Arraskutzue da pendiente baten nos jeusiko juti les. Da "An egon dan arruskue!".* **3.** Pesado, -a, agobiante, fastidioso, -a.

**penitentzidxe.** (PENITENTZIA) Penitencia. ☐ *Manga da garixumin sartuerie, manga ori. Kuaresma, kuaresman sartzen da, miercoles de Cuaresma, garixumin sartu. Da manga da, mangak esan gure deu jataldidxe eittie. Garixuman ba penitentzidxe esta? Gero, da mangak axe esan gure dau, jataldidxe, manga.*

**penpanue, panpanue.** Brote, pimpollo en los árboles. ☐ *Beste arbola pe, gaste dausenin,*



adarretan da danin ba urpiñe, onako ser bat, da ari panpanue. || Orrek daroye panpanue! || Ño, orrek bota dxok panpanue! || Penpanue da, arboliri-edo urtete tzo pepitik edo olan. Penpanue esate dxako areri. || Arboliek igul emote ittus adarrak albora-ta, gora be bai te, da ba indar eundidxe badeko: "Orrek panpanu onak dekos!" edo "Panpanu eskasak dekos!" Panpanue axi esate tzeu, arboliri urtete tzen adarrari. || Landarik, soloko landari pe panpanu emoten deu; da mendiku pe ba olanik an orridxe urte bi tzonin, a puntie panpanu da

**pentekostie.** (PENTEKOSTE) ☐ **pasko pentekostie.** Pascua de Pentecostés.

**pentzamentu,** **pentzamentue.** (PENTSAMENTU, pentsamendu-bat.) **1.** Pensamiento, reflexión. Ik. gomutie. || Ori pentzamentue alperriku dok. || Oso-osuen ein dxok, olako pentzamentu txarrik. || Burun dabil pentzamentue. **2.** Sueño (buen sueño o pesadilla). || Pentzamentu txarra euki dxok. || Pentzamentu ona euki dxok. **3.** Intención, propósito. || "Neugandu dxuatek": iguel terrenu bat be, estau osue, seuk artzeko ori dabixue alegiñe, ero pentzamentue, da esin dosu ein, de gero igul ba eittosu te, ba "Neugandu dxuat!". || "Inpentzan atrapeten" esaten bosu da... Inpentzan, esan gu deu pentzamentun barik atrapau dosule, sorpresan ein dosule atrapau.

**pentzau,** **pentzeu,** **pentzaten,** **pentzetan,** **pentzetan.** (PENTSAU, pentsatu-bat.) Pensar. Uste dot baino gehiago Pentzeto pa esaten da. || Pentzau te ein. || Seoser eittie pentzate deko. || Pentzaten egon nas. || Neure artien pentzau dot. || Neuk olan pentzau dot. || Egon gara pentzetan etorriko sarela. || Estabe pentzau olakue, txarrik dekonik. || Neuk pentzaten dodanes, ak es eban etorri bier. || Ori pentzetos? || Esbaidxen dxabik, pentzetan se ein. || San jun idie txikitxuau da. Es pentzau asko egongo danik amen erri onetan. || Osasun bedarrak useiñ itzela botaten deu. Lori esta. Bronku da. Arek estot pentzan lorarik ataten dabenik. Baya usein bet! Usein bet atate dxok! Da osasun bedarra esate tzeu. ☐ Gauza haundi bat esaten denean, honela esaten da sarri: Pentzau! || Persona baltzik sekule ikusi barik. Pentzeu be! Da oiñ e Gerniken berton edosenbat ikusten dire.

☐ **pentzau esiñe.** Impensable. Gauza harrigarri bati buruz honela esaten da: || Ori da pentzau esiñe! ☐ **pentzau bes.** Ni pensar, ni imaginar. ||

Lastasaue: a asaue lotute, garidxe ebeitte. Len alakoxik einde argi eitte san. Es san egoten besterik eta; farola edo axe linternie, pentzau bes!, ikusi bes linternarik!

**pentziño, pentziñoie.** (PENTSINO, pentsio-bat.) Pensión, retribución. || Pentziño txikidxe deko.

**1 pentzu.** (PENTZU, pentzudan-bat.) ☐ **-en pentzuran.** A cargo de, bajo la responsabilidad de. || Mayordomu da agintzen dabena, ordesko ipintte dekona. Nik, esate baterako, sure pentzuran... 'Pentzuran' be esate tzeu guk. Estakit aittuten bosu 'pentzuran'. Ba sure pentzuran dau ori geusie. Suk agintzосу se ein bi dan suk agindu kridxaduri edo biargiñeri. Mayordomue. ☐ **-en pentzure.** A cargo de, bajo la responsabilidad de. || Iñon pentzure bixi da. || Sure pentzure gaus. || Dirudune ixen eskero: "Dirun pentzure gaus".

**2 pentzu, pentzue.** (PENTSU) Pienso, forraje (comida del ganado). || Oiñ osalie, ba, esta usetan, gitxi. Oiñ ostantzien emote tze ba pentzue. || Ganbelie ixeten da egurreko askatxue, pentzu emote dxakona ganaduri. || Saldidxe euki gendun, len astu euki gendun, asturi be bai, te olan pentzu les emote gentzon garagarra. || Birriñe urun ligorra da. Pentzureko.

**peotza, peotzie.** (PEONTZA) Oficio de peón. || Peotzan asi san bierrien.

**peoi, pioi, peoye.** (PEOI) Peón. || Pioi modun biar eitten deu.

**pepelue.** (PEPELO). Tonto. || Pepelu esate dxako, ba esan gure deu pepeluek tontu dala. Inoranti dala esan gure deu pepeluek. || Pepelue? Ba iñonik entzuten estabena. || Bai, pepelue, bestin serik e konprenditen estabena-ta, pepelue.

**pepelontzue.** (PEPELONTZO) Pelma.

**perejil, perejille.** (PERREXIL) Perejil (Petroselinum hortense). || Perejil adar bat. || Ekarrixue perejille, patatak saltza berdiñ ipintteko. ☐ Hurrengo adibidean aipatzen den bezala, beheragoko herri batzuetan perretxille esaten da. || Guk perejille esatou, da or e betik perretxille esaten deu.

**perille, perillie.** Perilla. || Perillie itxi deu.

**perkal, perkala.** (PERKAL) Percal (tela de algodón). || Onakoxe tela bat ta perkala.

**perlesidxe.** (PERLESIA) Perlesía, debilidad muscular producida por la mucha edad o por otras causas, y acompañada de temblor. || Perlesidxegas dabil. || Perlesidxe deko.

**permixu, permixue.** (PERMISO, baimen) Permiso. || *Permixue eskatu.* || *Permixurik badauket Gernikera juteko.* || *Amak emon deutzo permixue alabieri Gernikera juteko.* || *Tabaku eraitteko permixue eskatu biar ixate san.* || *Len gidxie bier ixate san, oin be biar ixaten da batzutan, esate baterako, seoser permixu eskatzeko, edo ayuntamenture jun, de eskatu biar ixate san-edo, da ba antxe emote daben papela ixate san gidxie.*

**pernil, pernille.** (PERNIL, urdaiazpikoa) Jamón. || *Pernille? Edoseñas eitten da, norberak gure dabenas. Beres atzekuas eitten da. Mamin geidxau eukitten deu de atzekuas eitten da.*

**peros, perosa.** (PEROZ) Enardecido, -a, exaltado, -a.

**perostu.** (PEROZTU) Enardecerse, exaltarse, acalorarse, enfervorizarse. || *Perostute dau.* || *Perostute: beren lekutik urtenda, arrotute.*

**perra, perrie.** (PERRA, ferra-bat.) Herradura. *Erradurie* ere esaten da. || *Saldi perrie.* || *Perrie ipiñi bi dxako.* || *Perri esate dxako..., jun dan aspaldidxon estous geuk beidxek perrau, estous busterridxen ibiltten-da baya, perri da geusa bat dana burdiñeskue, ta beidxeri anka aspidxen ipintte dxake, da eukitten deu olanik, e miñe olanik eukitten deu, da unzekin josten dxako.* || *Perrie beidxeri ipintten dxakena da apatxetan.* || *Erreduri da beidxen apatxen ipintte dxakona.* *Perrie batzuk esate tze, bestik e areri be erreduri esate tze. Saldidxenari be perrie nai erredurie.* □ *Intxaurraga baserrian, berriz, azaldu zidaten perrie eta erredurie ez zirela bat. Perrie ganaduari ezartzen zaio eta belarritxo bat edukitzen du apatxari lotzeko. Erredurie zaldi aziendari ezartzen zaio eta ez du belarririk izaten.* || *Erreduri saldidxena da. Perrie ganaduna. Perri da belarritxuas, belarritxu gora dekona, olan sartu te a belarritxue apatxiñ inketaku ixete san.*

**perradore, perradorie.** Herrador. *Erradorie* ere esaten da. || *Apatxetaku bai, apatx bittarteku te esateu, bittarteku esate tzeu guk. Olan igul ganadu len egote sin, bittarteku, eitte dxakon olako bitterti solittu, da bittarteku deko ta kurau eitte san, erun perratokire ta. Perradori esan, guk perradori esate tzeu, erradori beste batzuk.*

**perratoki, perratokidxe.** (PERRATOKI, ferratoki-bat.) Herradero, lugar para herrar. Ik. *eunteidxe.*

**perrau, perreten, perretan.** (PERRATU, ferratu-bat.) Herrar, poner herraduras. || *Len ganaduek perreten sirien, ganaduek eta manduek eta astuek eta.* || *Bei perreteko erradurak domiñetako, malluke bi euki gendusen.* || *Miñ eukiko deu onakoxe lekuen da au liñau beidxek e perretan diriñien okertu eitte dxako, emen e buelta gustidxen untzak joste dxakos beidxeri, da perrie olantxik e, e an goidxen eukitten daben gantxue okertute ipintte dxako.* || *Eunteidxe? Ori selaku ixete dan esango tzut. Ori Nabarrixen egon san ba. Oiñ estau baya beidxe, perretako beidxe sartze san atzeko partetik. Gero lotu eitte san. Anakak altzeta dxakosan da perrau eitte san, perrakin.*

**perreteridxe.** Ferrería.

**perretxiko, perretxikue.** (PERRETXIKO) Seta. Honako hauek dira perretxikorik ezagunenak: *urdiñe, ongo perretxikue, urritxa, arrautze perretxikue, rubilloye, mikalue, setoridxe.* || *Perretxikotan ibilli.* || *A da ba perretxikotan balientie, arek jakingo deu.* || *Perretxikuten jun de erlojue topa naben nik mendidxen.* || *Perretxiko asko batu naben nik, asko!* || *Ramon, perretxikue sein da jateko modukue?* || *Oin perretxikuk galdu ein dire. Oiñ e basutan sikin dau les, da estaules e ori, pagorik-eta, atxa ta len bayo gitxiau. Piñun estados.* □ *Nabarnizen perretxikue nahiz setie esaten da, baina ez dira bat, izan ere, perretxikue setie baino handiagoa izaten da, ondorengo adibideetan azaltzen den bezala:* || *Seti da txikidxe. Onek e marti setie areri be perretxiku esate tze, baya guk estetzeu esaten orreri perretxiku. Setie.* || *Perretxikue: urdin perretxikue, urritxa perretxiku, da robilloi be perretxiku da orreri perretxiku aundidxauri esate tzeu perretxiku. Onguri be 'seti' estetzeu esaten. Perretxiku. Onguri be esan eitte dxako perretxikuten. Beste batzuk esaten dabe igul "Ongotan noidxek". Da beste batzuk "Gu perretxikuten goidxek". Baya perretxiku ya dana jote ittu, dana, jenerala jote ittu perretxikuk. Baya seti da marti setie da onek txikidxek.* □

**perretxikuten.** Buscando setas. Aurreko puntuan aipatutakoaren ildotik, *perretxikuten* eta *setatan* bereizten dira. Hala ere, askotan *perretxikuten* esaten inolako bereizketarik egin barik. || *"Mendire perretxikuten dxoik". "Setatan dxoik" be bai esaten dabe, baya 'perretxikuten' da dana jenerala. Da ori besti da setie: marti setie. Au robilloye be perretxiku esate dxako, baya*

*txanpiñoiri seti esate tzeu. Or daus klasik.* □  
**perretxiko abidxie.** Setal.

**persona, personie.** (PERTSONA) Persona.

**pertxa, pertxie.** (PERTXA) **1.** Percha. **2.** Percha o barra sobre la que duermen las gallinas. || *Olluek-eta lo eitteko lekue da pertxie.* || *Pertxan daus olluk.* || *Pertxara jun dire olluk.*

**pertxeta, pertxetie.** (PERTXETA, pertxeta-bat.) Mujer muy elegante. || *Ori da pertxetie!* || *Pertxetie: olan dotore salie danari, umiri esate dxake: "Pertxetie alakue!"*

**persekusiñoie.** (PERTSEKUZINO, pertsekuzio-bat.) Persecusión.

**peseta, pesetie.** (PEZETA) Peseta (unidad monetaria). || *Orrek Ayuntamentuk pagau eitte basen. Albixarreidxe lau peseta sala pentzot, kuna bi peseta, peseta, bai.* || *Mille peseta ordun diru eundidxe san.*

**peska, peskie.** Pesca. □ **peskan.** Pescando. || *Jose peskan ibil dok.* || *Peskan jun nas.* || *Peskan gabis.* || *Ni neu sekule enas dedikau peskan.* □ **peskan ein.** Pescar.

**peskadore, peskadorie.** Pescador. || *Peskadori da arrantzun dabillena. Bueno, saltzen dabenari be peskadori esate dxake, ta arrain saltzailli be bai. Arrain saltzailli geidxau, "Arraindune dator"-edo.* || *Peskan afesiñoi kasan lantxik egoten da. Nik ikustotas an Bittoridxara bidiñ a subidxen. An egoten da! Peskadore danak... Gu Bittoridxara bastante sarri juten gara ba. Alabi te dause les an e, ara. An peska sasoin libre dauniñ e are danak beti egoten dire egalak euren kañoberakin.*

**peskante, peskantie.** Pescante para levantar la piedra de arriba del molino. || *Peskantie? Onek arridxe altzetakue.*

**peste, pestie.** (PESTE) Peste, mal olor. || *Usein pestie.* || *Selako pesti dau emen!*

**petaka, petakie.** **1.** Petaca, estuche de cuero para guardar el tabaco. || *Petakie narruskue ixete san.* || *Petakie tabakue gordeteko kaja bat ixeten da.* **2.** Vulva de la perra. || *Petakie beru dxak orrek gero!* || *Igul esate tze "Petakie beru dxabik".*

**petral, petrala.** (PETRAL) Sinvergüenza, insolente, ceporro, -a. Ik. *eskasa.* || *Ori da petrala!* || *Petral utze da.* || *"Petrala dok!" Ori da ba seinde..., formal-ero estabillena.*

**petrolio, petroliue.** (PETROLIO) Petróleo. || *Petroliuas usau gendun korrinti ipiñi orduko.* || *Saiñe ekarri eitte san, seinde petroliu lantxik.* □

**petrolio argidxe.** Luz de petróleo. || *Oin baserridxe ixen arren, nik estot entzun petrolio argidxe iñok eukiko dabenik. Ostantziñ ondo be esaututen dot nik petroliu.* □ **petrolio ontzidxe.**

Lámpara de petróleo. || *Petrolio ontzidxe sertxu bat ixate san, kajatxu bat, da sera eukitte ban, da bota axe petroliue, metxi ipiñi, da metxias eitte ban argidxe. Ya eskeitte ipiñitta ixate san argidxe, nire txiki denporan.* || *Petrolio ontzidxe ekarrik, a illun dxak eta.* || *Petroliuas ego nitzen gasolinie ataraten. Txipristiñie ei ban, artu deu sue, buuuu! danari artun sue, neu be praketatik dana sue.* || *Karburun ontzidxe asko be eundidxau da. Da petrolio ontzidxe ba txikitxu, ondiño guriñ eongo da, txikitxu ixeten da, petrolio ontzidxe biribilskue, petroliu be ekarri tte botate dxakon, da ba metxi be bai, da bistu te karburu payo argi txikidxau eitten deu baya ba.*

**petxu, petxue.** (PETXU, petxa-bat.) Pecha, impuesto, tributo. || *Oiñ inpuestuk-eta esate dxake, baya ba petxue oindiño esaten da.* || *Usie ixete san erridxena. Jauberi baku laku ixete san. Baya are pe etziren eoten..., are pe edo ango etzeku espada, beste etzekue edo bestekue, are pe ebei eitte sittuen. Ebate sittunak erridxe ipiñiñeko petxu pagau bi xan.*

**piesa, piesie.** (PIEZA) Pieza, tronco. || *Guk e trongue, piesie. Or e lusiri, materidxalekuri piesi esate dxako.* || *A piesik galtzeru dxekok.*

**pikardidxe.** (PIKARDIA) Picardía. || *Orrek deko pikardidxe!*

**pike, pikie.** (PIKA, piko-bat.) Cuesta muy pendiente. || *Aldatz pikie.*

**pike, pikie.** (PIKA) **1.** Yunque sobre el que se golpea el filo de la guadaña u hoz con el martillo. Ik. *pikemallue.* || *Da kodañe piketako bakixu, aspiko kodie da... Bai, ari a kodañe piketen dana bakixu selan dan. A da piki. Da besti da mallue. Pike-mallue. Aspiku, pikie, da a goikue, mallue. Mallu edo malluki-edo.* || *Pikie: kodaiñe, nai serri, nai piketako a, tauke-tauke-tauke eitten dana.* **2.** Piqueta, martillo de punta aguzada para picar la piedra del molino. || *Artaberdik oratu eitte ban arridxe. Bai, ori eitte ban. Gero ein bixate san arridxe altzau, pikias a ori kendu, da atzera barridxe be ipiñi.*

**pike, pikie.** (PIKA) □ **pike ein.** Picar. Ik. *ainke ein.* || *Moskittue da eltxu diferente die. Eltxu da... esteu pikerik eitten. Da moskittuk sastasu itzelak eitte ittu. Bi die orrek.* || *Eltxu dana igul ibiltten da, ainbeste eltxu, begidxetara eta dana, baya*

orrek pikerik estabe eitten. Da moskittu pai. Sastasu eitten dabe. || Moskittuk pike eiste. || Olluk pike eitten deu.

**pikeka, pikuka.** (PIKOKA, mokoka) A picotazos, picoteando. *Pikeka* gehiago esaten da *pikuka* baino. || *Olluk pikeka dabix.* || *Bata bestiri pikeka dabis.*

**pikemallu, pikemallue, pikamallue, pikumallue.** (PIKA-MAILU, sega-mailu) Conjunto de yunque y martillo, usado para afilar la guadaña. *Pikamallue* nahiz *pikamallukie* esaten da. Ik. *pikie.* || *Emen pikamallu esate tzeu baya esate dxako —oin serrari pe esta ibiltten da— serrak piketa sirin mallukie, da arixeri esate dxakon.* || *Kontixu bat tire, pikamallukak eta pikamallue.* Da kodañe be ba, oin be kodañe arexas, *pikamalluas* *piketari* dire ta. || *Pikemallue kodañe piketako nai serri piketako ixeten da.* || *Guk esate tzeu , kodañe piketakue, pikumallue. Pikumallue.* Da *areri bestiti, onek alanbrik arregletekuri-tte, mallukie.*

**pikemalluke, pikemallukie.** (PIKA-MAILUKA, sega-mailuka) Martillo de segador (para afinar guadañas)

**pikau, piketan, piketan.** (PIKAU, pikatu-bat.) 1. Picar. || *Prailleulidzek geidxau piketan dau.* || *Agiñe pikete tzo artaberdik, asko emon eskero.* 2. Deshacer eñ tepe o tormo. || *Guk atxurkulie esate tzeu, ortz bikue. Urkulie da les, olan biribille, ortz bias. Ori be len onek soluk-eta goldatu-te eitte sirin, da areas pikeu eitte san. Egaliñ atxurren be aretxas.* || *Pikau? Satittu a soidxe. Goldiek soi osue ataten deu, da gero garidxe ereitteko, a pikeu eitte san, satittu, pikeu atxurkulias. Ortiz bikue esate tze batzuk areri be, guk guk e beti atxurkulie.* 3. Afilar la guadaña o la hoz. || *Pikamallue kodañi piketako usetan da.* || *Pikau ein bi da, motzittute dau.* || *Atxurkulie esta piketan.* 4. Picar (la pared). || *Ormie morteruas eitten da sarpiau. Apur bet pikeu, garbittu, te gero sarpieu.* || *Albiñelak useten dabena, ladrillue sertzeko-ta, areri piketie esate tzau.* || *Albañelak-eta, olanik e surittu-edo ein gure dabe, txa-txa-txa-txa, piketen badabe ormie.* 5. Enojar(se). || *Kakapirridxe da estue, edosegas piketen dana.* 6. Picar, pinchar, agujerear. || *Len mutikutan, oiñ esta ainbeste usetan, baya len karnaseruri esaten: "Es pikau gero pusikie!". Atara, da pustu eitten da.* 7. Hacer cortes en la corteza del árbol para que éste tome mayor anchura. || *'Pikeu' da pika-pika, jo ta jo ta*

*markak ein. Dana pikaute itxi. Ariñ asteko, intxaurreri ein bi ixate dxako ori. Intxaur landarie ebei tte lodittu ariñau eitten da, pikeute ipintte. Asala, olan satidxe kendu. Asi, lodittu eitten da. Ori estakigu e! Ba ori baten bayo sarridxau entzu ein dot nik ori, intxaurreri ein bi ixete dxakola, asala ebeidxe ein, da asala ebeitte nasaittu deidxela. Batzuk eitten dabe ori oin be. Oiñ onek beste arbolak es. Piñuk eta sagarrak eta orrek es. || Arbolie askorias jota pikau, te ba bota. || Askorias joten bada ba, pikau eitten da.*

**pikitxoi, pikitxoye.** (PIKATXOI) Pico. || *Pikitxoi da au, a troska baltza atarateku ta. A sulotzekue, arridxe sulotzekue. Onek sulotu, ta gero onas atara.* || *Pikitxoi da, kamiñu-de eitten jute giñenien, arridxe jote gendunien...*

**pikoka.** (PIKOKA, mokoka). A picotazos, picoteando. || *Pikoka dabil.*

**pikor, pikorra.** 1. Grano de la piel. || *Gero olaku isten dau naparridzek ostie, edo lepie edo soser, jeneralien. Gure amak euki ban pasaute ori naparridxe ta matrallak danak pikorrek, denpora gustiko.* 2. Picor. || *Pikorra? Pikorra au emen granotxu batzuk emoten dabena-edo. Ba esteko ainbeste ser e..., ainbeste inportantzidxe.* || *Bai, gorrittu eitten da, pikorra be emoten deu.* || *Pikorra deket.*

**piku, pikue.** (PIKO, moko) 1. Pico de las aves. || *Piku lusie.* || *Marti sosuk piku oridxe eukitten deu.* 2. || *Buruko sapidxe eitten daniñ emen esta usau... Pañelo bat esangot, pañelo aundi bat ixeten dala, da ipintten da iru pikure.*

**pikukada, pikukadie.** (PIKOKADA). Picotazo. || *Pikokadie emon.*

**pila, pilie.** Fila. □ **pilan.** En fila.

**pillau, pilleu, pilletan.** (PILAU, pilatu-bat.) Amontonar, reunir. Ik. *metatu.* || *Bedar pillue, olanik euridxe-ta datorrenien, pillau apur bet eitten dire ta pillue eitten da, bedar pillotxue.* || *Iketza eitteko, olan, leuniñ ipintten dabe, da egurrek pillau-pillau eitte ittues.* || *Bedarra ebai eitten daniñ, pillau eitten da bedarra, orreri deittuten dxako asmela. Gure gastetan munteye, gastaña munteye eitte san orrekin. Pilleu, lakatzak, batun, jo ta bota kakuas bera, da batun, de pilleute ipiñi.* || *Oiñ esta eitten satz seri paya makiña bat aspiarri basutatik ekarritte, satza, beidxe aspidxen dekena batu de pillau eitte san. Pillau, ba ein deidxela, erre, satza erre.* || *Batzuk satza esate tze, bestik simeurre. Asitzeko geidxau.*

*Se len asko biste san. Da eitte be alan, da gero pillau. Urtin baten kendu, te atza bota otie ta aspiarri satarra-ta botate besan, an ein deidxen ori. || Arrastilli? Kari atateko guk au usete gendun. A olan txapa sabaltxue die, sei ortz eukitte ittu, da aren bittarti en arridxe, kanterako arridxe be joten diñin pilletako-ta arrastilli.*

**pillo, pillue.** (PILO) Montón, cúmulo; haz; cantidad grande. || *Jente pillue. || Orrek diru pillue deko. || Ume pillu dau. || Orrek (sagar) ustel asidxok kendu pillotik! || Saskarie? Bai, saskarie, bedar e ondakiñek solun e, solu garbitzeko batzen diriñak eskobarias, batzen diriñak; arixerri esate dxake. Da pillotxuk ein, de su emon erre deixen. || Ota pillotzue dau or. || Satorrak joten deu da lur pilluk atarate ittu. || Sator sulu bai, bakit ser dan! Bai, kalte eitten deu, se asko egon es arren, ba ataraten daben lurre... moltzuek, emen pillu bat, an pillu bat or pillu bat eta arek e kalte eitten deu, arek e bedarra ixeteko, nai edosetan eitten deu kalte. || Urte pillotxu. Ori ixen sala ixengo dire berrogetamar urte bai. || Ori itxi bena urte pillu da. || Eulitzue? Eskatzari esate baterako, eskatziñ euli pillue ta igul a..., eulitzu: "Eulitzu dau eskatza". || Emen artze siriñ arto pilluk, kamaran kabidu esiñik ibiltte gendusen, da oiñ apurtxut, asitterako. || Pillu ein, de pillun eukitte san batute, da ba gero solora botate san. □ Hala esaten zaie euria hasten duenean egiten diren belar piloei. Ik. pillau.*

**pil-pil.** (PIL-PIL) Onomatopeya de la ebullición. || *Pil-pillin makillaue ipiñi. □ pil-pillin.* Al pil-pil. || *Makallu pil-pilliñ ipiñi deu.*

**pingo, pingue.** (PINGO) Algo pequeño. || *Ume pingue esate dxake umiri: "Ume pingue, gusurre esauste ba!". || Pingue: esate baterako, txikidxeri be esate dxako, baya umiri, txikidxe danari be esate dxako pingue, eskasa danari-edo, baya pingue esate dxako, ba esate baterako, ondakiñeri, edo olanik, "Pingo bat gelditu da", "Pingo bat deket".*

**pinporta, pinportie.** (PINPORTA, pikor) Grano; grumo. || *Naburi urtete tze olanik pinportatxu batzuk, sanbrotxu batzuk urtete tze, da arek sanbruek eukitten dabe artxu suri bat barruen, koko suritxu bat, da nabun sanbruek esate dxake. || Asten da aundidxe, taketa les asten da, da urtete tze olako..., ser esangot neuk?, olako pinporta les-edo urtete tze beti gora, da arixerri urtete tzen lorak, asto larrosi esate tzeu. || Umik olgeta*

*gendun geuk marigorri atrapaute kokotxu bat ixeten da marigorri, gorri..., gane gorritxuas, da sertxuk eukitte ittu, olako pinportatxu batzuk eukitte ittu baltzak, da gorridxe ixeten da ta egan ibiltten da. || Sanbrotxuk ixeten dire pinportak. Guk arixerri esate tzege, sanbrotxu txiki batzukin. || Sanbrotxuk arpidxen nai gorputzin. Gorputziñ urteten dabe orrek pinportak. Da ori esate dxakon ba..., seri esangot?... Pinportak geusa gitxidxe-edo, txikidxe ixeten dire, olan sanbrotxu txikidxe. || Granue eitten da asi, da eundidxe eitten da, bonie. Da pinportie es, pinporti da geusa txikidxe. || Bonak ixeten dire..., bonari eitte dxake..., asten dire pinporta payo aunditxuauek da puntan eitte dxake materitxu.*

**pintta, pinttie.** 1. Pinta, mota. || *Gero andraiñ okana be badau, garratz-garratza da berau. Berdeska pintta gorritxukin. || Suri pinttatxuk eukitte ittu orrek tolosanik. 2. Que tiene pintas o motas. || Bei nabarra da suri-baltza, pinttie. || Pinttie esate tzege gorri-suridxeri be. □ indar pinttie.* Variedad de alubia moteada. Ik. pinttanue. || *Ori ixeten da gorridxe, baya olako tantatxu lakuk eukitte ittu, suridxe. Da esate tzeu tolosanie, da indar pintti be bai, bardiñ esan leidxo, baya jeneral guk tolosani esate tzeu.*

**pinttanue.** Variedad de alubia, también conocida como tolosana. Ik. tolosanie. || *Pinttanue, da erreñona bat dire. Tolosanie be orixe da. || Indar pinttanue esate tzeu olan es gorridxe, ta es suridxe estanari, da baya orreri indarriori esate dxako, emen jeneral ba pinttanue esate dxako, baya esate dxako tolosanie, jeneral.*

**pinttau, pinttetan.** (PINTAU, pintatu-bat., margotu) Pintar. || *Goidxe pinttau bi da. || Kara ille san. A kara bixidxe es eban balidxo pinttetako. Aintxiñe eskatzak-eta be karias eitte suasen.*

**pintture, pintturie.** (PINTURA) Pintura. || *Galarrai mendidxe da. A erres dau, a garbi dau ganera juteko. An fletxak, eta orrek badaus pintturias einde, topetako bera.*

**pintxe, pintxie.** Pinche. || *Pintxie esan leidxe mutil koskor bat-edo, dana seoser ikesten dabillena, edo pintxe modun dabillena-edo.*

**pintxo, pintxue.** Pincho. || *Inpernuko katue? Arek e langostatxuk e. Batzuk aundidxauk tire, beste batzuk txikidxauek. Lurriñ oten dire, danak e... ser esangot neuk?, dekesenak euren e..., pintxotxuk-pintxotxuk lepun de gorputz gustidxen dekesenak.*

**piñadi, piñadidxe.** (PINADI, pinudi-bat.) Pinar. *Piñudidxe gutxiago erabiltzen da. || Dendariñeko piñadidxe. || Piñadidxe garbitu. || Aren solo barridxen dao piñadi ederra!*

**piñu, piñue.** (PINU) Pino. *Piñue ez da arbolie. Arbolak paguek, atxak eta horiek dira. || Piñu egurre. || Piñu txerpidxe. || Piñue atara. || Ni jaidxo nitzen bueltan, Nabarrixen piñurik ondiño egon bes. || Len dana pagadidxe egon san, ta piñurik es san egon. || Ereñoko mendidxen daus piñu sarrak, aundidxek, altuek. || Arek piñuk ogei urte dekos. || Ori beti entzu ot, es isteko urkuladun piñurik, al bada beintzet kendu, naitte lodidxe da ederra egon, a urkuli boko, andik eitten da apurtu... Jeneralien e! Batzuk es, baya eunetatik larogetamar apurtzeko. □ piñu adarra.* Rama del pino. □ **piñu asidxe.** Piñón (semilla del pino). □ **piñu bolie.** Piña. Ik. *piñuburue.* □ **piñu-botatzailak.** Derribador de pinos. □ **piñu kokue.** Procesionaria, orugas de distintas especies de lepidópteros que causan estragos en los pinos, encinas y otros árboles, que caminan enlazadas una tras otra, formando filas de gran longitud. || *Piñu kokuk, gero, jeusittakun, kordan juten dire beyen. || Orrek piñu kokuk, bai! Jolin, orrek egoten dire..., oiñ es ainbeste, oin botikie botaten dabe. Len pitan, da alkarren jote juten dire orrek illadan. Ba moltzun egoten dire danak, olantxik. Da beye jote danin, dana sabalduten di, da gero illadatan juten dire. || Piñu kokuek geittu sak eurtan be. Siketie eitten badeu, negu ona eitten badeu, geitxen dire orrek asko. □ piñu kokun moltzue.* Nido de la procesionaria. □ **piñu landarie.** Esqueje de pino. || *Txerpidxe esate dxako piñu landariri, eitten danari ba. Txerpidxe, ereittosu asidxe, da areri txerpidxe esate dxako, etzerako piñu landari ekarten danari, txerpidxe. Len emen e a Julianek askotan eitte ban txerpidxe. Piñu landari etziñ artze ban arek. || Da txerpidxe esate dxako piñu landarie ereitten dana be txerpidxe. □ piñu orridxe.* Hoja del pino. □ **piñu librau.** Limpiar de maleza y ramas una parcela de arbolado. || *Piñu libreti da, piñu sasidxas edo sikiñe badau, ba arek andik kentzie. Da beste batzuk arrama esate tze. Guk adarra esate tzeu orreri be. Beti guk adarra. Da askok arrama esate tze. Arrama garbittu te piñu librau. Da lagun txikitxue sasidxas-da igull oten da, ta a garbittu bi da*

*urten deidxen ondo. || Piñu libreten ongo san. □*

**piñu sartu.** Plantar pinos. || *Len asko san emen, atxa asko san emen baya danak iketzen siren, pasa dan denporan danak iketzen siren da gero piñue sartu. || Bastar atxurre da au, sendu da au. Au da basun e... Solun-de barik e, basorakue, piñu sartzekue, bide barridxek eitteko, da dana iguel. ||*

*Piñu sartu ben danin. □ piñu sartzie.* Planta de pinos. || *Piñu sartzi be eitte san. Ordun erridxek piñuk onek, oin botaten detzanak, erriku di orrek.*

**piñuarte, piñuartie.** Pinar. Ik. *piñadidxe.* Multzo zentzua hartzen du -arte atzizkia erantsita. Ik. *arriartie, bedarrartie, sasiartie. || Bertatik aurrera segidu bixu, etze sarra topeko su antxe, mendidxen kontra, piñuarte baten.*

**piñuburu, piñuburue.** (PINUBURU, pinaburubat.) Piña. Ik. *piñu bolie.*

**pipe, pipie.** (PIPA) Pipa (de fumar). || *Pipie ixotu. || Oiñ esta ikusten pipie fumetan gixonik, baya lenguok, sarrak pipan fumeu eitte benak, fumadoriek, pipan fumetan dabenak.*

**piper, piperra.** (PIPER) Pimiento. || *Piper landarie. || Piper saille. || Ortun, porruk eta piperrak. □ piper bedarra.* Cierta tipo de hierba que nace junto al excremento del ganado. || *Ori piper bedarra esate dxako onek e... Ganadun pekotzin dator ori. An dekeu guk satza, da a satza botaten bosu solora, gero ure atrapau-edo, euridxe-edo eitten daunien agertuten da a bedarra. || Ori piper bedarra da altu-altutxue ta batzuk klase bat e deko, sustreidxe gorri-gorridxe. Da besti deko suridxe. Da a baten ataten bosu, estator barridxen. Baya a bestie ataten bosu edo apurtu-edo eitten bosu, atzera barridxen dator. □ piper berdie.* Pimiento verde. || *Berderi pe jaten dire (piperrak), erreta. Imiñi ganeko asala kendute, da satidxek, satidxek ebrak ein, da kastetan dire emen be. □ piper gorridxe.* Pimiento rojo. □ **piper kordie.** Ristra de pimientos. □ **piper lodidxe.** Pimiento grande. Sin. *piper neusidxe. □ piper neusidxe.* Pimiento grande. Sin. *piper lodidxe. □ piper potie.* Lata de pimientos. Sin. *piper latie. □ piper txorixerue.* Pimiento choricero.

**pipermin, pipermiñe.** (PIPERMIN) Guindilla (pimiento pequeño y picante). || *Pipermiñe miñe dekonari, erreten dabenari esate dxako. || Pipermiñe txikidxaue da, da beste piperra aundidxaue da, da jeneral min gitxiau eukitten*

*deu piper nausidxek. Da pipermiñe txikitxu ixeten da ta a ortun daula dakigu selaku dan. || Pipermiñe: miñe dekonari, erreten badeu. Berdiri be bai, piketan badeu.*

**pipesale, pipesalie.** (PIPERZALE) Aficionado, -a al pimiento.

**pipitta, pipittie, pepittie.** (PIPITA) Pepita que se forma antes de dar la flor o el fruto. || *Ondiño loratu estok ein, baye pipittan dxak, laster loratuko dok. || Lorie ein barik deuna, pipittan esaten dogu: "Pipittan dau larrosie". || Pipittan dau sagarra. || Pipittie da lelengotan lorie sabaldu orduko dekona. Lelengotan urtete tzo olako biribil-biribiltzuk, pipittik, eta gero a sabalduten lora. || Pipittie: nai iderra, nai babil-edo, ya loran badau, loratu bayo ariñau pipitti eukitten deu, da ya "Pipittan dau". || Lori emoteko dauna, lelengo pipittan plantetan da, da gero ba sabaldu eitten da, da lorie. || Begidxe ba eukitten dau an... Or ataraten dau bera babie. Da pepittie ba, pepittie ixeten da loran daunien. Lorie bestie.*

□ **pipittera.** Manera de injertar en la que se hace un pequeño corte en la corteza y se introduce el injerto. Sin. *asalera.* Ik. *astillarra.* || *Pipittera da asaletik eitten dana. Da besti sartu bi da barrure, astillara. || Pipitti ta gusti ipintte su a bestie, eitteko gora. Da ori bestiori es, astillara eitten dana, ganiñ ebeitte, da de barrure sartzen dana ebeitte. Da ori su diñosuna pipittie, pipittin puntan euki bi deu orrek, artzeko. Ori olan asalera esate tze emen pipittera. || Pipittera edo asalera mendau. || Pipittera estitti da asalera.*

□ **babin pipittie.** Ojo de la haba. || *Pipittie: babik e garantzen daniñ e a ganetxun eukitten dabena, arixerri esate tzeu babin pipittie. || Da arek eukitten deu, babiek, atzien eukitten deu... A jateku ba kendu eitte dxako, a eukitten dabena baba garaunek. Ori da pipittie.*

**pirin-paran.** (PIRIN-PARAN, firin-faran-bat.) Ganduleando. || *Ori or dabil pirin-paran, ser eiñ estakidxela. || Pirin-paran dabil ori. || Pirin-paran: kantzaute, ibiltteko gogorik es, da olan dabillena.*

**pirri, pirridxe.** (PIRRI) Puntilloso, -a, cascarrabias. || *Selako pirridxe da ori!*

**pirri-parra.** (PIRRI-PARRA) **1.** En abundancia, abundantemente, copiosamente. Ik. *parra-parra.* || *Pirri-parra bota.* **2.** (Hablando) constantemente, con locuacidad. || *Barretzu da beti berbetan, da pirri-parra dabillena, barretzue.* **3.** Despacio, lentamente, arrastrando los pies (referido al andar).

Ik. *tirri-tarra.* □ **pirri tte parra.** Despacio, lentamente, arrastrando los pies (referido al andar). Ik. *tirri tte tarra.* || *Pirri-parra dabillena geldigeldi dabillena be bada ta. Bai, amen olan tirri tte tarra... Batzuk esaten dabe "Bai, ori pirri tte tarra badxabik". Beste batzuk esaten dabe "Tirri tte tarra dxabik". || Berbetan da pirri-parra: gusurre ta abarra.*

**pirriler, pirrilerie.** (PIRRILERA) Diarrea. Ik. *beraskue.* □ **pirrilerie euki.** Tener disentería. Ik. *beraskue euki, beraskuas ibili, pirripirridxe euki, siriñetan ibili, tripetatik egon. || Pirrilerie deko.*

**pirripirri, pirripirridxe.** (PIRRI-PIRRI) Diarrea. □ **pirripirridxe ibili.** Tener disentería. Ik. *beraskue euki, beraskuas ibili, pirrilerie euki, siriñetan ibili, tripetatik egon. || Igul e obrementu eitten sunin be, "Kaka siriñetan abil"-edo, bakixu. Edo "Pirripirridxe dekek"-edo. Bakixu pirripirridxe be igul, tripetatik sasenien, txorrun sasenien.*

**pirrist (da) parrast, pirri-parra.** Sin ton ni son. Gutxi esaten da, *ganora barik gehiago esaten da.* || *"Pirrist da parrast dabil": ba esate baterako, esni-edo jeusten bada, "Pirri-parra ibili osu, te jeurti dosu". Pirrist-parrast be bardin.*

**piskat.** (PIXKA BAT) Un poco. Inoiz entzun dut, baina *apur bet* esaten da normalean. Kanpoan ikasitakoa da. || *Piskat: bueno ori, amen piskat be esaten da, baya geidxau esaten da piskat bayo, 'apur bet', 'berdure apur bet', edo ba 'ogi apur bet', edo ba..., 'apur bet'. Normalin piskat esteu esaten. || Geuk esteu usetan olan piskat esatie. Bai, umik-eta, umik-eta esaten dabe, "Piskat payo estot gure". || Apari ariñe esaten da emen, berdure piskat ta beste arrain piskat edo olan.*

**pista, pistie.** (PISTA) Pista. || *Kamiñuek dire kotxiek-eta dabixenak, ostantzin, propidxue da lengo bidie. Onek bestiek esaten dxakue eskabadoriek-eta eindeku ori, ba pistak. || Oin pistie ein dabe lengo bidetik.*

**pista, pistie.** (PIZTA, makar) Legaña. || *Begidxen pistak eukitte ittu. || Pistas beterik egoten da. || Pistie sikiñe da.*

**pistatzu, pistatzue, pistotzue.** (PIZTATSU, makartsu) Legañoso, -a. Honela baino gehiago *pistojue* edo *pistojie* esaten da.

**pistidxe.** (PIZTIA) Alimaña venenosa. Ik. *pataridxe.* || *Pistidxe esate dxakona ba benenu dekon geusi da, benenu dekon pataridxe da.* □ Hona hemen *pataridxe* eta *pistidxe* berben arteko

desberdintasuna: || *Bueno, pistidxe esate dxako geusa benenosu danari edo benenu dekola pentzetan danari esate dxako pistidxe. Pataridxek e dana tire, txakurre pe bai, katu pe bai. Da beidxeri beidxek eta txalak esate dxake baya are pe pataridxe tire.* ☐ Beste berriemaile batek, berriz, desberdintasuna tamainak ematen zuela zioen: || *Pistidxe txikitxau dalako esango dxako iguel.*

**pistoja, pistojie.** Legañosa. Ik. *pistatzue.*

**pistojo, pistojue.** Legañoso. Ik. *pistatzue.*

**pistola, pistolie.** (PISTOLA) Pistola (barra de pan). Emiliano Arriagak *pistola* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: “Panecillo largo, angosto y mus tostado, casi *churrumiau*, que se emplea para hacer la sopa llamada de *pistola*”. || *Len pistolie egote san, sopie eitteko pistolie. Luse, da turrou edo gogortxue, bigune barik.* || *Pistolie? Ori be sopi eitteko, eguerdiko sopie.* ☐ **pistola sopie.** Sopa que se hace con el pan conocido como pistola. || *Pistola sopie? Sopie, nik estaitt oin pistolarik eitten badabe panaderuk. Len pistoli eitte ben sopi eitteko. Da oiñ estaitt eitten badabe baya ba axe da pistola sopie. Ogi gogortxu edo pistolie, bigune barik gogorrau ixeten da. Pistola sopie arixe esate dxako.*

**pittilin, pittiliñe.** (PITILIN) Pene. Hiztegi batzuetan haur hizkeratzat jotzen bada ere, nagusiekin ere erabiltzen da ondoren argitzen den legez. || *Bueno, nausidxeekin be, bai esaten da nausidxeekin be, da umiri geidxau esate dxake nausidxeri bayo.* Ik. *pittue.*

**pittin, pittiñe.** (PITIN) Pequeñín. ☐ Umeari esaten zaio txikitxua denean. || *Au pittiñau! || Au pittintxu da ta! || Pittintxu, geure pittintxu ori! || Pittiñori, geure pittiñori etorri seittes ona!* ☐ Katakumeari ere esaten zaio: *-Au pittintxu, etorri ona, pittintxu!* ☐ Gauza bat txikia edo polita denean ere esaten da: *Geuse pittiñe.*

**pittin-pittin.** (PITIN-PITIN) A menudo. Ik. *sarri.* || *Pittin-pittiñ etorten da seosen bille.* || *Bueno, "Pittin-pittiñ etorten da" bayo, "Noisnai etorten da" geidxau esaten da.*

**pittinke.** (PITINKA) Poco a poco, lentamente. Sin. *apurke-apurke.* || *Pittinke-pittinke esanda be, aittuten da, baya emen apurkapurke geidxau esaten da.*

**pittue, pitue.** (PITO) Pene. Ik. *pittiliñe, txilibitue.* || *Txilibitue? Ba ser dala esangot? Txix eitten*

*dana. Gixoneskuk txix eitten dabenari batzuk txilibitu esate tze. Da beste batzu pa esate tze, umik-eta pitu esate tze.* || *Idixille? Idixillen bustena. Idixen bustena siketute. A joteko. Ori da saldidxeri e makillas-da jo biarrien, puntan ipintte tze ugela-edo. Da idixille, sille. Da ori eitte ben aintxiña. Pittue. Pittu da. Da a siketu de idixille esate tzen. Alakoxias-da eitte ittuen. Da onen baserridxetan-da karrerako saldidxek-edo makillas jo biarrin, axe. Idixille esate tzen.*

**pitxar, pitxarra.** (PITXER) Jarro. || *Lurresku pitxarra.* || *Kuartillo arda pitxar suridxe da basotxue.* ☐ **pitxar morkue.** Vasija grosera, jarra despotillada. || *Morkuk? Orrek pitxarrak, apurtzeko sirin pitxarrak: morkuk, pitxar morkuk. Orrek bastuk ixate sirin. Da ori uretarako eskendun ibiltten, espabese txaridxe iltte sanin, koipe gasi gorteko.* || *Da axe koipie, txingerrak apartau, da axe koipe garbi-garbidxe pasau serien, pasadorien, onakoxe pasadorien, da koipe gasie botate san orretara pitxar morkutara.*

**pitxerkada, pitxerkadie.** (PITXERKADA) Jarra (contenido de una jarra). || *Pitxarkada ardaue.*

**pitxi, pitxidxe.** (PITXI, bitxi-bat.) Joya, adorno, alhaja; ropa preciosa. ☐ Askotan umeei esaten zaie, esaterako, arropagatik: *Selako pitxi politte!* edo *Pitxi politte dekesu gero!* ☐ Larrosa bat eman ezker ere honela esaten da: *Aiba pitxi politte!*

**pixarra, pixarrie.** Pizarra. *Pixarrak* ikasle bakoitzak erabiltzen zituzten txikiak ziren. *Ikasle guztientzat erabiltzen zena handia zen, egurrezkoa, eta tablerue* esaten zioten. || *Pixarrak txikidxe siren, noberak aurriñ eukitteko.*

**pixau, pixeten.** (PISAU, pisatu-bat.) Pesar. || *Pixeten doiñien, ganaduna ixeten da erraldie, txaridxena arru.* || *Len laborie oin bayo geidxau eraitte san, da artze san da meiduten. Batzuk naidxau ixete ben imillaunas meidutie, beste batzuk pixaute.*

**1 pixu, pixue.** (PISU) **1.** Peso. || *Pisue eukan arek, da lurre busti sanien, estakak eta gusti, tomatin da burdiñan pisuas parrela bera.* || *Pixu aundidxeidxe deko.* || *Pixu ariñe deko.* || *Pixu gitxiko gixona.* || *Gero pixu emote tzo urek. Artu te txupeu eitten deu te.* **2.** Peso, carga. || *Tiki-taka-tiki-taka ibiltten dana da pendolie. Da pixuk eukitte itu, sortzi egunik sortzi egunera emote dxako kuerdie, ra-ra-ra-ra, da aste bat eitte tze pixuk bajatzeko, da gero ba domeketan e —len*



*aitek eitte ban— gero ba domeketan pixuk altzau eitte dxakosan erlojuri, te ostabe aste gustidxe eote san.* □ **pixure.** Pesando el género. || 'Tantora' da..., begire esaten dabe batzuk. Baya tantora da ba ser dekon estakidxela saldu bi osu, onenbesteko baten. Da oin danak jentie, oin danak pixu ikusten juten dire, pixure, baya len es, len bueno!, len gure aitte tratanti ixen san, da tantora eroste basen.

**2 pixu, pixue.** (PISU) Piso. || *Bueno, pixue esate gu gu pe, se etzie ixen leike basterrekue, kalie be pixue esate gu.*

**pixutzu, pixutzue.** (PISUTSU) Pesado, -a, de mucho peso. || *Pixutzue da.* || *Masu be bai, masu be bai, baya malmaixe, almaixe-edo, malmaixe-edo. Ixeten da kobresku, ori katxarru, pixutzu-pixutzu. Da ixeten da katillutxu lako ontzidxe.* || *Arek esteu eukitten arek ladrilluk eukitte irrur sulorik, ba a osu ixeten da, da pixutzu be bai. Txapako ladrillue esate tzeu te, txapan ipintten dan ladrillu esate tzeu.*

**plan, plana.** (PLAN) Plan, proyecto. || *Plana ipin dabe.*

**planpin, planpiña.** Pamplín, tontería; lisonja u obsequio insincero o inoportuno. || *Planpiña orrek ein deu.* || *Apropos? Tranpas. Apropos ba planpin dabilleta, faltzidxen dabilleta. Planpin da ba engañau edo serien dabillena, apropos.*

**planta, plantie.** (PLANTA) Apariencia, facha, traza. || *Aberatza da baya plantie geidxau.* □ **plantie/plantak ein.** Simular. || *Aberatz plantie ein, da pobre bixi.* || *Ikusi esteun plantie ein deu. (esikusi ein)* || *Plantak eitte ittu, baya esta lelu.* || *Tonton plantak eitte ittus.* || *Soro plantak eitte ittu.* || *Umie neusidxen plantak eitten ibiltten da.* || *Esku botateko plantie ein tzo.* || *Da jakittune da eser estakidxela asko esaten deuna, asko dakidxela planti ein, da "Jakittun ok ori, jakittune! Danak jakitte sak!".* || *Su sas atzekera-edo jarritte, da etorri besti atzetik eta planta bat eitte tzo ba...* || *Ori da "Sustu sartustek!".* || *Planti ein tzeu baya jo etxok ein.*

**plantau, plantetan.** (PLANTAU, plantatu-bat.) Plantarse, ponerse. || *Kolore oridxeekin plantau da.* || *Politte plantau da.* || *Nerbidxoso plantau nas.* || *Lurre astertu eitten deu siketu deidxen, arue plantau deidxen.* || *Txoridxe jaten plantau de.* || *Oyen alboskera plantau da.* || *Ba, atxurras len seintzen beti. Onan atxurre artun, da plantau onduen, da jeneralien juten dabe eberdidxen amabidxen bueltan, da euskidxe sartu eidxeran*

*olan, goixien be goixetik.* || *Artak artu esiñik plantetan da.* || *Kankana: ori ote san gona bat, aspittik jasteku ta, plantxeta ben, uretan busti, da almido frankuas, da astiñ-astin planteta san.* || *Lanie moltzotute: trokuk einde eoten danin, gogortute les eoten danien ba eitten da ba olanik e, ser esangot neuk? Gogortasunek-edo, olan sati gogorra les plantetan dire sati batzuk.* || *Okelie..., bera nekesau eingo da igul, okelie baya olanik e garrastu eitten da, jateko modukue plantau, da espada kastetan ba garrastu eitten da.* || *Orrantz begire plantau gure bosu, bardin doste.* || *Galtzu botate dxako osaliri, soltie, gero dijestiñoyen plantau deidxen. Galtzue. Galtzo birriñek, galtzu botaten badetzesu ba, gero besti, osali bera, masi da les, dijestiño laguntzeko.*

**plantxa, plantxie, prantxié.** Plancha de hierro del fuego bajo. || *Sorgiñen kontu pa, plantxiñ aspidxen eukitte bela unturatzue gordeta ta axe eskutan eitte bela plantxias, da gero tximinidxen gora igote bela sorgiñek-eta, bai esate ben.* || *Beko suen prantxie.* || *Prantxie? Ser da? Aulako katxarro bat lapikuri, beko suko lapikuri atziñ ipintte dxakona? Len emen be egon san, da oin Jangoikuk jakingo deu nun dauen. Se ori ba negun otz dauniñ ixotute dau, baya ostantziñ ixotu esta eitten.*

**plantxau, plantxetan.** (PLANTXAU, plantxatu-bat.) Planchar. || *Kankana esate dxako geuse bat, almidoyas plantxetan dana, astin-astin gelditzen da.*

**plasa, plasie.** (PLAZA) **1.** Plaza. || *Nabarrisko plasie.* **2.** Plaza, explanada sobre la que se hacía el baile. || *Orrek soñu joillak-eta bai. Orrek e ganera pagau ein biste ben plasie. Bueltie, artu terrenue eurentzako, se an seusen iru lau leku on-onak, da besti lekuk igul goi bera-ta dana.* **3.** Mercado, plaza. || *Danak juen siren Gernikeko plasara.* || *Plasa ona egon da.* || *Kapoyek gero plasan saldu eitte ittue.* || *Orko jentie bendejias jun dok plasara.* || *Plasara ibiltten da bendajias.* || *Plasara jun de fruta saltzen.* || *Da jentie erute gendun, igul lau lagun, de plasarako jenerue, sagarra, olako karruas.* □ **plasa mutille.** Joven que va a la plaza al baile y le gusta la juerga. || *Plasa mutille da.* □ **plasa neskie.** Joven que va a la plaza al baile y le gusta la juerga.

**plaso, plasue.** Plazo. || *Plasue: olan gause bateri ipiñi ain denporatarako diru pagetako edo*

*seosetako, da aixeri bai plasue esate dxako. || Plasue bete dxako. || Plasue etorten deko.*

**plast.** (PLAST) ¡Zas! (onomatopeya del golpe). || *Astue? Olako taket bana artun, de goitti bera plast eta plast eta plast-eta, garaunek bera, da koskorak artun, de... bera be koskorak igul batzuk pasetan dire iguel. Baya ugerittesune auri ixete san. || Manga-manga plast, tostadak sakure tas!* Tostadak jaten dire, naidxe, naidxe, naidxe jan. Manga axe da, gero garixumin penitentzidxe datorrelako da.

**plasta.** (PLASTA) Onomatopeya del nevar copioso. || *Eurtie? Eurre plasta-plasta goitti bera eur eitten dabenin eurti axe da, da kanpu surittu.*

**plastada, plastadie.** (PLASTADA) Bofetón. Sin. *arpeikue, belarriondokie, sapladie, saplasue.* Ik. *belarriondokie.* || *Plastadie emon tzo. || Selako plastadie emoste! || Emongo tzut plastada bat!*

**plastasue.** (PLASTAZO) Bofetada, torta. ☐ *Hona hemen plastasue eta plastadie berben arteko aldea: || Plastasuen plastadi bayo gogorra da.*

**plastikue.** (PLASTIKO) Plástico. || *Oiñ es. Oin plastiku ipintte tze danak kontixu. Ba len or basutan nok erungo ban, len plastiku nok ibili eitte ban ba? Oin dana plastiku dau egal gustitan. Ba len es. Len e axe eitte dxakon, soidxe. Baya meti eitten jakiñ ein bi da.*

**platanu, platanue.** (PLATANO) Plátano (*Platanus* sp.). || *Arek plasetan-da egoten dirin orrek arbolak, Nabarrisko plasan badas oiñ estakitt, len egon siriñ amen be, orrek orri sabaltxu eukitten dabenak, da platanu arbolak, ba emen be esate dxaken.*

**plater, platera.** (PLATER) Plato. ☐ **plater asala.** Plato llano. || *Atara plater asalak.* ☐ **plater sakona.** Plato hondo.

**platerkada, platerkadie.** (PLATERKADA) Plato, contenido de un plato lleno.

**plausta.** (PLAUSTA) Onomatopeya de la caída. || *Plausta! (jeusi eskero).*

**plaustada, plaustadie.** (PLAUSTADA) Golpe producido al caerse. || *Plaustadie artu deu. || Bueno, plaustadie nik esango neke plaustadi esate dxakola jeusten dan persona bateri, artzen daben golpie, plaustadie.*

**plauście.** Holgazán, -ana. || *“Ori da plauście!” bai, alperrari edo olan esate dxako.*

**playa, playie.** (PLAIA, hondartza) Playa.

**pleittu, pleittue.** (PLEITU, auzi) Pleito. || *Oiñ atie be esta asko esaten, oin pleittue esaten da-ta,*

*baya atie ba, “Atie ipiñi tzo”, “Atie ipiñi deu”-te... Da ori ba, juesin-edo sartzen dana-edo ixeten da kontixu, ati ori. || Beti dabil pleittuk ipintten.*

**plen.** (PLEN) Colmado, -a, muy lleno. || *Erreka bat-edo doyenien goidxen, esaten da: “Plen-plen doye ure.” Osea goraiño. || “Errekie plen doye”: ures beterik juten danin.*

**plisti-plasta.** (PLISTI-PLASTA) Onomatopeya del chapoteo, del sonido que hacen las manos o los pies al batir al agua.

**plixigas, plixigasa.** (PLEXIGLAS) Plexiglás, resina sintética que tiene el aspecto del vidrio (del ing. *plexiglass*, vidrio flexible). || *Plixiglaxa? Ba are pe lenau urte ben, olan gabardiñi be esta ixeten, gabardiñe antzeko bat e me-meye ixeten dana, arixe esate tzeu plixiglasa.*

**plomo, plomue.** Plomo.

**pluma, plumie.** Pluma para escribir.

**pobre, pobrie.** (POBRE) Pobre. || *Egunero pasaten siren pobriek sakue lepuen da aterik ate. || Urtik ixen siriñ eskasak eta oin dana pranko. Oin pobrerik estau.*

**pobresidxe.** (POBREZIA) Pobreza. || *Pobresidxe deke. || Pobresidxen bixi dire.*

**pobretu.** (POBRETU) Empobrecer. || *Pobreute dau. || Pobretu ein da.*

**poderoso.** ☐ **alkar poderoso.** Firma de un documento por ambos cónyuges, en el que se especifica que, una vez muerto uno de ellos, el otro podrá disponer de todos los bienes. Ik. *poderoso.* || *Alkar poderoso einde daus. || Alkar poderoso ein dabe, notaridxera junde. || Alkar poderoso ein dabe andra-gixonak. || Bata bestiñin poderoso einde daus.*

**polaña.** (POLAINA) Polaina. *Polañak* oinetakoen gaintik janzten dira. || *Polañak dire ointako batzuk, seinde ser esangot neuk?, katiuska ixeti les-edo, olako gorasko, uretan-edo, ur asko danin, edo euri asko danin-edo ibiltten diriñari.*

**polistu.** (POLIZTU, politu-bat., edertu) Embellecerse. Ik. *dotoretu, politte plantau. || Polistu ein da.*

**polit, politte.** (POLIT) Lindo, bonito. Ik. *dotorie.* || *Politte plantau da. || Selako pitxi politte! || Egunin bayo egunin polittau dau.*

**politto.** (POLITO) Bien, adecuadamente, lindamente. || *Politto adornau dabe. || Politto doye. || Len bayo politxuau da. || Da batzuk ba surittute ba ipiñi, polittuau egon deidxen. Beste batzu pa merkiau eittigaittik-edo bape, eser be*

*barik eiñ olantxik ormi, ta arixas sestusko ormie ta listu.* □ Isurkariez hitz egiten denean, ugaritasuna ere adieraz dezake. || *Errekie politto doye.* || *Politto bete dire errekek.* □ Askotxo edaten denean ere esaten da. Sin. *edanda.* || *Politto edanda.* || Alabiek: -“*Ene, gure aitte politto dator!*” Aittek: -“*Amak artuko doste faltan bat!*” || *A, politto doye ori!* || *Txurruipiñ eitte dxok ak politto!* □ **politto emon.** Sentar bien alguna prenda, estar bien. || *Politto emoten tzu.* || *Politto emoten dosu.* □ **politto euki.** Sentar bien alguna prenda. Ik. *ederto.* || *Politto dekesu.* || *Politto deko ulie.* || *Ide bedarra arixeri esate dxako. Da adornutze pe ibiltten da, da politto emoten deu, larrosakin.*

**pol-pol.** (POL-POL) Onomatopeya del hervor suave. || *Pol-pol dau irikitten indarra.*

**poltza, poltzie.** (POLTSA) Bolsa. Ik. *ixil poltzie.* || *Da alakoxiri kentze dxake, ligerra esate dxako. Esnie edan, da geldittute dxaken..., poltza bat eukitten dabe barruen. Da il, da poltzi kentze dxaken, da gero sera areri musturre lotu eitte dxakon, da sakutu, ba eskei eitte san siketzeko.* || *Ur sorru? Sera, txal jaidxo orduko datorren ur sorrue, poltzie.* || *Enbrak eukitte ben aintxiñe onan, gonik kortadie euken, esta? Ba emendik gerrittik lotute erute ben poltzie: malen partikarie.*

**poltzero, poltzerue.** (POLTSERO) El que lleva la bolsa del dinero en las cuestaciones. □ Esaterako, Santa Agedan diru eske ibiltzen denean, honela esaten da: || *Poltzeru or dau.*

**poltzikue.** (POLTSIKO, sakela) Bolsillo. *Poltzikue nahiz poltzillue* esaten da. Ik. *ixil poltzie, partikerie, poltzillue.*

**poltzillue.** Bolsillo. *Poltzikue nahiz poltzillue* esaten da. Ik. *ixil poltzie, partikerie, poltzikue.*

**popa.** (POPA) Trasero, culo. □ **popatik artu.** Tomar por (el) culo. Ik. *atzetik artu.* || *Su popatik artzen jun!* □ **popatik bialdu.** Mandar a tomar por (el) culo. Berriemaile baten arabera, honela gizonaek baino ez dute esaten.

**porlan, porlana.** (PORLAN) Cemento. Ik. *sementue.* || *Porlanik bakuk.* || *Porlanesku da.* || *Porlanes ein dabe.* || *Obratarako biosu karie. Kari bi da derrior. Aintxiñe eitte san itxosoko landarras da karias morterue. Da gero obran ormi eitteko porlana apurtxut bota.*

**porra, porrie.** (PORRA, borra-bat.) **1.** Porra, mazo metálico con mango de madera que se utiliza para golpear la cuña, estacas, etc. Sin. *masie.* || *Porri da arridxe apurtzeko be bai, sididxe joteko be bai. Sididxe bakixu ser dan? Astiltzeko egurre. Da a joteku be porrie. Burdiñeskue. Astune.* || *Siridxe esate dxako areri. Burdiñeskue. Porrie bestie, jotekugeittik.* || *Onek e basun piñu botaten-da ibiltte giñenien, usete gendusen sididzek. Igul, piñuek, igul piñu pe kaidi eukitten deu ba bera edo gora. Da igul e, estosu gure bera juterik. Edo alanbrie, edo kalti eingo deu te ona gurosu bota edo ara. Ordun sartze dxakos e... Ara gure bosu, emendik. Da a joteku be porri da.* □ *Hona hemen porrie eta mallue hitzen artean dagoen desberdintasuna: || Mallu da porri ba antzerasku dire. Erdi antzerasku dire. Guk e basun usete gendun, pago botaten-da ibiltte giñenin, sididxe sartzeko, porrie. Da mallu da karabidxarako ta kalerurako-ta, arridxe apurtzekue. Da bata da porrie, da besti mallue. Da gero arridxe jotekue, matxukie.* **2.** Porra, dinero que se recolecta. || *Porri da ori sera eitten dana be, batzen dana be porri esate dxako. Diru bat.*

**porrilla.** (PORRILA) Enfermedad del ganado que se manifiesta por la aparición de heridas o costras en las pezuñas. Sin. *apatxartekue, apatxetakue, apatx bittartekue.* || *Porrillak ganaduk eukitte ittue. Ixaten dire ainketan eukitte ittuen... Ser esangot neuk? Eridatxun batzuk-edo, kostratxun batzuk-edo, alakuk ixaten dire porrillak. Apatxetan eukitte ittue. Apatxartekue be esate dxake.* || *Porrilla da beidxek eukitten daben geixue.* || *Porrilla anketan eukitten dabe. Apatxa usteldu eitten da.*

**porrot.** (PORROT) Descalabro. □ **porrot ein.** Desmoronar(se), desplomar(se) (por ejemplo, el piso de una casa). || *Porrot ein deu arek!*

**porru, porrue.** (PORRU) Puerro (*Allium porrum*). □ **porro orridxe.** Hoja del puerro. || *Ori lior-liorra ixeten da. Lior-liortxu lusie, porro orridxen antzien.* □ **porru patatie.** Puerro con patatas. || *Porru patatie: porruas eitten da patatie egosi.* || *Porru patatie: porrue, da porru irakitten daunin patatak sartze dxakos, da porru patatie, egosten danin.* □ *Besterik botatzen zaion galdetuta, honela erantzun didate: || Bai, oridxue, gatza, da olan botate dxako oridxu, te gatza, da kipuli aiñ osue espada, sati bet, edo txikitxu, edo*

*osu-edo, da kipuli be botate dxako, ta ba orixe da porru patatie.* ☐ **altza porru!** Exclamación de ánimo en los bailes y romerías. || *Altza porru! (esaera bat, erromeridxetan dantzan dabillenin).*

**porrusalda, porrusaldie.** (PORRUSALDA) Caldo de puerros. || *Porrusaldie da porruas eitten dan saldie.*

**portakixun, portakixune.** (PORTAKIZUN, portaera) Conducta, comportamiento.

**portal, portala.** (PORTALE) Portal. Ik. *etartie.* Elexaldeko etxeetakoei *entradie* ere esaten zaio.

**portau.** (PORTAU, portatu-bat.) Portar(se), comportar(se).

**portu, portue.** (PORTU) Puerto.

**portxiripa.** De chiripa, por casualidad. *Portxiripa nahiz portxiripas* esaten da. || *Portxiripa ikusi dot.* || *Portxiripa atrapau deu trena.* || *Portxiripa ixen da.*

**portziño, portziñue, porsañue.** (PORTZINO, portzio-bat.) Porción, cantidad. || *Kantiñie: ori jeneral, guk alanik ibiltte giñen, esnie portziño txikidxen nonora, albora-edo, eusoko etzera erun biar bada, olakoxe kantintxue ibiltte gendun.* || *Portziñue sera da, se esangot neuk?, kantidade bat-edo.* || *Poltzi esate tze asko paya. Plastikuek onek e okelie sartuteko lotu eitte ittues ba. Porsañuetan ipiñi. Da areri batzuk esate tze sakutuk, baya arei esate tze poltzak.*

**pos, posa.** (POZ) Alegría, júbilo, regocijo. || *Selako posa deko.* || *Aren posa pe jun dosak.* ☐ **posen poses.** De pura alegría, de tanta alegría. || *Posen posas siñistu esiñik dau.*

**posarren.** (POZARREN) Muy contento, con mucho gusto. Ik. *kontentus.* || *Posarren jun dok.*

**posgarri, posgarridxe.** (POZGARRI) Agradable, que alegre, que da gusto. || *Geusik ondo urtete daunin: "Au posgarridxe ixen da!"* || *Atzegiñe: geuse posgarri bat jausten danin-edo ba.*

**posgarriskue.** (POZGARRIZKO) Agradable, que alegre, que da gusto. || *Notixi posgarrisku da ori.*

**posik.** (POZIK) Contento. || *Beste sagarra pe posik jate gendusén.* || *A ju san posik!* || *Posik etorko san a ostantzin. Oixe ettorko sana.* || *Posik bixi da.* || *Arpei poskorreku da.* || *Posik dauneko arpeidxe.* || *Da estidxe emote ei tzen, ogidxe ebei sati bi, da ogi bidxen erdidxen estidxe, unteu-unteu einde estidxe. Da posik, posik a be!*

**poskari, poskaridxe.** (POZKARI) Alegría, felicidad. || *Onek deko poskaridxe!* || *Poskaridxas bitzetan dxak!*

**poskor, poskorra.** (POZKOR) Alegre, que tiene buen humor, que está contento por cualquier motivo. || *Poskorra? Bai, poskorra be esaten da, da orixe bai elekena oingo umiek ser dan be, elekena asartauko. Poskorra, olan umiri, olan posik dabixen umiri-edo "Poskor dabile"-edo, "Poskortasunas dabill"-edo, "Poskorrek dire"-edo. Baya oiñ ori berbi ori estakipa, geuk sarro pai, bakigu ser dan be, baya oingo umik estakit pakidxe be ser dan.* || *Poskorra da, posik dabillinari, umiri be esate dxake: "Poskor dabis".* || *Aringaringe dabixenari-tte, "Umik posik dabis", "Poskor dabis".* || *Arpei poskorreku da.*

**poskortasun, poskortasune.** (POZKORTASUN) Alegría. || *Poskortasunas dabil.*

**posotza, posotzie.** Charcal. || *Kristelak ei dire ur posotzatan.* || *Ur posotzie? Ba bidien norberak jun bi daben lekun edo olan ur posotzie, ur posotzie, lantzin leku baten, arantzau-orruntzau, ur posotzie.* || *Ur posotzi dau.*

**pospolin, pospoliñe.** (POSPOLIN, galeper) 1. Codorniz (*Coturnix coturnix*). Emiliano Arriagak *pospolín* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "(e. onom.) La codorniz, por imitación a su canto". || *Da one bestik, pospoliñe pe, galeperra esate tze askok. Orre pe paseku die.* 2. (Persona) linda y pequeña. || *Pospoliñe esaten da neska politte bada.*

**pospolo, pospolue.** (POSPOLO) Cerilla. Nabarnizen *mistue* berba ezagutzen duten galdetu dutenean baietz erantzun didate, baina eurek *pospolue* esaten dute. || *Piñuk-eta botaten dauna da brie. Da arek, a pospoluas e emote tzesu, da da! su artzen deu ak, briek.* ☐ **pospolo kajie.** Caja de cerillas.

**postasun, postasune.** (POZTASUN) Alegría. || *Postasun itzela artu deu.* || *Postasune deko.*

**poste, postie.** Poste. || *Argidxen postie.*

**postre, postrie.** (POSTRE) Postre. || *Postrie? Bai. Egon eskeruen nai fruti nai pastela nai dana dalakue, oten dana.*

**postu.** (POZTU) Alegrar(se). || *Asko postu da.*

**posture, posturie.** (POSTURA) Apuesta. *Apostue* ere esaten da, baina oso gutxi erabiltzen da. Ik. *trabesa.* || *A posturi einde, estai senbat posture einde. Bost mille ogorloko-edo posture einde.* ||

Emen "Apostu ein dot" bayo geidxau esaten da, ba, "Posturie ein dot", edo "Trabesa ein dot".

**posturesale, posturesalie.** (POSTURAZALE) Aficionado, -a a las apuestas. || *Posturesalie da ori!*

**posu, poso, posue.** (POZU, putzu-bat.) Charca. Ik. ur potxidxe, ur txarkue. || *Ur posuek.* || *Presie ein, detenidu ure ta beko posue baldakiñ utzittu ta an agertzen siriñ angillak.* || *Uregasidxu lelengotan sapaburu lakoxi ixeten da, da beres sapaburue, onetan posutan ibiltten dana.* || *Len be geuk ortxe etzaurren umik txikidxek siriñin sarratu ein gendun posu, ume bat itto esteidxen. Ostantziñ ortxe etzaurren, geure etzaurren dau posu galanta, da sarratute dau arridxeekin.* || *Posuek eitte siren, ganaduk-eta ure edateko-ta.* || *Nik badakit nun dausen oin be san jun idak. Erreka onduen, poso onduen, ure onduen.* □

**posutxue.** Charco. Askotan ur posutxue entzuten da. *Txarkue ere esaten da: Or txarkue dxak.* || *Posutxue txikidxe da. Eundidxe eitten dabe ganaduek-eta ure edateko-ta: posue.* □

**txixe posue.** Charco que se forma al orinar. || *Bueno, txixe posue, esate baterako, beyen ganiñ umik txixe eitten badeu, da ba posutxue ixan deu, ta ba arixe esate dxako "Txixe posu ein deu!"*

**pot, pota, fota.** (POT) Chozna, pan francés. Ik. *fota.* Emiliano Arriagak *fot* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Panecillo francés, largo y angosto usado casi exclusivamente para tomar el chocolate". || *Pota: panaderuk eitte bona, pota esate dxako. Pota, ta gasteta sana, ogi modun estan gastetan. Gasteta san armosuten sopak eitteko, da pota esate dxakon. Suridxe ixete san, normala. Formie, ba ser esangot neuk?, ixete san txikidxaue, olanik, da loditxuaue, sopak eitteko modukue.* || *Emen e..., bai, pota nik pentzetot len esate sala geidxau. Oñ estu eitten potik.*

**potaje, potajie.** (POTAJE) Potaje. || *Potajie? Bai, lapikikuri be, egositte dauniñ esate dxako.* || *Potajie lapikoku da, inddarra.*

**pote, pótie.** (POTE) Bote (recipiente). || *Potie? Poti esate dxako lori sartzen dan ontzidxeri.*

**potei, poteidxe.** (POTAI, pote) Colodra, estuche de agua para la piedra de afilar. || *Poteidxek gerridxen ipintten siren, arridxe sartun de kodañe sorrostuteko-ta.*

**potenteidxe.** Pila de agua bendita. || *Potenteidxe? Elixan oten dan e..., entradan-edo oten dana. Da elixara jute garañin, antxe ur bedeinkatue artu te*

*aittiaren ei tte, da barrure.* || *Potenteidxe arri eundidxe ixeten da, dana biribille ta ur bedeinkatu eukitten dabena.*

**potijo, potijue.** Botijo de unos dos litros de capacidad. || *Potijuek: orrek basora-ta be igul erute siren.* || *Oiñ emen estau-te, geurin be len egote san potijue, txorrotxu bi eukitte ittu, bat txikidxe, ta bestie eunditxuaue, potijo biribille, ba astias, mendire ibiltte gendun uras, da potijue.* || *Lurresku ixete san potijue, da ure berotu esteidxen, ba olan euskitten-da apartiñ eskendun isten, ure berotu esteidxen, baya olan aixik, edo korrinteun daben lekuen, an lurresko ontzidxen ure esta berotzen.* || *Potijue aintxiñe geu pe eukitte gendun, de ibiltte genduen, lurreskuk ixete sirien, da denpora ona daunin de beru daunin, mendire eruteko uregas, da ure konserbeta san fresku potijuen.* || *Ori potijue ixeten da lurreskue, da ure eukittekue. Len mendire..., aspaldidxon enas jun bein be, estaitt mendixori selaku dan be ta nigaittik gure daben moduku egongo da, baya len mendire erute gendun potiju lurreskue, lurreskue ta alderdi batetik eukitte ban ba olan sorrotxue, olanik, da beste alderdittik eukitte ban sabaltxuaue, da andixik e sera, sabaltxuau dekon lekutik itturridxen bete eitte gendun. Da gero ba mendire erun, da mendixen egarridxe kentzeko edo edateko ibiltte gendun: potijue.* □ *Hona hemen potijue eta potiñe berben arteko desberdintasuna: || Bai, kontixu bat tire, potijue ta potiñe. Potijue nik pentzetot txikidxau ixaten dala potiñe bayo. Se oin potiñe ba nik estot ikusten, da geu pe eskeu te. Potiñe naiku eundidxe ixeten da, ta itturritik ure ekarteko ibiltte san.*

**potin, potiñe.** (POTIN) 1. Botijo de unos seis u ocho litros de capacidad. || *Ure egote san potiñin len. Lurreskuk ixete siriñ orrek, lurresko katxarrie. Sulo bi, bata edateko, ta bestie ure botateko.* || *Emen etziñ aintxiñe egote san potiñe ure eukittekue.* || *Potiñek aintxiñe bai egon siren. Neuk apurtu naben neuri be jeusitte. Bai, iturrirre jun, de uregas, da gero burun ekarte san ba onanik altzau gora ta. Da jeusi dxaten, da an apurtu san. Orrek eukitten deu astatxue, kolpeteko. Da onanik ure atarateko sorruotxue, bestaldetik.* || *Da potiñe, potiñe be aunditxuari esate dxako potiñe da, orixe da potiñe, aunditxuaue (potijue bayo).* || *Gero mendire eruteko, potiñek ibiltte sirien, apurtzen dirin potiñek. Nire gixona sanak naidxau ixete ban potiñe erutie emendik. Ure freskuau egoten da potiñin.* || *Potiñik*

*eukitten deu..., alderdi batiñ eukitten deu txorrotxue, da beste alderdidxen estau eukitten txorrotxue, olako begitxu eukitten deu. Da ure antxe potiñien freskuau konserbete san beste lekutan bayo. || Bueno, potiñe..., oiñ estau, apartau sala pentzetot, geurin be on san e! Da mendireko ibiltte gendun, ure eruteko. Da feskuau, lurrekue ixen eskeruen, freskuau konserbau eitte san geispiñ ipiñitte. Da alderdi batetik eukitte ban txorrotxu, olan edateko. Da bestetik eukitte ban bera uras beteteko..., bueno eukitte ban olan sulo biribiltxue, da andixik bete eitte san iturridxen. A sulo biribille ixete san beteteko, ures beteteko. Da a txorrotxue eukitte bana beste alderdittik, ure edateko. 2. Regordete. || Potiñe da bola bat les ixeti les, "Potiñ-ok ori!". Potiñe bakixu setaraku dan, ure erutekue. Da a txikidxe, biribille ixete da les, ba alako mardul te txikidxe, ba potiñe. 3. Perfecto, del gusto del que lo hace. || Potin-potiñe geratu da. || Bai, geuse bat einde daunin ba noberen gustora-edo, urtete dabenin ba, "Potin-potin geldittu da".*

**poto, potue.** (POTO) 1. Bote (recipiente). || *Poto esate dxako ba, esate baterako, oneri. Artzосу esni edo ure-edo ta ba artu deu. || Potue edateko da, da ure eukitete be bai. 2. Hondonada, pequeña depresión del terreno. || Esate baterako, basuen badau olako sulo bat, areri esate dxako pótue. Potu.*

**potola, potolie.** (POTOLO) Regordeta, gordinflona, obesa.

**potolo, potolue.** (POTOLO) Regordete, gordinflón, obeso. || *Potolo-potolo dau.*

**potolona, potolonie.** Regordeta. || *Txikidxe bada, da mardue, ordun potoloni esate dxako.*

**potro, potrue.** (POTRO) Testículo, huevo, cojón. Ik. *barrabille. || Aren (billotzan) bolari —bai, txarto esanda dau baya— potruk (esate dxake).*

**potrojoder.** Fastidioso, -a. || *Potrojoder: bestiri adarra jo ta kristonak eitte tzesena, "I as potrojoder, i!". || Potrojoder? Orrek eitten dabillena, potrojoder esate dxako. Ba igul e gusurre ta abarra ta... "Ori potrojoder dok!".*

**potroso, potrosue.** (POTROSO) 1. Potroso, afortunado. 2. Tacaño, -a.

**potxi, potxidxe.** (POTXI) 1. Hoyo que se hace con la azada para sembrar. Arbolak landatzekoari *sulue* esaten zaio. || *Ereitteko potxidxe. || Mistu: osea, lau dekosus potxi baten, lau arto, esaterako, ta kendu eitte tzesus bi, ori da mistu eittie, isten dosus bi tte kendu beste bi. ||*

*Potxidxe: esate baterako, baiñak eraitten diriñin, nai artu eraitten da, nai inddarra be eraitten da, ba atxurras potxitxuk eitten dire, da arexe botaten da asidxe. 2. Charco. Ik. ur posue. || Ur potxidxe dau emen. || Potxidxe posu bayo txikidxaue da. 3. Hoyo que los muchachos practican en el suelo, generalmente junto a una pared, y sirve para jugar al boche con nueces. J. M. Barandiaranen arabera (*Tradiciones y Leyendas de Euskalerrria*, La Gran Enciclopedia Vasca, 138. orr.) Markinan *potxillue* esaten zaio, Ataunen *prottea* eta Oartzunen *txulo*. || *Potxike: potxitxu bat ein, da antxe potxidxen sartu kañekie, kañeki-edo, intxaur-edo, kañeki-edo.**

**potxike.** (POTXIKA) Juego infantil que consiste en introducir nueces en un agujero. || *Potxi-potxike: atzamarras jo, ta potxin sartzen, intxeurrak. || Potxike aintxiñe e eskolan ibiltte giñin, geuk eitte gendun kañikakin, bota olani pa, bestie ateti botate bana, axe joten, da potxike esate gentzon. || Potxike ixeten da, ein potxitxu bat, da kañikak antxe sartzie. || Potxike: potxitxu bat ein, da antxe potxidxen sartu kañekie, kañeki-edo, intxaur-edo, kañeki-edo.*

**potxola.** (POTXOLO) Rechoncha, regordeta; querida. || *Potxolatxue!*

**potxolo, potxolue.** (POTXOLO) Rechoncho, regordeto; querido. || *Potxolue? Ba olan ume txikidxe edo eunditxuau-edo troko-trokotxu danari.*

**potxongue.** (POTXONGO) Se le dice cariñosamente a los niños. || *Ba potxongue emen esta esaten hainbeste baya ba potxongue jeneral olakoxiri (potxolue) esate dxako.*

**poun.** (PAUN) (Haur.) Caída. ☐ **poun ein.** Caerse. || *Poun ein deu.*

**praile, praille.** (FRAIDE) Fraile. || *Praile doye.*

**prailleuli, prailleulidxe, frailleulidxe.** (FRAILE EULI, fraide euli-bat.) Mosca borriquera, según R. M. Azkue, llamada así por su color semejante al del hábito de ciertos frailes (*Hippobosca equina*). Beste toki batzuetan *mandaulidxe* esaten zaiona da. Nabarnizen *mandaulidxe* zer den ezagutu eta esan ere egiten da, baina duda barik gehien korritzen duen berba *prailleulidxe* da. || *Prailleulidxek dire beidxei inketan dxakesanak, agustuen, berotzen asten danien, ganadueri inketan dxakosanak. || Prailleulidxek dire orrek sapalak. || Prailleulidxek ganaduri tukurre asko atarate tze; ganadu batzuri, danari es, tukurre atarate tze. || Guk prailleulidxe esate tzeu, da*

*bestik espatie, baya guk prailleulidxe beti. Arek ainkadi! Inkeute geratzen dire bertan, arik eta..., isten badxako, arik eta odoles bete arte alde estau eitten, sastasu nausidxe!, da arek jo, ta plast bertan iltten dire. Sapalak dire, lusekak, inkeute geratzen dire musturre sartute bertan. || Beste batzuk espata aundidxe esate tze orreri. Ba guk frailleulidxe, guk geuk axe. Baya espate, da frailleulidxe bat dire. || Frailleulidxe: orre pe..., bueno, udan, bero eitten dabeni, mendidxen-da ugerittu eitte dxakos ganaduri. Gero otzak asten diriñin beres eskutetan dire. || Prailleulidxek bertan gelditzen dire, lusik. Da ser eitten dabe? Inkeu, da geldik inkadi te tripi dana bete arte odoles.*

**praka, prakie, frakie.** (PRAKA) Pantalón. || *Praka laburrek. || Praka lusik. || Panasko prakak. || Maonesko prakak. || Praka pare bat. || Praka bitzuk. || Prakak laburtu. || Ik ein tze traskadie prakari! || Praketa kaka ein deu. || Praka pe eukitten dabe aidxue, ori, sinturi pasetako. || Kaguen, txingerra etorri dxatek praka ganera! || "Fraketan artu esiñik": lodi-lodidxe dana. || "Fraketan be kabidu esiñik dabil": arroputze. || Prakari adabi ipintten dabil. || Prakak adabetan dabil. || Orrek prakak ederto adabeute dxabixek. □ **praka barrenak.** Bajos del pantalón. || *Gero kaltzerdidxen ganetik praka barrenak kordelas lotzen dire. □ **praka laburrin.** En pantalón corto. || Praka laburrin dabil.**

**prakadun, prakadune.** (PRAKADUN) Que lleva pantalones; hombre.

**prakaerre, prakaerrie, frakerrie.** (PRAKERRE) Cascarrabias. || *Ori da prakaerrie! || Frakerrie? Bai, aintzat estaun personigeittik. Bete ekiñin dabilena. || Erdi geustanari esate dxako prakaerrie. Gixoneskuri esate tze ori prakaerrie. || Prakaerrie? Prakaerri ba..., ori seinde burletzat esati les, "Prakerri ori!"*

**prakanasai, prakanasaidxe.** (PRAKANASAI) Cachazudo, flemático. || *Prakanasai: alkarrerri burle eitten.*

**prakatxiki, prakatxikidxe.** (PRAKATXIKI) Pequeñajo, -a. || *Prakatxiki: gixon txikidxeri, prakatxiki. Ori ixena ipiñitte eukitten dabe batzuk emen.*

**prakatzu, prakatzue.** (PRAKATSU) De muslos gordos. || *Prakatzue ixeten da isterrak-eta lodi dekosena. Jeneralien. Ganadu pe isterrak-eta lodi,*

*"Dios, prakatzu dok ori, prakatzu!". Isterrak mardu.*

**pranko, prankue, frankue.** (PRANKO, franko-bat.) Mucho(s), abundante. || *Otie dau or pranku! || Artue pranku badao kamaran, ba txarrixek loditzen erresa. || Patatie pranku jentiek ereitten deu. || Lurre pranku dau. || Urtik ixen siriñ eskasak eta oin dana pranko. Oin pobrerik estau. || Geurin be bai, esnie franko dekeunien, baya etzerako bakarrik. || Ure franko deko iturridxek. || Sementerie satz frankuas-da ipintten da. || Asukerie ba franku botate tzeu ba gosu urten deidxen. || Franku dxak indarra. □ **pranko bixi.** Vivir holgadamente. || *Pranko bixi dis arek.**

**pranko, franko.** (FRANKO) 1. Franco, generoso, liberal. || *Ori borondate asko dekonari "Franku da ori personie!". || Beso sabala, frankue, asko emoteko dekona, borondate onekoa. || Orrek andra-gixonak pranku dosak. 2. Grande. || Franku: aundidxe eta sabala. || Totolue: lodidxe dana ta franku dana.*

**prantzes, prantzesa.** (PRANTSES, frantses-bat.) Francés, -a. Gehienetan prantzesa ahoskatzen da, baina tarteka frantzesa ere entzun dut. □ **prantzes arridxe.** Muela de molino proveniente de Francia, utilizada para moler trigo. Ik. *Okako arridxe, Trebiñoko arridxe. || Prantzes arridxek orrek gogorak. Sei edo saspi satikuek. || Prantzes arridxek, garidxe eidxoteko. □ **prantzes bedarra** edo **prantzesa.** Aguaturma, topinambur (*Medigaco sativa*). || *Baya ori prantzesa ereitten sanien, ori prantzesa agostuen ipinte san, ereitte san agostuen, da gero emon kortetxu bat urridxen da gero udebarridxen, martidxen edo, ebai, total da ya kendu, ya amaittu eitten san ori, ori esan barridxen sertzen, ereiñ ein biar urrengo urtin be. Ori urtiñ-urtiñ erein biar. || Prantzes bedarra agostun edo olan ereitten san. Da gero kortetxu bat emote dxakon da gero udebarridxen ebaten san da ya gero labrau, kendu. Prantzesa aintxiñe egote san, oiñ es ta ereitten ori. || Prantzesa esate dxakon bedar bat, etziñ artzeko. Da asidxe, ba sati bat itxi asitterako, da sati bat, eta asidxe be batu eitte gentzon urrengo urtiñ eraitteko. Da ba, a be asi bedarra san. || Prantzesak burue gorri-gorridxe asten deu, da gero apurkan-aurkan a gorritasune be asittu eitten da, da oiñ erain be esta eitten prantzesi paya prantzesa geuk asko eraitte gendun. Nabun artiñ eraitte san, da lengo kortie**

*serrias ebate san da nabuk apartaute, da gero nabu kendu eitte dxakon e prantzesak akabetakun, da a nabu kendutakun barridxen aste san prantzesa, da arixerri iste dxakon satitxu bat e..., olako sati bat-edo asidxe batzeko, prantzesari, da gero a eltze sanien..., gero frantzesa bigarren biderrin ebate saniñ e gero a satitxu eltze sanien batu eitte san, gero urrengun eraitteko, datorren urtiin eraitteko a batu eitte san. || Prantzesa oiñ estau..., baya len prantzesa egote san. Areri txapel gorri-gorridxek urtete tzon eldutakun. || Prantzesak e bai, baya korte bat bakarrik. Solun erein biste san, da olaku aste san, ederra! Da gero luserotxuau badau, ya luseruei badau, txapelak urtete tzon, txapela esate gentzon, onen tamañoko ori, lodi-lodi-lodidxe, gorri-gorri-gorri-gorri-gorridxe. A gero asittu eitten da, da askok eitte ban asidxe etziñ artun. A siketzen itxi, sail bat, da siketutakun, da garandu..., etzera ekarri tte euskidxen e garandu, da atzera..., esan gutena, ereiñ or udebarridxen. || Prantzesak esate ben a txapel gorridxe eiñ eskero ganaduntzako estaula balidxo. Balidxo bai! Baya probetxurik estekola, a sustantzirik es. || Txapel bedarra? Txapel bedarra, txapel dute daun bedarra bai, txapel bedarra aintxiñe egote san. Frantzesa txapeltze san. A txapeldu eitte san a. A txapela, goidxek urtete tzon gorri-gorri-gorri-gorridxe, txapelatxu les, "Txapeldute dxak". || Prantzes bedarra? Bai, aintxiñe eraitte sana, prantzes bedarra. Udebarridxe eitte sana, prantzes bedarra. Oin galdute orrek. Prantzes bedarra, ederra. Orri ederrak. Udebarridxen ganaduri emote dxakona, ule sarra botateko. || Ule sarra botateko, ona. Apur bet siriñe eitten deutzo. Prantzes bedarra geusa ederra. □ Andere Gorienaren arabera, prantzesa eta beste toki batzuetan esaten den pagotxa bat dira. || Pagotxa? Bai, ori bedar bateri esate dxako. Pagotxa, ori batzuk..., guk emen prantzesa esate gentzona, orreri bedarrari. Oiñ erain be esta eitten. Len eraitte san, nabu eraitte san lekun-edo, ba gana jatekue ugeritzeko. Baya len solutan, soluk-eta etziri les e..., ser esangot neuk, soluk-eta..., selan esangot? Len e soluri –ba soluk esate dxaken bai, baya landa iste sirin soluri ba... "Oin landi dau solu barik"-edo, baya. Da pagotxa, pagotxa bai esate dxakon, emen berton ainbeste es, baya or e Lekitto partetik edo ortik pagotxa. □ **prantzes euskaldune.** Vasco continental. || Da batzuk klaru eitten dabe berba e! Prantzes euskaldune esate tzeu. Arek sarratu eitten dabe, gu payo sarratuau. An Kalifornian*

*asko. Baya gu Kalifornian eskara ibili. Aidojon gu. Baya olan jai eundidxe eitte saniñ etorri eitte siren euren e geusak salzen. Sertzuk ekarte sittusan? Geusak e, kalendaridxuk eta ardi narruk.*

**prast.** (PRAST) Onomatopeya de despegamiento, desprenderse, soltarse. || *Txindurri arridxe: ori prast-prast apurtzen dana, arri troski, ori da arri..., esan gu tona, kolorien normal antzeku, baya txindurri arridxe apurtu eitten da ori prast-prast.*

**predikasiño, predikasiño.** (PREDIKAZINO, predikazio) || *"Berbaldi bet e ein dxue an". da, predikasiño bat esati les. || Predikasiño? Abadik eitten daben sermoi be bai.*

**pregunteu, preguntetan.** (PREGUNTAU, preguntatu-bat., itaundu, galdetu) Preguntar. || *Aterik ate nabil preguntetan neurri interesatzen dxaten geusie. || Pregunte idxosu ori geusie. || Sayatuko nas preguntetan.*

**pregunte, preguntie.** (PREGUNTA, itaun, galdera) Pregunta. || *Ia, ein preguntak!*

**pregunteka.** (PREGUNTAKA, itaunka, galdezka) Preguntando.

**premidxu, premidxue.** (PREMIO) Premio. || *Meresidu deu premidxue.*

**premiñe, premiñie.** (PREMINA, premia-bat.) Necesidad, apremio, urgencia, premura. || *Premiñi badekosu? || A pe misteko premiñie dxekok. || Arek badeuko premiñie atarateko. || Da ordun ba eusoko gustidxek batzen dire erretille bat eitteko, olanik etzi premiñan badau. || Orrek makiñik koipin premiñie badxok! || Kanpu premiñan dau, te euridxe eingo baleu! || Laguntasune ixeten da premiña baten basaus, laguntzen etorri basintzon, "Arek eiste laguntasune!". || "Barru txarra dako etzik" esaten da konpontziñoyen premiñan badau, estue edo gela txikidxek dekoselako. || Antxe baso barrenien, da erreki be bertan euen komentzoso, premiñi egon eskero.*

**premiñesko, premiñeskue.** (PREMINAZKO, premiazko-bat.) Necesario, -a, preciso, .a. || *Premiñesku dosu ori? || Premiñesku ixengo su?*

**prentza, prentzie.** (PRENTSA) Prensa para hacer sidra, mosto, etc. || *Prentzie da sagarrak apurtzekue.*

**prentzau.** (PRENTSAU, prentsatu-bat.) Prensar.

**preokupeu.** Preocupar. || *Preokupeute dabil ori be ta!*



**preparatiña.** 1. La preparación, pago que se cobra por preparar un alimento. Ik. *preparatiña*. || *Batzuk esaten dabe ipintxiña, da bestik esaten dabe preparatiña. Ba emen bidxetara be usetan da ori, berton Nabarrixen be. Batzuk igul esango tzue "Ba, preparatiña onenbeste, da beste batzuk esango tzue "Ipintxiña onexenbeste".* 2. Suficiente calidad o cantidad como para prepararlo. || *"Preparatiñik etxekok!": gitxi dalako, ero eskasa dalako geusie. || Geuse bat erute tzesu, ya geuse eskasa jateko, nai edoser, "Orrek etxekok preparatiñik, orrek geusi orrek, ori estok ona ta". Ba, geusa gitxidxeri be arexe esate tzagu, "Ipintxiñi pe-etxekok", ero "Preparatiñik etxekok".*

**preparau, preparaten, preparetan.** (PREPARAU, preparatu-bat.) Preparar(se), disponer(se). Ik. *manieu*. || *Maxa? Ori ba, ser esangot neuk?, estala preparetan edo ba, masa. Edo "Maxtasune deko".*

**presa, presie.** (PRESA) Presa. || *Presatik andapalara juten da ure. || Presie ein, detenidu ure ta beko posue baldakiñ utzittu ta an agertzen siriñ angillak. || Ure jun da gero, presie ein! || Urtxakurre ur ondun egoten da, berentzako presie eitten deu.*

**presidxu, presidxue.** (PREZIO) Precio. || *Presidxue altzau, karutu, merketu. || Gorakadie ein deu presidxuek.*

**presiiñue.** (PRESINO, presio-bat.) Presión. || *Uren presiiñuas.*

**preskau.** (PRESKAU, freskatu-bat.) Refrescar(se). || *Euridxe ein bierrixena dau. Euri apur bet eingo baleu, kanpuk presketako-edo!*

**presku, preskue.** (PRESKU, mertxika) 1. Prisco (árbol). || *Badau arbola bat, preskue deitzen dana, da aste ittu feskuiek.* 2. Prisco, fruto autóctono parecido al melocotón. || *Preskue diferentie da. Preskuri olanik kendu, eiñ erdittik bi ta asurre solte garatzen dxako. Baye melokoiri eitte tzosu baya apurtu esta eitten, asurreri inkeute garatzen dxako. || Albertxikue da frute bat, preskun antzeku-edo, presku bayo ba fiñau ixaten da. || Ixaten da, melokotik estire, e..., albarikokes-edo, olan esate dxake eureri, preskuri. Preskuk apur bet mingostxuauk ixaten dire, arek dultza-dultzik bayo. Da ixeten dire erdidxen asurre dekenak barruen, da ganin ba, ba se esangot neuk?, albarikoke lakuk-edo, preskuk esate tzeu te.*

**preso, presue.** (PRESO) Preso. Ik. *katigue*. || *Presue gartzelatik etara. || Presue libre itxi. || Preso dau. || Preso erun dabe.*

**prest.** (PREST, gertu) Listo, -a, dispuesto, -a, preparado, -a. || *Prest dau edosertarako. || Prest saus? || Txikittute prest ipiñi, da gero urek irakitten dabeniñ ureri botate dxako, botate dxako asukeri be gosatzeko. || Da lelengo meye, su einde, da gero ba egur lodidxek errete sittunin da labi be ba gorittute gelditzen da, ta ba gero artu sartzeko, nai ba ogidxe sartzeko, nai ba... labi prest oten da egurrek errete. □ Hiltzeko gutxi falta zaionari buruz honela esaten da. || Ya gorako prest dxak ori.*

**prestau.** (PRESTAU, prestatu-bat.) Preparar, arreglar. || *Jatekue prestau. || Lur seye egoteko, lurre prestau ein bi da. Amengo lurrek estires beres setzen. || Okelie apartaute deku, baya prestau barik tau, piperra-ta, gatza-ta biar ixate ittu te ba.*

**prestu, prestue.** (PRESTU) Formal, honrado, -a, recto, -a, juicioso, -a.

**primerako, primerakue.** (PRIMERAKO) Muy bueno, de primera (clase). || *Primeraku da!*

**primeran.** (PRIMERAN) Estupendamente bien. || *Primeran urte dxok, bai! || Primeran nau, txarrik esteket-eta, ondo nau.*

**prisa, prisie.** (PRISA, presa-bat.) Prisa. *Prisa deko nahiz Prisi deko entzun dut. || Prisas doye Jose. || Prisa dabil orrek. || Arek usaba aberatza deke, ta esteko prisarik saltzeko.*

**prisaka.** (PRISAKA, presaka-bat.) De prisa. || *Biarriñ e prisa-prisaka iñori berba eitteko astiri pes!*

**prist.** □ **prist ein.** Hau baino gehiago txirrist ein esaten da Andere Goirienaren arabera. || *Prist einde ibiltten dana pospolu barik. || Prist ein? Ba priste, laban eiñ-edo. Emen bai, prist be esaten da ta prist bayo geidxau laban.*

**proba, probie.** (PROBA) Prueba, competición. || *Domekan etorriko dire ididxekin proba eitten karreterurik onenak. || Probie eon ei xan atzo Nabarrixen, da guk jakiñ estou ein. || Larraku da solte ta mendidxen dabixenak. Jeneraliñ e ba normalak. One besti tie ba saldi tirarakuk eta probarakuk esate dxakue oin ba. || Arrastan bai. Ori arran doyenien. Esate baterako, proban badoyes, arrastan esaten dabe, arridxe arran dabilrelako, arrastan esate dxako areri be. || Da proban dabillenari be, igul, jo ta jo ta jo ta jo ta eiñ es, da "Lusetasune artu dxok orre pe!". □*

**proban ein.** Competir. || *Bei mantie? Iños probarik ikusi dosu? Ba beidxeri, proban einde,*

*ixerdittute egoten diriñin lepun ipintte dxakena.* □  
**idi probie.** Arrastre de piedra (con bueyes), prueba de bueyes. □ **saldi probie.** Arrastre de piedra (con caballos), prueba de caballos.

**probalari, probalaridxe.** (PROBALARI) Participante en juegos de deporte rural.

**probaldi, probaldidxe.** (PROBALDI) Prueba, competición. || *Are gantxuk dire eskutan ibiltten diñak, tireka, gantxuek. Orrek probaldidxen eitteko gantxuek.*

**probaleku, probalekue.** (PROBALEKU) Probadero de bueyes. *Probalekuek engantxue izan dezake edo ez. Ik. engantxue.*

**probarri, probarridxe.** (PROBARRI) Piedra de arrastre de las pruebas. || *Proban ibiltteku arridxe, probarridxe.* || *Arridxe ipinttosu... Arridxe bakixu ser dan, probarridxe, es emengo arridxe. Probako arridxe.*

**probau, probetan.** (PROBAU, probatu-bat.) **1.** Probar(se) (un vestido...). || *"Majarik saus" esate dxako ba erropa bat probetan danin, edo ikusten danin-edo: "Ondo dekosu, majarik saus".* **2.** Probar, degustar, catar. || *Etzeko txorixu di, eurtenguk. Ondiño probau barik dekogus.*

**probetxu, probetxue.** (PROBETXU) Provecho. || *Probetxu ein dixuela!* || *Barrue txupau eitten deu (askidxe), te ganera be asten da, baya bai ganaduk jan eitten dau be, baya ixeten da probetxu bakue, edo ser esango neu? kalte eitten dabenerako.* || *Berbenie: probetxu bako bedar bat.* || *Landara eskasa bada be, esate su "Ipintxiñik etxekok orrek!". Se obie ipiñi bi da les, ba ipintxiñik estekola, se esteule probetxurik eser emongo-ta.* || *Prantzesak esate ben a txapel gorridxe eiñ eskero ganaduntzako estaula balidxo. Balidxo bai! Baya probetxurik estekola, a sustantzirik es.* || *Ididxe pai, olantxik e ein biar basan e, obra aundi bet-edo beuken. Ididxe, nire tiok e ididxe euki basen, basotik idi ekarteko, gero ba askanaldin. Ostantzin dana beidxe. Se beidxe deko probetxue, esni emoten deu. Ididxe esteko. Ididxe axe biarra bakarrik. Da amen e biarrik ididxentzakerik e es san dediketan basutatik oingo modun e tronguk ataterik es olakorik. Da eitte sana beidxe kin.*

**promes, promesa.** (PROMES) Promesa. || *"Promes bat ein deu", ba ori da geusa bat e agindunekue.* □ **promesa ein.** Prometer. || *Promesa ein deu Begoñara juteko.*

**propidxo, propidxue.** (PROPIO) **1.** Propio, específico. || *Ixetes a da, ixetes, propidxue.* **2.** A propósito, expresamente. || *Bakotxak beri ixengo deu, ta ademas propidxo ortakoxe einde ixengo da.* || *Besti, kiñu da ba begidxas ero orras, edo igul eskuas be. Baya kiñu da begidxas ein bi dana. Kiñu, propidxu, begidxas ein bi da.*

**proposiñoye.** (PROPORTZINO, proportzio-bat.) Proporción. || *Orren proposiñoyen au aundidxaue da.*

**prosesiñoye.** (PROZESINO, prozesio-bat.) Procesión (religiosa).

**puesta, puestie.** Posta, tajada o pedazo de carne. || *Puestak: ba esate baterako, emen estau baya, txarridxen puesti da, esate baterako, ba onenbesteku pe estire ixeten, baya puestak eitten dire, txarridxen puestak, gatza emote dxake, da gero gordeteko, berderik-edo esaten da alan jaten espada, ba eskeitte ipiñi, da siketu eitten da. Da puesti da ba satidxe, nai ixen lei urdeidxe, da ixen lei txalena be, txalen okeli be, da gatza artun de gero, ba eskei eitte sirin, oiñ eskei be esti eitten, eskei eitte sirien, da siketu eitte sirien.*

**puja, pujie.** (PUJA) Puja, licitación. || *Pujan dabis.*

**pujadore, pujadorie.** Pujador, -a, licitador, -a, persona que puja en una subasta. || *Pujadoriek: batek, esate baterako, nik pujetot soser, neuk gure doten objetu bat, da beste batek geidxau esaten batzo, ba pujadorie ba.*

**pujau, pujetan.** (PUJAU, pujatu-bat.) Pujar. || *Subastan pujau.*

**pulidu.** Pulir. || *Pulidu da garbittu geusa bat.*

**pulmoni, pulmónidxe.** Pulmonía. || *Pulmonidxe geixu da.* || *Biridxetaku hainbeste etxako esaten, pulmonidxe.*

**pulpa, pulpie.** Pulpa, residuo de la remolacha. || *Pulpie: ganaduri emote dxakena, erromaletxie txikittute.* || *Oin nik estakit pulparik ibiltten badabe, len geuk ekarte gendun.* || *Pulpie: erromaletxie siketute. Txikittute siketu, da eitten da gorde, baya emen eskendun eitten ori, ekarri eitte gendun pulpie, da ain karu be etzan ixeten. Da ekarri eitte gendun, da gero uretan beratú, da emote dxaken beratunekue. Igul ba artu botate dxaken nastaute, edo saidxe be igul, birriñe be igul nastete dxakon, da nastaute ba emote dxaken ganaduri.* || *Pulpie? Ba len geu pe kasteta gendun de oiñ estau kastauten, bedarra be pranku deu te. Pulpie da erromalatxias eitten dabe. Erromalatxie makiñias txikittuten dabe, txikittu, txikittu te ba*

*arexe satidzek, arixek, axe siketute. Da emote dxako beratute ganaduri. Emote gentzen geu pe. Da oin ba ikusi be esta eitten. || Pulpie ixeten da... estakitt oiñ eitten badabe, oiñ ikusi be esta eitten da, len e dendan ote san. Da ixeten deye erromalaxak txiki-txiki-txikittute, erromalaxak eta sakutan saltze sittun sera lantxik, babi lantxik.*

**pulpittu, pulpittue.** (PULPITU) Pulpito.

**pultzu, pultzue.** (PULTSU) Pulso.

**punba.** (PUNBA) Onomatopeya de caerse. Haur hizkerako hitza da. ☐ **punba ein.** Caerse. || *Punba ein deu. || Ume txikidxeri, da berbetan ikesteko dausenin, ba "Punba ein dot", edo "Punba ein dosu", esate dxaken umiri.*

**punbala.** (PUNBALA) Onomatopeya de caerse. Haur hizkerako hitza da. ☐ **punbala ein.** Caerse. || *Ume bat jeusten daniñ "A, punbala ein dosu?"*

**puntada, puntadie.** (PUNTADA) **1.** Puntada (de la aguja). || *Puntadie da orratzas eitten dana.* **2.** Puntada, indirecta con que se zahiere a una persona. || *Puntadie: bat asten daniñ burle eitten-edo, igul puntadatxu bota deutzo, suk gure estosune entzu ba, da!, puntadie.* ☐ **albora puntadie.** Punto al lado. || *Aspildu: josten, au olan bueltie artzie. || Aspildu? Onek, onek, onek albora puntadias, albora puntadias pasau, da orixe da aspiltzie.*

**puntako, puntakue.** (PUNTAKO) Sobresaliente, extraordinario, -a, excepcional.

**punte, puntie.** (PUNTA) Punta, extremo, vértice, cumbre. || *Mendi puntie. || Solo puntie. || Miñen puntie. || Piñun puntie. || Lapixen puntie. || Punte sorrotza. || Illunsar puntetik itxosue ikusten da. || Osiñe pentzate dot ixete sala eperdi sabala, olan punte estue, ori katxarrue. || Da naiku untze eundidxe ixeten da. Puntie be eukitten deu biribile, da bera untze estutues-estutues juten da, sartzeko, da punta estue eukitten deu betik, josteko goitti bera. || Bonak ixeten dire..., bonari eitte dxake..., asten dire pinporta payo aunditxuauek da puntan eitte dxake materitxu.* ☐ **puntes punte.** De cumbre en cumbre. Ik. *ganes gan.* || *Mendi puntes punte juten gara.*

**puntel, puntela.** (PUNTEL) Puntal.

**punteldu.** (PUNTELDU) Apuntalar. *Punteleu* ere esaten da. || *Kuarto atara bi dan lekun ormiri ipintte tzes..., ser esangot neuk?, joste ittue puntelak edo estaitt ser esate tzen, agik, age batzuk goidxe be sujetau eitten dabe, da arixe esate tze ori sertu, punteldu edo se esangot*

*neuk?, ori sestue, da ipintten dire ortik, emendik, amendik da olantxik eta taka-taka bera bajatu, da segidxen-segidxen-segidxen sestosko ormi eitten da.*

**punteleu, punteletan.** (PUNTELAU, puntelatu-bat.) Apuntalar. *Punteldu* ere esaten da, baina, antza denez, erabiliagoa da *punteleu*. || *Ormi puntelau. || Agie, olan obran dabixenin be, ba geldi egon deidxen betik, punteletie. || Ipiñi agi ta ba betik puntelau ein bi da arek eta sujetau artin. || Punteleu? Ba selan esangutala? Age bat e betik punteleti be bai. || Aldamiñu albañelena da, da punteleu esaten dabe beste batzuk. || Punteleti da, au jeusi biarrin badau, emetik ipinttie, da punteleu.*

**punterengo, punterengue.** (PUNTARENGO) **1.** Eminente, sobresoliente. || *Punterengu da.* ☐ *Esaterako, frutari buruz: || Bai, presidxu punterengu deko arek! || Punterengo jantzidxe da ori.* **2.** *Punterengue* baino gehiago *arantzengue* esaten da. || *Punterengue: goidxen dauna. || Punterengo etzi.*

**punteru, punterue.** Instrumento con el que se hace una muesca sobre la superficie que se ha de taladrar o agujerear. || *Punteru da e seinde burdiñan... Sulu eitteko taladru bakixu ser dan. A taladruk puntan, punteruas eitten batzesu ori, aulan onako lekun bata nai bestera jute dxatzu a, sain. Da punteruas ta! Markeu, an markatxu eitten deu, sin... da antxe markan gero eitten deu taladruk. || Ori punterue onek ibiltten dabena ixeten da, arotzak-eta. Punteru da e... sulue burdiñan punteruas ein biosu. Punteru esate tzeune, garridxe... onek e eskabadorak a, aras ibiltten dire ta-ta-ta-ta-ta-ta. A punteru esate tze areri. Emen mallukias eitten danari, punterue. Mallukias e eittosu burdiñe bat, punterue. || Punteru da burdiñan eitten dauna, punteru. || Punterue olan marketaku ixete san. || Broki ostantzin beittu se eitten deun. Amen espokosu e sulotxu einde, broki lelengotan esta an katitzen, olan ibiltten da bata nai besti. Amen sulotxu einde boukosu ori punteruas, punterutxuk eitten deu olakoxe igul-igula. Da gero an sulotxun inketen da brokie.*

**puntu, puntue.** (PUNTU) **1.** Punto (instante, momento). || *Ointxe da puntuen.* **2.** Puntual. Ik. *sasoidxen. || Puntuan etor da. || Puntu-puntun etor da. || Irurek puntun dire.* ☐ **puntuon.** En un instante, enseguida. Ik. *gerotxuau.* || *Puntuon da: oindik apur batera. || Puntuon jungo gara.*

**puntxeta.** 1. Estoque, florete. || *Puntxeta esate dxako..., seri esangot? Ganadu iltekuri be bai, da seoser punteletan dabenari be bai.* 2. Punzón para agujerear las abarcas. Ik. *abarka sididxe.* || *Aintxiñe abarkak etzin joste sittun aittek. Da sulu-ta eitteko, puntxeta ibiltte ben.* || *Da abarka sididxe ote san, baya etziriñ igula ixeten. Puntxeta lusie, sera, puntie sorrostute.* 3. Instrumento con el que se agujerea la tripa del ganado al que se le han acumulado gases. || *Puntxeta da beidxe pustute badau, ba sulotzeku.* || *Puntxeta esate dxako ganaduk ta deskoidun aixi-edo eitten badire, axe sulotzeku da puntxeta.* || *Sagar bat janda katittu, katittu saman, da iruntzi es ein. Da gero orrek, a pustuten doye, an esin deu..., ori pustu eitten da da gero errementeu. Da lagune egon balitz ordun an, da puntxeta sartun, a salbau ingo san.* || *Puntxeta da orrek ganaduk sulotzen diña aixetute daunin. Bai, puntxeta propidxu ixena..., puntxeta, oin beste geusa bat igul ongo da puntxeta esate dxakona. Puntxeta da e..., ori, ganetik deko porrut barrun e..., puntxeta..., a sartze dxako ganaduri barrure, aixi daunin, tripe ori, de arek atarate tzesue de bera besti bertan itxitte, kordelas lotute, arik eta aixi danak urten arte. Ueku isten dau, seinde falta berna olan eoti les, da a jo ta barrun sartze su da an geratzen da ta gero puntxeta atara. Aixik andik urtete tze.* 4. Aguijada, aguijón. Kasuren batean, *akulue esateko entzun dut, baina, horretarako, okulue da gehien korritzen duen hitza.* || *Puntxeta da, esate baterako, ganadu bat ibiltten danien-edo, ariñau ibiltteko-edo, ba ipintten dana puntxeta esate dxakola pentzetot nik.*

**puñeta, puñetie.** Masturbación (del hombre). || *Gorputzerako txarrena, debildu eitten deu orrek puñetiek.*

**pupu, pupue.** (PUPU) (haur.) Dolor, daño, pupa. Ik. *miñe.* || *Pupu deko.*

**purgatoridxo, purgatoridxue.** (PURGATORIO, garbitoki) Purgatorio. || *Purgatoridxue: arimak juten diña.* || *Purgatoridxoko arimak dirurik estabe biar, baya abadiék bi dabe.*

**purra.** (PURRA) ¡Pita! (voz para llamar a las gallinas). || *Purra, purra!*

**purruska.** (PURRUSKA) □ **purruska otzin.** Metiendo ruido con la boca, por ejemplo, al reir. || *Barreska dxak, purruska otzin dxabik a barreska.* || *Purruska otzin dxabik.*

**purruskada.** (PURRUSTADA) Resoplando, refunfuñando. || *Purruskada dxak beti.* || *Purruskada baten: "A be purrustada galanta ein dxok!".* Da *iguel segindun botzo: "Purruskada deutzek".*

**purruskadaka.** (PURRUSKADAKA) Resoplando, refunfuñando. || *A asarre dxak purruskadaka.*

**purrustada, purrustadie.** (PURRUSTADA) 1. Resoplido. || *Ganaduek purrustadie ein dxok!* || *Saldidxek, eta onek eitten dabe sarritten ori purrustadie. Baya ya puske, kantzauek putzek atarate ittu.* || *Txarridxek eitte ittusak purrustadak!* 2. Mofa, refunfuño. || *Purrustadie ein dxok makala!* || *Olan, barre eitten daniñ eitten dirin serak, saratak, edo ijuidxek purrustadak dire, barre purrustadak.*

**purrustadaka.** (PURRUSTADAKA) 1. Resoplado. || *Onek basurdak-eta: "Frrrrum!", eta "Kaguen, purrustadaka dxabik!".* || *Purrustadaka? Bai, uskerra bota eskerun.* 2. Refunfuñando. || *Igul astuk nai saldidxek edo orrek e fuuuuuu!, "Kaguen, purrustadi ein dxok!".* Da *personi be olanik igul e txarto ein tzena... edo esan guna gustora estaula bestigaittik, esate tzu igul "Bai, usaba purrustadaka dxabik".* □ **barreska**

**purrustadaka.** Riendo a carcajadas. || *Barreska purrustadaka egon dok.* || *Barre purrustadie? Bai, barreska da purruskadaka barreska.*

**purrut.** (Haur.) Cuesco, pedo. □ **purrut ein.** Hecharse un pedo.

**puru, purue.** (PURU) Cigarrillo puro. || *Metxeru guk esate gentzon areri. Alan einde, metxa gorridxe, da an ixotu te gero brasias sigarrue nai purue.*

**purus.** (PURUZ) A fuerza de. || *Biarran purus.* || *Ibillien purus.* || *Da ba egarridxe..., olan egarperi dana-pa, ixerdi asko-ta botaten danin: "Egarridxen purus ba edoser edaten da, ardau, nai ure, nai sardaue, nai txakoliñe".*

**puske.** (PUZKA) Resoplado. Esaterako, aldatz gora arnasestuka ibiliz gero halaxe esaten da. || *Puske asi da.* || *Puske doye.* || *Kantzaute puske.*

**pusla, puslie.** (PUSLA) Ampolla, quemadura. || *Kallue iguel eittosu atxurras-edo ibiltte. Kallue da, gogortu eitten da kallue. Da pusli ein de batera eitten dana, puslik urtetten deu. Pusli guk arixi esate tzeu.*

**puslatu.** (PUSLATU) Ampollar, producir ampollas. || *Puslie: esate baterako, atzamarra solittute, ta materidxe einde dau, da "Solittute deko, puslatute dau".* || *Persona bat e erre eskero, puslatu eitten dire.*

**pustilla, pustillie.** (PUSTILA) 1. Burbuja. || *Pustillak: euri saparrada eundidxe danin, urteten dabe arek, selan esangot neuk?, euridxe goitti bera joten daben lekun-de urteten dabe alako pustillak, tantak.* || *Pustillak esate dxake, selan esangot?, pustillak dire euri saparrada aundidxe daunin be, tantak gogorrrak diriñien, urteten dau pustillak, gero apurtu eitten dire, estire gelditzen, da irteten dabe, tanta gogorrrak diriñien, euridxe joten daben lekuen, ba pustillak urteten dabe, gero ba des eitten dire.* || *Pustillak: euridxe asko, indertzu eitten dabenin saparradie, orrek beyen ganin, tanti jeusten dan lekun, gero ba des eitten dire.* || *Pustillie? Ba ure, euri saparradi daniñ uretan urteten dabe arek. Da gero urten ala, ser esangot neuk? Apurtu eitten dirilla?* || *Pustilli da a be uretara urteten deu ba edoser botata. Areri pustillak. Euridxe be bai ataten deu pustilli.* 2. Ampolla, quemadura. Horri, berez, *puslie* esaten zaio gehienetan, baina kasuren batean edo bestean pustillie ere entzun dugu. *Anpollie* ere esaten da. || *Bai, anpollie ori be bada, Baya ori anpollie erderaskuri geidxau esate dxako. Ba tire, pustilli baya geidxau eman anpolli esaten da.* || *Urrutute? Asala kendu te ba aragidxe agertu, an pustilli daun lekuen aragidxe.*

**pustu, pustuten.** (PUZTU) 1. Inflar, hinchar. Ant. *ikoldu.* || *Globue pustu.* || *Pusiki da txalak, eta txarridxe pe eukitten dabena. Len mutikutan, oiñ esta ainbeste usetan, baya len karnaseruri esaten: "Es pikau gero pusikie!". Atara, da pustu eitten da.* || *Arku esate tzeu areri tripie asten dxakonari, arkue, an e pustute deuna be "Arkue asi dxakok".* 2. Hinchar el estómago del ganado cuando se atragantaba con algún alimento como el nabo, o cuando comía hierba mala. || *Pustu-da, ori ganaduek eitten dire, jateko txarra edo artu, benenue artzen badeu be, nai... len nabo asko eukitte san emen, nabue saman inkete badxakon pustu eitten sirin da es atzera, es eurrera, da gero komeridxe egote sirin.* || *Puntxeta da beidxe pustute badau, ba sulotzeku.* || *Esate baterako, bedar e txarra janda edo artzen badeu nabu-edo, sagarra nai edoser saman, pustu eitten da, da pustu te errementau..., are lobiri errementau ein tzo untxe pasa dan illien e olako*

*bei batek sagarra artun da iñor egon es an da pustute errementau.* || *Pustu esaten da iguel aixie, aixetute badau be: "Pustute dxok estomague".* || *Beidxeri be kalte eitte batzo seosek, pustu eitten da.* || *Ori sekule bedarra be txarra san, asko emoteko. Sekule bedarra berun emoten badxakon pustu eitte san ganadu.*

**putekeridxe.** (PUTAKERIA) Putada. Berri-emaile baten arabera, berba hau gizezkoek baino ez dute erabiltzen.

**putz, putze.** (PUTZ) 1. Soplo, soplido. || *Dultzeiñie len egote san. A putz asko biste ban orrek dultzeiñik. Ori joten gitxik eitte ban.* || *Bart ein ttus aixie putzek!.* || *Aixiek dabixek putzek!* || *Aixik putzek ein dittus.* || *Atzo edo arañegun edo noix ixen sen? emen galantak ein sittun putzek.* 2. Cosa podrida, floja. □ **putz ein.** Soplar. || *Geuse bat beru daunin, esnie-edo, beru daunin-edo, saldie, edo olakorik: "Ein putz, ein surrut.* || *Putz!* || *Txiribitue: putz einde joten dana, sirri-sirri.* □ **putzek ein, atara.** Resoplar. Ik. *puske.* || *Saldidxek, eta onek eitten dabe sarritten ori purrustadie. Baya ya puske, kantzauek putzek atarate ittu.* □ **aixe putza.** Ramalazo de viento. || *Ointxe be badire gitxiau edo askuau aixen putzak.* || *Axe putzak dire, euridxe eingo deu.* || *Axe onek dabix putzek!*

**putzesko, putzeskue.** (PUTZEZKO) Hinchado, -a. □ **putzesko pelotie.** Pelota hinchada. || *Aintxiñe ba pelotiti putzesko pelotie esate dxakon.*

**putzittu.** (PUTZITU, puztu-bat.) Inflar, hinchar. || *Putzittu ixu globue!* || *De puxiki eitten da txarridxe iltten danin, ataraten danin putzittu, da aundidxau eitten da putzittute,*

**puxike, puxikie.** (PUXIKA) 1. Vejiga. || *Pusiki da txalak, eta txarridxe pe eukitten dabena. Len mutikutan, oiñ esta ainbeste usetan, baya len karnaseruri esaten: "Es pikau gero pusikie!". Atara, da pustu eitten da.* || *Txorixuk ein, de puxiki eitten da txarridxe iltten danin, ataraten danin putzittu, da aundidxau eitten da putzittute, da lusero euki gure diriñiñ e txorixuek, ba siketzen daniñ a puxikie, putzittuneko puxikie, ba sartzan dire ba txorixuk, baya iños eskendun sartu txorixu siketu bakorik. Siketu e txorixu pe, da sartzan siriñ antxe.* 2. Enredador, -a, embrollador, -a. || *Puxikiori! (lorriñe)*

#### 4. R letra

**radixu, radixue.** Radio.

**ramola, ramolie.** Gramola. || *Soltie, trikitrikidzek eta gero gure denpora ramoli egon san, da gero soñu-jotzailla pe bai. "Ointxe jo bi dau pasadoble", "Ointxe jo bi dau tangué", "Ointxe jo bi dau baltza", da bakixu.*

**raro, rarue.** (ARRARO) Raro, -a. || *Raruau da! Beren gustue ñok ein be esi lei ein! || Ori raru da. || Personie gadute dau odola ure eiñ eskero. Geixu ixeten da ori baya. Diferente geixue. Batzuk geixue, ba odolak ure ein dxakosela. Ori geixo raru da ixetes e.*

**rasa, rásie.** (ARRAZA) Raza. Ik. endie. || *Askonarrak? Orrek txakurkidzek dire ixetes, eurok. Txakur rasa antzekuk. || Rasa onekue. || Rasako txakurre. || Da okillan rasi da. Okilla da aundixaué, baya okillan rasi da txamillotxa.*

**ritxe.** Cierta tipo de pan. || *Ogi ritxek arek txikidzek ixete sirin. Oiñ ogi ritxik esan be esta eitten. || Jeneralien dana biribille ixete san len aintxiñe ogidxe. Panaderidxetan be bai. Da oin daus klase gustidzek. Oiñ eitte ittue olakuek, da ritxe be bai, eitten dabe, baya ritxi esta esaten.*

**rubidxe, rubidxie.** Rubia.

**rubidxu, rubidxue.** Rubio.

**rubilloye, robilloye.** Robellón (*Lactarius deliciosus*). Sin. mikalue. || *Rubilloyek setak e, seta oridzek dire orrek, da esate dxake mikalu pe, da esate dxake mikalu pe, da esate dxake rubilloyek. || Robilloye seti da. Robilloyak arek gorriskak urtetan dabe mendidzen. || Perretxikue: urdin perretxikue, urritxa perretxiku, da robilloi be perretxiku da orreri perretxiku aundixauri esate tzeu perretxiku. Onguri be 'seti' estetzeu esaten. Perretxiku.*

#### 5. S letra

**sabai, sabaidxe.** (SABAI) 1. Pajar. Etxe batean sabai bakarra badago, *sabaidxe* esaten da beste barik, baina bi badira *beko sabaidxe* eta *sobre sabaidxe* bereizten dira. Ik. *beko sabaidxe, sobre sabaidxe.* || *Sabaittik eskei.* || *Kamarotie aurrin dau esta?, kamarotie onen etzn parien dau, da gero kortie dau or, da kortien ganien dau bedar sikue, beidzen bedar sikue: axe da sabaidxe, bedar sikue-ta gordetekue, galtzue-ta gordetekue.* 2. Paladar, cielo de la boca. || *Ago sabaidxe.*

**sabal, sabala.** (ZABAL) 1. Ancho, -a, amplio, -a, extenso, -a. || *Mariapostolue ixaten da lora*

*sabaltxu bat, asulka suritxu bat, da erdidxen urtete tze diadenak, edo arek antenatxuk. || Ego puntetik ego puntera metro bat ta larogetabost sentimetro ekosan sabal. || Sesiñe iltte san negun, da aren sesiñen narru, goigurun —kamariri ba goiguru esate tzeu te— josi eitte san, sabal-sabal ipiñi, da josi, untzakin, olan asko bari pe, ba ilbañin les, apartin les, untz puntatxuk e bera sabalik eukitteko beste. || Txikidxeri be igul esate tze "Etxekok alture aundiri paya altu beste sabal dok".* 2. Tranquilo, -a, holgado, -a, a pierna tendida. Ik. *nasai.* || *Oyen sabal-sabal dau.* □ **sabaletara.** A lo ancho. || *Lusetara nai sabaletara.* □ **sabal-sabal ein.** Ensanchar, extender. || *Aren sesiñen narrue eitte san goidxen, kamaran sabal-sabal ein, tira-tiran ipiñi te josi untzekin.* □ **sabal ibilli.** Estar en boca de todos. || *Oin sabal dabil.* □ **sabalien.** A lo ancho. || *Sabalien onenbeste da.* □ **sabal-sabal ipiñi.** Extender. || *Aren narruek sabal-sabal-sabal ipintte untzikin, taka-taka-taka-taka-taka josi eitte san narrue dana.*

**sabaldu, sabaltzen, sabalduten.** (ZABALDU) 1. Anchar. || *Legana da ori. Asala ligor-ligor eitten da, ba ori inketakue, sabaldu eitten da.* 2. Abrir. || *Eskapie esate dxake, esate baterako, itogidzek nunondik-e, ure botako baleu iturridzek sabaltzen estan lekutik. || Au etarteko ati sabaltzen danien, ba etartetik beittu esan leidxo ba, ori ati sabaltzen danin kanpokue, ataurrie. || Begi trabesa: begidxe asko sabaltzen estabena, begi erdi txikidxe dekona-edo.* □ Hemen 2 eta 4 esanahien adibideak agertzen dira nahasian. || *Jeneral keirik baserridxen esta sabaltzen, denporali-edo egon esik, tximinidxen gora jutun da ta. Baya ostantzin ba, keye olan sabaltzen, iños sabaltzen da, denporali-edo, aixi-edo daunien, da keye sabaltzen da, ta ba ordun ati sabalteu, kanpoko atie, edo au atie, gelakue, sabaldu, da au gelako bentani sabaltzeu, da keye beres eskapeten da.* 3. Abrir, desplegar. || *Erropie sabaldu. || Atie sabaldu. || Lorie sabaldu. || Intxaur moskolie sabaldu. || Lakatza sabaldu eitten da garaunek urteteko, da ago sabalik ordun egoten dire. || Errentaintxu bet ein du, ure pasa deidzen, edo jun deidzen, edo solun sabaldu esteidzen. || Olatak opiltxuk ixate sirien, sabaltzen sittuen domeka, da jai egun gustitan sepulturetan. || Lori emoteko dauna, lelengo pipittan plantetan da, da gero ba sabaldu eitten da, da lorie. || Kirikidxolatza biribildu eitten da, eser estrapesurik, da eser topau eskerun, da*

eser ikusi eskerun, a biribildute gelditzen da, arantza utzin. || Baya kirikidxolatza bakitt selan biribiltzen dan, ikusitte dekot. Uretan sabaltzen da, uretara botata. 4. Esparcir, dispersar, desparramar. || Satza sabaldu. || Ori notixidxe sabaldu da. || Da belaidixe esate gentzon, ser esangot neuk?, egur bat, puntan beste olako ipintte dxakon, da aregas ba brasie sabaldu eitte gendun laban, daniñ egon deidxen su, labie berotu deidxen ba ogidxe erreteko modun. || Jeneralin, ba kortakuri "Simeurre ataraten" etxak esaten jeneralien, "Satzat ataraten bayo". Baya soluen sabaldukeran esaten da bidxetara, "Simeurre sabaltzen", ero "Satzat sabaltzen". || Da gero solora botate ben karie, palias sabaltzen ben burdittik, danin-danin-danin. || Kardulatzak eukitten daben lorie ona esta ixeten, sabaltzen bada, asko urteten deu te. 5. Repartir. || Dirue sabaldu. 6. Amanecer, despuntar el día. || Geur ariñ-ariñ esteu egune sabaldu. || Egune sabaldu deu.

**sabalera, sabalerie.** (ZABALERA) Anchura. || Bittartik e onexen tamañoko sabaleri eukitte ban. || Es sabalerie, olako sabaleri eukitte ban. Olako estutxu barik, sabalau. Esan gutena es sabala, baya bastante sabaleri eukitte ban. || Onen sabalera ingerukue da. □ **sabaleran.** A lo ancho. || Sabaleran onenbeste da.

**sabaletar, sabaletarra.** (ZABALETAR) Natural del barrio de Zabaleta.

**sabalik.** (ZABALIK) Abierto. || Atie sabal-sabalik dau. || Ati erdi sabalik dau. || Kakarraldu egan be ibiltten da, ta asko atik-eta sabalik egon eskerun, asko igerri barik barrun be sartuko litzake. || Nok esango ban e beidxe skillatan gora? Ba ati sabalik, da arek useiñe artuko ban. Da skillatan gora beidxe, da ilde topau ben.

**sabalka, sabalkie.** (ZABALKA) Ancho, -a. || Ixeten da atxurkuli lakoxie, baya atxurkulik eukitte ittu, atxurren eitteko, arek agiñek, edo ortzak eukitte ittu apur bet biribille parik, sabalkak eukitte ittu, Da otatxurrek eukitte ittu —an kortan ibiltteku ixete san— biribillek, biribil-biribil.

**sabaloi, sabaloidxe, sabeloidxe.** (SABELOI) Costra que los niños pequeños tienen en la cabeza. Emiliano Arriagak *sabeloy* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Costra que sale a los niños en la cabeza. Es verdaderamente extraño el significado literal de dicha voz (que tiene la misma acepción en castellano que en bilbaíno), pues su traducción al

castellano resulta *suciedad de vientre...*" || *Sabaloidxe ikeute egoten da, umik eukitten dau ori.* || *Sabaloidxek ugerra les urteten deu.* || *Sabaloidxe: ume txikidxeri-tte. Beres kostri be esta, ori jabonau eskerun, ba kendu eitten da, da ba jabonau, ta jabonau eiñ eskerun, eguniñ egunin, edo egun biri baten, ume txikidxeri be etxake eitten sabaloirik.* || *Bueno, sabaloidxek saidxe lako atalak emote ittu.* || *Buruen eukitten dabena, umik jeneral eukitten dabe olan kaspatxu lakue, da ori da sabeloidxe. Ori kentzeko, ba ser esangot neuk?, baseliñi-edo emote dxako buruen. Kajatxuk ote siren antxiñe. Da sabaloidxek gorantz urteten deu, artzaldiñ-edo, urrengo eguniñ-edo, orrasidxas gorantz-gorantz eitten deu, da orrasidxe kendu eitten deu.*

**sabaltasun, sabaltasune.** (ZABALTASUN) Comodidad, tranquilidad. Ik. *nasaittasune.*

**sabalune, sabalunie.** (ZABALUNE) Tramo ancho, parte ancha. Ant. *estuunie.* || *Sabalunie? Bai, sabalunie, amen eskatzin be sabalunie.*

**sabel, sabela.** (SABEL) Vientre, barriga; tripa. Ik. *estomague, tripie, urdeille.* || *Sabela bete deu, ori ondo dau!* || *Sabela tripiri esate dxako. Emen korrintiñ esta esaten sabela, baya ba aitzen da ta ba noixipein batzuk e soltau eitten dabe sabela.*

**saborreri, saborreridxe.** (ZABORRERIA) 1. Menudencia, pequeñez, minucia. || *Saborreridxe-eta.* || *Saborreridxe pillau.* || *Saborreridxe? satidxe, eutze edo olan, dana ya menostute deun geuse bat; saborreridxe da menosak, geuse menosa, sati txikidxe-eta. Da olanik ikusten bosus lagune pe, txikitxuek, da eskasak-eta: "Dana saborreridxe!"* 2. Despojo. || *Arri lastrie, bai, esate tze, lastrie, a saborreidxeri esate tze lastri.* □ Ume taldea dagoanean ere esaten da: *Saborreridxe pilleute.*

**sador, sadorra.** (ZADOR, zidor-bat.) Sendero. *Bide sidorra nahiz bide sadorra esaten da Nabarnizen.* || *Bide-sadorra da lagune pasaten dana, esate baterako, bidie doye amendik, da lagune pasetako, urrau artzeko, sadorra.* || *Jeneral, olan, noberantzako pasu bayo besterik estaun lekun: bide sadorra.* || *Len oiñes jun biste gendun guk. A bidie barridxe da. Len sadorra. Batzuk sidorra esate tze ta guk sadorra esate tzeu. Da sadorrin gora jute san. Da bidxekin juteko bidi eukitte ben ardauek-eta altzetako-ta. Bide txarra! Oin, jolin, oin kotxekin juteko moduko ori deke. Bide ona. Ba len jentetan!*

*Erremeridxa itzelak! Iru korro, soñu jotzailak euren lekuk artute, bakoxari kobretan. Oiñ esebes, oiñ e dana lorriñe. Oiñ estau olakorik. Ba len jente asko.*

**sagar, sagarra.** (SAGAR) 1. Manzana. Ik. *aleman sagarra, angis sagarra, baso sagarra, billafranka sagarra, boskantoi, erregiñetie, goldena, goraberak, gorri sagarra, inpernu sagarra, kanie, kurkubittie, limo sagarra, madari sagarra, masandei sagarra, mingañie; san juan sagarra, san pedro sagarra, txarbie, urdin sagarra, urtebetie.* || *Sagar asala.* || *Sagar ustela eta sagar sindue.* || *Sagar errie.* || *Sagar merdule.* || *Sagar garratza.* || *Sagar gasie.* || *Sagar ille edo motela.* || *Sagar landarie.* || *Labakada sagarra.* || *Sagarran konpota.* || *Sagarra parrillan erre.* || *Sagarra usteldu.* || *Sagarrak ederrak daus.* || *Sagarrak arreibidue deko.* || *Sagarrak kokue deko.* || *Oiñ errime galdu dire orrek, aintxiñeko sagarrak, ya rasie galdu ein da ori.* 2. Manzano. || *Sagar arbolie.* || *Sagar txerbidxe.* || *Sagarrasko ejie san txistu elegantiena jote bana.* || *Sagarrak eukon adar siketunekue, adar sarra.* || *Aintxiñe sardau eitteko, sagar gasie bi ixete san, ille.* □ **sagar eperdidxe.** Pie o base del manzano. || *Karias e surittu eitte sin bera sagar eperdidxe, kokorik eta eser sartu esteidxon.* □ **sagar kokodune.** Manzana que tiene gusano. || *Sagarra kokuas dau, kokodune. Da len e ba olako kokodune pentzeu bes. Plasan nok artun olaku gero! Ikuste tze kokuna ori sulu edo besti ta.* □ **sagar landarie.** Esqueje de manzano. || *Anaidxi te bidxok jun giñen sagar landara ekarten.* □ **sagar moskolie.** Manzana de mal aspecto o mala calidad. || *Sagar moskoli bai. Moskoli da eskasa. Txikidxe-ta moskoli esate dxako alakuri, beti iguel sagar ona ero edarra esate dxako. Da olako txikidxe ero errie-ero, "Sagar moskolak artu sak".* || *Da sagarra pe bai, usteltzen dutzen igul: sagar moskolak.* □ **sagar muskiñe.** Manzana que se deja mal comida, desperdiciando mucho. *Sagar mutxikiñe ere esaten da.* || *Muskiñe? Olan geuse ondakin bat, se sagarra be erdi janda daunin, sagar muskiñe.* □ **sagar mutxikiñe.** Troncho de la manzana. *Sagar muskiñe ere esaten da.* || *Mutxikiñe: sagarra edo madaridxe janda, a gelditzen dan ondakiñe, a jeurtitzen dana.* □ **sagar ondue.** Cuajo, raiz que queda tras cortar el manzano. || *Sagar ondue ixeten da ebeitte gero,*

*sagar onduk dxasak an.* □ **sagar umaue.** Manzana madura. || *Sagar umaue: ori da ya eldute dauna, da eldute bakarrik es, sagar umaue da ya goigurun, edo kamaran dauena ba eldu-eldu einde, a useiñe botaten daunin, sagarrak umautute daus.* || *Sagar umaue orittutakue da, ondo eindakue.* □ **baso sagarra.** Manzana silvestre. || *Baso sagarra: estittagak, sagar estittagak.* || *Baso sagarra da ba e... Or egon san etze baten baso madaridxe basuen artue ixen salako. Baso sagarra da basotik datorrelako. Basoti dator da gero plantetan dosu suk, baso sagarra. Osea an deko sustreidxe, basuen dekolako sustreidxe, baso sagarra.* □ **baso ein.** Enselvar, embosquecer, ensilvecerse. || *Baso eindde dau terrenue.*

**sagarpe, sagarpie.** (SAGARPE) Bajo el manzano. || *Sagarpie.*

**sagasti, sagastidxe, sástidxe.** (SAGASTI) Manzanal. || *Sagastidxe ipiñi.* || *Sastidxe da sagar asko deun ori.*

**sagu, sague.** (SAGU) Ratón. || *Saguk atrapatoko tranpie.* □ **sagu abidxie.** Nidada de ratón. || *Sagu abidxe asko egoten dire motatan.*

**sagusar, sagusarra.** (SAGUZAR) Murcielago. || *Sagusarrak kobatan-da egoten dire orrek. Gu len mutikotan jun orra, beko kobara, da arri bittartien atrapatzen gendusen orrek sagusarrak.* || *Sagusarrak eukitten dabe telie sedasku lakue.* || *Da au e gabas ibiltten dana sagusarra. Aren ixena bakixu? A igul e illuntzetxun jun pasiun Lekerikera-edo, ta ure daun lekun e burun eurretik eta danin pasauko dxatzu. A da sagusarra.*

**sai, saidxe.** (ZAH) 1. Salvado. || *Artun saidxe, garagar, gari saidxe.* || *Saidxe da asala, despojue.* || *Saidxe da garaunen asala* || *Garidxeri lelengo saidxe kentzen dxako, errotaridxo ta, gero birriñe, da gero eitten dogu ogidxe.* || *Ogidxe eitteko, lelengo saidxe bayek kentze tzo, da gero birriñe. Da gero garatzen da urun fiñe, ogidxe eitteko.* || *Baye ixeten da urune pasetakue, uruneri saidxe kentzeko. Baye estu-estutxu ixaten da, alanbrada estu-estu ixaten da, da areri urune pasetaxo, ta sairik etxako pasetan.* || *Saidxe da errotan kentze tze garidxeri nai arturi ganekue, asala; axe da saidxe, ganeko asala, barruko barik.* || *Saidxe artune ixen lei, da garidxena be bai.* || *Da batzuk eitte ben ba sai geidxaukue, areri tremesa esate dxakon.* || *Saidxe san atal aundixae. Da birriñe san seye. Da oiñ*



*e saidxe eskatzen dxako danari. Oin birriñik iñok e aittetu bes. 2. Caspa. || Bueno, sabaloidxek saidxe lako atalak emote ittu.*

**saidxerra, saidxerrie, saidxarrie.** (SAIARRE) Especie de milano. Emiliano Arriagak *saipardo* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: “(Bilingüe de *sai*, *buitre* y el castellano *pardo*) Traducción incompleta del e. *sayarre* (*arre*, *pardo*), una especie de *milano*, que también este significado tiene el vocablo”. || *Badau beste txori ba pe, arranun besteko aundidxe estana, olan subik-eta jate ittuna: saidxerrie. Badau beste bat, saidxerrie bayo txikidxaue, mirue dana. || Saidxerrak dantzan asi dosak eta uriona ona ein bi dxok. || Or dabis saidxerrak sasi artien. || Saidxarri da txori aundi bat, txitxak-eta erute ittu. || Mirue, da miru txikidxe? Nik pentzetot alkarren antzekuk dirila bidxek. Da gero beste bat tau orre payo aundidxaue, saidxarri esate dxakona, baya esta asko ikusten. || Saidxerri be bada, Batzuk saidxerri esate tze, bestik albixarrixde. Iguel berton ausun be, igul Bollarre pe igul esate tzon saidxerrie, da guriñ e beti amak e “Albixarrixdek ollue jasku!” te estai ser da beti..., gu geuk, ba albixarrixde beti. Da beste batzuk esate tze..., gabilloye be esate tze.*

**sail, saille.** (SAIL) **1.** Terreno, parcela. || *Lur sail bet. || Mota saille. || Solo saille. || Iru sail dekeus or. || Lur saille? Solo bateri be bai, mota bateri be bai, baso bateri be bai, lur saille. || Lur saille deko. || A (prantzesa) gero asittu eitten da, da askok eitte ban asidxe etziñ artun. A siketzen itxi, sail bat, da siketutakun, da garandu. 2.* Gran cantidad. || *Ño, sail eundidxe jak emen! || Arlo andidxeri saille, asko bada saille. || Ak jorratu dxok arto saille! || Ño, ak ebei dxuk bedar saille!* **3.** Tarea, trabajo. || *An dak saille galanta! || Saille ederra dxok are pe eitteko! || Saillien asi biku (Tendremos que empezar a trabajar).*

**1 sain, saiñe.** (SAIN) Grasa de peces, que se utilizaba como líquido para alumbrar. || *Saiñe? Bai, entzu ot. Da ori saiñe esate dxako petroliun e argidxeri. Edo len saiñe egote san, onek argidxek-eta egon orduko neu pe esautu naben. Ixete san e..., likidu ixete san da nik estaitt e..., ixete san..., aparteku ixete san edo ixete san aparteku estana. Nik esautu naben saiñe, or argidxe eitte genduniñ e. Saiñe esate dxakon da saiñegas argidxe eitte gendun. || Saiñe ekarri eitte san, seinde petroliu lantxik. || Saiñe ballenien koipie da. || Saiñas eitte san. ||*

*Kursulue: etziñ egoteko. Ori, saiñe esate tzen berari botate dxakonari, da sue olan bueltatxu eitte ban, baya ba dana dala, arexas konpontze giñin be.*

**2 sain.** (ZAIN) **1.** Aguardando, esperando. Ik. *begire, itxeitten. || Sain nau. || Aren sain nau. 2.* Vigilando, cuidando. || *Ardi sain dau mendidxen. || Bei sain dau mendidxen.*

**3 sain, saiñe.** (ZAIN) Vigilante, guardián, -ana, cuidador, -a. □ **ume saiñe.** *Ume jabolie baino gutxiago esaten da.*

**saindu, saintzen.** (ZAINDU) Cuidar. || *Umei saintzen jun da. || Goitxidxen labrantzie ondo saintzen dxue. || Saindu es eittiagaittik. || Aingeru jaboliek saindu gaittu. || Da ak e biarrik e es eban berak eitten, golperi pe. Arexek ardidxek saindu te... Alper itzela san, bueno! Pastoriek jeneralin dire alperrak, golperi pes. || Ollolokie: geusa epelari. Orrek miiiii-miui "Olloloki laku dok ori!". Ollolokak ibiltten dire klo-klo-klo-klo! txitxa saintzen ba, da olloloki lakue. || Ba, atxurras len seintzen beti. Onan atxurre artun, da plantau onduen, da jeneralien juten dabe eberdidxen amabidxen bueltan, da euskidxek sartu eidxeran olan, goixien be goixetik. || Garidxen lastu asaue da. Da ibiltte san ba..., eitte san ixotu, da neu pe asko estakitt a ibiltten, da arek eukitten deu lokaiki bat, garidxek, da arixas lokaikidxas saindu eitte san sue, aundidxeidxe es, txikidxeidxe eiñ esteidxen; da arixeri esate dxako suxidxe. || Luto bankuek oin be badas. Oin lengo modun estire, baya len lutu dekona eurreko bankutan egote san lutue saintzen, gixoneskuek, da kapak jaste sittun. || Bai, gabas saindu ein bier ixeten da txondorra. Txondorra esate dxakon. || Txaboli ein, txabolatxue, lo eitteko. Da saintzen oten dana, antxe txabolatxun lo eitte ban. || Txondor txaboli da txondorra saintzeko txaboli.*

**saitze, saitzie.** (ZAHITZA) Gran cantidad de salvado.

**saka.** (SAKA) □ **saka ein.** Empujar, apretar, oprimir. || *Mankala: egote san anditxik onaxeque, bankue, da su ederra eitte sanin, de negun-de, otz daunin-de, unik estimau ibiltte ben banku ori, alkarrerri saka-saka einde: mankala. || Ipintte dxakon serari goitti bera, ganaduri saka aundidxeidxe emon esteidxuen, ipintte dxakon, sokias lotute ipintte san.*

**sakada, sakadie.** (SAKADA) Empujón. || *Ein sakada bat ta jaurtik ori! || Sakadie emon tzo. ||*

*Sakadie ein deu. || Sakadie: olan sakatute dxakona beste bateri, sakadie. || Eidxosu sakada bat, ia arranketen badeu!*

**sakaka.** (SAKAKA, bultzaka) Empujando, a empujones. || *Saka-sakaka ibilli da. || "Besaka eitten deu": alkarrerri sakaka les ibiltten diriñak. || Besatiri da besaka eitten dabena, bata bestiri sakaka ixeten da besatie.*

**sakan.** (SAKAN, bultzaka) Empujando, apretando, oprimiendo. || *Da eitten da librin be, pilleute, tapata euki, orras, plastikukin, arnasarik esteidxen artun. Gu pe len beti eitte gendun amen. Ekarri or da tratorkadi, da sakan, tratoras sakatu. Da sakatu, sakatu, sakatu, sakatu ein kuadrin de gero plastikue ipiñi, da aixirik esteidxela artun albutatik.*

**sakape, sakapie, sekapie.** (SAKAPE) Refugio bajo el alero de un tejado. Berri-emaile baten arabera, gazteek gaur egun ez dute hitz hau ezagutzen. || *Sakapie tellatun aspidxeri esate dxako. || Sakapie: or metro bat-edo eukitte dabe ba, iguel ormatik kanpora. || Sekapie: aspidxen urik sartzen estan lekuen, tellatun, urik sartzen estan lekuen. || Sekapie ba euririk sartzen estan leku da. || Sakapie orreri tellatupiri esango tze. || Sakapiñ e itxi deu. || Sakapin dxekosak abidxak. || Amen ittusuri deku ba, a sakapi esate dxako areri.*

**sakar, sakarra.** (ZAKAR) Brusco, -a, aspero, -a, desagradable. || *Sakar-sakar ipiñi. || Sakarra: drogan dabillenaïttik, agirike eitte dxakenin be, neu pe esan tzet mutilleri baten bayo geidxauten. || Sakarra? Bai, persona bat, dana..., beres dana... se esangot neuk? Normal ibiltten estana-edo. Jenidxo txarra dekona. || Erantzun sakarra.*

**sakatu, sakatzen.** (SAKATU) 1. Pisar, apretar. || *Enbragiri sakatu neutzon. || Ardidxe pe, gastaña munteidxe, libre baeuen, ankakin sakaute, musturre edo sakaute, garauk topeu ta jan eitte ben. || Ikola: ueku les, ser esango tzut pa, olan sakau, te blaust eitten da ikule. 2. Empujar, henchir, oprimir. || Kotxiri sakatu. || Gogor sakatu orreri bera! || Sakatu oneri! || Gero sakatu eitten dxako, traktorak sakatzen dxako. Plegaute egon bidau, aixirik estau artu biar. || Sibuke? Selan esplikeuko tzut ser dan sibuke? Sibuke aintxiñe geu pe eitte gendun umik ixen giñiñin. Soka bat lotu or, agiri nai burdidxen partikiri tte sibuke ein, bateri bestera, batak*

*sakatu te besti sibuke. □ ederra sakatu. Engañar. || Ederra sakatu ou!*

**sakatu, sakatue.** (SAKATU) Compacto, -a, denso, -a. || *Ogidxek eitte sittuen... ba ritxek, da fotak. Fota apartekuaux ixeten da, seinda ser esangot neuk?, ritxe bayo sakatuaux ixeten dala fota.*

**sake, sakie.** (SAKE) Saque (de pelota). || *Sakie atara. || Batzuk sakan eitten dabe errastue. || Atarik sakie euk!*

**sakero, sakerue.** (SAKERO) 1. Gorrón, -ona. Ik. *txupadorie. || Sakerue: bestiña txupeten dabilleniari. Ba iguel e, orrek e juten da bat edo bi juten di, da beti batena eitten, gastau. A besti txupadori esate tze. || Sakerue da geusa bat e ba... Se esango tzu pa? Txupetan bestiña dabillena ero olako. || Sakerue: bestiñak ataten dabillena ero olan. 2. Ladrón. 3. Sacador (en el juego de la pelota). || *Da sakeru beittu! Pelotan be sakeruk oten dire! || Ostantzin, sakerue frontoitian pelotaridxeri esate tze sakerue. || Pelotaka sakeruk oten dire.**

**sakero, sakerue.** (ZAKERO) Persona que trata en sacos. Berriemaile batzuek erabili egiten duten esan didate, baina beste batzuei arrotz egin zaie. || *Sakerue? Saku batze ittuna? Bai, noixipeiñ etorten dire, saku batze ittula ta noixipein.*

**sakil, sakille.** (ZAKIL) Pene. Nabarnizen gutxi erabiltzen da berba hau. Ik. *pittiliñe, pittue.*

**sakon, sakona.** (SAKON) 1. Profundo, hondo. || *Sakon-sakonien. || Leixe sakona. || An sakonien altza asko dao. || Sakona galanta dxekok. || Luperidxe: euritti ein, de euridxek olanik lur sati bat-edo mobiduten dabenin-edo, olan sakoneruntz-edo jeusten danien, "Luperidxe ein deu". || Sakona da, sulo, sakosta bateri, beyeri, olan sulo antzeko bat dekonari esate dxako, sakona, da eundidxe dekonari, eundidxaue, sakona, sakona, "Leku sakona da" esate dxakona. || Basamortu da "Basamortu garbidxen dxak a!", es serik es esebe-ero, karkabi ero sakona bateri, esate baterako, e Oman a etze txatxarra, nai e Gosetidxe ero etze bakarra, olanik basun-ero deunari, "Jode, basamortun dxak!"-eta. Basu da les, esate dxako basa mortu. 2. Hondonada. || *Sakona ya diferenti da ya. Sakona ba sakona esan leidxo Oman be "A be sakonin dxak" ero "Sakon ok a be". || Axe leku sulun daula, sakonien, euski gitxikue. Kontrasola ori be. □ plater sakona. Plato hondo. Ik. plater asala.**

**sakondu.** (SAKONDU) Profundizar, ahondar; cavar. || *Bera sakondu, olan sulue ein da gero a bete.*

**sakonera, sakonerie.** (SAKONERA) Profundidad. || *Sakonera aundidxe deko.*

**sakonuna, sakonunie.** (SAKONUNE) Hoyo, hondonada. || *Sakomunak dxas, dana sakonunie.* || *Alturunak eta sakonunak.* || *Tranbue: sakonuna bat. Sakonuni daun lekun-edo, "Tranbu dau".* || *Da ur ondatu esate dxako, esate baterako, eitten deu euri saparrada bat, da biitatik, eta goidxetatik-eta, be pillau, de errekatxu eitten da, da i gero sakonunarik atrapeten badeu, antxe gelditzen da ur ondatue.*

**sakosta, sakostie.** (SAKOSTA) Barranca, barranco pequeño, barrancal, quiebra, depresión. || *Oma sakostan dau.* || *An be sakosta galantak daus.*

**sakramentu, sakramentue.** (SAKRAMENTU) Sacramento.

**sakristau, sakristaue, sankristaue.** (SAKRISTAU) Sacristán. || *Enterradoretzie sankristauk eitten deu. Da sulu be bai, da origeittik etzeku be bat igul juten da, sulu eitteko.*

□ **sakristau eundidxe.** Sacristán mayor, persona adulta encargada de la sacristía. || *Oin sakristau esaten da, sakristau txikidxe esaten da. Len sakristau eundidxe egon san Nabarrixen be, gixona egon san da. Da ba mesi erasoteko, mutil txikidxek ixaten sirin, da oin mesie abadiri erasote tzenak, mutille parik, neskak ixaten dire.* □

**sakristau txikidxe.** Sacristán menor, joven que ayuda al sacerdote a decir la misa. || *Sakristau txikidxe? Bai, sakristau txikidxek e abadiri mesi erasota eukitten dana, mutikue, arixeri esate dxako sakristau txikidxe. Sakristau eundidxe len emen be egon san baya oiñ estau, txikiri pestau. Sakristau txikidxek ote sirin bi, geure mutille pe ixen siriñ eskolatik urten arteko gustidxen da bi ixete sirin sakristau txikidxe, da sakristau aundidxe ote san beste bat, eingue, eiñikue.*

**sakristautza, sakristautzie.** (SAKRISTAUTZA) Oficio y cargo de sacristán. || *Emen sakristautzie esaten da, monagillotzie esta esaten da.*

**sakristidxe.** (SAKRISTIA) Sacristía. || *Sakristidxe ixeten da abadik geusak gordeta eukitte ittuna, da mesi emoteko ba jantzi eitte ittu, armaidxotik atarata.*

**saku, sakue.** (ZAKU) 1. Saco. Ik. *sorrue.* || *Saku bet arto.* || *Eurrien sare ser bat ipiñi, olan sakue*

*edo, da an ganiñ agertzen sin.* || *Albandorratza saku jostekuri esate dxako.* || *Arpillerie saku da, sakue, amantal..., sakusko amantal bat: arpillerie. Oiñ ibili be esta eitten ori be. Arenadurak-eta eitte gendusenin len e, ba jantzi axe ta, axe amantal sakusku jantzitte ibiltte san arenetan, goidxek-eta arenetan diriñin-de. Oiñ es goirik eta es berik.* || *Marrasa esate dxako, esate baterako, bier asko daunien-edo eurrien ipintten dan sakusko amantalari, sakusko amantalari.* || *Bai, da eurriñ amantal sakusku be ibiltten da, neuk ibilli dot len, ondiño estakit eta estot ibiltten baya sakusku ta, noberak ibiltten daben amantalari be esate dxako marrasako amantala.* || *Guk emen saku usete gendun len biarrerako. Txoto ein da... Onek naparrak da onek usete ben ardi narrue. Ardi narruas einde... Da es siren busten. Alantxik eitte ben biar arek.* 2. Saco en el que se introduce las mazorcas de maíz y se golpea con un palo para desgranarlo. || *Da sartu sakun, lotu puntie, da masuas, —masu bakixu ser dan— ekittaldi bet alde batei, ein pun! buelta sakuri, ostabe beste alderdittik, gero etara ba al dana, da garau gitxi geratze dxakon. Da erres-erres. Ba, olan eitte san, bai.* □ **sakuna.** Peso correspondiente al saco que restaba el comprador al peso total. || *Anegi berrogetamar killoku nik beti esautu dot. Da sakuna, sakuna ba kendu eitte tze konpradoriek, da batzuk killo bat kentze tze, da beste batzuk killu bi.* □ **saku marrasa.** Saco hecho de guangoche, de tela basta. || *Koltxo..., mollek aspidxen eukitten dabena be saku marrasa da.*

**sakukada, sakukadie.** (ZAKUKADA) Saco (contenido de un saco).

**sakutu, sakutue.** (ZAKUTO) 1. Pequeño saco de papel en el que se vendía distinto genero como arroz, azúcar, etc. || *Da esate dxakon len —oiñ esta esaten ainbeste baya— asukeratan-edo amak agintze eskuniñ e, eskolan ibilli giñiñiñ e "Ekarrixu asukerie, killo bat asukera-edo!", ta arixeri sakuturi esate gentzon sakutu.* || *Saku nausidxetatik e taberneruk amen Nabarrixen be... Tabernatan ote san asukeri saltzen. Eurek eukitte ben eun killoko saku, edo berrogetamarreku, da gero killoka saldu, sakututan.* || *Bai, asukeri nai arrosa be solti emote san len. Da arrosa nai e..., ba orrixeri esate dxakon sakutue.* || *Nai killokue, nai e killo bikue, nai e librakue, sakutue ixete san.* || *Paperesku ixete san sakutue.* || *Sakutue? Ba sakutu da..., se esango da ba? Sakutxu bat,*

*sakutue.* || 'Sakutu' da poltza bat seinde... Oiñ estetze esaten baya orrek esnik poti esate tze, baya asukera sakuk ote siñ e, sakutuk, killokuk. Olan ein, da puntie ein. Sarratu dana betik eta albutatik. Biribillien. Da oin be esate dxako. Okeliri, sartzen dan orreri be sakutue. Poltzi esate tze asko paya. Plastikuek onek e okelie sartuteko lotu eitte ittues ba. Porsiñuetan ipiñi. Da areri batzuk esate tze sakutuk, baya arei esate tze poltzak. Ba sakutu da biribillien, da ganie batuk, de ya esta! **2.** Barrigón, tripa grande. || "Are pe sakutu ederra dxekok" bultu eundidxe eukitte deu les. **3.** Gordo, -a. Sin. lodidxe. || Ori dau sakutue! || Selako sakutue dau! || Sakutu da, se esangot neuk?, da geuse lodidxe, edo badan bayo lodidxau, beren ixekeri euki bi dan bayo lodidxau danari esate dxako. || Bai, "Sakutu dau". "Lodi dau" kasik esango neke "Lodi dau" geidxau esaten dala. □ **tripe sakutue.** Barrigón, tripa grande. || Bai, tripe sakutu lodidxeri be esate dxako: "Tripe sakutuas e or dau", edo ba "Tripe sakutuas ibiltten da", baya olanik jeneraliñ e sakutu be esta esaten. Ba esan eitten da origeittik. || Tripe sakutu aundidxe dxekok orre pe.

**sakutu.** (ZAKUTU) Sacudir, zurrar, dar una tunda. || Saplasu bateri emoten badxako, "Bai, sakutu dxok" esate dxako emen. Sakutu. "Emon tzek astiñaldidxe" ero "Majo sakutu dxok", igul palixi emote tzonari. Alakuri, umiri be, emo tze pasadie, palixie, "Sakutu dxok ederto" igul esaten da, ori bai.

**sal, salá.** (ZAL, zail-bat.) Correoso, -a, fibroso, -a; difícil de masticar. || Tajadie sala gelditzen da gero! || Onen tajadak tire salak! || Au okeli dau sala! || Sala dau. || Faldie ixaten da egostekue-edo, gixetaku-edo, baya ostantzin tajadetako-ta estau balidxo. Ixaten da, ser esangot neuk?, sala, da jeneral faldie edo egosi eitten da saldie eitteko, edo gixaun be ipintten da. || Sala: geusa gogorra dana.

**sala, salie.** (SALA) Sala. || Orreri goiko pixuri sali esate dxako. || Ta arek etze sarrak euki itun salatxuek, bakixu. Salatxuk siren ba geliñ antzekuek. da gero goiko sabaidxe, da bekue, da kamarie.

**salbaje, salbajie.** **1.** Dicese del animal que no es doméstico. **2.** Aplicase a las plantas silvestres y sin cultivo. || Txiderra landan badau. Len. Salbajie. Baya solutan ereiñ eitten da. Da orrek urtebeterako agunteten deu bakarrik.

**salbasiño, salbasiñoie.** (SALBAZINO, salbazio-bat.) Salvación. || Esteko salbasiñorik.

**salbau, salbetan.** (SALBAU, salbatu-bat.) Salvar(se), librar(se). || Onetik salbau gara! || Baya gantzaridxe da..., ser dala esangot?, a be txala oten dan lekun oten da, baya a botaten dabenak e..., bai arin sartu eskeruen —se geuri be salbau dxakun-de—, salbau eitten dire. Da geidxenak ill eitten dire. || Sagar bat janda katittu, katittu saman, da iruntzi es ein. Da gero orrek, a pustuten doye, an esin deu..., ori pustu eitten da da gero errementeu. Da lagune egon balitz ordun an, da puntxeta sartun, a salbau eingo san.

**salda, saldie.** (SALDA) Caldo. || Berakas saldie. || Okela saldie. || Porru saldie. || Salda beru dxak! || Saldie motela dau. || Mamiñe akabaute daunin, da pernille asurrin daunin, emen baserridxen esta iños aprobetxetan, baya ba olan dendetan, edo karnaseridxetan-edo saldu eitten dabe, saldi eitteko. □ **baba saldie.** Caldo de habas. || Baba saldie: babak egosi, ba saldie, axen ure. □ **ollo saldie.** Caldo de pollo. || Elejidxan: lelengo sera, ollo saldie. Lapiko aundi bat egote san, axe einde. Da gero ganetik e gixau, gixae. Ene! Baya gixau bi dan moduku gero! Aintxiñeko ganadu.

**saldar, saldarra.** (ZALDAR, erlakizten) Divieso. Ganaduak sulderrak izaten ditu; lagunek, osterak, saldarrak. || Saldarrak, nik sarri euki dotas galantak. || Baya neuk estot eiñ iñois (nimementue) da esin nei esan, baya ama iños ikusi ñeben, olanik eridari ereitteko, saldarrari edo orrek suk len esan dosun orreri saldarra esate gentzen. || Ori txongu da nabuk eukitte ban geixo ba pe bai. Nabuk atrapete dxuan geixue soluen. Da arek eitte dxakesan bururi... Saldarra bakixu ser dan. Ontan granuk-eta urtetan dauna. Arexen antzekue urtete tzen naburi, da etzen isten asten. □ **saldar bedarra.** Hierba para curar diviesos. || Saldar bedarra entzunde badekot, saldarrak sertu-te eitteko. Medikamentu edo orrek.

**saldatzu, saldatzue.** (SALDATSU) Caldoso, -a. || Eitten badosu sopie ur askogas, esaten dabe: "Saldatzu ein dxok au!".

**saldi, saldidxe.** (ZALDI) Caballo. || Saldi irrintzie. || Saldi korotza. || Saldi karrerie. || Saldidxe galopin doye. □ **saldi enterue.** Caballo no castrado. || Saldi enterue? Ba saldidxe kapau

*bakue, da saldi enteru alakoxiri esate dxakon. || Asturi botate dxako saldidxe, astu botau biarrin, kuni eitteko, saldidxe, saldi enterue, da axe astuandik jaidxoten dan saldidxen kunie da burriñue. □ saldi kapaue. Caballo castrado. □ saldi karrue. Carro tirado por caballos. Ik. burdidxe. Burdidxe behiek edo idiek eroaten zutenari esaten zaio, bestelakoei karrue. || Saldi karru pe espata lusie gorantz eukitte ben. □ saldi kunie. Potro. Ik. txikue. || Txikuek esate dxake, emen onetan beintzet, saldi kunak. Kunak, edo kunak aunditxuk dirinin; ba, txikidxe payo aunditxuauk dirinin jeneral txikuek. □ saldi otzarie. Alforja que lleva el caballo. □ saldi sillie. Silla de montar. □ saldi perrie. Herradura del caballo. □ saldi probie. Arrastre de piedra (con caballos), prueba de caballos. □ karrerako saldidxe. Caballo de carreras. || Idixille? Idixillen bustena. Ididxen bustena siketute. A joteko. Ori da saldidxeri e makillas-da jo biarrin, puntan ipintte tze ugela-edo. Da idixille, sille. Da ori eitte ben aintxiña. Pittue. Pittu da. Da a siketu de idixille esate tzen. Alakoxias-da eitte ittuen. Da onen baserridxetan-da karrerako saldidxek-edo makillas jo biarrin, axe. Idixille esate tzen. □ larrako saldidxe. Caballo que no es de tiro que se le deja en el monte para pastar. || Larrako saldidxe mendiko saldidxe da. Tirako-ta estanari. Oin e, oin e das orre ixenak. Len saldidxe esate dxakon. Oin batzu daus larrarakuk eta besti daus e tirarakuk, onek probarakuk-eta. || Larraku da solte ta mendixen dabixenak. Jeneraliñ e ba normalak. One besti tie ba saldi tirarakuk eta probarakuk esate dxakue oin ba. || Bueno, larrako saldidxe etzera ekarten estan saldidxe da, larrako saldidxe. Larra saldidxe be esaten da, larran e..., oten dan e..., jateko larrara ataten dana: larra saldidxe. □ tirako saldidxe. Caballo de tiro. || Larraku da solte ta mendixen dabixenak. Jeneraliñ e ba normalak. One besti tie ba saldi tirarakuk eta probarakuk esate dxakue oin ba.*

**saldu, saltzen.** (SALDU) **1.** Vender. || *Eseresin saldu. || Plasan saldu. || Saltzeko dau. || A trongue saldu eitte san serrara. || Ein laurena, da busterrigiñera be saltze siren. 2.* Traicionar. || *Lagune saldu ein deu orrek.*

**saldun, saldune.** (ZALDUN) Así se les dice recién nacidos cuando son primogénitos y herederos. || *Etzeko saldune.*

**sale, salie.** (ZALE) Aficionado, -a, que tiene querencia a. || *Esate baterako, karamelo salie, txokolate salie, edo geuse salie danari, ba: “Misketute ibiltten da”, da “Miski da!”, “Miskiau da!”.* || *Sagar bat gusteten badxako, klase bat, ba “Arixen salí da”.*

**saletasun, saletasune.** (ZALETASUN) Afición, tendencia. || *Ardausalekeridxe: ardau edateko ba saletasune dekola, ardau atrapau eskerun ba ardau edango lekola.*

**salga, salgie.** (ZALGA, zalge-bat.) Arveja, mala yerba que crece entre el trigo (*Vicia sativa*). || *Salgie inkeute egoten da bata bestiri. || Oin salgarik esta ikusten, se oin garirik esta eraitten aspaldidxon be, ta ostantzin len gari artiñ etorte san salgie. Da ixete san e, se esangot neuk?, teka txiki-txikitxue, orri txiki-txikitxue, baya igon-igon eitte ban, da garidxen puntaraiño igote ban. || Salgie da bedar bat, bedar bat, da a be etxaku gustetan solun eoterik, se salgik, itxi eskerun, leku gitxi bayo geidxau artzen deu, salgi. Da ixaten da, ta ganaduk-eta estimau jaten dabe. || Salgi da gari artiñ etorten dana. || Salgi esate dxakon bedar bat badau, bedar klase bat. Esta txarra, ganadu pe jateko moduku da. || Salgie gari artiñ etorten da. Ganaduntzako ona da, esteko txarrik ese be, espabese gari artiñ etorri eitten da, ta garidxeri lotuta esi eitten. || Salga asko dau. || Garidxe dana salgas beterik dau. || Salgie asko sabaltzen dana da, baya bedar txarra beres esta, ganaduk-eta estimau jaten dabe. Gari artiñ asten da. || Lurrek e ba labrau esik salgi emoten deu.*

**salgatza, salgatzie.** (ZALGATZA) Gran cantidad de arveja. || *Salgatzie? Bedar artiñ e egoten dan e salgie, da erain barik etorte sana.*

**salgei, salgeidxe.** (SALGAI) **1.** En venta. Sin. *saltzeko. || Au etzie salgei dau. 2.* Género de venta, mercancía. || *Salgeidxek.*

**salmuera, salmuerie.** Salmuera, agua cargada de sal. || *Salmueran: erbidxek eta olan ipintten dire gatzuretan. Egun bat edo bidxen ipintte ittues. Orreri deittute dxako salmuera. || Salmueri da gatzure ipiñi, da antxe pasetan dan arraiñe siketzeko, edo okeli siketzeko, salmueri esate dxako, salmueretan. Edo ebaidxen bat eitten dabenin-be, ba ipiñi salmueye, ta ankie, edo esku-edo ba antxe barrun euki erretako apur bet. || Okeli ipintte san, bai, konserbetako geidxenbaten,*

*artu, salmueratan egon deidxen, da gatza artu deidxen, da gero ba egun baten, edo bidxen-edo eukittakuen, edo iru, edo lan, segun selaku satidxe dan, da gero ba, oneskero artuko ban gatza, da gero eskei eitte san siketzeko. Da ordun denporan, lengo denporan oingo modun ba okelarik-eta e-san ekarten karneseridxatik, espabesa ba etziñ erosi freskue, edo etzin txala iltte basan, etzeko txalena, da gatzuretan ipiñi, da euki iru, edo lau egunin, estaitx senbat eguniñ eote san , ya astute nau, da gero eskegi eitte san siketzeko. Da gero siketute goxuk urtete ban, normui jateko, siku-siku einde, seinde pernidxe lantxik gelditzen san a.*

**salobrie. 1.** Comilón, -ona. Ik. *jatune.* || *Traganarru: olan jatun eundidxe danari-tte: "Traganarru lakoxi da", "Jaten, ba salobri da", edo ba, "Arin jateku da"-edo ba.* || *Persona salobrie.* || *Salobrie: jatune, ta jan, da janin dabillenari-edo: "Salobri da".* || *Persona salobrie: bueno ixen lei jenidxokue, ixen lei jatune be. Bai, salobrie, salobrie, jaten dabena, asko jaten dabena-edo, pasientzidixerik barik jaten dabena-edo, olaku. Jenidxo txarra dekona be bai.* **2.** *Persona de mal genio.* || *Salobrie jenidxokue da, da erres belarriondoku emoten dabena, esate dxako salobrie, erres berak pentzaten dabena eitten dabinari.*

**salsosa, salsosie.** Sal sosa. || *Salsosie? Ser dala esangot salsosie? Olan arri satitxu lakuek, da ureri botate gentzon len erropa sikiñe garbitzeko.* || *Arenadurie arias be eitte san, da jeneral emen e, ni neuk beintzat salsosi geidxau ibilte naben ari-tte bayo.*

**salto.** (SALTO) Salto, brinco. || *Ur saltue.* ☐ **salto ein.** Saltar. || *Baya txinperti da diferentie, txinperti da salto eitten deuna. Suek atarate tzo txinperta fui!, fui!, arek fuego artifizialak, antzekuk txinpertak. Txinperti esate dxako areri, salto eitten deunari. Txingerrak salto estau eitten.* || *Matxixaltu da koko berde bat, ainbeste ainka eukitte ittu, saltuk eitte ittu, ta koko ba ta ori.*

**saltoka.** (SALTOKA) Saltando, brincando. || *Saltoka doye.* || *Salto-saltoka doye.* || *Gero askanin sue amatetan doiñien, saltoka bateri bestera.* || *Irutike? Saltoka ibilttie. Txal txikidxek be ibiltten dire saltoka lelengo kanpora urteten dabenin be. Beidxe pe bai-tte.*

**saltokari, saltokaridxe.** (SALTOKARI) Saltarín, brincador. || *Saltokaridxe da beres saltoka beti dabillena.*

**saltza, saltzie.** (SALTSA) **1.** Salsa. || *Úntu eitteko-edo, untetako, ogidxe untetako-edo, saltzi-edo, ogidxe untetako saltzi-edo.* || *Saltza berdie.* **2.** *Jaleo, lío, enredo.* ☐ **saltza banderie.** *Mujer bandera, desenvuelta, osada.* || *Saltza banderie da danakin nasteten dana, gusurre ta abarra ta olaku.*

**saltzaille, saltzaille.** (SALTZAILE) Vendedor. || *Egur saltzaille.* || *Emen olan egur saltzailarik-eta ainbeste estau*

**saltzero, saltzerue.** (SALTSERO) Salsero, embrollón. || *Ori da saltzeru!*

**saludeu.** (SALUDAU, salutatu-bat.) Saludar. || *Guk "saludeu" esateu.* || *Ameriketatik etor dan famelidxe saludeu du Donostin.*

**salutau, salutaue.** Pan de la Noche de Navidad (se le atribuye la virtud de curar la rabia). || *Ogi salutaue: gabon egunien, da oiñ estaitt axe be eittu, ogidxeri, ogidxe asi eitte san, len asitte badau ba a eskendun jaten, da ogidxe barridxe aste san, da areri kentze dxakona, lelengo satidxe, arixeri esate tzeu ogi salutaue. Da a eitte gendun gorde, armaidxun urrengo urterartin, da eote san, armaidxun gordeta eote san, da urrengipitxigeittik. Da gero urrengo gabon egunien ardaue epeldu kasu baten, berotu, asukeri ein de gosatu, da a ogi salutaue, arixeri asukeri bota, ogi salutaue arixeri ardauri eitte dxakon, da a etzeko gustidxek dana jan biar ixete ben apur bana, geixo txarrik etorri esteidxen.* || *Ogi salutaue: txakurreri be emote dxake, da geuk emen esteutzeu iños emon, da beidxeri pentzun emote ei dxaken. Ogidxe esta sati bet gorderik or, sati galanta bayo. Beidxeri ganbelan emote dxaken pentzue ta pentzun artien ganaduri danari partidute dxaken sati bat. Ganadu pe jate ben, da txakurrek eta katu pe bai, da persona pe bai.*

**sama, samie.** (SAMA) **1** Pescuezo, garganta. || *Samako miñe.* || *Saman sulue.* || *Urketu samatik.* || *Antzar jokuen, samie kentzie.* || *Saman lumerik esteko.* || *Lengo saman burue.* || *Txakurreri samie ebai tzon eusoko batek.* || *Arek meresi dxok samatik eskeittie!* || *A be sami bistan eukitten dabena? Badaus ollo klase batzuk, au burun asi ta samie dana bistan eukitten dabena, lumeri barik.* **2.** *Cuello de la botella, jarra, etc.* || *Samie da a estuunie.* **3.** *Parte del tronco desde donde parten las ramas.* || *Samie be bai esaten dxako tronguri, adarrak asten diren lekun.* ☐ **samako pañelue.** *Pañuelo del cuello.* || *Samako pañelue:*

arek eundidxe. Len saman lotute pañelue eukitte ben. □ **sami sarratute euki.** Tener afonía.

**samar, samarra.** (SAMAR) Brizna, cosa menuda, mota; mota, paja del ojo. Ik. *apurre.* || *Ogi samarrak.* || *Begidxen sartzen danari, samarra, edo "Loidxe sartu dxate", edo "Samarra sartu dxate begidxen".* □ **begiko samarra.** paja del ojo. || *Begiko samarra? Bai, olan apurridxarik begidxen sartu eskerun axik-edo: begiko samarra.*

**samarreridxe.** (SAMARRERIA) **1.** Brizna, residuo, porquería. Ik. *apurreridxe.* || *Samarreridxe, esate baterako, esate dxako begire batzen dan enbasuri-edo, seinde betuli-edo begidxen sartzen danari-edo, axi dauniñ axik sartzen daben samarreridxe, apurreridxe, axik sartzen dabenari-edo esate dxakon samarreridxe, da esate dxako samarreridxe.* || *Samarreridxe: axe beyen batzen dan apurreridxeri-edo, nai beyen, nai edonun batzen dan apurreridxeri bai, geuk esate tzeu samarreridxe.* || *Bueno, samarreridxe ixen lei beyen daun..., batzen daun..., eskobie batzen dana... ba samarreridxe. Egon lei goigurun, edo kamaretan be, ba indarra siketzen daniñ isten dabena-edo, samarreridxe.* || *Ogi samarra da, amen nik ogidxe jaten detzet, ta gero dana, jeusten dan ori, "Ogi samarreidxe dana betok!" esaten da.* **2.** Chisme, chascarrillo. Ik. *iskirimiridxe.*

**samau, samaue.** (ZAMAU) Mantel. || *Samau esate dxakon emen mai ganiñ ipintten dan mantelari. Ya galdute dau berbie.* || *Samaue? Oiñ estakitt iñok aittuko badeu. Oingo gastik es. Samaue trapusku len ibiltte gendun, da oiñ estu ibiltten. Onakoxi, maidxen ganiñ ipintteko.*

**samindu.** (SAMINDU) Apenar(se), afligir(se). || *Bueno, "Samindute dau" esaten da, baya ba geidxau esaten da, oin beintzet "Mindute dau".* || *"Samindu" esaten dxakon ba disgustuk emoten daben asarri-edo, ser esangot neuk?, "Samindute dau esan dxakonagaittik" edo ba, "Esate dxakonagaittik samindute dau".*

**samur, samurre.** (SAMUR) **1.** Blando, tierno. || *Okela samurre.* **2.** Frágil, rompible. || *Lur samurre dau or (lur astiñe).* || *Arri gogorra barik, samurre, apurtu eitten da, blasta-blasta.* || *Indurri arridxe esate tze, a samurre da les, indurridxe pe sulu eitte tze areri. Bai. Indurri arridxe gero.* **3.** Fácil. Ik. *erresa.* || *Esta samurre ori engañatie!* || *Samur daun geusie.*

**samurtu.** (SAMURTU) Ablandarse, reblandecerse. || *Sagarra samurtute dau.* ||

*Artuek umedadie artzen badeu, ba artagaraune ba samurtu, edo bigundu eitten da.*

**1 san, sana.** (ZAN, zen-bat.) Difunto, -a. || *Jose sana.* || *Emengo nire gixonan aitte sanak axe ure gure ixate ban.* || *Nik neure aitte sana esautu naben, da aittagiñerreba be bai, abarka eitten.* || *Emen dunbie, geure aitte sanari be dunbie entzun netzon baten bayo geidxautan.*

**2 san, sana.** (ZAN, zain-bat.) **1.** Vena. **2.** Tendón, nervio. || *Saneko miñe.* || *Sanak emoteste min.* || *Minpekue da miñen aspidxen egoten dan a santxue.* || *Minpin san satitxu bat tau.* □ **sanak euki.** Heredar el carácter de alguno de los padres o abuelos, saler a alguno de ellos. Ik. (-en) *aidie euki, odoleku ixen.* || *Amen sanak dekos.* || *Aman sanak dekos.*

**sanbedar, sanbedarra.** (ZANBEDAR, zain-belar-bat., plantain) Llantén. (*Plantago lanceolata*). || *Sanbedarrak bedar txarrak dire.* || *Sanbedarra entzu ot eta enas gomutetan selaku dan.*

**sanbro, sanbrue.** (ZANBRO) **1.** Grano pequeño, pequeña erupción. || *Seosek kalte einde, sanbruk urtete tze; da elgorridxe atrapatzen dabenien.* || *Sanbruk esteko materidxerik, granuk eukitten deu bakarrik.* || *Sanbrotxuk ixeten dire pinportak. Guk arixeri esate tzegeu, sanbrotxu txiki batzugin.* || *Sanbrotxuk arpidxen nai gorputzin. Gorputziñ urteten dabe orrek pinportak. Da ori esate dxakon ba..., seri esangot?... Pinportak geusa gitxidxe-edo, txikidxe ixeten dire, olan sanbrotxu txikidxe.* || *Sanbrue esate tzeu..., nik alan esate tzet beinpein, de emen alan esaten da, sanbru esate baterako, asto napparredxe urtete dabeniñ olako gonatxu batzuk urteten dabe, da ba arixeri be esate dxako, "Dana sanbros beterik dau".* **2.** Erupción que aparece en el nabo, y dentro de la cual se forma un gusano. || *Nabu ya elktzen doiñin, edo eldu estoiñien, naburi urtete tze olanik pinportatxu batzuk, sanbrotxu batzuk urtete tze, da arek sanbruek eukitten dabe artxu suri bat barruen, koko suritxu bat, da nabun sanbruek esate dxake, da eukitten dabe kokotxu suri bat, eta kokotxu asidxes-asidxes, a uraren eukitten daben satitxue kendu eitte tze, ta olluk atrapate baittue, jate ittue, da ostantzin koku eskapau eitten da.*

**sanbrotu, sanbrotzen.** (ZANBROTU) Salir granos. || *Sanbrotute deko arpei gustidxe.*

**sandxa, sandxie.** **1.** Epidemia. || *Sandxi da, iguel kostipauas dabil jente asko ta "Bai, sandxi da!".* || *Ni ego nitzen kolikuas ointxe iru aste, da enitzen*

*jun elixara be ein, da andri jun san da andrik an ba beti amaiketaku eitten dabe mesostien, an ba taberna batiñ edo beste... Lantzin leku baten. Da areri andra batek esan tzon "Jolin, bai sandxi da, se orren gixona alantxi dabillena". Da esa eusten, etzera etorritte, "Sandxi ei dau, dabillena geixo ori".* **2.** Periodo en que se padece una enfermedad o una situación particular. || *"Beren sandxie pasau barik estok sanietan" igul esaten dabe. Sandxie da igul denpori pasau barik estala juten. || "Beren sandxi dxok" esate baterako, beidzek iru asteri bein suseatzen da, "Ointxe dxekok beren sandxie".*

**sangraderue.** Cuneta. || *Sangraderue esaten san a eskapie, bideko ureri eskapie emotie. || Txarridxei, eta orrei sangrau esate dxakue, odola atara. Odolustu beres eitten dana da.*

**sanidadie.** Sanidad. || *Sanidadie? Ba "Sanidadi pasau deu", seinde ganaduk e albaitteri etorritte ikuste ittu les, ba are pe, ba ikusitte-edo. || Sanidadi emoti da geixorik estaula esati lakue. || Orrek deko sanidadie!*

**sanieu, sanietan.** (SANEAU, saneatu-bat.) Curarse. Ik. osatu. || *Medikuk esa tzon ensegida sanieko dala. || Santiretu: okertu, ori eitten dana, bidxurtu. Ankan-ero eitten bosu bidxurkeridxe, santiretu esaten da. Apurtu-te barik, santiretu. Txarrau ondiño apurtzi bayo esaten dabe askok dala, sanieu nekes. || Beren sandxie pasau barik estok sanietan.*

**sanja, sanjie.** (ZANJA, zanga-bat.) Zanja. || *Sanji da kañu bet. || Sanjak eitte ittue. || Emen bidi dau, te ebaten dabe, an pasau esteidxen tratora, edo kotxie pasau esteidxen. || Sanjie: olan euridxe-ta danin korridu eitten dabena.*

**sanjau.** (ZANJAU, zangatu-bat.) Hacer zanzas. || *Sanjau, sanjau, sulo bat eitten da. Da txutera gero.*

**San Jose.** (SAN JOSE) San José, festividad de San José. || *Asalera estittuten dana sanjunak eingerun, gerotxuau, san josik eingerun e ori, trongora estitzen dana. Da bestie ba sanjunak eingerun edo nos esan dot? Bata sanjunak eingerun estitzen da, da bestie sanjosik eingerun.*

☐ **San Jose lorie.** Primavera; vellorita. || *San Jose lorak motan be egoten dire. || San Jose lora badaus klase bi, gorridxe be bai, suridxe be bai. || San Jose lorie lorari esate dxako, ortun-da dasen lorari be, San Jose lorak. Da ixeten dire jeneral emen, San Jose lorak esate tzenak ixeten dire beres kolorin, oritxu diriñak, oritxuk eta,*

*lorie oritxu eukitten deu. || Beste ba tau, San Jose lorie. Da axe ariñen loratzen da. Da txiki-txikitxue, da lora oritxue. Onako orri... Onen tamañoko orridxe eukitten dau, da orri sabala. Eta erdidxen ori-oritxu urte tzo. Da a da San Jose lorie. Anek urteten dau ariñen.*

**sanjosik.** (SANJOSEAK) Fiestas de San José. || *San Jun lorie sanjunak eingerun urteten dabena da ta San Jose lorie ya sanjosetan urteten dau.*

**San Jun, San Juan.** (SAN JOAN) San Juan, festividad de San Juan. || *San Jun egunien elixara besada lorak, erremillotak erute siren. Larrosak-eta eta sorgin bedarra pe antxe, kargan berinkatzen. || Aintxiñe, gu txikitxu giñenin, San Juan egunien eitte san: errete siren aurreko urteko San Juan kargako lorak. Da or be botate siren: "Sorgiñek eta lapurrek erre, ondo-ondo erre, artuk eta garidzek kaxan gorde, sorgiñek erre..." Orrek bedarrak botate geuntzon sueri, sorgin bedarrak. ☐ **San Jun bedarrak.** Ramillete de diferentes tipos de flores que por San Juan se coloca junto a una cruz en la entrada de las casas para preservar el hogar. || *Orrek San Jun bedarrak e, olan, sanjunetan kurtzik ipintte di emen bedeinketako. Oin be, amen badau geuriñ or agien. Ori sanjunetan ipintten da, bedenkasiñu artzeko. Orrixek ipintte dxakos San Jun bedarrak.**

☐ **San Jun idie.** Variedad de helecho de color pálido y que viene antes que el helecho común. Ik. donini idie. || *Idie beres eltzen da..., udegoniñ esango neke nik, udegonin, edo negu partera, da ba "Idak eldute das", edo "Gorrittute das", se idi gorrittu eitten da eltze danin be, da ba se esangot nik?, e, "Idi eldute dau". Baya orrek San Jun idak-eta, orrek estire gorritzen udegoneko idi modun, orrek suri gelditzen dire, suri, edo berde. || San Jun idie txikitxuau da. Es pentzau asko egongo danik amen erri onetan. Nik badakit nun dausen oin be San Jun idak. Erreka onduen, poso onduen, ure onduen. || Guk euki gendun an basuen, an basuen, an serien, an Argiarro... —Argiarro bakixu seintzu din— arexen beyen jun, de txabola bat, antxiñe aittek einde, da aren eurrien egon san posue. Da arexen posuen urtete ben San Jun idak. || Ur ondoku da San Jun idie. ☐ **San Jun lorie.** Margarita mayor (*Leucanthemum vulgare*). || *San Jun lorie? Bai, untxe (martidxen askanetan) loran dasen arbola dana tire San Jun lorak. Baya San Jun lorie esate dxakona badau... ser esangot neuk?, lora suridxe dana-edo, badau lora bat San Jun lorie esate dxakona. || San Jun lorak tire**



*fraskuri-tte urtete tzenin goisti pe. "San Jun lorak e badatos". Edurreri be bai. Iguel sanjunak eta estau eitten baya "Sanjunetako lora laku dxatosak goitti bera!" esaten dabe. || San Jun lorak e ipiñi eitte ittue ortutan-da be. Arek goisti etorten dire ba, sanjunetan lorak ipintteko. Da oneri, one kurtzik esan netzun ba selan bi dausen, orreri ipintte dxakues albutan San Juan lorak. □*

**San Jun makatza.** Perucha de San Juan. || *San Jun makatza: goixetik eltzen dana, da makatza apurtxu sosu ixeten da, da ba ba kastaten da, umik-eta estimau eitten dabe, nausidxe pe bai. || San Jun makatza: jateko gitxi. Naiku txikidxe ixeten da, oriska-berdeska. || San Juan makatza? Beste gustidxe payo ariñau eltzen dana, San Juan makatza. || San Jun makatza eta San Pedro makatza antzeku di, bai. Sanjunetatik San Pedro urran da. Batzuk deuke..., atrasues datorrenari esate dxako. Esate baterako, ba igul atrasuas dator esta? Santidxau makatza badau, Santidxau madaridxe. Da Santidxau illebeta. Da orixe ixena eitte dxako, kanbidxue emote dxako orreri. San Jun makatza, da San Pedro makatza. □ San Jun makatzetan mota bi daude. Alde batetik, arestian aipatutakoa dago, hau da, horixka-horixka dena, eta bestetik, aurrekoa baino hilabete edo hilabete eta erdi geroago heltzen dena eta gozoagoa dena: || San Jun goixetik eltzen da, da oriska-oriskie da. Da gero beste bat eltzen da andik illebetera-edo, illebeta terdire Sa Jun makatza areri be, baya a da gosauu. □ **San Jun sagarra.** Manzana de San Juan. || *San Jun sagarra da goixetik etorten dan sagarra. Apurtxu garraskatxu ixeten da baya ba goixetik etorten da. || San Jun sagarra badaus klase bi bai. Bi..., iru egongo dire San Jun sagarrak. Bat san suridxe, da bestie gorridxe. Gorridxe san santarra e!, bestik gosuk.**

**sanjunak, sanjuanak.** (SANJOANAK) Fiestas de San Juan. || *San jun lorie sanjunak eingerun urteten dabena da ta san jose lorie ya san josetan urteten dau. □ sanjunetan, sanjuanetan.* En las fiestas de San Juan. || *Orrek San Jun bedarrak e, olan, sanjunetan kurtzik ipintte di emen bedeinketako. Oin be, amen badau geuriñ or agien. Ori sanjunetan ipintten da, bedenkasiñu artzeko. Orrixek ipintte dxakos San Jun bedarrak. || Doniñe idie be badau, ori beste ba ta. Ori da ya sanjuanetan asten da ori, doniñe idi ori.*

**sankabe, sankabie.** (ZANKABE, belaunpe) Corva, parte de la pierna, opuesta a la rodilla, por

donde se dobla y encorva. || *Sankabie belaunen atzekaldi da. || Sankabie onixeri, belaunen aspidxeri esate tze.*

**sankarroye.** (ZANKARROI) Zancarrón. || *Sankarroye? Okelie? Amen (bernan) dauna, boli. Sankarroye. Sankarroye, okela tostaute jaten dana. || Sankarroye redondu da. Redondue. Onetan dausen bolak. Tostaute jaten dana. Ederra. Axe ederra ixeten da. Bueno, modu askotara jaten da. Tomatias jaten da. Patatakin be bai. Sankarroye.*

**sanko, sankue.** (ZANKO, zango-bat.) Pierna desde la rodilla al tobillo. Honela baino gehiago bernie esaten da. || *Sankue onixeri ainkeri, ainkeri, ainkari esate dxake. || Bai, sanku ta bernie, kontixu, ba tire, baya emen sanku ainbeste esta esaten. □ berna sankue.* Pantorrilla. || *Orrek dekos berna sankuek!*

**San Kristobal.** (SAN KRISTOBAL) San Kristobal (ermite). || *San Kristobal or atzien dau. Orixu usete-u guk konbidau egune, te ori. Onek kopradidxe danak eitten dau orixe.*

**sano.** (SANO) Muy; mucho. || *Santa Eufemia egunien bolaka diru jokutzen dabe sano. || Diru sano jokutzen dabe, erruki barik. || "Txurku-txurku-txurku garbitu eitte dxok". Geldi-geldi, baya edan sano. || Oin Bermion orras (galipotás) biarra sano!*

**San Pedro.** (SAN PEDRO) San Pedro, festividad de San Pedro. □ **San Pedro makatza.** Perucha de San Pedro. □ **San Pedro sagarra.** Manzana de San Pedro. || *San Pedro sagarra ixeten da garraskatxue.*

**Santageda.** Santa Ageda, festividad de Santa Ageda. || *Santageda besperie. || Santageda eskiñ aintxiñe ibiltze sin; Santageda eskekuk esate dxake, limosnie batzen etzerik etze. Kantau, txiliñe joten kantau, da limosnie ba, derrigor etzan ixeten. Espadeu emoten, borondaterik espadau, bapes. Badau borondatie, ba limosnie, dirue, emote tzonari, ba lukeinkak, txorixuek ixete sirin, txarridxe iltze danin, ba lukeinkak emote dxakosan. || Santageda bai. Ori Santageda oin be eitten da. Oin kantau, danak esta..., oiñ e gitxi etorten da kantetan, baya ointxe be batan bat etorten da kantetan. Geu be baten bayo sarridxau ibili giñin len kantetan. □ **Santageda eskekue.** Postulador de Santa Ageda.*

**Santa Eufemia.** Monte y ermita de Santa Eufemia. || *Santa Eufemia mendidxe. || Santa*

*Eufemia: Allustittik gora dauna, Santa Eufemia. Ori famau da! □ Santa Eufemia egune. Día de Santa Eufemia. || Oin be Santa Eufemia egunien ainbeste jente juten da ara. Len diferente. Len jentetan eskandalu te danak dantza solti te erromeidxak. Lau-bost soñu jotzaillak eurek kobretan, eurentzako korruk einde, da bakotxak beren selaidxe artute, da an. Ara jute san jentie botakin-de, baskaridxe da danakin.*

**santar, santarra, satarra.** (ZANTAR) **1.** Inmundo, -a, sucio, -a, cochino, -a. || *Alper santarrori!* || *Da ba arixeri esate tzeu guk ori, espatie, antxe urteten daben bedar santarrari.* || *"Ño, ori personi ok edukasiño gitxikue!"* edo *"Ño, etxekok berbete ederra!"*. Bakixu berbete santarrekue edo *"Edukasiño gitxiku ok!"*. **2.** Tiene el sentido de malo o desagradable aplicado al gusto, olfato, etc. || *Ba niri (mispillak) gustate dxates, estire enpagosuk, es santarrak, es, estire. Alan dultze-dultzi pe estire.* || *Iñurroundokuk usein santarra eukitten dabe.* || *Agoko santarra deket.* || *Gustu santarra itxi-ste.* || (Saterue) *katuk atrapau, te il, de itxi, da estabe jaten katuek, santarra ixen bi deu.* || *Santarrak ixeten dire (menbrilluk), olan eurek jan eitteko. Baya menbrillu eitteko ondo, baitte sagarras nastaute eitteko.* || *Sagarrak, santarrak bai batzuk, txarrak eta santarrak tiñak, baya gero are pe egoñiñ e gosatu eitten dire.* || *Aintxiñe onek e asau santarrak ganaduk etxosen jaten igul ba.* || *Allurbie da bedarra, ganadue areas loditxu, da il ganadue mataderuen da a okelie jatekorik, buh, santarra.*

**santarto.** (ZANTARTO) Feamente, mal, sin cuidado (se dice de lo que ha sido hecho sin cuidado). || *Ondo eiñeko geusi estanari, ba "Ondo estau",* edo *"Santarto dau".*

**santartu.** (ZANTARTU) **1.** Ponerse alborotado un animal, azorarse, envilecer(se). Hala esaten da ganaduaz, edota drogan eta istiluetan sartzen diren lagunei buruz. || *Ori "Santartu ein da" esango neke, onetan ganaduri, seinde idisko bat e gangartu, edo santartu eitten danien e, da emakumik domenetan estabenien, gixoneskuk biar ixate ittu te, "Santartu ein dxako txalari" esate da.* || *Txala santartute dau, da kontu euki!* **2.** Coger mal sabor. || *Ganaduk e, beidxek-eta gose diriñi, a idiñ arteko bedarra, ondo siketute badau, esate baterako euririk artu barik, eta olan santartu barik badau, jan eitten dabe a bedarra.*

**Santidxau.** (SANTIAGO) Santiago, festividad de Santiago. || *Bueno, Santidxau selebreten da.*

*An e Lekeriken e, Lekerikeko kopradixen dau erreminntatxu bat, seinde se esangot neuk? An dausen e etzigandik apartetxuau dau erreminntatxu bat Santidxauna. Da areri be esate dxako Santidxau, baya Santidxau egunin, da len ara jute san letañie. Neu be jun nitzan baten bayo geidxauten. Da etzetik e lagun bat e kontixu, danak jute giñin. Da ba antze mesi esate san, da ba axe entzun da ba etzera. □ Santidxau madaridxe. Pera de Santiago. || Santidxau madaridxe: bestik lakoxi, ba santidxautan etorten dana edo ba, esta eundidxe be esta ixeten, a madari eundidxe be esta, txikitxu be esta. □ Santidxau makatza. Perucha de Santiago. || Santidxau makatza, a txikitxue, makastxu, txiki-txiki-txikitxue. Santidxau bueltan eltzen da. || San Jun makatza eta San Pedro makatza antzeku di, bai. Sanjunetatik San Pedro urran da. Batzuk deuke..., atrasues datorrenari esate dxako. Esate baterako, ba igul atrasuas dator esta? Santidxau makatza badau, Santidxau madaridxe. Da Santidxau illebete. Da orixe ixena eitte dxako, kanbidxue emote dxako orreri. San Jun makatza, da San Pedro makatza.*

**santidxauk.** (SANTIAGOAK) Fiestas de Santiago. || *Santidxauk udan. Udan noix ixaten dira? Ogetabosta-edo ixeten da.* □

**santidxautan.** En las fiestas de Santiago. || *Santidxau madaridxe: bestik lakoxi, ba santidxautan etorten dana edo ba, esta eundidxe be esta ixeten, a madari eundidxe be esta, txikitxu be esta.*

**santiretu, santiretue, santiritue.** (ZANTIRATU, zaintiratu-bat.) Esguince, distensión. Ik. *biurkeridxe.* || *Santiretue deko.* || *Santiretue: ba tirekadi einde gelditzen dana tiretute, santiretu esate dxako.* || *Santiretu: okertu, ori eitten dana, bidxurtu. Ankan-ero eitten bosu bidxurkeridxe, santiretu esaten da. Apurtu-te barik, santiretu. Txarrau ondiño apurtzi bayo esaten dabe askok dala, sanieu nekes.*

**santomasak.** (SANTOMASAK) Fiestas de Santo Tomás. || *Santomasetan batzuk pageta ben, da beste batzuk illen lelungutan, semendidxen pageta ben errentie, da santomasetan be bai.*

**santu, santue.** (SANTU) **1.** Santo. || *Aitte santue.* || *Santu gustidxen egune.* || *Ori santue da.* || *Santu-santuk estire orrek!* || *Siketiri be eitte dxako, da letañie denpora onari be eitte dxakon, Neu pe baten esautu naben lepañi... Da kirieleixona berak abadik e esate sittusen bai,*

*santun ixenak esaten sertute san, da Santo Domingo ta SantiMateo-ta atate sittun santu ixenak esaten jute san, da ora pro nobis bestik atzetik segidxen. 2. Niña del ojo. || Begiko santue: bueltako marroye, edo baltza, edo berdie dekona bakotxak, oixe, begiko santue. || Begiko santue? Batzuk eukitte ittue asulek, beste batzuk baltzak. Ba begidxen barrun egoten dana. □*  
**santu ibilli.** Andar formal, por buen camino. || *Santu estabil!*

**santzo, santzue.** (ZANTZO) Alarido, grito de alegría, relincho humano, carcajada. Ik. *ijuidxe. || Barre santzue. || Santzu ein. || Santzue urrunetik entzuteko moduku ixeten da, santzu eundidxe eitten da, jeneralien mendidxen eiñ arren be, ba santzu eitten dabenak, edo soser gure dabelako, edo soser esan nai dabelako, edo ba santzu, ta, bai, olgetan dabixena pe eitten dabe, baya ostantziñ olan santzu, mendidxen eitten dan santzuk ba seoser esan gure deu, edo seoser eruteko, edo soser astu dxakona. □* Hona hemen zelan bereizten diren *santzue* eta *ijuidxe*: || *Ijidxek, da santzuk kontixu, danak bat dire, baya ba ijuidxek jeneralin ba, olgetan dabixenak, edo ser esangot neuk?, olan eitte itzunak ixeten dire. Da santzuk eitten diriñien, ba seoser gure dabena da.*

**santzoka.** (ZANTZOKA) Relinchando, gritando de alegría. || *Santzoka dabil. || Barre santzoka dau.*

**santzu, santzue.** (ZANTSU, zaintsu-bat.) Venoso, -a, musculoso, -a, vigoroso, -a. || *Dios, santzue morroidxe, santzu!*

**sanu, sanue.** Sano, bueno, agradable. || *Sanu antza deko. || Arratzalde sanue.*

**sapa, sapie.** (SAPA) **1.** Cabellera, greña. || *Orrek deko ule sapie!* **2.** Frontal, melenera de las vacas uncidas. || *Sapie da beidxek erute bena, amen eurrien euridxegeittik, gero dingiliske bolak. || Sapie ipintte dxako bekokidxen, da arek erute ittues bolak, berari dingiliske, begidxe tapetan. || Arek sapiek eukitte sittuen orrek biribillek, borlak.*

**sapaburu, sapaburue.** (ZAPABURU) Renacuajo. *Sapaburue baino sarriago bilinbolue esaten da. || Bilinboluk, eta sapaburuk bat tire. Aintxiñekuek, lengo personak..., guk bilinbolu ikesi gendun, da esan dot bai, baya, sapaburuek oinguk bayo geidxau esate ben. || Sapaburu be esate dxake sapo kuna payo eunditxuauk tiriñin. Da emen sapaburu bayo geidxau esate dxake bilinbolu.*

**sapal, sapala.** (ZAPAL) Plano, llano, aplastado, chato. || *Arri sapala. || Iko sapalak. || Ogi sapala. || Prailleulidxe dire orrek sapalak. || Losie da gause sapala. || Sapal-sapala ixeten da, euli sapal-sapala da espadie.*

**sapaldu, sapaltzen.** (ZAPALDU, zanpatu) Aplastar, pisar. || *Apartau es balitz, trenak sapaltze ban. || Ori sapaldute dekosu. || Txilindrue kamiñutan ibiltten dana esate dxakon len, olanik, galipota botaten ibiltte sana, ta sapaltzen ibiltte sana. || Erreten bota (gastañie) tanboliñera, da erreten erre, da gero ba tiru botaten asten da erreten danien, da tiru botaten asten daniñ atara kanpora. Gero ba sapaltzen gendun ainkakin, asalak erresau soltetako, da gero ba surittu te jan. || Sestun ganiñ arri bet, arri eder bat ipintten da sokillek sapaltzeko.*

**sapaletara.** (ZAPALETARA) Modalidad del juego de las tabas.

**sapalune, sapalunie.** (ZAPALUNE) Holladero, terreno pisado. || *Sapalunie? Sapala, bedarra nai artu nai dauna sapaltzen daniñ axe sapaluni.*

**saparie.** (SAPA) Cabellera, greñas. || *Ule sapari. || Orrek deko saparie! || Orrek daroi saparie! || Ule saparie? Bai, orrastu bari dekona. || Orrastute daunari etxako esaten saparie, saskille dekonari bayo.*

**saparrada, saparradie.** (ZAPARRADA) **1.** Chaparrón, aguacero, chubasco. || *Euri saparradie. || Saparradie ein deu! || Trumonadie, ba eitten deu saparrada bat trumoi jota ta trumonadi esate dxako. || Asarue? Bai, euridxeri esate dxako, euridxe olanik saparrada gogorra estanari, olanik saparradaxue, ba busteko moduku bat, baya ba, asarue, indar gitxigas datorrena-edo. || Euri saparradi ixen eskerun ba, "Saparrada aundidxe", "Euri asko botaten deu", edo "Saparrada sarratu da". || Atzo gabas be ei ban saparradan bat, nik estot sentidu, baya euri asko eingo ban, se solun egalak arrastaute das-da. || Euri mamiñe: ori ba esate baterako, siketatxu daunien, da ba saparrada ederra eitten dabenien, da ba "Euri mamiñe eisku"-te. || Kimuek: esate baterako, ba piperra be sartute dau, tomati be bai. Arek dekesan orridxek, esate baterako eitten dau arridxen saparrada bat, arri saparrada bat, da arek kimuek kendu eitte tzos, apurtu eitte tzos, da gelditzen da sostorrin. || Letañak e ixeten ei xiriñen e ba euri txarrak e erretiretako, saparrada txarrak. || "Ointxe dator trumonadi". "Ointxe dator saparradi" esateu guk. Da arek saparradik*

*ekarten dau trumonadi, igul arridxe. 2. Bulla, alboroto, tumulto. Ik. kalamatrikie, sirriparrie. || An saparradak-eta, igul: "Kalamatrikie are padxabik!".* □ **saparradak ein.** Reprender, chillar. || *Saparradak ein tzos.* □ **eur saparradie.** Nevada (copiosa). □ **txingor saparradie.** Granizada. || *Txingor saparradie bota deu.*

**sapata, sapatie.** (ZAPATA) 1. Zapato. || *Sapatan aspidxe. || Sapatak kendu. || Takodun sapatie. 2. Zapata.* □ **sapata kordela.** Cuerda para atar los zapatos.

**sapa-sapa.** (ZAPA-ZAPA) Contento, feliz. || *Sapa-sapa jun da.*

**sapatari egurre.** Carrasca, cierto árbol duro. (Árbol pequeño de bolas rojas) || *Sapatari egurrek estimasiñori bak(o) egurrek ixaten dire, asten dire mendixen da asten dire olan susenin be estire asten. Egurre bigur antzekuk-edo, ser esangot neuk?. Batzuk susenak, da beste batzuk okerrak eta ba sapatari egurrek esate dxakon. || Sapatari egurrek? Bueno, arbolí asi be etzan eitten, bide egaletan da olan sastrapa artiñ e ote san, oin be eongo dire. || Sapatari egurre: bera, adarrak e baju, trabes-da aste ittuna ta gorantz estabena eitten. || Sapatari egurreri esate dxako altza. Altza da egur bat dana flojo, da esate dxako altzari sapatari egurre. || Arbolí tente luse asten dana be esta, olan altura gitxi eukitten deu. || Altza emen berton eingerun esta egongo, baya altza ba arbola bat olan e balidxo baku edo... ser esangot neuk? Altza. Da sulo eitteko-ta, olaku batzuk sapatari egurre esate tze, beste batzuk altza esate tze, da estau olanik olak atarateko-ta esteutze emoten estimasiñorik.*

**sapatero, sapaterue.** 1. Zapatero. || *Sapaterue? Sapatak eitte ittunari. 2. Zapatero, tejedor, insecto hemíptero con las patas de delante muy cortas y las de detrás muy largas, que se mueve con mucha velocidad por la superficie del agua. Emiliano Arriagak sapatero hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "También se llama sapateros a unos insectos de configuración arácnida, que pululan en la superficie de los pozos, corriendo con tan grande rapidez, que asemeja el movimiento de un calquero en su labor de cosido, cuando sujeta el calzado con el tirapié."*

**sapatille.** (ZAPATILA) 1. Zapatilla. || *Sapatille puntan gasta dok. || Sapatillen punta jan dok. 2. Playera.*

**sapato, sapatue.** Zapato. || *Tako bako sapatue.*

**sapatu, sapatue.** (ZAPATU, larunbat) Sábado. || *Da esan tzon. "Eingo tzesu txondorrari kargu?" Sapatu gaba-edo ixan san. Da bai.* □ **sapatu santue.** Sábado Santo.

**sapedar,apedarra.** Mala hierba que crece en los maizales. || *Sapedarra arto artien egoten da. || Sapedarra, ori dana etorten dana, berdeberde, asal-asal egoten da ori. || Sapedarra esta ixaten erresa galtzen. Daapedarrak urteten deu, jeneralien artu daun lekuen, artu eraitten dan lekuen,apedarrak. Da esta bedar..., ser esangot neuk?, kalte asko eitten dabena be, olan be-esta, baya ba solun esta gure ixetenapedarrak. || Sapedarra nauku asal egoten da, sustreidxe barrutik dekona barik, asalin.*

**sapi, sapidxe.** (ZAPI) Trapo, pañuelo. || *Sapidxe, an lotute dabillenari, enbrak len eukitte bena, sapidxe. An atzien lotute pañelue onan puntak albora, a san sapidxe.* □ Arropei deitzeko ere erabiltzen da: *Sapidxek.* □ **buruko sapidxe.** Pañolón para la cabeza. || *Buruko sapidxe eitten daniñ emen esta usau... Pañelo bat esangot, pañelo aundi bat ixeten dala, da ipintten da iru pikure.*

**saplada, sapladie.** (ZAPLADA) Bofetada, torta. Ik. *arpeikue, belarriondokue, plastadie, saplasue. || Barruntau dosue seoser? || Barruntau dosu nundik nora jun dan? || Barruntau dosu se ein daben? || "Astiñ-astiñ ein deu": sapladak emote dxakosenin-edo. || Emon tzos saplada batzuk.*

**sapladaka.** (ZAPLADAKA) Abofeteando. || *Sapladaka dabil.*

**saplasteko, saplastekue.** (ZAPLASTEKO) Bofetada, torta, tortazo.

**saplaso, saplasue.** (ZAPLAZO) Bofetada, torta. Ik. *arpeikue, belarriondokue, plastadie, sapladie. Saplasue sapladie baino gogorragoa ei da. || Da bat egon san goixaldien Lekeittora juteko. Bat oiñes, da urte tzo katuk. "Katu, aldeixu ortik!" esan tzo, da jau! Makillias emon tzo saplasue, ta alborau. || 'Kittutu' da par eittie. "Kittutuko atau!" igul saplasu ataraten deu batek, eta "Kittutuko atau!". 'Kittutu' da beste bat berak emongo tzola, ta parra. || Kasketekue esaten da emon eskeruen baten batek saplasue. || "Saputzeko bat emon tzo": saplaso bat emoti-edo, saplaso bat bayo geidxau emoti-edo. || Saplasu bateri emoten badxako, "Bai, sakutu dxok" esate dxako emen.*

**sapo, sapue.** (ZAPO, apo) **1.** Sapo. || *Sapuek lelengo eitte ittu arrautzak, arrautzak eta arrautzak pijurik eitten deu antza dan les, da atzeko ainketan ibilte ittu onenbeste denporan, nik estaitt senbat denporan ibilte itun. Da gero sapo kunok e nik estaitt uretan jaidxoten diriñ ala ligorren jaidxoten dirin, sapo kunak gero agertzen dire ta ba estaitt nun jaidxoten dirin.* || *Sapuek... emen kostunbrie len, egur puntan itxi, siketu deidxen.* || *Sapue il ein dot.* **2.** Cualquier trabajo mal hecho o hecho con desidia. || *Emen sapue esaten dxako, sapue ba, oker einde deun geuse bateri. Da sapokeridxe be bai.* **3.** Persona pequeña o deforme, despectivamente. || *Igul personi txarto-ta. Ori sapue be esaten dxako, persona txikitxueu-edo bada: Saponi!* **4.** Falso, -a, villano, -a. || *Sapue: geusak normal estabixena. "A sapu da!" ba esate dxako ba normal estabillenari. Bi dan modun berba eitten estabelako edo bi dan moduku estetzeulako eristen edo olanik.* || *Sapuaue da!*

**sapokeridxe.** (ZAPOKERIA, zitalkeria) Engaño, juego sucio, traición. Ik. *kakaskeridxe, aserikeridxe.* || *Sapokeridxetan ibilli.* || *Ori sapokeridxak eitten ona da!* || *Sapokeridxe ein tzo.* || *Sapokeridxe eitten dau.* || *Kakaskeridxe esate dxako bata batek lagunek izen, da ba olako sapokeridxatxu bat alkarrereri ein, da "Kakaskeridxe ein deu are pe!" ba esate dxakon.*

**saposaltu, saposaltue.** (ZAPOSALTO) Pequeño salto. || *Da gero arridxe oten da ba arridxen apur bat onan, da saposaltue esate gentzon. "Saposaltu emoidxok ori!". Dardadie, bakixu. Dardadaka. "Emoidxok e dardadie! Saposaltun eik!". Ta-ta-ta-ta-ta-ta, da irebasidxe emoten dau. Ba, saposaltun.*

**sapotu.** (ZAPOTU) Transformarse en sapo. || *Posu eoten dana, bilinbolu, olan. Da gero sapotu eitten dire, lusero dauseniñ ainkatxuk urtete tze, da gero ba bustena be jeusi eitte dxako, da sapuk paretan dire.*

**sapustualdi, sapustualdidxe, sapustialdidxe.** (ZAPUZTUALDI) Sacudida. *Sapuzaldidxe* ere esaten da. || *Sapustaldidxe emon tzet.*

**sapustu.** (ZAPUZTU) **1.** Sacudir. || *Sapustu da olanik lagun bateri asarratu te ra-ra-ra, ereiñ ein.* || *Nik sapustuko tzet oneri!* || *Sapustu-sapustu ein deu.* || *'Sapustu' dok palixi emoti les bateri.* **2.** Desordenar, revolver. || *Erropak sapustu.* || *Sapustu da ereiñek ein.*

**saputz, saputze.** (ZAPUTZ) **1.** Empujón, sacudida. **2.** Desmañado, -a; torpe, insustancial, negligente, sin fundamento. || *Saputze? Seri esate dxakon esangot saputze? Ganorabakuri be bai. Personiri esate dxako, "Saputz alaku!".* □ **ule saputze.** Pelo desgreñado. Ik. *ule astiñe.* □ **saputzek atara.** Dar una tunda. || *Saputzek atara? Bai, alkarras alkar jotenda eitten dabenien.* || *Saputzek atara tzos!*

**saputzaldi, saputzaldidxe.** (ZAPUTZALDI) Sacudida. *Sapustualdidxe* ere esaten da. Ik. *astiñaldidxe.* || *Emotzet saputzaldidxe!* || *Saputzaldi bet emon tzet.*

**saputzeko, saputzekue.** (ZAPUTZEKO) Bofetada, torta, tortazo. || *"Saputzeko bat emon tzo": saplaso bat emoti-edo, saplaso bat bayo geidxau emoti-edo.*

**sar, sarra.** (ZAHAR) **1.** Viejo. -a. Ik. *atzagurak, atzue, agurie, edadekue.* || *Lengo sarrak.* || *Ori be sarra dok, ori estok atzo goixekue!* || *Aintxiñekuek, aintxiñeku sarrak, aintxiñeku sartzan bixi ixen sinak.* || *Ori e ni bayo sarrau san asko be.* || *Erropa sar daidxola dau ori.* || *Makera sarra ba txarridxeri esate dxako, eta askok personiri be bai, "Ori makera sarrori!". Andra sarra ero olan, andra sikiñe-ta, "Ori da makera sarra!".* **2.** Grande. || *Ori da mallu sarra!* □ **sarras.** De viejo, como consecuencia de lo viejo que es. || *Eskupaleta da amen beyen dekuna, erremintak eukitteko. Da guriñ alabik estau ori apurtzerik gure, da or dau, ya dana apurtute, sarras.*

**saragi, saragidxe.** (ZARAGI, zahagi-bat.) Odre, pellejo. || *Saragidxe satorran tipue euken.* || *Saragin musturretik edaten da.* || *Saragidxe aintxiñe danak eukitte ben.*

**saraketa, saraketie.** (SARAKETA) Escardadura. || *Sarakeri da atxurras a ganera asal-asaltxu eittie. Barrun sartu barik, soidxe atara barik, ganetxu kendu, saraketan.* □ **saraketako atxurre.** Azada para escardar. Dena dela, *jorraidxe* da gehien erabiltzen dena. || *Atxur neusidxas atxurren eittosu. Da ba saraketakatxurre edo jorraidxe esate dxako orreri. Atxurre ba, igul askok e jorraidxe esan biarrin ba saraketako atxurregas, baya jeneralin jorraidxe.*

**saraketu, saraketzen.** (SARAKATU) Escardar; rozar, limpiar (las tierras). || *Eitte san da oin be baiortuk eta, lelengotan saraketu. A bedarra*

*dekona asal-asal-asaletik, onexen tamañoko lodieran kentzen da ganetik. Gero lur gitxias. A siketutekun se eitten da? Jo apurtxu bet masuas ero atxurren buruas, da erre. Batu satarreidxa apur bat eta. Saraketi a da. || Labretako, saraketu eitten da lelengo, da gero labrau. Saraketu, ba, ganeko bedarra kendu eitte dxako. || Da saraketuti da atxurras kentze dana sarie, lurreri kentze dxakona edo. || Atxurras kentzen dxako ganie da orixe dala esango neke saraketutie. || Da ori 'saraketu' da ganie e, jorraidxe eittie ganie. || Jorraidxas, olanik atxurtu eitten da, da axe da saraketie. Ganeko bedarra saraketu.*

**sarama, saramie.** (ZARAMA) 1. Deshecho, residuo, basura, resto, despojo. Esaterako, *ogi saramak* entzuten da. Dena den, kasu horretan sarriago esaten da *Ogi apurreridxe*. || *Saramie da, esate baterako, ser esangot neuk?, eskatziñ eskobik batzen daben ..., arek apurreidxa pe saramak tie.* 2. Pesado, pelma, atosigante, preguntón, cotilla. || *Saramatzue. || I as saramie! || Au euli saramiau! || Alde ik emendik, sarami orrek! || Bai, umiri bai, umiri ba, saramie, ba ser esangot neuk? geldi eoten estanari-edo, beste batzuk sitxetan ibiltten danari "Saramie!" esate dxake. || Sarami: beti pelmi emoten deuna les, "Saramiori setan sabis? 3. Adulador, pelota, persona que hace la rosca. || Ori saramiori! □ euri saramie.* Lluvia suave y constante. || *Euri saramatxu dau.*

**saramakeridxe.** (ZARAMAKERIA) Atosigamiento, molestia, enredo. □ **saramakeridxetan.** Enredando, molestando, incordiando. Sin. *txirri-txarra.* || *Saramakeridxetan sabis.*

**sarameridxe.** (ZARAMERIA) Cosa insignificante, bagatela. Ik. *txintxilleridxe.* || *Txintxilleridxak e dire umik olgetako geusak-edo, sarameridxak-edo, ser esangot neuk? □ sarameridxetan.* Enredando, molestando, incordiando. Sin. *txirri-txarra.* || *"Umie saramakeridxetan" bayo geidxau, "Sarameridxetan" esaten da geidxau.*

**sarata, sata, saratie, satie.** (ZARATA) 1. Ruido, grito. Askotan *satie* edo *saatie* ahoskatzen da. Ik. *burrundadie, txilidxue.* || *Atin satie.* || *Satak ibilli dxusek arek! 2. Murmullo. || Satie atarate dxok. 3. Ronquido. || Losorru ixeten da an lo-lo daunien, eta ba saratias, osuen lo, edo goxo*

*daunien esate dxako, "Lo-lo dau", losorrun. 4. Sonido, son. || Marti sosu entzu su kantetan? Estosu entzu e! Marti sosu sati entzu ot nik ointxe amabost-edo. □ sata solidxe.* Ruido sonoro, penetrante. Sin. *sata bixidxe. □ satak atara.* Hacer ruido, un ruido continuo. || *Satak atarate dxosak. □ satie ein.* Hacer ruido. || *Da orreri be txarrixeri batzuk eitte tzen leलगotan askorias buru jo, satarik eiñ esteidxen, ainbeste irrintzarik eiñ esteidxen.*

**sarataka, sataka.** (ZARATAKA) Metiendo ruido, ruidosamente. Ik. *orruka.* || *Sarataka dau. || Gixona be sarataka beti badabil: "Orrolari'dxok ori be!" || Elistxoridxe txori txikidxe da, saataka ibiltten diñak, txit eta txit eta txit ibiltten diriñak. □ lo sataka egon.* Roncando. Ik. *lo erronkaka egon.* || *Emen geidxau esaten da olan lo daunin, da sata eitten dabenari ba, "Lo sataka dau", edo "Sarati eitten dau", lo daunin, ba. Erronka pe bai, esaten da.*

**saratalari, saratalaridxe.** (ZARATALARI) Ruidoso, -a, escandaloso, -a. Ik. *orrularidxe.*

**saratatzu, saratatzue.** (ZARATATSU) Ruidoso, -a, escandaloso, -a. || *Ori da saratatzue!*

**sarbo, sarbue.** (ZARBO) Gobio. || *Sarbue arrain bat ta, sarbu ixena dekon arrain bat tau. || Sarbue itxosun egoten da.*

**sarda, sardie.** (SARDA, sarde-bat.) Horca (instrumento de labranza). || *Sardie: kortan ibiltte una, ortzak eukitte ittuna, bost ortz. || Sardie: batzuk eukitte ittue bost ortz, txikitxuk lau ortzekuk eoten dire, beste batzuk eundidxe-eta, olanik gixoneskuk-eta..., oin gixoneskuk, eta es emakumik be kontixu, esteu ibiltten sardarik. Da ba aspidxe kendu, te atzera ein-de eitteko: sardak. || Saskaratzie? Bai, saskaratzie. Saskarie, bedar e..., ba simeldute-edo dasenien erre eitten dire. Batu, batu eskobarias, na sardatxugas-da.*

**sardakada, sardakadie.** (SARDAKADA, sardekada-bat.) Horquillada, contenido de una horquilla. || *Sardakada bota ik ona! || Sardias simeurre-edo kargetan deutzonin: sardakadie.*

**sardatxur, sardatxurre.** (SARDATXUR, sardaitzur-bat.) Azada de dos o más púas. *Kortatxurre* ere esaten da, baina Nabarnizen gutxitxoago esaten da. || *Sardatxurre da simeurre atxurtu nai olako geusek eitteko. Sardik ortzak onan eukitte ittu les, onek eukitte ittu atxur modure, ortza pera. || Sardatxurre ekarrixu! || Txardangue da sardatxurre noberak ibilttekiek*

*dire atxurren eran. || Sardatxurre: satza atarateko. || Sardatxurre: sardi da susen dauna; da sardatxurren, onan ortzak dekosen, atxur tipora, sardatxurre esate tzeu guk areri. Beste batzuk kortatxurre be esate tze, guk sardatxurre. || Kortatxurre diferenti dau. Ori be... ditxu taus. Batzuk bertan esate tze sardatxurre, batzuk esate tze; ta bestik kortatxurre. Da bat da. Guk e, guk e, geuk etzien sardatxurre. Beste batzuk bertan be esate tze kortatxurre. Da gu geuk beti e sardatxurre. || Es, ori nai lau nai bost nai sei batzuk eukitte ittues. Batzuk bostekuk egoten dire, beste batzuk e seiku be guk euki gendun len e, da oin be eskarri nabena, lengun ekarri nabena, da bostekue da. Da lauku be badaus. Da guk e beti sardatxurre esate tzeu. Sardik e atxurre erdi bardiñe tie, ortzakin batak onan dekola da bestik olan dekola.*

**sardau, sardaue.** (SAGARDAO, sagardo-bat.) Sidra. || *Sardaue ondu. || Sagarra pe barrilera bota, ta irikiñ ein de gero ixeten da sardaue. || Sagarra apurtzen du makiña baten. A geurin be badau olako makiña bat, ta ba. Esta asko ibiltten, es, ba iños e..., iges be estaitx e estrenau ein basan, da ariñau be estakitt eta ba. Botaten dire sagarrak txikittute ta, botaten dire ta gero olako..., ipintte dxakes e tapetako, bera tapetako biribille ixeten da. Da gero ganetik e..., selan esangot neuk? Bueltaka-bueltaka-bueltaka olan ipintte dxakos ganien, aputuneko sagarraren... da estutu eitten da apurkan-apurkan, da botaten deu sagardaue eitteko sagarren ure. || Sardau eitten dabe. □ **sardau sagarra.** Manzana para hacer sidra. || *Sagarra ba gordiñik edo erreta edo egositte jaten da baya ba, da ba saardau eitteko sagarrak egoten dire, espesialak ixeten dire sardau sagarrak. Da eitten dabe sardaue doladi dekonak, makiñi dekonak ba sardau eitten deu. Bukoiyak artzen dire.**

**sardiña, sardiñie.** (SARDINA) Sardina (*Sardina pilchardus*). || *Sardiña sarrak bayo eskasaue.*

**sardiñera, sardiñerie.** Sardinera. || *Arrain saltzen etosen sardiñerak. || Sardiñerak: olan arraiñe saltzen dabenari-tte, sardiñerak, olan etzerik etze etorten diñari-tte. Oiñ etorri be estire eitten, baya dana dala. Len etorte sirin, bai.*

**sare, sarie.** (SARE) 1. Red. || *Eurrien sare ser bat ipiñi, olan sakue-edo, da an ganiñ agertzen sin. || Da olluri be sarie, olluk saran barrun, da sarraduridxe esate gentzon, bai ollunari, ollo sarie, da bai ganaduntzat ipintten dan alanbrari,*

*sarraduridxe. || Sariñ ipintte sirin gastayek, arek bota biarren, ure botateko, a sobrie, ur sobrie botateko. || Etziñ oten dana da masmie. Are masmik eitten dau beran abidxie, da a oten da saran barrun egoti lantxik. □ || Sarias sarratu.*

**2.** Maraña de hierba que cubre el suelo. || *Sari bakixu ser dan. Sari da alanbrakin-de eitten dana, sarie. Da besti pe dana nasti dekona, bedar sarie axe da. || Da saraketuti da atxurras kentze dana sarie, lurreri kentze dxakona edo. 3. Ralo, -a, transparente. || *Sarie esate dxako meye danari, te beste alderdidxe be meye ixen arren ikusi eitten danari. || Mantillie esate dxakona da, a koipe lodidxe barik, eukitten deu bigune, mantilli esate dxakona ixeten da, a koipe lodidxe eukitten dabena estitan, da tripan-da baya, arek tripan eukitten deu, baya mantilli esate dxakona ixeten da sare-sarie. || Mantillie da sesiñeri kentze dxakona, tripe..., sabaltze sanien, tripe ganiñ eote san olan koipe sare-sarie ixete san. Ixeten da, ganaduk, nai txaridxe pe bai, arek tripak, estik, eta danak tapaute eukitte ittu koipe sare-sare batas. || Koipe sarie? Bueno, neuk estaitx txaridxe koipe sarerik eukitten badeu eta. Ori be txalak eukitten deu, txala illten danien. Tripin ganiñ eukitten deu koipe sare-sarie, tapaute eukitten deu arexas sare-sarias. □ **bedar sarie.** Maraña de hierba que cubre el suelo. || *Sari bakixu ser dan. Sari da alanbrakin-de eitten dana, sarie. Da besti pe dana nasti dekona, bedar sarie axe da. || Bedar sarie badau. Bedar sarie bedar klase bat egoten da dana sarratzen dana, dan-dan-dana olan lixu or paretan dana. Bedar sarie, bedar sarie arek. Igul indarra ero olako txikitxu igul artu eitten deu bittartin. || Bedar sarie da da aulan e sarratute, inkeute daun geusie, bedar sarie. || Bedar sari ixeten da a liute dauna. Esan gutena, sakatu, katidxute dauna, bedar sarie. || Bedar sari dau.***

**sargori, sargoridxe.** (SARGORI) Bochorno; bochornoso, -a, sofocante. Ik *trumartie. || Sargori da lañu antza da euskidxe egotie, bero. || Bero sargoridxe da. || Sargori dau.*

**sari, saridxe.** (SARI) 1. Propina, recompensa, gratificación. Gaur egun jendeak *propiñie* esaten du gehiago. Ik. *eskuartekue. || Emostek saridxe. || Mesede bat ein dosu suk, ba nik bidzar emoten tzut saridxe. 2. Limosna. || *Saridxe esate dxako limosniri. Edo basatos ona, eta nik au emote tzut: "Saridxe emoste."**

**sarittu.** (SARITU) Premiar. || *Bai, batabateri emoten batze saridxe seosegeittik e, ba "Sarittu ein dabe".*

**sarkotxa, sarkotxie.** (ZAHARKOTXA) **1.** Avejentada, revejecida (se dice de las mujeres jóvenes que tienen dichos o formas de viejecitas). || *Ori da sarkotxie!* **2.** Niño aventajado respecto a los de su edad. || *Sarkotxie: Ume aurreratute datorrena, aurrerautxu olantxik igul berba eitten, da urtebete edo geidxau estekos, da "Ori da sarkotxi!" esateu.* **3.** Pesado, -a de cuerpo, avejentado, -a. Lagunekin nahiz gauzekin esaten da. Ik. *trapau.* || *Sarkotxa: gogortute... Esan gutena, trapau es. Trapau bakixu ser dan? Ba antziñ esate tze sarkotxa be. Sarkotxa, gogortute deune. An makal, bigune personi barik gogortute. "Sarkotxa-sarkotxa dxak ori!".* || *Sarkotxa laburreri esate dxako, olan, motzari. Sarkotxa txikidxe... bateri ero olan esate dxako.*

**sarna, sarnie.** (SARNA) Sarna. || *Sarnie da umik-eta burun eukitte bena.* || *Sarni eote sana bakitt. Neuk estot iños euki baya askok eukitte ban sarni, umik eskolan dabixenak.*

**sarnatzu, sarnatzue.** (SARNATSU) Sarnoso, -a.

**sarpa, sarpie.** Rama grande sobre la que se recoge la hojarasca en terrenos de mucha pendiente donde no se puede llegar con el carro. || *Sarpi esate dxakon len e orbelak batzeko orreri. Bota adar aundixek eta bota ara orbela ta gero tiretu.* || *Da suk esa dosune, erripe-ero iguel. Da se eitte san? An bota ganera ta eldu areri. Orbeldun adarra ipiñi beyen, da gero tatarres tiretu, da kargau gero beyen leku onin. Sarpan.* || *Sarpan bajatu.*

**sarpiu.** (SARPIAU, sarpiatu-bat.) Enfoscar, rasear. || *Ormie morteruas eitten da sarpiu. Apur bet pikeu, garbittu, te gero sarpiu.*

**sarra, sarrie.** (ZARRA) Arrastre de la piedra de una única arrancada. || *Proban, sarri da geratu barik erutie. A da sárrie. Geratu barik, esate baterako, oinbete ero metro bat eitten badeu, ummmm!, "Sarri emon tze!".* *Da igul beste batzuk artun de eruten deu beste untzera, "Jo, untzik sarran ein dxosak!".* *Ta bestela esaten da "Bai, eusike". Eusidxe da aulan (sigi-saga) ibilttie arridxe, a eusidxe da. Ta an artu te eruten badeu, sarri.* || *Susenien, da artu beyen, da gora juden basara, sarran, "Sarra baten eruidxok!" edo. "Untze laune ein dxok", edo "Untze erdi ein dxok" edo "Iru untze laun ein dxosak".*

**sarradure, sarradurie.** **1.** Alambrada. || *Sarradurie? Ei llei alanbrigas, ei llei olas, edo seosegas, baya sarradurie, da jeneral alanbra arantzadunas eitten dana.* **2.** Terreno cerrado. || *Sarradurie alanbaruneko geusa bat da sarraduri.* || *Sarraduri: sarratute egon da les, sarradurie.*

**sarraduri, sarraduridxe.** Enrejado. || *Leku batzutan, emen guk estou usau, baya alanbradak esate tze, da alanbradias be ondo aittuten da, baya emen sarraduridxe esate tzeu.* || *Da olluri be sarie, olluk saran barrun, da sarraduridxe esate gentzon, bai ollunari, ollo sarie, da bai ganaduntzat ipintten dan alanbrari, sarraduridxe.* ☐ *Sarraduridxe baino sarradurie esaten da gehitxoago Andere Goirienaren arabera. Desberdintasunik badagoen galdetuta, honela erantzun zidan: || Sarraduridxe esango neke apur bet leku sarratuau dala, sarraduridxe.*

**sarran.** (ZARRAN) Arrastrando de una única arrancada. Ik. *dandarres, tatarres, narras.* || *'Sarran' da arri bat kolpeka tiretute sarran erutie.* || *Sarran erun deu egurre.* || *Eusike bai. Da orrek e, bakixu, igul esteko indarrrik sarran eruteko.*

**sarra-sarra.** (ZARRA-ZARRA) Copiosamente.

☐ **sarra-sarra ein/bota (euridxe).** Llover de manera continua. || *Euridxe sarra-sarra eitten deu, ya euridxe ein de ein de ein.* || *Sarra-sarra botaten dau euridxe.*

**sarrasoi, sarrasoye.** (ZARRAZOI) Niebla. Ik. *be lañue, lañue, kañe. Be lañue baino gehiago esaten da Nabarnizen.* || *Sarrasoi egune.* || *Mendidxen bera lañue bajatzen asten danin: sarrasoye.* || *Sarrasoye bastante fuerte daunin, eurrin, amar metrora ikusten gatx egoten da be.* || *Lañue goidxen egoten da baya mendixen bera bajatzen da igul da a, ba, sarrasoye.* || *Da emen berau be bai egoten da sarrasoye batzutan.* || *Sarrasoye dau itzela goixion.* || *Sarrasoye beres des eitten da.* || *Da be-be-beyen badau, e "Laño baju dxak".* *Au lañuau baju-baju-baju esebe ikusten estana, be lañue. Da batzuk sarrasoi be esate tze.*

**sarratu, sarratzen.** (ZARRATU, zerratu, hertsu)

**1.** Cerrar. || *Atie sarratu eitten da.* || *Etzie sarratute egon da.* || *Tximindxe be ojalatias sarratute dekeu. Emen bistan esteko, baya ojalati deko goitxuen, da estau su eitteko modun be.* || *Bai, tantie, "Tantie jeusten dxakok", lantziñ apur bet igul. Da igul ba asko jeusten bada, "Tangadaka dxak, sarratu!".* **2.** Cercar. || *Barrutidxe esate dxako sarratute daun terrenu sati*



bateri. Sarratzen da, edo bedarra asteko, beste pataridzek ibilli esteidxen, beste ganaduk, beste batenak-edo. Da ixaten da, edo alanbrias sarratzen da, edo ostantzin..., len antxiñeko modun esta ixeten, len egurras sarratze sirin, egurre estakakin, de untzekin jositte, iñor ibiltterik gure estanin, de bedarra asti gure danin be. **3.** Entaponar, obstruir. || Surtzilluk sarraute dekos. || Belarriidzek dxekosak sarraute.

**sarratu, sarratue.** (ZARRATU) **1.** Cercado; bosque, prado u otro sitio rodeado de valla, tapia u otra cosa para su resguardo. || Sarratue ixeten da igul arboladi bet, dana alanbrias olan sarratue daunin. Areri sarratue esaten dxako. Da len egote sirin, olan lagunek einde, olan karkaba itzelak noberan terrenuen, olan, eitte siren karkaba itzelak eta sarratue esate dxakon areri. Da arridxeekin be eitte ittuen batzuk, noberan lur satidxe, sarratue, esta?, baya arridexas ormie einde. || Sarratue da aintxiñeko orma barrue. **2.** Barrera. Ik. sarraduridxe. || Bueno, sarratue barreri esateko esan lei, da sarratue esateko, gabadu, beste ganadu batzuk sartu esteidxesenen noberan parti dana, sarratu be eitten da, da sarraduridxe areri esate dxako. **3.** Cerrado, difícil de entender. || Euskera sarratue. **4.** Espeso. || Euri saparradi ixen eskerun ba, "Saparrada aundidxe", "Euri asko botaten deu", edo "Saparrada sarratu da". || Ule mitza? Ba buru sarratu estauna, apur bet mitzau dauna. || Da elbitze da sarratu urteten deun ori bedar e, bedar meye. □ **sarratu ein.** Hablar cerradamente. || Nik sarratue eitte ot (euskera). || Da batzuk klaru eitten dabe berba e! Prantzes euskaldune esate tzeu. Arek sarratu eitten dabe, gu payo sarratua.

□ **esku sarratu euki.** Ser avaricioso, -a. || Esku sarratue deko (edo Esku urridxe deko orrek.).

**sarrera, sarrerie.** (SARRERA) Entrada. || Euski sarrerie. || Sarrerako atie.

**sarri.** (SARRI) Frecuentemente, a menudo. Ik. pittin-pittin. || Sarri etorten da. || Beste batzuk kunak, orrek txitxak atara ta etorte dxakusen, baten bayo sarriidxauten etorte dxakusen. || Tabernan-da sarri asarretu eitten san jentie len, oin gastiek gitxiau eitten dire. || Saldarrak, nik sarri euki dotas galantak. || Ni Santa Eufemiara enas sarri jun. || Ni errotara sarri jun nas Gixaburua. || Se Bitorio ta ni lagun itzela giñen ba. Ni sarri ote nintzen an errotan. || Bein bayo sarriidxau ein dot nik menbrillue, etzien. || Baten bayo sarriidxeu ein dot nik kari kaleruetan. || Da

gero gure ixan eskeruen, neu pe ba, amen bederatzi seme-alaba asi gendusen, da neu pe bein bayo sarriidxau esan netzon errotara junde, dirue pagau, da mendie ekarritta. □ **sarri askotan.**

Frecuentemente, a menudo. □ **sarritten.** Frecuentemente, a menudo. || Sarritten asarratu edo sertu eitten da baya ori gusurre da.

**sart.** (ZART) □ **sart ein.** Impresionar. || "Bidxotzak sart ein deutzo": bidxotzak emoten daben buelti-edo.

**sarta, sartie.** (ZARTA) Varo, palo. || Sartie egur meye da. || Sartie jeneralien txakurrek joteko-edo, estakipa nik setak-ibiltten san ba, katu botatzeko eskatzetik-edo, da ba iñox ernegaute daunin, neu pe iñox emon netzesan-da, umiri emoteko be bai. || Sartias emongo tzutes! □ **egur sartie.** Palo fino. || Bardi da egur sartie, egur meye, punti-edo lodidxe barik egur adarra-edo olanik meye dekona asko, egur sartie, egur sartie esateko dxako.

**sartada, sartadie.** (ZARTADA) **1.** Golpe. || Arek emon txon sartadie! || Emon tzon sartadias ankas gora juen san. **2.** Chasquido, estallido, crujido. || Sartadak emote ittu. || Oñestuen sartadide. || Arek piñuk bota deu sartadie! **3.** Descarga eléctrica. || Sartadie emon doste. **4.** Tirón. || "Sartadi ein dxok", igul gerridxe-ero, "Gerridxe sartadi eistek!".

**sartadaka.** (ZARTADAKA) Brillando a golpes, a intervalos. || Sartadaka dabil ixerra.

**sartasun, sartasune.** (ZAHARTASUN) Vejez, ancianidad. Ik. sartzie. || Orreri sartasune etorri dxako.

**sartau.** (ZARTAU, zartatu-bat., pitzatu) Astillarse, cascarse, rajarse. Ik. astildu, astillatu, arrakalatu, brintzetu, krakatu.

**sarten, sartenena.** (SARTEN, zartagin-bat.) Sartén. || Sarten kirtena. || Berotu sarteniñ-edo berotu te jan eitte gendusen arexe pe.

**sarteneko, sartenekue, sartanekue.** (SARTENEKO, zartagineko-bat.) Frito de jamón, chorizo y huevo frito. || Amaiketakuen, sartanekue, pernille edo edoser, edo txorixue. || Lelengo sarteneku jan, urdeidxe ta txorixu be batzutan botate dxakon, da beste batzutan etxakon botaten. Da jan urdeidxe, da ogidxe, da gero morokille esnias.

**sartenkada, sartenkadie.** (SARTENKADA, zartaginkada-bat.) Sartén (contenido). || Sartenkada koipetzu.

**1 sartu, sartun, sartzan.** (SARTU) **1.** Entrar, meterse. || *Sartzeko lekue.* || *Sartun ortik!* **2.** Meter, introducir. || *Sartun ori or!* || *Siridxe sartu deutz.* **3.** Ocultarse debajo del horizonte. || *Igetargidxe sartu da.* **4.** Plantar. || *Or sementeran egoten dire erneteko, da sartzeko bestekuk asi artien, antxe egoten dire, da gero sartzeko bestekuk asittekun sementeran, arek lurrera, orture, edo solora ataraten dire.* || *Piñu sartu ben danin.* || *Bastar atxurre da au, sendu da au. Au da basun e... Solun-de barik e, basorakue, piñu sartzekue, bide barridzek eitteko, da dana iguel.*

**2 sartu.** (ZAHARTU) Envejecer. Azentua lehenengo silaban du. || *Denporie bayo ariñau sartu dok ori be.* || *Sartu barik il dok.* || *Oin ba, sartues doye.* || *Sartute dau.* || *Aintxiñe iru umaldi eukitte ittula personik, sartzan bada, sartuten danak. Lelengotan jaidxokeran, umie. Da gero soldautzan be umi ixen bier, se iñun dixen orrek ei tzes, da gixonak pentzetan axe ein bittula.*

**sartuera, sartuerie.** (SARTUERA) Entrada. || *Bolaupie da, esate baterako, guk etartie esate tzeu, kanpue, ori ate eurrie, da bolaupie esate dxako ortxe etartin sartueriri: bolaupie. Jeneral, etarte eurri-edo esate dxako bolaupie.* || *Manga da garixumin sartuerie.*

**sartukera, sartukerie.** (SARTUKERA) Entrada (acción). Sin. *sartzie.* || *Sartukeran.*

**sartu-urten, sartu-urtena.** (SARTU-URTEN, sartu-irten-bat.) Entrada y salida, visiteo. || *Sartu-urtena aundidxe dau or.*

**sartza, sartzie.** (ZAHARTZA) Vejez. Ik. *sartasune.* || *Orreri sartzie etorri dxako.* || *Aintxiñekuek, aintxiñeku sarrak, aintxiñeku sartzan bixi ixen sinak.* || *Orrek bildurre deko sartzarako.* || *Nabuek bein loriek urten eskero sartzara jutun dire, gogortu.* □ **sartzara.** Con la venida de la vejez. || *Sartzara gortu ein da.*

**sartzaro, sartzarue.** (ZAHARTZARO) Vejez. || *Sartzaruen.* || *Sartzarue allegau dxako.* || *Sartzarue eldu dxaku.* || *Da gero sartzaru. Sartzarun be personie, sarrak ya umetute oten die, "Umetute dxasak".*

**sasi, sasidxe.** (SASI) Zarza. || *Sasi-arantzie.* || *Sasi artien.* || *Sasidzek ebai.* || *Sasis jantzitte dao.* || *Sasi asko dau.* || *Ara jute giñen gu mutikutan. Oin sasidxe, da sikiñe dau.* || *"Sasi gustin ganetik eta edoi gustiñ aspittik" esate ben, da buuuuu...*

□ **sasi kodañe.** Rozón, guadaña tosca, gruesa y

ancha que se usa para cortar zarzas y argoma. Dena dela, izenik arruntena *ota kodañe* da, baina bat dira. □ **sasi leku.** Lugar de zarzales. || *Ori lur ori sasi leku dok.* || *Sasi leku dok ori.* □ **sasi larrosie.** Rosal silvestre. □ **sasi okana.** Endrina (fruto). *Baso okana* ere esaten zaio. || *Sasi okanakiñ eitten ei da patxarana.* || *Sasi okanak txikidzek dire. Arek jatekuk es. Arekin sera eitten da: pattarra. Basun egoten dire.* || *Sasi okanak ixeten dire txikitxuek, da ixeten dire illuntxuek, baltzуска antzekuek, da garratzak ganera.* || *Sasi okanak? Bai, kontixu, bat dire sasi okanak nai baso okanak. Bateri esate tzeu. Batzuk dire, ser esango neuk?, txikitxuauk ixengo dire, batzuk aundidxauek ixengo dire, baya orrek estittu iñok aprobetxaten.* || *Sasi okanak dire patxarana eittekuk. Guk esate tzeu orreri sasi okana, baya sasi okana da sasidxe barik, arek dire elorridzek, modukuk, arantzadunek are pe. Ba a da sasi okana. Len ainbeste egote san amen goidxen be.* || *Sasi okanik oiñ estau, egotes.* || *Sasi okana da txikidxe, ta salbajie.* || *Sasi okana, da baso okana bat da, se orrek okanak egoten di les salbajiek, sasitzan, da olan, da esate tzeu bai, sasi okana. Baya sasidxena esta okana, Sasidzek masustrie eukitten deu. Okana arbolan egoten da, da sasidxe esta arbol.* *Da ori da orixegeittik, sasi artin-de egoten di onek, onek baso okanak be sarritten, igul basun-ero, sikiñeridxas-da.* || *Sasi okana dxak an.*

□ **sasi txoridxe.** Zarcero (*Hyppolais polyglotta*). Emiliano Arriagak *chimbo de sarsa* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Es del tamaño del *colirrojo*, aunque más redondo y más abundante en *mantecas*. Su dorso es pardo, claro su vientre y de un amarillo oscuro su pico y patas. Constituyen su manjar favorito los insectos que pululan en las zarzas y en todo el follaje espeso. Camina y trepa por las ramas; no mueve la cola... Parece que no es capaz de matar una mosca y, sin embargo, es el *chimbo* que trae más *enzarizados* a los diminutos y zumbones habitantes de la fronda." || *Sasi txoridzek kuna pe askotan sasitzan barrun atarate ittus.* || *Sasi txoridxe ixeten da onek emen ibiltten diriñ e txori txikidzek bayo apur bet eunditxuauek.* || *Sasi txoridxe txinbue bayo aundidxau da, aundidxaue.*

□ **sasi txori buru neusidxe.** Variedad del pajarito zarcero que tiene la cabeza de mayor tamaño. || *Sasi txoridxe be bai. Orrek klase bi oten dire. Sasi txori buru eundidxe ote san len, da besti... Oiñ ikusi be estaus eitten. Len, len sasi txoridxe abidxi*

topaten...! Bai, sasi txori buru nausidxe. Klase bi ote sin, bata buru eundidxaskue, ta besti beste klase bat, baya ixena bat euen. Sasi txori buru eundidxauku esate gentzon aundidxauri. Bestiri sasi txoridxe. Orrek sasidxen abidxie beti. Beti sasidxen. Len txori abistan mutikuk e, bueno guk topeten abistan. || Sasi txoridzek klase bi daus. Oin gitxi ikustot nik, baya sasi txoridxe da sasi txori buru eundidxe esate gentzon guk. Bata aundidxaue, buru eundi-eundi-eundidxas. Ta bidxek dire sasi txoridzek, baya bata... sasi txori buru neusidxe esate gentzon areri. Da besti sasi txoridxe. Orrek sasidxen eitten dabe abidxie. || Sasi txoridxe kalse bi: buru eundidxe, da sasi txoridxe normala. Are bestik sasi txoridxe buru eundidxe eukitten dabe, sasi txori buru eundidxe guk beti. "Kaguen sos, sasi txori buru eundidxen abidxi topau dot!".

**sasiarte, sasiartie.** (SASIARTE) Zarzal, matorral. Ik. *sasitzie*. Multzo zentzua hartzen du -arte atzizkia erantsita. Ik. *arbolartie, arriartie, bedarrartie*. || *Arek esan deu: "Sasi gustiñ aspittik ta edoi gustiñ aspittik", da sasiarte-sasiarte jun sen, dana urrutu.* || *Sasiartie? Sasidxe, sasidxe dasenak, sasi pillu: sasiarte.*

**sasieskola, sasieskolie.** (SASIESKOLA) Novillos, pira. □ **sasieskolie ein.** Hacer novillos, faltar a la escuela. || *Sasieskoli ein deu.*

**sasiko, sasikue.** (SASIKO) Hijo natural, ilegítimo. Ik. *sasiostekue*. || *Sasikue: aitte barik etorten dan umie, ama bakarrik tekona-edo, eskondu baku-edo, solteriña-edo. Da arixerri esate dxake sasiku.*

**sasimediku, sasimedikue.** (SASIMEDIKU) Curandero, matasanos. Ik. *medikue*. || *Bueno, enplastuk e lenau eitte sittuna pe nik pentzetot sasimedikuk ixete sirila.*

**sasiosteko, sasiostekue.** (SASIOSTEKO) Hijo natural, ilegítimo. Ik. *sasikue*. || *Sasiostekue bakixu sertzuk ixete din? Onek enbarasada geratzen diñ enbrari, geratzen diñak olan eskutun, "Sasiosteku ixen dxok". Sasikue.*

**sasitze, sasitzie.** (SASITZA) Maleza, matorral, zarzal. || *Sasi txoridzek kuna pe askotan sasitzan barrun atarate ittus.*

**sasiune, sasiunie.** (SASIUNE) Zona de matorral, de maleza. Ik. *sasiartie*. || *Sastrakie da sasiunie edo sikiñe.*

**saskar, saskarra.** (SASKAR) Torpe, rudo. || *Ori da saskarra!* || *"Ori da saskarra!": bai, geusak ondo eitten estittunin-edo.* || *Olan suen ipintteko*

*olanik apur bet saskartxu bada, egur tronbie. Olanik e lixu-te espada-ta, olanik e badekos e, ser esangot neuk? Adartxuk-eta badire, egur tronbie.*

**saskara, sakarie.** (SASKARA) Broza, hierbas inútiles para quemar. || *Saskarie? Bai, saskarie, bedar e ondakiñek solun e, solu garbitzeko batzen diriñak eskobarias, batzen diriñak; arixerri esate dxake. Da pillotxuk ein, de su emon erre deixen.* || *Ganeko bedarrak kentze tzesus, da alkarras batze sus arek. Orreri deittute dxako sakarie. "Sakarak erre" esaten da gero, siketu ostiñ erre.* || *Saskara asko dau.* || *Saskarie: pilluk eitten dire, su eitteko, da erreteko, su ein, da erre; saskara pillu batu, saskarak batu, su emon, da erre, garbitzeko solu.*

**saskaratza, saskaratzie.** (SASKARATZA) Broza, conjunto de hierbas inútiles para quemar. || *Saskaratzie? Bai, saskaratzie. Saskarie, bedar e..., ba simeldute-edo dasenien erre eitten dire. Batu, batu eskobarias, na sardatxugas-da.*

**saskarkeridxe.** Torpeza, brutalidad, burrada. || *Saskarkeridzek ein ttu.*

**saskartu.** (SASKARTU) Embrutecerse. || *Mantzo ibilli tte gero saskartu ein da.* || *Saskartu: errespetu galdute ibiltten diñak.*

**saskil, saskille, saskillu.** (SASKIL) 1. Desaliñado, -a. Batez ere, jantziei edo kanpoko itxurari dagokio. Sin. *dandarresa*. Ik. *ardure bakue, ganora bakue*. || *Saskil dabil.* || *Neu pe ule saskillek deketas.* || *Saskille da erropak dingiliske, ta beti... "Saskil garbidxe!". Edoselan dabilenari esate dxako.* || *Ule saporie? Bai, orrastu bari dekona.* || *Orrastute daunari etxako esaten saporie, saskille dekonari bayo.* || *Saskillu da edoselan jantzitte ta trastokeridxe. Trasbala esati les.* 2. Sucio, -a. || *Ori da saskille!* || *Saskille garbidxe!* || *Saskil dabil.*

**saskildu.** (SASKILDU, narrastu) Descuidar(se), desaliñar(se), desasear(se). || *Oin be saskildute doye ori!* || *Saskildute dabil.*

**saso, sasue.** (SASOI) 1. Epoca, tiempo. || *Orandillie bastante sasos etorten da.* || *Beste saso baten.* || *Auxe sasu inguru au ixete san paguek iñusteko sasoidxe, ilberie, iretargidxe bera doyenien. Bestela ura asko urteten da, pagadidxe sertu eitten san. Pagadidxe be txakildu esate gendun guk. Pagadidxe sasu txarrien iñusi tte txakildu ein dok. Es aben broterik botaten, da brotie botate baben be, txikidxe, laburre.* || *Txo, sasus etorri!* || *I, sasus etorkas, eh!* || *Saso txarriñ etorri de etzera.* || *Sera, esnie saltze gendun saso baten, orra bera*

erunde. || *Esta eltzen untxe sasora artin (iraillin) da untxe sasoyen..., doniñe idie untxe sasoyen eltzen da.* **2.** Sazón, fortaleza, estado de perfecta salud. || *Mutil sasokue.* ☐ **sasu-sasun etorri.** Venir en el momento apropiado. || *Sasu-sasun etorri dok.* ☐ **saso txarra euki.** Tener mal temple. || *Saso txarra deko.*

**sasoi, sasoye.** (SASOI) **1.** Tiempo, época, momento. || *Sasoye da!* || *Erresiñoi sasoye.* || *Orrek badeko sasoye sentzune eukitteko.* || *Sasoi dok juteko.* || *Kunak eitteko sasoye.* || *Altzateko sasoye da.* || *Ara astaro jutun nitzen ollogor sasoyen, kasan sasoyen betik andik albotik pasau.* || *Baskal sasoye, eberdidxen ordu batetan edo amabidxetan-edo.* || *Sasos etorten dire.* **2.** Sazón, fortaleza, estado de perfecta salud. || *Sasoin dxak ori.* || *Sasoi bete-betin dau.* **3.** Sazón, estación propicia para las labores del campo. || *Sasoye allegau.* || *Sasoi da berandu ero goixeti parik, ya sasoye.* *Esate baterako, esaten dabe martidxen patatie ereitteko, ilberan esaten dabe sasoirik onena.* || *Nikaluek dire sata oridxe dirinak, da urtetan dabe, ba, ointxe sasoidxen (semendidxen) egongo dire.* || *Lora oritxu emoten deu berak (gixetzak) sasoyen.* || *Geurin be, bueno beti botaten eskara ibiltten, baya geurin be botate tzeu botikie, ilanik, lorik urten bi tzen..., ointxe sasoyen pentzetot ixeten dala lori botatie, lorik urten bitzenin, edo igual sepatxuk urten bi tzonin.* || *Bueno, paguek iñusteko oiñ esta sasoye beres, udebarridxe da ta. Da ori udegunien e, negun, negun.* || *Orain mantzeliñe kasteteu, batu eitten da, untxe, ya batzeko sasoyen ixengo da.* || *Orre pe eukitten dabe beren sasoye, estakitt ilberi eukitten daben ala ilgori eukitten daben.* || *Da len emen etorte siren abustuen, nabo sasoin, nabu atarate eben orrek. Da oiñ esta etorri be eitten eser.* **4.** Época de celo. || *Katuk alkarras erristan dabixenin, marrauk eitte ittue, baya ya euren sasoye dxatorkenin be, bakidxes marrauk eitten.* || *Kunek artzeko sasoye-edo etorte dxakenin be bakidxes marrau galantak eitten-da, katarra etorten dxakena.* ☐ **sasoyen.** Puntual. Ik. *puntuau.* || *Sasoyen etor da.* ☐ **indar sasoye.** Época de la alubia. || *Indarra pe alkarren ganiñ ero olan, alkar jota badau, indar sasoin, danak esango tzue, iguel danak or planteten dire alkar jotun, da "Egostu ein di danak", da a da galdu.*

**sasoko, sasokue, sasukue.** (SASOIKO) Joven, lozano. Ik. *sasukue.* || *Sasoi onekue.* || *Mutil*

*sasokue: ba sasoye dauna bierrerako.* || *Basatoste? Bai tte eundidxe pe bai, len bai, len eundidxe pe bai, len ya mutil sasoku pe eitte ben, neskakin junde, mutil de neskak.* ☐ *Hona hemen sasokue eta sasukue berben arteko desberdintasuna: || Bueno, bai, 'sasokue' geidxau esango neke nik dala gastu, sasokue. Da 'sasukuek', persona ya euren sasoi pasaute dekenak, ba "Sasuku persona bat ta".*

**saspi, saspidxe.** (ZAZPI) Siete. || *Alegiñek saspi!* || *Saspi peseta. Gure Romanek jate ban Goittunen baskaridxe saspi pesetan.*

**saspiki, saspikidxe.** (ZAZPIKI) Sietemesino, -a. *Umeei nahiz ganaduari buruz esaten da.* || *Saspikidxe ixen da.* || *Saspikidxe gaidxau egoten dire seikidxe eta sortzikidxe bayo.* ☐ *Impaciente, cascarrabias.* || *Bai, ori saspikidxe da ta!*

**sastada, sastadie.** (SASTADA) Punzada. || *Beidxeri akuluas siki eitten dxakenien, sastadie esaten da.* || *Oñestarridxe ixeten da apurtu nei sue ataraten dabenin. Da oñestue, ba, arek sastadak, dxis-dxis-dxis.* ☐ *Hona hemen sastadie eta sastasue berben arteko desberdintasuna: || Sastadie, da sastasue bat tire, ta estire bat. Da sastadie, ba, da seosek noberari be ei leidxo, arantzi sartute sastadie, beidxeri be sastadi eitte dxake-ta. Sastasue tropesua da.*

**sastai, sastaidxe.** (SASTEGI) Estercolero. Kortako satsa etxe aurreko larrainera ateratzen zen eta bertan uzten zen satsa egiten. Horregatik askok *sastaidxe* eta *larriñe* nahasten dituzte; batzuek *sastaidxe* esate dute eta beste batzuek *larriñe*. || *Aintxiñe-aintxiñe, sastaidxe, mendittik eta otak eta bedarrak eta ekarri, da etzaurrien bota ta euridxe eitte ban, dana sikindute bertan satza eitteko, ta an egote san aintxiñe porkeridxe.* || *Sastaidxe esate dxako jeneralien: Len ekarte san mendittik otie, ekarte san, da botate san etzaurrien, etz albuen, da botate san, da eitte san satza, satza eitte ben. Da orreri esate dxako sastaidxe. Da larriñe esate dxakon leku garbidxe deun lekuri. Oiñ asfaltaute dau, baya len be amen esan egoten sastairik. Or etze bittartien, edo or beste etziñ eurrien-da egote san, botate san, da eitte san satza, da gero batu eitte san. Baya olanik emen, emen (Ibergune) bide bat egon san len be. Ba oneri larriñe esate dxakon, leku garbidxeri.* || *Sastaidxe da auxe etzik eurrien dekona.* || *Amen au sastaidxe da au. Etzien baserridxe. Or be eitte san satza.* || *Olako lekuk*

*egote sin len, satzas. Satza eitte san len, idie edo otie botata: sastaidxe.*

**sastarreridxe.** (SASTARRERIA) Porquería. || *Galbaye? Kribe bat, sastarreridxek apartetako.*

**sastaso, sastasue.** (SASTAZO; Hiztegi Batuak 'sastada' baino ez dakar.) Punzada, pinchazo. Ik. *sastadie.* || *Arantzak ei-ste sastasue!* || *Suskurrek igul sastasue eitte tzu an botakin be.* || *Arek (prailleulidxek) ainkadi! Inkeute geratzen dire bertan, arik eta..., isten badxako, arik eta odoles bete arte alde estau eitten, sastasu nausidxe!* || *Sastasue: norberari arantza bat atzamarrin sartzen dxakonin, sastasue.* || *Sastaso gogorra.* || *Moskittue da eltxu diferente die. Eltxu da... esteu pikerik eitten. Da moskittuk sastasu itzelak eitte ittu. Bi die orrek.* || *Eltxu dana igul ibiltten da, ainbeste eltxu, begidxetara eta dana, baya orrek pikerik estabe eitten. Da moskittu pai. Sastasu eitten dabe.* □ *Hona hemen sastadie eta sastasue berben arteko desberdintasuna: || Sastadie, da sastasue bat tire, ta estire bat. Da sastadie, ba, da seosek noberari be ei leidxo, arantzi sartute sastadie, beidxeri be sastadi eitte dxake-ta. Sastasue tropesuu da. || Kaguen, txintxek negargarridxek! Sastasuk, kaguen! Ordu arte sekule bes, e jakin bes ser dan bes!*

**sastraka, sastrakie.** (SASTRAKA) Zarzal, matorral, maleza. *Sastrapie* ere esaten da. || *Txarakie ixeten da sikiñe, leku bat, txarakie, dana sastrakak, sikiñe, txarakie; an txarakan esin leike paseu ein.* || *Sastrakie da sasiunie edo sikiñe.* || *Sastrakie da sasidxe edo moltzo sikiñe.* || *Sastrakie da satarridxas daun sastrakie. Sastraki batzuk esate tze. Sastrapi be bai.*

**sastrapa, sastrapie.** (SASTRAPA) Zarzal, matorral, maleza. *Sastrakie* ere esaten da. || *Sastrapie da, olanik, moltzue, satarraridxas, edo arbola txikitxuk nei sasidxek.* || *Sastrapie da..., ser esangot neuk?, ...dala solo egaliñ edo motan- edo dauna, sasidxek asten diriña, arixeri sastrapie.* || *Sapatari egurrek? Bueno, arbolí asi be etzan eitten, bide egaletan da olan sastrapa artiñ e ote san, oin be eongo dire.*

**sastu.** (SASTU) Abonar, estercolar. *Satzittu* eta *satza sabaldu* ere esaten da. || *Solu sastu.*

**sasuku, sasukue.** Viejo, -a. Ik. *sasokue.* || *"Persona sasuku da" esaten dxako urtik pasaute deun personiri, sarra danari.* || *Persona sasuku da.* || *Lotzakue: errespetu dekonari, edo persona sasuku danari-tte, umiri-tte barik.* || *Andraskuk ibiltte ben gorantza, len, neu pe ibiltte naben-da.*

*Oiñ estaitt iñok ibili be eitten ba..., akaso andra sasukun batek akaso ibili eingo deu.* □ *Hona hemen sasokue eta sasukue berben arteko desberdintasuna: || Bueno, bai, 'sasokue' geidxau esango neke nik dala gastí, sasokue. Da 'sasukuek', persona ya euren sasoi pasaute dekenak, ba "Sasuku persona bat ta".*

**satar, satarra, santarra.** (ZATAR) **1.** Cochino, -a, sucio, -a, grosero, -a. || *Ago satarrekue.* || *Berbeta satarrekue.* || *Satar galanta da.* || *Satarra da, enpague emoteste.* || *Jenidxo geistoku bada, berbeta satarrekue, "Ago berue da", esaten deu edoser, da ago bero bat da.* **2.** Mala persona. || *Satarra da ori!* **3.** Recio, -a, brusco, -a. || *Aixi satarra egon san atzo, da arte batzuk bota sittun emen be.* □ **ago satarrekue.** Malhablado, -a. Ik. *berbeta satarrekue.* || *Txarto esaten deunari abo satarreku esate dxako ta.* □ **bedar satarra.** Mala yerba. Sin. *bedar liorra.* || *Txakur bedarra esate tze batzuk bedar satarrari.* || *Mando bedarra asko dau ontan. Bedar satarra da ori mando bedarra.* □ **lur satarra.** Tierra dura, poco maleable. || *Bustiñie amen e berton geure terrenuko solun be ba barrure goldatu ero onan eiñ eskero, barrutik satarra ataraten da, bustiñi. Lur satarra dire orrek bustiñak. Gogorrak.* || *Lur satarra da lurre gogorra dana-edo ixeten da lur satarra, "Labretako satarra da"-edo.* || *Lur satarra ixeten da... Ser esangot nik? Lurre ona estana ixeten da lur satarra.* || *Lur satarra da lur sendue, "Lur satarrak dire arek", onek e geuri di les.*

**satarkeri, satarkeridxe.** (ZATARKERIA) Ordinariez, grosería, cuento verde. || *Satarkeridxe: geusa bat txarto eitten danin, edo txarto erantzuten daniñ edo ba, satarkeridxe esaten da.* || *Bai, berdekeridxe esaten danin be bai, satarkeridxek edo berdekeridxak esaten da.*

**satarreri, satarreridxe, satarridxe.** (ZATARRERIA) Maleza, matorral, zarza. Ik. *sikiñeridxe.* || *Satarreridxak dire, esate baterako, basue, edo mendidxe dau, sikindute otas, da ba aspiarriripe-estau, da satarreridxe dator dana, dana, oti-edo.* || *Satarreridxe ba: nai giñerri, nai otie, nai mendidxena, nai basuna, erretzen dana, ba bedarra etorri bierrien, mendiko bedarra-edo, basoko idi-edo etorri bierrien, antxe artien datorrena: satarreridxe.* || *Basamortu da es etzerik, es esebes, da sikiñe, ta satarreridxe ta illune. Basamortu esate dxake areri.* || *Sastrakie*

da *satarridxas daun sastrakie*. *Sastraki batzuk esate tze*. *Sastrapi be bai*. || *A betegarridxe bota orduko, botate dxako odoldidxe, odoldidxe edo bedar sarra ta olako satarreridxe*.

**satartu.** (ZATARTU) Envilecer. *Santartu ere esaten da*. Ik. *tropetu*. || *Satartu ein da ori*. || *Tropetu? Ba satartu esati les*.

**satero, saterue.** (SATERO) Musgaño, pequeño mamífero insectívoro, semejante a un ratón, pero con el hocico largo y puntiagudo. || *Sateruek sagun antzekuk dire*. *Katu pe onakorik estabe jaten*. *Atrapau igul eingo tzu, ta amen itxi*. *Amen gure katutxu one pe onek atrapau ittu oin, ekarri ittu orra, ta an bapes, olgeu eitten deu*. *Da sagu jaten dabe*. *Diferentiek dies sagudandik orrek, sateruek*. || *Saterue sagun antzeko patarixu bat -ta, txikitxue, saterue, da jeneral eitten deu kalte lurrien, eitten deu, te persegite tze lorari tte olan persegite tze sateruk*. || (Saterue) *katuk atrapau, te il, de itxi, da estabe jaten katuek, santarra ixen bi deu*.

**sati, satidxe.** (ZATI) **1.** Pedazo, parte. Ik. *menosa*. || *Ogi satidxe*. || *Satidxe ebei*. || *Emetik Gernikara sati lusie dekosu*. || *Bueno, emen puski bayo satidxe esaten da, satittu, "Txarridxe satittuten das"* || *Sati bet Nabarrisku be basara*. || *Iñusidxako leixie? Allustira juten ei da, Allustiraño ango ure*. *Oiñ igul es*. *Aintxiñe se esate ben? An lexara jeusi, lexera jeusi, enbran bat-edo*. *Estakixu? Estekosu entzunde? Ni pai*. *Lexara jeusi*. *Eta gero aren enbrien gonien satidxe Allustiñ urten*. *Eseutuko ben kolorie*. *Lexara jeusi, ta ure doye*. **2.** Parcela. Ik. *trosue*. || *Mendi sati bet*. || *Baso sati bet saldu da*. || *A satidxe garbitzen noyek*. **3.** Espacio de tiempo. || *Sati baterako dekeu*. □ **satidxe ...-au**. Con mucho, por mucho. || *Ori eitten badosu, ondiño satidxe txarrau*. □ **sati-sati ein**. Despedazar, desmenuzar. || *Sapaldu lurre, ta satittu, satittu, sati-sati ein, da lurre biguntze ban, da artu erain-edo eitteko sestuas paseta san*.

**satike.** (ZATIKA) A pedazos, por partes. || *Arbela be bai*. *Arbela da...*, *arbela, seinde troska antzera eitten dana*. *Satike-satike oten da arbela*.

**satittu, satitzen, satittuten.** (ZATITU) **1.** Partir, dividir, despedazar. Ik. *ataldu, txikittu*. || *Satittik ori!* || *Txala satittu*. || *Egurre satitzen ixen gara*. || *Txarridxe iltten danin, beres, odola atarate dxako, ta itxi eitten da otzittu artin*. *Da gero otzittu te gero, ba goixin satittu eitten da*. ||

*Txarridxe satitzen dabil*. **2.** Repartir. || *Solu satittu dabe*. *Lau sati ein dabe*. **3.** Despedazar, destrozar, hacerse añicos. || *Dana satittu da (basue)*. || *Emen olanik daunin tela bat, edo saku bet, edo seoser ba, dana satittute, edo dana sulotute, "Dana bringeldute dau" alakoxiri esate dxako*.

**sator, satorra.** (SATOR) Topo. || *Sator bidik daus or*. || *Satorrak il? Aintxiñe atxurras*. *Oin tranpakiñ eitten dabe, da tiruas be eitten dabe*. *Tiruas bera jo es arren, geldi egoten da aturdidute*. *A ein, atxurras eitten bosu, ataratosu; ostantziñ es*. *A denporie iste bautzesu apur bet, badoye osta be*. *Ba, atxurras len seintzen beti*. *Onan atxurre artun, da plantau onduen, da jeneralien juten dabe eberdidxen amabidxen bueltan, da euskidxek sartu eidxeran olan, goixien be goixetik*. *Baya egune argittute*. || *Satorra atxurras atate tas nik*. *An dabixenin lurre joten...* *Ointxe, pasa dan astin bata atara naban*. || *Satorrak igul eitte ittu pilluk atara, ta isten deu, igul gero ara jute sara, ta: "Kaguen, barridxen barres be ein dxok!"* || *Satorra da lurren aspittik ibiltten dana, karkabak eitte ittuna albuen, aspidxen*. || *Sure gixonak jaso erun deu umi ba, satorrak esteutzo atrapauko sapatarik!*

□ **sator pillue**. Montón de tierra removida por el paso del topo. □ **sator sulu**. Topera. || *Sator sulu bai, bakit ser dan! Bai, kalte eitten deu, se asko egon es arren, ba ataraten daben lurre... moltzuek, emen pillo bat, an pillo bat or pillo bat eta arek e kalte eitten deu, arek e bedarra ixeteko, nai edosetan eitten deu kalte*. *Segaittik? Ba lurrek atarate ittulako gora-goraka eta bertan on dan geusiri estetzolako isten asten*. □ **satorrak jo**. Socavar la tierra el topo. || *Satorrak joten deu da lur pilluk atarate ittu*. || *Satorrak motan be joten deu, da berak erres dekon lekun joten deu* || *Satorrak jo dxok amen be*. || *Satorra joten dxak*.

**1 satz, sas, satza.** (SATS) Estiércol, abono. Ik. *simeurre, onurie*. || *Ardi satza*. || *Olo satza*. || *Kortako satza*. || *Satza ein*. || *Satza atara*. || *Satza sabaldu*. || *Satza, freskue, ganadun aspittik, len ganadueri oye eitteko, aspiarridxe esaten dana, idi eta orbela ta botata, ganadue epel-epel...*, *gero pekotza ta txis eta basurie, satza eitte san*. *A ganadueri kentzen geuntzenin, areri satza esate geuntzen beti*. *Sarrari, an bastante korta atzeruntz dauenari, areri simeurre*. || *Emen ixen bi dekos: satza be bai, te simaurre be bai*. *Emen*

*bidxetara esaten da. Simaurre batzuk esaten dabe, bestik satza. || Simeurre esate tzeu guk. Satza ero simeurre. Batzuk satza esate tze, bestik simeurre. Asitzeko geidxau. Se len asko biste san. Da eitte be alan, da gero pillau. Urtin baten kendu, te atza bota otie ta aspiarri satarra-ta botate besan, an ein deidxen ori. || Igul burdi bi-edo usete sin len. Bat usete san satzetako, kajias. Da besti usete san e aspiarritteko. Idie. Idie bakixu ser dan suk. Idetako-ta. Da gero ein biste san kanbidxau. A satzetakue iste sendun kortan edo tejamanan, da inkete sentzon bestie. □ **satza les.** Mucho, -a, en abundancia. || *Dirue satza les deko.* || Geuse ugeri dauniñ, asko daunin, ba "Satza les dau". □ **sas pillue.** Montón de estiercol. □ **satx seye.** Estiercol menudo. || *Oiñ esta eitten satz seri paya makiña bat aspiarri basutatik ekarritte, satza, beidxek aspidxen dekena batu de pillau eitte san. Pillau, ba ein deidxela, erre, satza erre. Da gero erreten danien satza, olanik geuse, se esangot neuk?, arturi botate dxakon, baya ortutarako-ta satza jo eitte san, jo, da birrindu. Da satz seye. Ortutarako-ta ba, solorako bayo geidxau ortutarako, ortuaridxentzako gasteta san. □ **irauleko satza.** Estiercol del muladar situado frente al caserío. || *Irauleko satza: ori kanpoko satza. An kanpun, len e emen be eitte san e astu egote saniñ e, da pekotza dana batu te dana leku batera ein de iraualeko satza. || Irauleko satza? Etzaurreko satza da ori. Etziñ eurriñ eitte sana len. Botate san aspiarridxe, da urte gustidxen an dabillega ganadu edo besti dabillega pasuk-eta, axe iraualeko satzak, etzaurreko satza. Baya orrek e leku gitxitten eitte sin. Orrek eitte sin... Geu pe bai. Ni txikitxu nintzenañ emen etzaurrien, or be eitte san. □ **satza atara.** Sacar el estiercol de la cuadra. || *Jeneralin, ba kortakuri "Simeurre ataraten" etxak esaten jeneralien, "Satza ataraten bayo". Baya soluen sabaldukeran esaten da bidxetara, "Simeurre sabaltzen", ero "Satza sabaltzen". □ **satza bota, sabaldu.** Abonar, estercolar. Ik. *sastu.*****

**2 satz, satza.** (SAHATS) Sauce. || *Satz arbolie. || Satzak estau balidxo ixeten e sererako..., ser esangot neuk? Satzak estau balidxo egurrerako bayo. Da arbola aundidxe esta asten, espabese ba txikidxe ixeten da. Emen beintzat estire eundidxe asten.*

**satzes.** Abundante. Ik. *satza les.* || *Diru satzes deko.*

**satzittu.** (SATSITU) Estercolar, abonar. *Sastu eta satza sabaldu ere esaten da.*

**sauku, saukue.** Saúco. || *Sauki: baya ori arboli ori beres lurrek emoten dabena da, esta es sartu, te es eitten, da beres, berak emoten daben lorie esta, motza be esta ixeten, da orri berdetxuk-eta aste ittu, te lodittu be esta eitten, da ba, olan esta ixaten lodidxe be. □ **sauku lorie.** Flor de saúco. || *Bueno, lorik urtete tzonien, lorik urtete tzo udebarridxen, ointxe urtengo tzo laster e, da lori-edo, sauku lorie.**

**saunkotz, saunkotza.** (ZAUNKA-HOTS) Ruido de laderidos. Ik. *seunkie.* || *Len gabetan saunkak. Txakurre les eitte ittu saunkak. Da iguel bentana tapak sabaldu te eu-eu-eu! Iru jote ittu jeneraliñ aseridxe. Da umetan danin saunkeka, beiñ e gabardi eskero urtetan dau or gabeko amaikak bueltan. Da saunkotzik ibiltten dabe egaletan. Ba oiñ es. Oiñ esta... Len dana aseridxe, bueltan.*

**sauri, sauridxe.** (ZAURI) Llaga, herida. Ik. *urrukadie.*

**saurittu.** (ZAURITU) Herirse. Ik. *mankau.* || *Saurittute geldittu da ori.*

**sauste-sauste.** (ZAUSTA-ZAUSTA) Atropelladamente (referido a comer). Ik. *trope.* || *Sauste-sauste jan: jaten danari e, asko jati gustete dxakonari-edo ba, gustoko geusi danari ba: sauste-sauste jan. || Txakurrek sauste-sauste laster jango deu. || Sauste-sauste jaten dabe. || Sauste-sauste deutzo.*

**saya kanpana.** Especie de falda larga. || *Saya kanpana: len asko erute san alakue, oiñ esta ikusi be eitten alakorik.*

**sayatu.** (SAIATU) Ensayar, procurar, intentar, esforzarse. *Alegindu sarriago entzuten da. || Sayatuko nas preguntetan.*

**sayeski, sayeskidxe.** (SAIHESKI) Carne de costilla.

**sayetz, sayetza, saitzza.** (SAIHETS) Costilla. □ *Norbaitek ezkondu behar duenean, honela esaten da: Saitza apurtu tze. □ **sayetzak eusi.** Amonestar, publicar por proclama un matrimonio. || *Deidxek ixete sirin, de deidxek gaste siriña: "Lelengo sayetza eusi dxako areri be", ta ori kostunbrie. Baya oiñ orrek astu ein dire, esta esaten ainbeste, baya bai nire denporan. Nire denporan ori esate san asko, "Sayetzak eusi ittues", edo ba "Sayetzak asi dxakos eusten" edo. || Elixako deidxek aste dixerinien len, ba esate san. Deidxek aste**

siriñina: "Asi dxakos sayetzak eusten". □ **sayetz asurre**. Costilla. || Andrie gixonan sayetz asurretik eiñekue da. || Sayetz asurrek apurtu eskerun, ordun be medikuanera erun bi ixate san, neure gixona baten mendidxen, jun de mendidxen saldidxek golpi emon da apurtu sittun-de.

**se**. (ZER) Qué. || Estaipa olakuk se ixen euki leidxen. □ **se ikusidxe**. Espectáculo, algo digno de verse. || Ikustaldidxe: bistias ikusten sun geusie. Oiñ esta usetan ori, baya len aintxiñe batzuk ikustaldidxe... oiñ se ikusidxe esaten du. Se ikusidxe ikusten, "Se ikusidxe dxak an"-da, ikustaldidxe barik. Jaidxe-edo badau e, edo jenti-edo doiñ errire, Ereñora nai Nabarrixera..., "Bai, se ikusidxek dxasak an". Oin beste batzuk esaten dabe "Ikustaldidxe dxauk".

**se**. (EZEN) Porque, puesto que, ya que. || Iguel txaparako tranbutan ebai bixu, se ostantzin luse dau te. || Atzerakuntzi emon tzat se esin lei ein de.

**se, seye**. (XEHE) Menudo, -a, diminuto, -a, pequeño, -a. || Arrain seye. || Arri seye. || Adar seye. || Seye esate dxako geuse txikidxe danari. || Txori garidxe be egote san, setxu ixate san txori garidxe, berau setxu, baya onetan estimau ibiltte dan txori garidxe, estabela jaingorik eukitten-da, ondo emoten dabela-ta. || Emen umiri-tte esate dxake, uli xi-xi-xi-tte ebeitte eukitten badabe, sorridxek dekoselako, edo seosegaittik: "Buru gorridxen itxi dabe". || Birriñek das saidxen klase lakue. Birriñe da, seyau isten da birriñe. || Gari gorridxe ibiltte gendun, gari gorridxe esate dxakona. Da txori garidxe be bai, se-setxu ixeten da. || Ori jeneral e euri lanbru eitten dabeniñ, a euri se-setxu jeusten daniel, orduntxe oten da goidxe soittute. || Len es eun es neberarik es frigorifikorik es konjeladorarik. Da orrek txorixuk kuretako, galtzu ebei se-se da kaixan, orrek aintxiñako kaxan barrun danak nasteute egote sin. || Da geuse se bat ixeti les da ori. Geuse se-se-seye danari brintzi esate dxako. □ **egur seye**. Leña menuda. || Mukurre ba sueri albur ipintteko-ta, besueri, aintxiñe besue eitte san, dana bekue, da ba mukurrek, mukurrek sartun. Mukurrek albutan ipiñi tte gero egur seye erdidxen ipiñitte su eitteko. □ **satz seye**. Estiercol desmenuzado. || Oiñ esta eitten satz seri paya makiña bat aspiarri basutatik ekarritte, satza, beidxek aspidxen dekena batu de pillau eitte san. Pillau, ba ein deidxela, erre, satza erre. Da gero erreten daniel satza, olanik geuse, se

esangot neuk?, arturi botate dxakon, baya ortutarako-ta satza jo eitte san, jo, da birrindu. Da satz seye. Ortutarako-ta ba, solorako bayo geidxau ortutarako, ortuaridxentzako gasteta san.

**sebo, sebue**. (SEBO, bilgor) Sebo, grasa. Sebue gogortuta egoten zen. Ik. koipie. || Sebo brildril batzuk? Bai, sebue ganadu iltten dabeniñ e sesiñek eukitten deu. Bildril batzuk e sati txiki batzu tire. □ Gurdiei ardatzean ipintzen zaionari sebue deitzen zaio. || Sebue emoten dxakon burdidxeri. || Sebue, gatzi paku, gordete san burdidxetan eitteko, ardatzien, labanduteko. □ Txahalak sebue nahiz koipie egiten duela esaten da; txerriek, ordea, beti koipie. || A sebue asko eitten badxako, ak kirriñik esteko. || Koipe asie txarri sebue da, txarridxen koipe asie. Txalana sebue, bortzegidxei-tte emoteko sebue ixate san.

**sebotu**. (SEBOTU) Ensebar. □ Tratantea txahala eroatera etortzen denean ere honela esaten du: Jo, au sebotute dxak, total sebotute!

**sebotzu, sebotzue**. (SEBOTSU, bilgortsu) Seboso, grasiento. Ik. koipetzu. || Au sebotzu dxak!

**sedasko, sedaskue**. (SEDAZKO, zetazko-bat.) De seda. || Sagusarrak eukitten dabe telie sedasku lakue.

**segaittik**. (ZERGAITIK, zergatik-bat.) ¿Por qué? || —Segaittik? —Seosegaittik! || Estau segaittik.

□ **segaittik edo agaittik**. Por algún motivo. || Segaittik edo agaittik kutxillo da gusti juen san.

**segidu, segiten, segiduten**. (SEGIDU, segitu-bat.) Seguir. Ik. jarraittu. || Ori pardel ori guri segidu esiñik dator! || Gero segidu oneri piñu illadiri, da gero bederatzigarren piñun eskerrera korridu.

|| Esate baterako, biargiñek bautzo, da gero itxi tze: "Segidu idxok arluri!". Beran lengo biarrari segidu deidxola. || Orrek berbik esteu segiduten.

|| Bai, uregasidxe berdie ixeten da, uregasidxe txikidxe ixeten daniel, txikidxe ta asidxes-asidxes e gero be berde seiduten deu, baya ain berde esta egoten. || Besti gabilloi txikidxe txikidxau da asko be, amen txori txikidxei-de segite tzena.

**segiduen, segidun**. (SEGIDUAN, segituan-bat.)

1. Seguidamente, a continuación. || Jan, da segidun. 2. Seguido, sin interrupción. || "Etorri ona dxekok orrek": berba segidun asko eitten deuna: "Etorridxe, orrek dxok etorridxe!". || Tangadie igul eoten da ittoiñin be tan-tan, "Tangadi dxak an tellatutik". Da beste batzuk



esaten dabe bai ittoiñe, tantie, "An be tanti jeustok". "Tangadan dau" esate baterako ba segidun badau "Tangadan dau", an tak-tak-tak jeusten badau.

**segidxen.** (SEGAN) 1. A continuación, inmediatamente. || *Goixin gibela jaten da. Ba berakas sopi eitten da jeneral, da gero gibela. Baya ori ixeten da txarridxe il da ya segidxen.* || *Papardue arraindunek ekarte ban. Bixiri pe es ittun ekarten, baya seinde bixirik balego les, arek atrapau te, itxosun atrapau te segidxen les ekarte sittuen.* || *Kara bixidxe ein bi da artu kalerutik eta solora erun segidxen, errementau deidxen.* || *Mietza: solun, esate baterako, artu-edo erainde, edo erromalatxi-edo, da erneten espada dana segidxen, edo eraitten dan moduen: "Mietz dau", "Mietz etorri da".* 2. Junto, al lado. || *Da elixan tellatuas tapauneko lekue egon san elixien albotxuen, bertan elixiri segidxen egon san.* || *Beste idie asten dan lekuen ba ori be arantzau edo onuntzau asten da, baya ori beste idi moduen franko esta egoten. Ba an bat eta beste bat beste leku baten, da esta..., alkarren segidxen estau.* || *Elixiri deutzela egon san len, elixiri segidxen deutzela.* || *Bedarra ebaten ba, serrada bat bedar kodañas ebaten daniñ olanik segidxen-segidxen ba, "Sirrinda bat bedar ebei ot".* 3. Siguiendo. Ik. *ondorik.* || *Segidxen dator.* || *Bei bat eruten danien e sokatik-edo ba oratute, noberari segidxen eruten daniñ a be trallan doye.* || *Arek e piñu asko daun lekuen, piñotik bajatute, arek e... Selan esangot? Ibilten dire kokotxuk alkarren segidxen.* || *Bata bestin segidxen.*

**segun.** Según. || *Segun se objeture doyen.* || *Segun selan etorten dxatzun.* || *Jenerala senbat e txondorrak? Mille... Mille killokue txondorra politte. Da iru mille killo txondor desentie. Segun selako lekue ta.* || *Segun trasie.* || *Kolorie aldatu be, batzuri eitte dxake, beste batzuri etxake eitten, segun noraiñoku dan beren mingostasune.*

**segurantzaz, segurantziaz.** (SEGURANTZA) Seguridad, certeza. || *Sigur esan barik, dudan, segurantzaz fiju barik.* || *Segurantziaz abil?* || *Fidxosu badau, "Segurantzazari pouko pa, segurantzazarik?". Ya fidxetan bada, oso fidxetan bada, "Segurantzazari pai?". Se nik, esate baterako, diru emon, da "Segurantzaz emote tzet pa, segurantzaz?".*

**seguru.** (SEGURU) Seguro, seguramente.. Ik. *siur.* || *Seguru dau.* || *Seguru au?* || *Seguru da bera etorri dana.* ☐ **segurutik.** Seguro que... ,

seguramente. || *Segurutik dator.* || *Orrek segur-segurutik lenauko aintxiñeko sarrak garidxentzat eindakuk ixengo dire orrek, dibujukin, de elegante batzuk ganera.*

**sei, seidxe.** (SEI) Seis. || *Sei kanpa.*

**seiki, seikidxe.** (SEIKI) Seismesino, -a. || *Seikidxe: ume jaidxoten dana sei illebeteas.*

**seiko, seikue.** (SEIKO) Grupo o conjunto de seis. Ik. *seikotie.*

**seikote, seikotie.** (SEIKOTE) Conjunto de seis, sexteto. Ik. *seikotie.*

**sein.** (ZEIN) A Cuál, qué, cuáles. || *Erromatera jute siren, da seinek geidxen agindu, arixeri emon urtebeterako.* || *Jokue ornidu? Joku ipintten dabenien, alderdi bidxetakuk ba bateri emote tze diru, ornidu. Are bestik gorde eitten deu a diru joku eiñ arte, seiñek irabasten daben berari emoteko. Joku ornidu oixe.* || *Sure seiñek geidxau eitten dabixenien, surek txikitzen ibilten dire, da arixeri kentze tzesan sospalak, arixeri kentze tzesan satidxek esate tzeu sospalak.*

**B.** Cuán, qué. || *Sein gixena dxak ori!*

**C.** Ya... ya..., bien... bien, tanto... como... || *Seiñ arra, seiñ emie.* || *Geusi susen eitten deunari esate dxako: "Dxasa badxok orrek edosertako, biar gustitarako!". Moldau danetara eitten dala, sein batara nai bestera, ba dxasekue.*

**seinde.** Tal cual (Muletilla que se usa al hablar, principalmente delante de un ejemplo o una comparación). || *Morroidxe, etzin laguntzen dabena da morroidxe, seinde obrerue ixetie les.* || *Iduridxe da, seinde... iketzen eutze lakue; aixerik-eta artu esteidxen eitten da a bota.* || *Da gero siketute goxuk urtete ban, normui jateko, siku-siku einde, seinde pernidxe lantxik gelditzen san a.* || *Bueno, bai erain be eitten da ta geuk estou asko kastetan, da onetan asko esta kastauko baya eskaroli ba seinda asi moduku edo ser esangot nik ba?* || *Da osasun bedarra esate tzeu. Ori e atzamarrin kortadi-tte einde be, ipiñi eitte ben, seinda kipuli moduen, txarrikeridxe atateko.*

**seken, sekena.** (ZEKEN) Avaro, -a, roñoso, -a, tacaño, -a. Ik. *eutzidxe, sikotza, lukerrerue, sistriñe.* Dena den, *sekena* gutxiago erabiltzen da. || *Sekena da iñori eser emon gure esteutzona.*

**sekenkeri, sekenkeridxe.** (ZEKENKERIA) Tacañería, roñería.

**sekentasun, sekentasune.** (ZEKENTASUN) Avaricia, tacañería.

**sekor, sekorra.** (ZEKOR) Becerro, ternero. || *Allustiko sekorrak adarkaridxek dire.* || *Sekorra*

da iskuie, da sekorra esate tze batzuk baya sekorrari iskuie esate tzau jeneralien, esate baterako, isku txikidxe, edo sekor txikidxe be bai. Da urrxi bada, biai ero bintzi esate tze, da bestie, matxo bada, sekorra. || Jaidxokeran be iguel esta jakitten emi bada ala arra bada, da emi bada, "A, bie ok au", da bestiek esaten deu iguel matxu bada, batzuk esate: "Iskuie ok", beste batzuk esate: "Sekorra jaidxo ok". Bidxetara esate deurie. || Arra bada iskuie, txikidxe bada iskotxue edo sekortxue.

**sekule.** (SEKULA) Nunca, jamás. Ik. egundo. || Ori beti dak demandan, orrek sekule etxok dirurik eurreratuko. || Suk esendun sinttarik ikusi sekule? || Sekule estot ikusi. || A atxegi aundidxe deko, dana tapeten deu. Da eleko topeuko olan len sekule egon bakuk. || Da igul e ori e askotan ori be egoten da, persona eskasa-ero, "Sekule egosirik jan bakue!". || Da onen anaixik euki ban txondorra Mugiren. Ointxe sekule etxat asten. || Ni sekule enas ixen an, baya ortik mendittik danak len ikuste siren. || Ni sekule, iños egon nasenik argalen egon nitzen. □ **sekula bes.**

Nunca. Ik. iños bes. □ **sekule bedarra.** Trebol común (*Trifolium pratense*). || Sekule bedarra esate tzau guk orreri. Asitzue. Gorridxe. Bola gorridxe ataten deu orrek, dana asis beterik. || Sekule bedarra agostun be ereitten da, udeguenien be bai ta sekule-bedarra edonois. || Sekule bedarra: iru orrikue. || Sekule bedarrak eta orrek dire ariñen aste dinak. || Sekule bedarra beidxek jaten dabe. Orrek bedarrak irauten deu iru urtin bai. Baya batzutan ekarri ein bi ixate dxako, se aspidxe etorte dxako ta, aspidxek jan esteidxen. || Beidxek malagani dekeniñ edo olanik e igerte dxakeniñ e ausnar estabela eitten-edo, da ordun emote dxake beidxeri sekule bedarra. || Ori sekule bedarra be txarra san, asko emoteko. Sekule bedarra berun emoten badxakon pustu eitte san ganadu. || Sekule bedarra bueno! Sekule bedarrak len onen tamañotxu artze ban, baya korti emon biste dxakon arin, txapeldu orduko barridxe emon deidxen. Se eundidxe eitten basan, gero ya esan..., usteltzera jute san, da gasterik ebai biar.

□ Hiztegi batzuetan hau eta irukotxa sinonimotzat jo arren, ez ei dira bat: || Sekule bedarrak eta irukotxak antzekuk dire, bedar bigunek dire, baya estire bat. Sekule bedarrak orri sabalau eukitten deu, irukotxak eukitten daben bayo, baya bidxek dire, se esango neuk?, motan barik solun eraitten dirinak. || Gero sekule

bedarra. Oiñ orreri ori esate tze, oiñ orren antzekue irukotxa, esate tze irukotxa, oiñ danak irukotxa esate tze, guk sekule bedarra len. Eske diferenti di ixetes. Bai, sekule badarrak len emote basen iru-lau korte, ondo. Ba, gero urti jun urti etorri galtzekuk dix ariñau. Oiñ sekule bedarra esta lengo modun e..., eraiñ arren e ya urte bidxen ya galdute. Da len lau-bost urtin baten ereinde. Da ori be alfafi be bardin-bardin. Emen alfafik estau emoten. Alfafi galdu eitten da. □ **sekule geidxau.** Nunca jamás. || Sekule geidxau ikusi eingo espaneu!

**sekuleko, sekulekue.** (SEKULAKO) Excelente, magnífico, estupendo. || Sekulekue da! □ **sekuleko geidxen.** Más que nunca. || Jente asko eurton! Sekuleko geidxen! Denpora ona ei ban e! □ **sekulekuk ein.** Hacer esfuerzos muy grandes. || Bai, beren buru bota ban, araxe barrura. Da gero bera atara esiñik sekulekuk ein sittuen. □ **sekulekuk esan.** Cantar las cuarenta. || Sekulekuk esan ttu!

**selai, selaidxe.** (ZELAI) **1.** Campa, prado alrededor de la ermita o en la barriada en donde tenía lugar la vida de social de los vecinos o que se utiliza para atar el ganado, pero que no se cultiva. Ik. landie. || Selaidxe ixeten da erreminttin bueltan. Barriadetan be egoten da selaitxue. || Selaidxek erridxenak dire. || Len txikidxek giñenin, juten giñen orra bera, kopradidxa esate tzeu ba bekuri. Da an txabola baten, or berton ikusten dan leku bet txabola baten bueltan, erdi leune, da a selaidxe, da bestie, txikitxuaue berau, a selaibiko. || Selaidxek len eitte siriñ olgetako. Landie bedarretarako da. Landie ya konsumorako gausie, bedarra-ta, olakoxe gausie artzen dana. || Selaidxe da leku leune, edo naiku leune dana, da bedarra edo seoser asten dana, edo umik olgetan ibiltten diriña. || Len jentetan eskandalu te danak dantza solti te erromeidxak. Lau-bost soñu jotzailak eurek kobretan, eurentzako korruk einde, da bakotxak beren selaidxe artute, da an. **2.** Llano, -a, plano, -a. || Selaidxe leku leun bateri-edo esate dxako. || Selaidxe dau. || Selaitxu dau. || Bai, leune bada, solue leun-leune, ba esaten dabe: "Solo selaidxe dau".

**selako, selakue.** (ZELAKO) **1.** Cómo, como qué, semejante a qué, de qué naturaleza. || Selakue da? || Estaitt mendixori selaku dan be ta nigaittik gure daben moduku egongo da. || Jenerala senbat e txondorrek? Mille... Mille killokue txondorra

*politte. Da iru mille killo txondor desentie. Segun selako lekue ta. || A, bai, bai, bai. Ointxe, ointxe burure etorri dxat selaku dan. 2. Qué, en frases exclamativas. || Selako kantzakixune dekot! || Selako arraspadie ein dot! || Selako atza dau emen! || Selako plastadie emoste! || A selako ekittaldidxe ein doten! || Antxe euen metal ure, metal ure, da jute giñen bille, ona dala ta. Selako grasi eukitte ban ganien ikusgarridxe ak urek.*

**selan.** (ZELAN) 1. Cómo. 2. Que (introduciendo una frase completiva). || *Amen berton bat ganera urran, Kurtzianetik e ona datorren e bidin. Oin be esa netzon semiri selan ota karabidxie an esautu naben suten. □ selan..., alan...* Tal como..., así... || *Selan etorri dirue, alan gastau.*

□ **selanik.** Cómo. *Selanik esango tzut pa?*

**selanbait.** (ZELANBAIT, nolabait) De algún modo, de cierta manera.

**selango, selangue.** (ZELANGO) Cómo, como qué. || *Masue: sokillek apurtzeko ibiltten dana, baya estakitt oiñ iñok eskun artzen badeu te askok jakin be estau eingo selangu dan be.*

**selaun, selaune.** (SELAUN) Secundinas, placenta. Ganaduen kasuan umetokidxe esaten da. || *Selaune da partun eukitten dabena umiek. Partuen umiekiñ etorten dana. Inkeute amari egoten ei da. Da selaune, ba, kendu-edo ein bixate dxake. || Selaune ixengo da, igul, umi daun lekue. A kendutekue. || Esate baterako, selaune esate dxako, parto baten, atzetik etorten dan..., selaune. Da ganaduri-tte esate dxake ganaduk botaten dabeneri-tte, umetokidxe. Da persona, andriek botaten dabena esate dxako selaune.*

**selebre, selebrie.** (XELEBRE) Gracioso, chistoso. || *Selebrie da txistiek esate ittuna.*

**selebrekeri, selebrekeridxe.** (XELEBREKERIA) Ocurrencia, humorada, dicho o hecho ingenioso/agudo. || *Areri erresaidxo bedarra esate tze batzuk beiñipein. Muittie emen. Da olanik selebrekeri modun esan gure dabena: "Erresaidxo bedarra naiku dau or be". Ori be bai, baya ostantzien muittie.*

**selemin, selemiñe.** 1. Celemín, medida de capacidad para áridos. *Kuartie ere esaten zaio. || Selemiñe neurridxe da. Selemiñe ixeten da granuek neurtzekue, da selemiñe ixeten da ba txikitxue, olan, selemiñek eukitten deu imiñi bat, pentzete-ot. Da imiñie da aundidxaue, anegiñ erdidxe neurtzen dabena. Da selemiñe da ondiño be txikidxaue. || Selemiñe bat arto. || Selemiñe bat*

*gari. 2. Cajón de madera donde se miden los áridos y marca la medida del celemín.*

**selo, selue.** Celo. □ **selun sartu.** Entrar en celo. || *Ganadu selun sartzen danin, olan ba, ya bakiñ esiiñ egoten danin ya, "Berotute dau" esate dxako.*

**seme.** (SEME) 1. Hijo. 2. Hijo (de un país, pueblo...). || *Muttibarko semie san au. || Ixetes esta bertoko semie. □ seme-alaba.* Hijos (hijos e hijas). || *Ainbeste seme-alaba asitte! || Amen bederatzi seme-alaba asi gendusen. □ seme bakarra.* Hijo único. □ **seme begikue.** Hijo favorito, preferido. || *Seme begikue izen deu! || Ori seme begiku da. □ seme kutune.* Hijo favorito, preferido.

**semendi, semendidxe.** (ZEMENDI, azaro) Noviembre. || *Garidxe semendidxen ereitte san. || Egune laburre egoten da semendidxen. || Nabondue? Ba nabue, oin bayo ariñau eraitten da, semendidxen eraitten da.*

**sementasiño, sementasiñoie, simentasiñoie.** (ZEMENTAZINO, zementazio-bat.) Cimentación. *Simentasiñoie ere batu dut, baina gutxiago esaten da. || Sementasiño: sementuas eitten dan amasie, da gero ormari botate dxake. || Bueno, sementasiño da simentasiñoie, kontixu ba tire. Sementasiñoie nai simentasiñoias bardiñ aittuko dabe.*

**sementera, sementerie.** Semillero, sitio donde se siembran y crían los vegetales que después han de transplantarse. || *Sementerie da, —ori sati bet erderas esanda be badau, sementerie, baya euskeras be axe esaten da—, da esate baterako, batek ein gure deu ba, tomatik ipinttie, da erneteko, sementeran ipintten dire. Sementerie satz frankuas-da ipintten da, ondo, sartute, da gero asidxe eraitten da antxe, landarik urten deidxen. Gero eruten dire solora, edo orture, leku geidxaure eruten dire, ta sabalau ipintten dire. Or sementeran egoten dire erneteko, da sartzeko bestekuk asi artien, antxe egoten dire, da gero sartzeko bestekuk asittekun sementeran, arek lurrera, orture, edo solora ataraten dire. || Sementeri da landarak artzeko lekue.*

**sementu, sementue.** (ZEMENTU) Cemento. Ik. *porlana. || Emen sementu bateri esate tzeu iraulikie.*

**semeorde, semeordie.** (SEMEORDE) Hijastro. || *Semeordie da ba, esate baterako, ba alargundute dau ama-edo, da bigerren biderren eskontzen da*

*beste gixon bategas, da arentzako gixonentzako a semeordie da.*

**semetzako, semetzakue.** (SEMETZAKO) Hijo adoptivo. || *Semetzakue? Batanbatek umi artute berentzako modun asten dabena, bai, semetzakue.* || *Eurena esta umie, semetzaku da.*

**sen, sena.** (SEN) □ **sen bakue.** Atontado, -a, insensato, -a (tanto en sus palabras como en su actuar). || *Sen bakue? Ba se esangot neuk? Ganorabaku-edo, ainbeste ganora estekona-edo.*

□ **sen barik.** Sin ton ni son, sin saber. || *Sen barik berbetan ekitte tzo.* □ **sen baten egon.** Obcecarse, mantenerse en sus trece. || *"Sen baten dau": erixi baten daula, sen baten lenguas dabil.*

□ **senetik urten.** Ceder, abandonar una postura de obcecación. || *"Beren senetik urten dau": ba berenetik urten dabela, bestiña beittu eitten dabela.* || *"Diskordidxaute dabil": ba "Beren senetik, erresotik urtenda dau" esati les.* □ **seniñ egon.** Obcecarse, mantenerse en sus trece. || *"Neure senin nau": Noberak pentzetan badeu erresoi dekola, da bestik estekola, ba "Ni neure senin nau".* || *"Neure senin nau": berenetik urteten estabena.* || *"Neure senin nau": estabena beren..., beren geusatik estabena urteten.*

**senaoridxe, senioridxe.** (ZENAORIA, azenario-bat.) Zanahoria (*Daucus carota*). || *Senioridxe? Ba untxe edo udegoniñ-edo, da ya ude gustiku emoten deu, nai udegoneku be bai. Da kastetan da bi danin, noberak.* || *(Senaoridxe) Baya batzuk asten dire eunditxuauek, da beste batzuk asten dire txikitxuauek eta arek txikitxuauek fiñauk ixete dire.*

**senbagarren, senbagarrena.** (ZENBATGARREN) ¿Qué número?, ¿En qué lugar? || *Beittu, oiñ nik esiñ esan neixu senbagarren eguniñ eitten dan be. Guk len e umie jaidxo eskeruen, orren eguniñ esin basan, egune bautixetan, urrengo eguniñ einbat ariñen erute san, baya oiñ olanik estabe eitten.*

**senbat, senbat.** (ZENBAT) Cuánto, -a, cuántos, -as. || *Oiñ enas neu jun beiñ aspaldidxon. Len bai, Jesus, senbat bider!* || *Nik a tente be esautu naben, a pague (Airoko pague). Nik estakit senbat metro eukiko ittun.* || *Senba denporan oten dan mutxuridxe? Ba segun denporak selakuk eitte ittun, onak eitte ittuen edo euritzuk eitte ittuen, se euritzu eitten badeu denporie, edo siketzeko esta modukue, siketu artin muntxuridxu oten da.* || *Kaguen, senbat biar galaso bistasun!*

|| *Totaleku sema da ba? □ senbat (eta).* Cuanto más. || *Segidun aintxiñe, senbat da ariñau, gurau.* || *Senbat eta geidxau jan, geidxau ekarten san maire.* || *An illundute erromeridxan, senbat illunau, posau.* □ **senbat... arenbeste.** Tantos como. || *Ganbelak eukitte gendusén, senbat e bei, arenbeste ganbela. Bakotxa berie ipiñi.* □ **geur senba dekos?** Qué día del mes es hoy? || *Geur senba dekos? Sei?*

**sendo, sendue.** (SENDO) **1.** Fuerte, firme. || *Manantial sendu da ori.* || *Ori sendu dau.* || *Au gixonesko bik-edo, ba sendu, nauku sendo dasenak, artzen dabe pinttittako partika bat, emen aurretik, da beste bat atzetik, da onexas markau eitten deu soidxe.* **2.** (Adizlagun gisa) Fuerte, firme, constante. || *Jan gitxi da biarra sendo.* || *Kikili-mokolo dabil, sendo estabil.* || *Sendo asi.* || *Bai, gabin be sendo eingo ban a, sologetan karkabak ein ttu ta.* || *Euri asko daniñ e, euridxe sendo danien ba da jeusten dire tellatuti pa ittoiñek, da zrixeri esate dxako, jeusten danari, ittesurie.*

**sendogarri, sendogarridxe.** (SENDOGARRI) Refuerzo, base, apoyo. || *Olan gause bat debille badau, esan gure ot, e, seoser badau, da seoser sendotzeko ipintzen badxako, beste sati bat-edo, ba sendogarridxe esaten dxako.*

**sendotasun, sendotasune.** (SENDOTASUN) Fortaleza, vigor.

**sendotu, sendotzen.** (SENDOTU) Fortalecerse, sanar. Ik. *saneu, indartu.* || *Geixue sendotzen asi dok.* || *Geixue sendotus doi.* || *Banoye sendotues.*

**senidarteko, senidartekue.** (SENIDE ARTEKO) Familiar, pariente. || *Orrek senidartekuk dire.*

**senide, senidie.** (SENIDE) Pariente.

**senitarte, senitartie.** (SENITARTE) Familia, parentela. Ik. *famelidxe.*

**senitarteko, senidartekue.** (SENITARTEKO) Familiar, pariente. || *A senitarteku da.*

**senperren, senperrena.** (SENPERREN) Esfuerzos muy grandes. □ **senperrenak ein.** Hacer esfuerzos muy grandes, trabajar duro. Ik. *etenak ein.* Gaur egun gutxiago erabiltzen da esakune hau baina *"aintxiñeko sarrak esate ben ori, euskera klase ori"*. || *Senperrenak eiñ egun gustidxen da dirurik irabasi barik egun gustidxen!* || *Senprenak ein dittu.*

**sensarrada, sensarradie.** (ZENTZERRADA) Cencerrada. || *Sensarradie len alarguneri-tte jote tzen biarren biderrin eskontzen diriñin. Eote san*

*ba seoser, olako atrapeta san moduko soñu bat, gabetan-da jote ben, sensarradie.*

**senteno, sentenu.** Centeno (*Secale cereale*). || *Sentenun urune baltzau ixeten da.*

**1 sentidu, sentiduten.** (SENTIDU, sentitu-bat.) Sentir. || *Txakurrek urrun datorrela sentidu deu.* || *"Min sentiduten dot": bai, ori persona batek esan lei, ba, "Ementxe deket min", edo "Antxe deket min", "Min sentiduten dot ementxe"-edo.* □ **sentidute egon.** Empezar a sentir la vaca las molestias previas al parto. || *Beidxe txala eitteko daunin, ba "Sentidute dau", "Beidxe sentidute dau". Txala ein bi dabenin, ya asten diriñiñ ostikoka les, geldik egon esiñik les: "Beidxe sentidute dau".*

**2 sentidu, sentidue.** (SENTIDU, sentitu-bat.) 1. Sentido, sensibilidad. || *Asurre sentiduri parik garatzen daniñ asurrillek esaten da.* 2. Sentido, conocimiento. Ik. *konortie*. || *Sentidue jun dxako.*

**sentimo, sentimue.** (ZENTIMO) Céntimo. || *Esteko sentimorik.*

**sentzun, sentzune.** (ZENTZUN, zentzu-bat.) 1. Juicio, entendimiento. Ik. *adiñe*. || *Sentzuni pakue.* || *Orrek badeko sasoidxe sentzune eukitteko.* || *Sentzune gitxi eukitten deu abaspeluek.* || *Mamalie esate dxako sentzun biar beste estekenari.* || *Sentzune artu deu.* || *Sentzunek oso-osorik dekos.* 2. Sentido, significado, significación. || *Beren sentzune deko.* || *Olan esaten da, sentzun orretan.* □ **sentzun gitxikue.** Poco juicioso, -a. || *Ganguxe da mal baku, sentzun gitxiku-edo.*

**sentzunbako, sentzunbakue.** (ZENTZUNBAKO, zentzugabe) Insensato, -a, falto, -a de juicio.

**sentzundun, sentzundune.** (ZENTZUNDUN, zentzudun-bat.) Sensato, -a, juicioso, -a.

**señora, señoie.** Señora, dama. Ik. *damie*. || *Anbotoko señoirik berritten urteten deu andik, beren atxegi sulotik.*

**seoselako, seoselakue.** (ZEOZELAKO, zer edo zelako-bat.) De algún tipo, modo. || *Oin be erril bikuk, edo seoselakuk ba das, orrek txikitxuk erdidxekn sulu dekenak, estaitt selakuk dirin.*

**seoser, soser.** (ZEOZER, zer edo zer-bat.) Algo, alguna cosa. || *Seosertxu ein.* || *Argidxek dabis seosetan.* || *En fin, beti dau seoser!* || *Beste enparau pe seoser esango dxuek.* || *Amen saman eukitten dabe alan sosertxu, da gorbatadun subi*

*esate dxako.* || *Soser entzun nabela ta nau neu be!*

**sepa, sepie.** (ZEPA) Árbol joven y que crece formando un espeso bosque. || *Sepie: landara gastie.* || *Sepak edo adar txikidxek.* || *Baya emen jeneral eitten dire, kendu satidxe, da sartze dxakos ba adartxu bi, an mendetan dan lekuen askorias eiñ ebaitxu bet, da antxe arrakalatxun barrun sartzen dire, ta gora bera satitxu ipintte dxake sepie emoteko.* || *Begire esate dxako: kentze dxako asala, da asala, begire eitten danari, ba asala sartze dxako beste arbolina, da berak emoten deu sepie.* || *Aistidxe da aratxas sepi-tte deuna, areri esate dxako aistidxe.* Or beresidxe bai, Arrolan ainbaten daun aistidxek. *Emen es, emen oin piñue dau dana, dana piñu, emen-emendik estau aistirik.* || *Bai, asidxe erneten dauniñ-edo, errementaute dauniñ-e, esate baterako, artue, nai indarra, nai garidxe errementaute daunien, ya sepatxu les urteten asitte dekonin, ordun "Ernamindute dau" (esaten da).* || *Oneri gastañen separi atarate dxakesanari sumetzak esate gentzen.* || *Da aillarak dire esan dotena, gastañak dauseniñ e..., lau urtekuk-edo, estai senbat, senbat urte, se len aillarak eitteko, gastañe sepak eraiñ eitte sirien, bueno, da itxeraiñ eitte dxaken.* Da arixerri atarate dxake sumetza. || *Iñurrondokue neu pe estakitt asko selaku dan baya da..., selan esangot nik? Geusa bat e asko usetan estana-edo, ba iñurrondoku esate dxako. Olanik, ser esangot neuk? Da arbolie be estala esangot baya da sepa bat-edo, olan asko usetan estana.* || *An aldatza daun lekun bertan dau ba. Bai, an naiku, ainbeste sepa dekona. An dau kañoberi elegantie.* || *Gastie sepie. Es a sendue-eta.* || *Txarakadidxe: sikiñe, da ori sepie, eta dana sasi ta dana txarakadidxe. Ta bestie, beresidxe, diferenti da. Beresidxe egon leike garbi be, beresidxe. Sepie. Sepi ba guk esate tzeu landariri.* □ **arte sepie.** Encina joven. || *Arte sepie? Artin sepie, beyen emoten daben landarie. Txikidxe, etorten danin... Beste arte sarrak sepi emoten dabe. Sepi esate dxako barridxe emoten daunari. Da ostantzin be a asi tte gero, ba iguel gitxi etorri eitten da. Artik bakixu selako eskurre eukitten deun, ba andik bakidxe etorten sepik. Da gero an ikusi eitten deu seinde edosein landara les, geldi-geldi te "Hau artin sepi da".* □ **sepak ein.** Enmalecerse, llenarse de matorrales. Sin. *basu sikindu.*

**sepadi, sepadidxe.** (ZEPADI) Bosque espeso de árboles jóvenes. Ik. *beresidxe*. || *Sepak, esate baterako, klase gusti badaus be, sepa asko badau beresidxe esate tze batzuk. Ba sepadidxe.*

**separte, separtie.** (ZEPARTE) Bosque espeso de árboles jóvenes. Multzo zentzua hartzen du *-arte* atzizkia erantsita. || *Troski be klase das. Badau laban-laban-laban-labana. An e, onek e, errekonduatan, ure daun lekuen, ureko laban-da oten da. Da anki-edo ipinttosu te yuu! jeusi be igul. Troskie, baya troska labana. Bakixu, ures edo separtiñ-edo, sikiñe bada, euskidzek joten estaun lekun.*

**sepatzu, sepatzue.** (ZEPATSU) Muy poblado de árboles jóvenes. || *Sepatzue esate dxako, ba seri esangot? Arboliri, ainbeste adar emoten daben arboliri, "Sepatzue da ori". Bai, arboliri esate dxako. Da esate baterako, naburi be esate dxako, nabasidzek ipintten diriñin ba, ainbeste adartxu asten dabe, da ataraten dabe lorie, an asidxe kentzeko.*

**sepillau, sepillete.** Cepillar, alisar con cepillo la madera. || *Amen altu-bajuk dekoks, esate baterako, eta au sepillete su te ordun esaten dabe batzuk, leu esaten dabe, iguel "Txanplaniñ ipiñi" esate san len.*

**sepillu, sepillue.** Cepillo, instrumento de carpintería formado por un prisma cuadrangular de madera dura, que lleva embutido en una abertura transversal y sujeto por una cuña de hierro acerado con filo, el cual sobresale un poco de la cara que ha de ludir con la madera que se quiere labrar. || *Sepillue da egurre lantzekue.*

**sepulture, sepulturie.** (SEPULTURA) Sepultura. || *Olatak opiltxuk ixate sirien, sabaltzen sittuen domeka, da jai egun gustitan sepulturetan. || Sepulturetan kandelak ibiltte sin. Da oin be bai.*

**ser, sera.** (ZER) A. Qué. || *Se barri da ortik? || Ser da ortik? || Se ba? || Ser erein, da axe batu. || Seri esate dxakon neu pe astute deket. || Setan euki dosu burue kontun es jeusteko? || Ba, orixe, ser egur ixete san, orixe esiñ ñeixu esan, atrapatzen dana-edo. || Bai, neuk baneki segas eitte san!*

**B.** Palabra con la que se supe cualquiera otra que no se acuerda o no se acierta a decir, o no se quiere mencionar. || *Onako ser bat. || Basotik urte ban gixonan antzeko ser bat. || Orrek ser bi dekoks. || Eurrien sare ser bat ipiñi, olan sakue edo, da an ganiñ agertzen sin. || Salbetako seretik, inpernutik, eskondu arte serik ein barik*

*juen bier san eleixera. || Uridxe serari esate dxako, erri sertxu bateri uridxe. Tamañoku, esate baterako, Gernike lako bateri esate dxako.*

**serbait.** (ZERBAIT) Algo, alguna cosa. || *Bai, Elorza edo olako serbait. Ba, morrosku itzela! Bertzutan jo!, ondo eitte ban ak.*

**serbesa, serbesie.** (ZERBEZA, garagardo) Cerveza. || *Serbesatxu bet artuko su? || Es, serbesi edaten dau.*

**seregin, seregiñe.** (ZEREGIN) Quehacer, ocupación, faena, tarea. || *Noberan seregiñek. || Seregintxuk.*

**seren, serena.** (ZEREN) Polilla (*Tineola biselliella, Trichohaga trapetzella*, etab.). Gaur egun, *sitze* entzuten sarrienetan. *Serena* lehengo zaharrek esaten zuten. Ik. *sitze*. || *Serena? esate baterako, animali txiki bat, ein kontun ikusi be eitten estan bateri, serena, neu pe entzunde deket etzien amari-tte: "Serena ein dxako". Esate baterako, naburi berari be bai, axiri eitte dxako serena. || Serenak jan dabe, alperrik galdute dau.*

**seresan, seresana, sesana.** (ZERESAN) 1. Objeción, reparo, queja. Normalean pluralean erabiltzen dira. Sin. *esan biarrak, kejak*. Ik. *esamesie, txutxumutxu*. || *Etxuregarrixue: geuse bat eitten dana, edo iñok seresanik euki esteidxen eitten dana, edo ba "Etxuregarri be eiñ eitten dabe bier ori". 2. Murmuración, chisme. || Sesanak emon. || Sesanak eukitte ittue.*

**sergure.** (ZERGURA) Cualquier cosa, lo que quiera. || *Sergure ekarten dabe.*

**seridxu, seridxue.** (SERIO) Serio. || *Gixontasune? Ba seridxu ixeti edo ba olani pa gusurrik-eta apartiñ esaten estakidxena.*

**sermoi, sermoye.** (SERMOI) Sermón. || *Mixiolaridxe esate dxako frailliri, edo abadi-edo, sermoik eitte itunari.*

**sermolari, sermolaridxe.** (SERMOILARI) Predicador. || *Sermolaridxe? Bai, sermoik eitte ittuna bada, baya nik estaitt e sermolaririk badau, oiñ abadi estabe eitten-da.*

**sero, serue.** (ZERO) Cero. ☐ **serun.** A cero. || *Serun dasak-eta! ☐ sero ebei.* Cortar el pelo al cero. || *Uli sero ebei! Rape jun giñenin. Asi eurrin de atzera. Da akatza ta abarra-ta. Ala eurrera! Bai, soldadutzi gogorra ixen san ordun be, bai, soldadutzi be.*

**serra, serrie.** (ZERRA, igitai) 1. Hoz. || *Serrie, a eskun ibiltzen dana. || Serrie ixates bedarra ebatekue da. || Bedar sail bat ebaten da bedarra.*

*Len e serrias ebate san da oin kodañas ebaten da.* 2. Serrería. Ik. *serratokidxe.* || *Arbolak botate sirin, de ola eitteko serratu eitte sirin, ba, erun barik serrara, berton eitten sirin. Gero serran findu eitte sittun.* || *Oiñ esta eitten, oin dana serrik eitten deu, dana serriek, baya len askorias eitte san landu.* || *Bai, surak. Tronguri sure esate dxakon. Suretan ibiltte san. Basotik atarate san arran, piesa, surek arran atara, esta? Goittibera alderdidxen arran ekarte san, da gero an suretakue da a. Gero erute besan gero serrara.* || *A trongue saldu eitte san serrara.* || *Serri ibil san an andaparias. Bai, serrie. Da erroti be egon san or len. Gero serri ibil san.* □ **esku serrie.** Hoz manual. || *Baya artu lastue ebaten da esku serrias be bai.* □ **galtzu serrie.** Especie de hoz empotrada en la pared para cortar el rastrojo o paja que se da a la ternera. || *Galtzu serrie? Garidxe txalari-tte emote gentzen, antxe, antxe ebeitte. Eukitte ban..., sartute egote san e... Egote san sartute, da an serran galtzu ebate gendun txalari emoteko. Bera, seinde kodañen antzeku ixeten da, da antxe jota txalari emote gentzon galtzu.* || *Galtzu serrie: galtzu txikittuteko.* □ **lasto serrie.** Especie de hoz para cortar el tronco del maíz que se da a la ternera. || *Beidxeri eskentzen joten, garidxe eraitte san len, da beidxeri eskentzen joten, baya txalari emoteko galtzue, antxe lasto serran jo eitte gendun, olantxik, ebei eitte gendun, da ebeitte naiku satitxu txikidxe ein be bai, txalak jan deidxen. Beidxeri es, beidxeri osorik emote gentzen.* || *Bueno, ixete san, serri olan bedar ebateko moduko serri es. Da lasto serri ixete san, olantxik esarte san e beren lekun, burdiñatxu bat eukitte ban, da antxe burdiñatxun e atzin sera dekona ixete san, olan goitti bera sartzeko. Da gero serrie olantxik. Da antxe jote san e galtzu.*

**serrakada, serrakadie, serradie.** (ZERRAKADA) Franja. Sin. *sirrinda.* || *Serrakada bat bedar.* || *Kodañas ebaten dan bedarra, arixek eitten daben..., ebeitte eitten daben e bedarrari ba serradie esate tzeu.*

**serradore, serradorie.** Serrador. || *Serradorie? Bueno, serraketan eitten dabena.*

**serradurie, sarradure, sarradurie.** Cerradura de la puerta.

**serraketa, serraketie.** (ZERRAKETA) Aserradura, acción deerrar. □ **serraketan.** Serrando. Sin. *trontzaketan.* || *Serrerue? Trontzie badakixu ser dan? Trontze serrie? Ba trontze*

*serran, serraketan batera ta bestera dabillenari serrerue, orreri be esate dxako.* □ **serraketan ein.** Aserrar. || *Len eitte san serraketan. Arbolak botate sirin, de ola eitteko serratu eitte sirin, ba, erun barik serrara, berton eitten sirin.*

**serrari, serraridxe.** (ZERRARI) Serrador. Ik. *serrerue.* || *Serradorie? Bueno, serraketan eitten dabena, serradorie, kanpuen, ba serratuten dire ba... Oin kanpoko serraririk estabil, oiñ e eskus serratzen dire al diriña paya kanpoko serraririk oiñ estabil. Len ibiltte san. Oingu pe... esautu gendusen baya oinguk estittu esautuko, oiñ estabes eitten serraketzen-da.*

**serratoki, serratokidxe.** (ZERRATOKI) Aserradero que se montaba en el monte. Ik. *serrie.* || *Trontza serri san basun ibiltte genduna guk, arbola botata. Da a san trontza serrie, baya beste bat eun, aintxiñe serratokidxe... Estosu jakingo suk serratokidxe ser dan. Ba basun eitte ben serratokidxe, da etzik-eta eitteko igul eitte dxuen bertan serratokidxe ein.*

**serratu, serratzen.** (ZERRATU) Aserrar. || *Len eitte san serraketan. Arbolak botate sirin, de ola eitteko serratu eitte sirin*

**serrero, serrerue.** (ZERRERO) Serrador. Ik. *serraridxe.* || *Serrerue? Trontzie badakixu ser dan? Trontze serrie? Ba trontze serran, serraketan batera ta bestera dabillenari serrerue, orreri be esate dxako.* || *Serrerue? Bueno, serrerue, emen baserridxetan serrerorik-eta estau.*

**serreutz, serreutze.** (ZERRAUTS) Serrín. || *Txirlori da sepilluk ataraten dabena, da erreutze serraketan einde jeusten dana.*

**serrojo, serrojue.** Cerrojo.

**serrota.** Serrucho. *Serrota nahiz esku serrota esaten da.* □ **esku serrota.** Serrucho.

**sertu, sertzen.** (ZERTU) 1. Verbo que se emplea en sustitución de otro cualquiera cuando se ignora éste y cuya traducción varía según el contexto. || *Kipurrie beres formaten da, selan otzitten doyen, alan sertzen da.* || *Sarritten asarratu edo sertu eitten da baya ori gusurre da.* || *Serue lañuas sertu da.* || *Idxeltzue? Ori lelengo sertzen daniñ e esta gogorra ixeten, bigune ixeten da.* || *Sertu ein da, normaldu ein da apur bet* 2. Verbo que se emplea en sustitución de otro que no se quiere decir expresamente, como, por ejemplo, perder las facultades mentales. Ondorengo kasu honetan, esaterako, bere burua leize batetik behera bota zuen gizon bati buruz

berba egiten da: || *Apurtxut e sertute egon san, da beren buru botako ban arek. Estaki ser ei ban arek. Ondo gixon ona ixen san a, ondo alegrie-ta, baya a ju san.*

**sertzuk.** (ZERTZUK) Qué cosas. || *Sertzuk dire orrek? || Arik estai bakixun sertzuk dirin. || Txintxi? Bai, soldutzara jun giñenin, kaguen!, soldutzara jun giñeniin jaki gendun sertzuk sin, soldau egon giñenin, an ikesi gendun. || Sertzuk ixate sirin milixianu pa?*

**seru, serue.** (ZERU) Cielo. Ik. *edoidxe, goidxe. || Serue estali dok lañus. || Da seru garbi-garbi daunin, "Ño, klaru dxak geur serue!".* □ **serue goidxen, da lurre beyen.** Desamparado, -a, sin nada. || *Serue goidxen, da lurre beyen geratu nas.*

**seruka, serukie, selukie.** (ZERUKA) Vaina de la legumbre. || *Baba seruka. || Indar seruka. || Iderra, garauek e, arek e, tekatzuk e ba serukak tire. Arek beidxek jate ittue. || Arek ider serukak? Esetako bes, beidxeri emoteko, garaune kendu, da beidxeri emoteko. || Baba seluki da garandu te gero geratzen dana. Ori len ganaduri emote dxakuen. Ligorra ixeten da ori. Segun. Len babie berderik jate gendusen guk. Sekule estu olanik solun eitten oinguk babarik, baya babie jateko dana, arek garandu te baba berderik garandute sus beti, da a ganaduk jaten dabe. Baba selukie. Ba besti da baba sikue. Sikeute jaten bosu, baba selukie eitten a pe, baya a ya ligorra ixeten da. Jan bes.*

**sitz, sitze.** (SITS) Polilla (*Tineola biselliella, Trichohaga trapetzella, etab.*). Ik. *serena.* || *Sitzen eutze.* || *Egurrek jate ittunari sitze esate dxako. Serena be bai, baya gitxi esaten da serena. Lenguek esate ben serena.* || *Udan-da esta bota biar materidxala gordetekue; a ein bi da orridxe jeusitte, negun-da, a estau sitzek jaten.* || *Sitze eitte dxako ilbarrikuri, dana sulotu eitten deu.* ☐ **sitzek jan.** Apolillar(se) || *Sitzek egurre jaten deu.* || *Sitzek janda dau.* ☐ **sitzek sulotu.** Apolillar(se). || *Sitzek sulotute dau.* ☐ **sitzen bolak.** Bolas de alcanfor. || *Sitzen bolak erropa artien ipintten dire, sitzek jan esteidxen erropi.*

**sitzadore, sitzadorie.** Chinchoso, -a, molesto, -a.

**sitzeu, sitzetan.** Chinchar, molestar, fastidiar. || *Sitzétan dabil: olanik e, alkarregas dabixeniñ igul umik-edo, da ba "Sitzetan dabil, besti sitzetan".* || *Bai, umiri bai, umiri ba, saramie, ba ser esangot neuk? geldi eoten estanari-edo, beste batzuk sitzetan ibiltten danari "Saramie!" esate dxake.* || *Ori sitzetan dabil, orrek drogarako gogu deko.* || *"Sitzétan dabil": tentetan dabillena-edo.* || *Umi sitzetan ibiltti gustete dxake.* || *Tentadi da ba pelmi emoti les areri, sitzetan ibiltti, tentadie: "Tentadie arek emon tzeu"-eta.*

**siur.** (ZIUR) Seguro, -a. Ik. *seguru, sigurrik.* || *Siur dau.*

**sixie.** (*sixie*) **1.** Tiza. || *Sixie? A da eskolatan ibiltten dana. Klariona esate tzen maistrak.* **2.** Especie de tiza que usan los costureros. || *Sixie? Ba jeneral nik asule esautu dot ibiltten dabena sastrik-eta. Baya nik estakitt e suririk-edo otan bada-edo.* || *Sixie da geusa bat, dana asule, edo berdeski, edo ba esate baterako jostun bat, edo sastre batek eitten daben nundik ebai bi daben-edo marketan dabenin geusa bat, da sixie.* || *Sixie Erropa marketako ixeten da.*

**sixa, sixie.** (ZIZA) (esp. *sis*) Impuesto que se cobraba sobre géneros comestibles (*sixie*). || *Sixie pagamentue ixete san.* || *Sixie pagetako mugie ipintte ben, barrierie, an guardiak-eta egote sirin jaboten.* || *Neu pe esautu dot sixie. Guk, esate baterako, Nabarrisko jentiek Gabiketiek eser ekarterik es aben eukitten, dendake geusie, saltze san geusie, edo Ereñotik, da ori sixi ori pageta dxakon edaridxe, edaridxe erosten basan, beste..., Ereñon, edo Nabarrixen-edo, Nabarrixen barik e, Gabike, bueno Gabike esta erridxe, Ereñona da. Da nai Gerniketiek ekarte basan edaridxe, edateko geusie, koñaka, nai ardaue, nai..., ixiliñ ekarten*

basan, da atrapetan baben, orrek ipintte tzen multie pagau ein biar ixate san. || Sixie erridixen pageta san. Nik Gerniketiek ekarten banaberen e, esate baterako, koñaka, kuartillo bat, edo asunbrardi koñaka, da atrapate baste niri Nabarrixen Gerniketiek natorrela, a, ipintte esten inpuetue pagau ein biau nik. Se ori xan bertokuk saltzegeittik ei xan, da olanik goguk emote tzeniñ astelenetan-da Gerniketiek etzera etor sirenai-tte sestillak errejistrau-te, pagau eraitte tzon. || Ardaun sixie.

**sixipasa, sixipasie.** (SISIPASA) || Sixipaxi? Ba xixixixa olantxe-da eitten dabe batzuk berba ta axe. || Sixipasie esate dxako olan esin esana dekonari edo klaru..., es dittunak berbak esaten, ba sixipasa. || Sixipasi? Bai, esin esana daunin, esin esana dekonari, sixipasie.

**sobra, sobrie.** (SOBRA) **1.** En exceso, de sobra. || Ori sobra be esta etorriko. || Bai, sobri ixan eskerun. Sobri badator geusa bat, ba "Sobra dau". || Astialdidxe: denpori sobre artzen daniñ ixeten da. **2.** Sobrante, excedente. || Sariñ ipintte sirin gastayek, arek bota biarren, ure botateko, a sobrie, ur sobrie botateko. || Txakurreri emote dxakue sobrie, jeneralien. || Botaten danin piñue, adar sobra asko eukitten deu piñuk-eta. || Apendisitis da este sobrie, ebei tte kendu eitten dabe. Ointxe ein tze orreri, suiñeri, ointxe pasa dan astin. Golpiñ etorten da tripalakin-de, au apendisitis. || Kapeleri da, esate baterako, otzarak. Otzari bakixu ser dan. Otzari bete arte, otzarakadi da, ta besti gero andik gora... baitte burdidxe, nai beste geusa bat gora eitten badxok, "Joder, kapelerias ipin dxok!". Gorakue, a sobrie. Kapeleri esate dxako areri. □ **sobran.** De sobra. || Ganesa da ganeti doyenena, ganetik pasetan dana. Ganesa da ya presi beteta daunin, ganetik jeusten dana. Sobran doyen ure. □ **sobra ta lar.** Más que de suficiente. || Esate baterako, iñok agintze ba ittu landarak, ba "Etzin deketas sobra ta lar, estot biar". □ **sobra euki.** Sobrar. || Orrek seoser falta deu, edo seoser sobra deko.

**sobrau, sobretan.** (SOBRAU, sobratu-bat.) Sobrar. || Erretelak? Telak, orrek plasan egoten dire dendan, satidxek. Sobretan dixenak, ondakiñek, satittu, da erretela arixe. || Tremesak, lelengo jateko. Gero arek ixate sirin labako su eitte san egunien, da geidixen be kuadrilli daun lekun urrengunerako asko es san sobrauko. || Ebeitten da, ebei da otzarie bete, da sobretan dan bedarragas inkau are pe, da olan tontorra inkau,

da gero sartze dxako sididxe esate dxakon egur bat, punti sorrostute dekona.

**sobrepelis, sobrepelixe.** Sobrepelliz. || Sobrepelixe: Abadiet-eta ibiltten dabena, a ganetik ibiltten daben kapie.

**sobre sabaidxe.** Pajar superior. Etxe batean sabai bakarra badago, sabaidxe esaten da beste barik, baina bi badira beko sabaidxe eta sobre sabaidxe bereizten dira. Sobre sabaidxe nahiz sorro sabaidxe esaten da. Ik. beko sabaidxe. || Sobre sabaidxe da: onek etziok, onek baserriko etziek dekes, sabai bi dekes. Eurreko partien eukitte ittu ba lo eitteko gelak-edo, lo lekuek, salatxue; atzeko partetik eukitten deu beko sabaidxe, sobre sabaidxe esate dxakona. □ Urtubiren arabera, sorro sabaidxe esaten da Nabarnizen; hala ere, beste berri-emaile batzuek sobre sabaidxe esan didate. || Sorro sabaidxe da beste sabaidxe goidixen eukitten deuna.

**soi, soidxe.** (ZOHI, zotal, mokor) Tepe, tormo, pequeña masa suelta de tierra compacta que se saca con la laya o con la azada. || Soidxe: lurretiek ataraten dana, atxurkulias atxurtute ataraten da ba soidxe, arixe esate dxako soidxe. || Soidxe atxurras ataraten da, bedar da gustikue. || Iketza eitteko, egurrek pillau-pillau eitte ittues, da gero ganetik botate tzes soidxek, erre deidixen barrun. || Soidxe danak bate-batera ein bi dabe tiretu. || Aintxiñe laidxetan eitte san asko, garidxe eraitteko. Da onek marketa ittu soidxek. || Indar gitxiau dekenak-eta ipintte sirien, ba esate baterako, lau lagun das laidxetan, albo banetan indarra dekenak. Erdidixau doixenak, erdidixen doixenak ba makaltxuauk, se bestin laguntasunas soidxe bota eitte san da. || Goldie pasetan da soidxek atarateko. || Bedarrak araketu te bedarrak solteta dxakos. Gero goldaketu eskerun aspire jutun da, soidxe ataraten deu goldik ganera, da aspidixen egoten da bedarra usteltzeko. || A soidxe apurtu ein biar ixaten da, sestuas edo seosegas. || Pikau? Satittu a soidxe. Goldiek soi osue ataten deu, da gero garidxe ereitteko, a pikeu eitte san, satittu, pikeu atxurkulias. Ortiz bikue esate tze batzuk areri be, guk guk e betik atxurkulie. □ **golda soidxe.** Tepe de arado. Ik. laidxe soidxe. || Da goldi pe, goldatzen danin, ba goldi pe soidxe, buelta eitten dau goldik lurre, da golda soidxe. □ **laidxe soidxe.** Tepe de layas. Ik. golda soidxe. || Len laidxetan be eitte gendun, parau lau-edo illadan, da bost-edo, da laidxak sartu barrure, eraiñ-eraiñ

ein, de soidxe atarate san, da laidxe soidxe esate tzen areri. □ **laño soidxe.** Nubarrón, nube aislada (cuando no forma una masa continua). || *Euririk estanien, ba lañue or-emenka, or-emenka, lañue ba soittute-edo, lañue agertzen da, mantxakiñ esate baterako, da areri laño soidxek esate dxake.* || *Ba, baltziskak nai suriskak ixen, olan lañotuten dabenin, "Laño soidxek das".* || *Laño soidxek: satidxek-satidxek les.* || *"Lañue soittute dau": dana, euridxe ein bi dabenin-da, denpora illune daunin-da, eoten dire laño moltzuk, dana laño moltzoz beterik eoten da, da laño soidxek esaten tzeu.*

**soin, soñe.** (SOIN) Cuerpo (donde se lleva el vestido). || *Kendu ori soñetik!* || *Aintxiñeko ikesgiñek iru astiñ e arkondarie soiñetik kendu barik euki dxuasen. E pentzau!* || *Da gero antxe sartu, amar asunbreko garrafokada ardaue. Da es eutzon ostu! Barre eitteko esta! Da Seberinak iños esan tzon Bitorreri: "Bittor, ondiño suri soñeko txapela be ostu eingo tzue!".* □ **soñeko erropie.** Ropa que se lleva vestida. Sin. *erropie.* || *Trastie erropi, nai soñekerropi ixen lei, trastiek ixen leix e tualla pe, ixen leix ixera pe.*

**soinkurtze, soinkurtzie.** (SOINKURTZE, soingurutze-bat.) Parte de los animales correspondientes a los omóplatos. || *Soinkurtzie: esate baterako, beidxeri. Beidxek amen eurreko ainkan parien, amen lepun. Pausue eitten dabenin, ba arek mebidu eitten deu apur bet. Da arixeri esate dxako soinkurtzie.*

**soittu.** (ZOHITU) □ **goidxe soittu.** Formar(se) nubarrones en el cielo. || *Lañue batzutan eoten da soittute goidxen. Beres e, se esangot neuk?, "Goidxe soittu da", oten da tapaute goidxe seras, lañuas.* || *Ori jeneral e euri lanbru eitten dabenin, a euri se-setxu jeusten danien, orduntxe oten da goidxe soittute.* || *"Lañue soittute dau": dana, euridxe ein bi dabenin-da, denpora illune daunin-da, eoten dire laño moltzuk, dana laño moltzoz beterik eoten da, da laño soidxek esaten tzeu.*

**soitzu, soitzue.** (ZOHITZU) Pegajoso, -a (la tierra). || *Soitzu dau.* || *Soitzue da lurre soidxen datorrena osuen. Soidxe, "Soitzu geratu dok" edo "Soidxe asko urte dxekok".*

**soka, sokie.** (SOKA) Cuerda. Ik. *ligie.* || *Sokias lotu.* || *Sokie eskatu.* || *Burdi sokie: Burdidxek eukitte ittu olan sartute taketak, goitti bera sartute. Sulu pe eukitte ittu egaletan, egal bidxetan, olanik-olanik. Aretan taketak sartze dxakos. Da gero*

*sokie, gibilidxe, sartze dxako..., emen sartu, da taketak lusetxueu bi deu, da antxe taketan lusien sartze dxako gibilidxe. Beste partera. Beste partin deuna pe taketari inkete tzo, taketari buelta artu, da botaten deu beste partera. Da ostabe emen egongo da beste taket bat, ba emengo taketari olantxik artu, da beste partera. Da burkadie akabu artien, olantxik lotze san burdidxe.* || *Arexas eitten di bigurre pe. Aintxiñe sokatzat ibilte sin bigurrek.* □ **soka dantzie.** Juego de la cuerda. Lehengo zaharrek soka dantzan esaten omen zuten beti; soka saltuen geroago sartutakoa da. || *Soka dantzan ein.* □ **soka saltue.** Juego de la cuerda. || *Soka saltuen.* □ **kakutudun sokie.** Palo que tiene una pequeña cuña para sujetar la carga de hierba en la que se introduce. || *Sokiri be kakutu eitte dxako. Kakutu, sokik e... egurri korritiarren, kakutudun sokak.* || *Ori da soki apurtu esteidxen, da korridu erres. Egurrin korriten deu te. Egurrei dau lotute soki, da kakutu da amen deuna, da auni lotute dau ta emen soki, tirtzeko korridu ein deu erres, da soki apurtu bes.* || *Da beste batzuk ipintte tze oue, burdiñesku be ipintte tze, alako oue, soki bueltan dabela. Ba beres-beres-beres kakutu da aintxiñe... orrek barridxau dire orrek oguk eta onek burdiñak-eta..., eitten da ba, baserrittarrak propidxu da kakutu eguresku.* □ **soki bota.** Expresión que se usa cuando, por ejemplo, al cortar la hierba, se sobrepasa los límites de la parcela. || *Igul sure eskiñara, sure mujoiñ e bedarra atrapetan badeu. Mujoneran be kodañas atrapaute. Igul beittu, esta? Ta "Bueno, orreri soki be bota leidxo!". Aintxiñe esate san. Susen es. Bakixu mujo bittartie da andik ona susen. Da kodaña barru ebeitte. "Orreri soki be bota leidxo!". Aintxiñe esakeri. Ondo estaulako ebeitte. Oker ebeitte, subi moduen.*

**sokil, sokille.** (SOKIL) Terrón, bloque, masa. || *Sokillek, lur bolak.* || *Alperra ibilte san sokillek apurtzeko.* || *Sestu ibiltten da sokillek apurtzeko edo gosatzeko.* || *Sokille sortu dxok areri.* || *Sokille soloko bola gogorra da.* || *Soiltzue? Soiltzue bai, soille daunien e, esate baterako, goldatu de sokiltzu oten da, batute, goldik sokille ataraten dau, da gero ein biar ixaten da ba sestuas-edo a sokille apurtu ein biar ixaten da, artu eraitteko-ta sokillik estau biar.* □ **sokillek jo.** Ahuecar, desterronar. || *Aintxiñe jote gendusen sokillek. Oiñ estire joten baya.* || *Sokille jo biko*

da. || *Len jote gendun sokille, baya oinguk estakidxe sokille joti ser dan be.*

**sokilburu, sokilburue.** (SOKILBURU) Terrón grande. || *Ba, solun bier eitten danien, ba sokillek egoten dire, da arek sokilburuk ta, len..., oiñ estaus masuas be joten, len masuas jote gendusun sokilburuk.* ☐ *Hona hemen sokille eta sokilburue berben arteko desberdintasuna: || Bueno sokilburue da, eundidxeri esate dxako, sokil eundidxeri, "Sokilburuk tas". Da olan eundidxe espadau, "Sokille dau".*

**sokiltze, sokiltzie.** (SOKILTZA). Gran cantidad de terrones. || *Sokiltzie: soluen sokil asko egotie, solue gosatu barik eotie, alperras, arri alperras. || Or dau sokiltzie! || Sokiltzie: ba euridxe-edo eindakun edo bigune daunin pasau sestuas, da apurtu eitten da.*

**sokiltzu, sokiltzue.** (SOKILTSU) (Terreno) aterronado. || *Sokil asko daunin sokiltzue esaten da. || Len eitte san... se esangot neuk?, laidxetan. Ba gero eitte san atxurkulias a laidxetunekue pikau, de arixeru laidxik ataraten daben e sokilleri esate dxako "Lurre sokiltzu dau". || Lurrin, soluen sokille badau, asko badau sokille, ba "Sokiltzu dau". || Ba mamin gitxi dekonien, esate baterako, nai arias pasau, nai goldias pasau..., bueno goldik berak ataraten deu sokille..., ba sokille eukitten badeu, sokiltzue lurre oten da.*

**sokondu, sokondue.** (ZOKONDO) Rincón. || *Sokondu baten eskuteu.*

**sokorru, sokorrue.** (SOKORRU) Socorro, ayuda. || *Sokorru da laguntasun gura.*

**sokorruke.** (SOKORRUKA) Pidiendo auxilio. || *Sokorruke dau, seoser bidau, edo seoser pasau dxako.*

**soldata, soldatie.** (SOLDATA) Soldada o sueldo que se paga a la gente de servicio al cabo de un año. *Biargiñek alogera harten dute, morroidxek eta kridxadak soldatie.* Ik. *urteko pagie, alogera, jornala.* || *Soldatie: batek urtie eitten dabenien, arexi esate dxako soldatie.*

**soldau, soldaue, soldadue, soldue.** (SOLDADU) Soldado. Ik. *kinttue.* || *Soldadu egon.* || *Soldau kinttue.* || *Gero mutillek soldau jun dxakosan.* || *Soldadu kontraridxuek eskumekaldetik sartu siren.* || *Gerniken soldaduek sartute topa naittun.* || *Etzien e ganera es... neuk eukiko nabasan... ba senbat urte..., ba se, soldau orduntxe junde ero ni, nik e... etxaten suertau emen baya anaidxi tte*

*aitte ta ama ta danak etziñ egon siren, da ganaduk atara barik kuarenteni eitte dxakon ordun be.* || *Kinttuk soldau jun bi dabenak tire.* || *Txofer ibili nitzen ni an ordun, baya lelungotan istrusiño ikesi bi ixer naben, soldue les bardin. Ille bi ein nittun, infanterian bertan. Da gero orduen destiñeu nenduen txofer.* || *Talletie, lelungotan, soldau jun orduko. Danak talletie sittuen, "Onenbeste talli deko".*

**soldautze, soldautzie.** (SOLDADUTZA) Servicio militar. || *Soldautzan alpertu nintzen.* || *Txintxi? Bai, soldutzara jun giñenin, kaguen!, soldutzara jun giñeniin jaki gendun sertzuk sin, soldau egon giñenin, an ikesi gendun.* || *Soldautzan egon nas.* || *Arrasto ebei ulie? Ba soldautzan.* || *Umealidxe esaten dabe personik iru bider umealidxe eukitteula. Bakixu seintxu din? Iru umaldi personik. Lelungotan, jaidxokerie, umie. Da gero soldautzan be ume ixer bisten deu, umekeidxak ein di te, umekeidxak danak e agintze tzenak eta sorakeidxak... || Lelungotan jaidxokeran, umie. Da gero soldautzan be umi ixer bier, se iñun dixen orrek ei tzes, da gixonak pentzetan axe ein bittula. Ta gu soldau, kristonak eitte eskusen ba, kaguen dies, paso lijero eta kriston martxak, ya ganora bako geusak. Da a umalididxe. Arek berak esate ban, kapitanak. Joer! Afrikan egon nintzen ni tte etxat astu eitten!* || *Soldautze miserabli pasa gendun!*

**soldu, soltzen.** (ZOLDU) Enconar(se), infectar(se) (una herida). Ik. *aundittu.* || *Soldu ein da.* || *Soltzen asi dxat.*

**solli, solidxe.** (ZOLI) **1.** Atento, .a, despierto, -a. || *Soli egon saittes!* || *Persona solidxe: bai, olan bixidxe danari-edo, solidxe.* **2.** Brioso, -a, firme. || *Solidxe: seinde jenidxotzuri-edo esate dxako. Jenidxo dekonari, edo ba ernegetan daunari-edo, ba "Solidxe da" edo "Soli sabis"-edo.* **3.** Sonoro, -a, resonante. || *Arren solidxe.* || *Txaliñe: berba solidxe dekona, txaliñe: "Orrek deko txaliñe!"* || *Sata solidxek eitte itu, te seoser pasetan dxako. (Jaubetasune eitte dxako).* || *Negar eitte ban solli.*

☐ *Ahots zolia dutenei buruz honela esaten da: || Arrena solidxe deko orrek!* ☐ **begi solidxe.** Mirada dura y perspicaz. || *Begi solidxek esaten da, ba asarratute daunin be ba, 'begirekune txarra'-edo, ser esangot neuk?, "Soli begittu ste"-edo.* ☐ **bos solidxe.** Voz, aguda, alta. || *"Bos lodidxe deko": solidxe da altu-edo, Edo "Soli eitten deu berba", baya berba bixi eitten dabenari,*

*solidxe*. □ **sata solidxe**. Ruido sonoro, penetrante. Sin. *sata bixidxe*. □ **sol** **begittu**. Mirar con dureza. || *Soli begittuste*. || *Soli begitzen deu*.

**solittu**. (ZOLITU) Enconar(se), infectar(se) (una herida). Sin. *materittu*. Ik. *aundittu*. || *Granuk gorrirtu te asi eitten dire, da gero materidxe eitte dxako, da ba a materidxe da solittie, materidxe eittie*. || *Solittu eitten da geusi da materidxe eitte dxakona*. || *Solittu ein dxako*. || *Enplastue eitten da solittute daun lekuen materidxe kentzeko*. || *Asbixarrak artasidxeikiñ ebei jeneral eiñ eitten da, eiñ esteidxe solittu. Jeneral tirtuti esta ona, solittu eitten da-ta*. || *Solittu eitten da a errenekue, da materittu be eitten da, da materidxe atara bi ixate dxako osatzeko*. || *Puslie: esate baterako, atzamarra solittute, ta materidxe einde dau, da "Solittute deko, puslatute dau"*. || *Apatxetaku bai, apatx bittarteku te esateu, bittarteku esate tzeu guk. Olan igul ganadu len egote sin, bittarteku, eitte dxakon olako bitterti solittu, da bittarteku deko ta kurau eitte san, erun perratokire ta. Perradori esan, guk perradori esate tzeu, erradori beste batzuk*.

**solittu, solittue**. (ZOLITU) Infección. || *Setako artzen da? Ba solittu ba taunien e, materidxe-edo dauniñ ankan edo nonun, ba axe igusteko*.

**solo, solue**. (SOLO, soro-bat.) Campo de cultivo, tierra sembrada; heredad. || *Solo leune* || *Solo erripie*. || *Solo ertza*. || *Solo eskiñie*. || *Solo puntie*. || *Solo ta bedatza*. || *Solo ein*. || *Solu atxurtu*. || *A garidxe solotik ekarten da*. || *Solu sastu*. || *Soluk etxok emon ese be*. || *Solue pasau dabe*. □ **solo atxurre**. Azada para trabajar el campo. *Atxurre esaten da normalean*. □ **solo barrena**. Parte inferior del campo. □ **solo barridxe ein**. Roturar un nuevo campo de cultivo. || *Solo barridxe ein dabe*. □ **solo gona**. Parte superior del campo.

**solokada, solokadie**. (SOLOKADA, sorokada-bat.) Cantidad correspondiente a lo recogido en una heredad. || *Nabu be gitxi eraitten da, len solokadie eraitte san, solo bat edo bi-edo, negu gustiko nabue egon deidxen*.

**solomo, solomue**. (SOLOMO, azpizun) Solomillo, lomo de cerdo.

**soltau, soltaten, soltetan, soltetan**. (SOLTAU, soltatu-bat., askatu) Soltar(se). || *Takoye soltau dxatek*. || *Garaune erres soltaten da*. || *'Bota' da jeurti, da 'botou' da ba soltaute doila*. || *Ibiltten dire tranpak emen, aseridxek atrapetako. Se geurin be len euki gendun txakurre, tranpik*

*atrapau eskun de guk soltau genduneko junde egon san*. || *Bedarrak araketu te bedarrak solteta dxakos*. || *Sopreixe da balantzan daun geusa bat, sopreixiñ edo indar eitten deun..., etengo balitz: "Sopreixin dau de kontus!" Se sopresixak igul soltaukeran bu! Da sopreixe esate tzeu guk orreri*. || *Buruxie: an punti soltete dxakona. A punti solteu te bera jeusten da. Da bestie, galtzue, asaue juten da orra*.

**solte, soltie**. (SOLTE) **1**. Suelto, -a. || *Ule soltie*. || *Solte garatu*. || *Arri soltiek jate ittus olluk, da areri esate dxako ollo arridxe*. || *Larraku da solte ta mendidxen dabixenak. Jeneraliñ e ba normalak. One besti tie ba saldi tirarakuk eta probarakuk esate dxakue oin ba*. **2**. Resuelto, -a. || *"Neska urtena": urtena dala, asko ibiltten dala, ta ba apur bet solti dala*. **3**. Baile suelto. || *Soltie, trikirikidxek eta gero gure denpora ramoli egon san, da gero soñu-jotzailla pe bai. "Ointxe jo bi dau pasadoblie", Ointxe jo bi dau tangué", "Ointxe jo bi dau baltza", da bakixu*. □ **dantza soltie**. Baile suelto. || *Oin be Santa Eufemia egunien ainbeste jente juten da ara. Len diferente. Len jentetan eskandalu te danak dantza solti te errameidxak*. □ **laño soltie**. Nube suelta. || *Laño soltie? Laño soltie, olanik, lañue apur bet e edo geitxuau-edo daunien, bateri bestera les lañu ibiltten danien*. || *Laño solti badabil, olan dabillena bateri bestera, "Laño soltik dabix", "Euridxe ingo deu", edo "Atarridxe eingete deu?", ba ori be esaten da, baya laño solti emen esaten da olan dandarres dabillen lañuri*.

**soltera, solterie**. Soltera. Ik. *neskasar*. || *Neskie esate tzau guk solteriri*. || *Soltera dau*. || *Sasikue: aitte barik etorten dan umie, ama bakarrik tekona-edo, eskondu baku-edo, solteriña-edo. Da arixeri esate dxake sasiku*.

**soltero, solterue**. Soltero. || *Solterue, nik esate tzat mutille, aunke bekus ogetamar urte be, ba mutille*.

**sonbrero, sonbrerue**. Sombrero. || *Sonbrerue pe gastau siren, gerrie pasau te gero be enbran batek edo bik ibiltte ben*.

**soñeko, soñekue**. (SOINEKO) Vestido. || *Soñekue erropiri esate dxako, edozein trasteri. Gixoneskunari soñekue, jeneral, etxako esaten, espabese edo prakak, edo arkondarie, edo barrukue, edo olanik*.

**soñu, soñue**. (SOINU) Música. || *Euskaldun soiñue*. || *Musike soñue*. || *Txistu soñue*. || *Soñue esate dxako..., ba soñue danari esate dxako, ser*

*esango neu?, igul tanboliñe dau joten, edo txistu dau joten, da: "A, soñu dau!"* || *Tanbolin soñue: taparra-tapa-tarra eki tze.* || *Txorrotxaillak bestik dire, arek "Cuchillos, navajas, tijeraaaaaas!"-ta jote ben a ori. Oiñ esta alako soñorik!* || *Burdidxek joten daben soñue da, lengo burdidxek –oiñ estabil burdiri pe–, ostantzin lengo burdidxek asko kargaute jute siriñin satzagas-da li-li-li-li-li soñu jote ben.* || *Sensarradie len alarguneri-tte jote tzen biarren biderriñ eskontzen diriñin. Eote san ba seoser, olako atrapeta san moduko soñu bat, gabetan-da jote ben, sensarradie.* || *Len soñu bat, dultzeiñi jote ben onetan baserridxetan.* □

**soñu joillie.** Músico, -a, instrumentista. || *Orrek soñu joillak-eta bai. Orrek e ganera pagau ein biste ben plasié. Bueltie, artu terrenue eurentzako, se an seusen iru lau leku on-onak, da bestie lekuk igul goi bera-ta dana, jantzan ben esin leidxen —guk dantzan esateu, bestik jantzan esaten dabe—, da aretan ondo eiñ esin leidxenak presi gitxiau. Da arek leu-leunak eta onak arek pageute euki bixete besan. Da soñu te panderu ixete sin, oingo trikitalaridxen tipora. Da kobrau, kobralaridxe bat, da dantzako kobrau beti.* □

**soñu jotzaillie.** Músico, -a, instrumentista. || *Len jentetan eskandalu te danak dantza solti te errameidxak. Lau-bost soñu jotzaillak eurek kobretan, eurentzako korruk einde, da bakotxak beren selaidxe artute, da an.* || *Soltie, trikirikidxek eta gero gure denpora ramoli egon san, da gero soñu-jotzailla pe bai. "Ointxe jo bi dau pasadoble", Ointxe jo bi dau tangué", "Ointxe jo bi dau baltza", da bakixu.* || *Soñu jotzailli da edoseiñ instrumentu, edosein. Nai e filarmoniki, nai mosokittarri, nai e gitarrie... Ba gitarristi orregaittik gitarra jole esate dxako. Ba onek e akordeoi tte onek joten dabenak ba... Da bestie dultzeiñerue diferente da. Se emen len dultzeiñi jote ben, tanborra be bai.*

**soñualdi, soñualdidxe.** (SOINUALDI) Intervalo de música. || *Lelengo soñualdidxe.* || *Ba soñu joten lusero ekin tzonak e soñualdidxe.*

**soñulari, soñularidxe, soñolaridxe.** (SOINULARI) Músico, -a, instrumentista.

**sopa, sopie.** (ZOPA) 1. Sopa. || *Sopias naidxe einde dau.* || *Sopi ixertzau dau.* || *Ixerra? Bai, ixertxuk ixeten dire e sopiri eitte dxakesanak.* 2. Sopa(s). || *Kafesnie sopakin.* || *Fota au bayo aundidxau da, au bayo sabalaue, da a len ibiltte san —oiñ estaki nik eitten badabe be fotik— ibiltte san e..., fota, sopak eitteko ibiltte san, sopak.* □

**ardau sopie.** Sopas de vino. || *Ardau sopie katarruntzako da, baya gatxa artzeko.* □

**arto sopie.** Sopas que se hace con maíz asado al horno y leche. || *Arto sopie? Artuk erre laban —oiñ estaus erre be eitten— da gero esnias jateko sopi ein, sopa fin-fiñe, da egosi galdaratxuen.* || *Esnie, esnetara bota, arek arto sopak, fin-fiñek ein, da egosi, irakin bi edo iru artu, da egosi eitte san.* || *Arto sopak? Bai, arto sopak! Eskara gitxi janekuk!* || *Arto sopie esnias eitten da.* || *Arto sopie? Artuas eitten dan e..., esnias jaten dana. A be gitxi useten da oiñ ontan. Arto sopi gosu da!* || *Galdara txikidxeri galdatxue. Gero astias ipiñitte serin... Arto sopa, arto sopatan eitten, egosteko.*

□ **berakas sopie.** Sopa de ajo. || *Goixin gibela jaten da. Ba berakas sopi eitten da jeneral, da gero gibela. Baya ori ixeten da txarridxe il da ya segidxen.* □

**esne sopak.** Sopas de leche. || *Esne sopak, geuk aintxiñe jate gendusen. Sopak ein, de esne beruas.* □

**fideo sopie.** Sopa de fideo. □

**ogi sopak.** Sopa(s) de pan. □

**pistola sopie.** Sopa que se hace con el pan conocido como pistola. || *Pistola sopie? Sopie, nik estaitt oin pistolarik eitten badabe panaderuk. Len pistoli eitte ben sopi eitteko. Da oiñ estaitt eitten badabe baya ba axe da pistola sopie. Ogi gogortxu edo pistolie, bigune barik gogorrau ixeten da. Pistola sopie arixe esate dxako.*

**sopitte, sopittie.** (ZOPITA) 1. Remiendo de la abarca. Aramaio aldean (Atutxa, 1995) ere honela esaten da: "'Au okeliau sopittie modukue'. Sopittie da lenau abarkai suloa eiten jatien da an ifinten jatien narru sati bat edo...". || *Abarkak apurtzen sirinin, aspidxen beste sati batzuk ipintten siren: sopittak.* || *Sopittie beste narru sati bet ixeten da, da orpun sulu eitten badxako, ipiñi ganetik a, da ba arexe da sopittie.* || *Len esate gentzon sopittie. Abarka narruskuek etzien eitte euskusen aittek, ta arixei sulue eitte dxakonin, sati bet ipintte dxakon, aixe esate gentzon sopittie.* || *Da orreri gero, eitte siriñ orretatik, amendik, puntatik, ba orpotik ariñau sulote sirin, da orreri sulote siriñien ipintte dxaken beste abarka sar baten sopittie. Beste abarka sar batena kendu, da sulu daun lekuen arixen satidxe ipintte dxaken, sopitti esate dxaken.* 2. Pegote o emplasto de barro que queda adherido a la abarca. || *Selako sopittak dakatas ankatan!* || *Abarketan-da inketen danin lurre, bustidxas inketen danin: sopittak.*

**sopreixe.** Tirantez, tensión. || *Sopreixe ak molliiek eitten deu.* || *Sopreixe da balantzan daun geusa bat, sopreixiñ edo indar eitten deun..., etengo balitz: "Sopreixin dau de kontus!" Se sopresixak igul soltaukeran bu! Da sopreixe esate tzeu guk orreri.*

**sor, sorra.** (SOR) 1. Torpe, lento, -a, parado, -a, pesado, -a. || 'Sorra' esate tzeu guk geldi doiñari. 'Sorra' esate dxako ba, burdidxe, erreilli be: "Dios, sorra dak ori, sorra!". Geldiro. || *Askonarrak korridu gitxi eitten dabe. Olan korridxen sorrak dire, nekes.* || *Itxittasune da nagi egotie. Nagittasune nai itxittasune ya bat dire. Nagittasune da sorra..., ba ein guresda les egotie.* || *Persona sorra.* || *Ori personi sorra dau.* || *Persona lotue: berak esin dabelako. Sorra erabiltzen da geidxau, lotue be bai.* 2. Entumecido, -a, adormecido, -a, insensible. || *Atzamar sorra.* || *Atzamarrak sorrau dekotas!* || *Gerri bat sorrau dekot!* || *Beso bat sorrau dekot, esin dot altzau be ein!*

**sor, sorra.** (ZOR) Deuda. || *Sorrak artun, euki, ein.* || *Sorrak garbittu.* || *Sorra pagau barik deko.* || *Orrek sorrak galantak!* || *Sorrak parkatu.* *Burue jasoko deu orrek, sorrak ainbeste artute?* || *Orrek sorrak dxekosak.* || *Sorrak einde dxak ori.* || *Parkatu ei tzoates sorrak.* || *Sorrien itxi deu.* || *Sorrien deko.* ☐ **sorpiñ egon.** Estar adeudado, a débito. ☐ **sorriñ artun.** Tomar a crédito. || *Sorriñ artuko dxuat.* ☐ **sorriñ erosi.** Comprar a crédito. || *Sorri erosi: berak euki es, diru bi danik, eta ba sorrak artu ittu, sorriñ erosi deu etzie.*

**sor (ixen).** (ZOR) Deber, adeudar. || *Sor detzo Pedrori.* || *Pedrok onenbeste peseta deutzek sor.* || *Gustis onenbeste deustesu sor.*

**sorabidxeu.** (ZORABIAU, zorabiatu-bat.) Marearse. Ik. *larrittu.* || *Sorabidxeute.* || *Sorabidxeu ein da.* || *Sorabidxau e biribilleka dabilela be eitten da.* ☐ *Erdatariko marieu forma ere aski zabaldua dago: Maritan asi da.* || *Marieu ein da.* || *Sorabidxau be oiñ entzun be esta eitten. Len bai.*

**sorabidxue.** (ZORABIO) Mareo. || *Selako sorabidxue dekot!*

**soragarri, soragarridxe.** (ZORAGARRI) Encantador, atractivo, hermoso, admirable. Ik. *dotorie.*

**sorakeri, sorakeridxe.** (ZORAKERIA) Locura, travesura. Ik. *kaskamarrukeridxe.* || *Bai, konbersetako, igul edadeko bat da... Edo boda batera jutas gaste artin. Neugaitti pe bai, sorakeidxak, edandakun bakixu, sorakeidxak, "Orrek e, umealdiridxe dxekok geur!", edo txotxoaldiridxe-edo bakixu. "Erdi soratu dxak ori geur"-te, alakoxe berbak, bakixu. || *Kaskamarrukeridxak: sorakeridxak eitti les, seinde "Sorakeridxak eitten dxosak", kaskamarrukeridxak.**

**soraldi, soraldidxe.** (ZORALDI) Locura (pasajera), periodo de locura. ☐ *Inor maitemintzen denean ere esaten da: Orrek deko soraldidxe!*

**soranga, sorangie.** (ZORANGA) Alocada. Neska gastei buruz esaten da. || *Sorangie da!*

**soratu.** (ZORATU) Enloquecer. Ik. *burutik ein.* || *Ikusten bosu an ganorabakokeridxetan asten bada: "Orreri be soratu dxako!". "Soratu da": ikusi barik esate suna, "Soratu dok a be".* || *Igul ointxe ondo, da sekule txarto ikusi bakue, esate baterako; da andik ordu erdire, edo amar miñuturre asten da ganorabakokeridxe eitten: "Koño. soratu dxakok orreri!".* || *Soratu ein dxako.* || *Soratu ein da.* || *Soratute dau.* || *Erdi soratu dxak ori geur.*

**sorbaldia, sorbaldie.** (SORBALDA) Hombro. || *Sorbaldetako miñe.* || *Abadik estoli ipintte tzon olanik sorbaldan-edo, da andrie sartze san barrure abadias batera.*

**sordun, sordune.** (ZORDUN) Deudor, -a. || *Sordune da sorrak dekosana.*

**sorgin, sorgiñe.** (SORGIN) Bruja. Nabarnizen ustea da Eibarren arma fabrika jarriaz batera galdu zirela sorgiñak. || *Len sorgiñetan, bueno! An, Arbiñen, Arbiñe arteidxen, koba bat dau, da an egote sila sorgiñek eta. Da gero esa ben, orrek sek kendu sittun, emen sarri entzu du: Eibarreko frabrikik, armeidxek.* || *Aintxiñe sorgiñek ibiltten ei siren.* || *Sorgiñe parik berton lantzen bateri be iguel ikiaratzeko deitze tzen: "Sorgiñe, sorgiñe ibil da an!"* || *Ume sorgiñe!* || *Orrek sorgin garbidxosak!* || *Len aintxiñe oten ei xiriñ e sorgiñak.* || *Sorgiñen kontu pa, plantxiñ aspidxen eukitte bela unturatxue gordeta ta axe eskutan eitte bela plantxias, da gero tximinidxen gora igote bela sorgiñek-eta, bai esate ben.* ☐ **sorgiñ aixie.** Se dice del viento que forma remolinos. || *Olan bueltaka-bueltaka daben aixiri*



*esate dxako sorgiñ aixie. || Sorgiñ aixie dabil. || Sorgiñ axie esate dxakona, olan euridxe ekarteko esta ixeten. □ sorgin bedarra.* Belladona. Belar hauek eta larrosak elizan bedeinkatzen ziren San Juan egunean eta hurrengo urteko San Juan bezperan erre egiten ziren. || *Sorgin bedarrak beres urteten dabe. || Aintxiñe, gu txikitxu giñenin, San Juan egunien eitte san: errete siren aurreko urteko San Juan kargako lorak. Da or be botate siren: "Sorgiñek eta lapurrek erre, ondo-ondo erre, artuk eta garidxe kaxan gorde, sorgiñek erre..." Orrek bedarrak botate geuntzon sueri, sorgin bedarrak. || San Jun egunien elixara besada lorak, erremillotak erute siren. Larrosak-eta eta sorgin bedarra pe antxe, kargan berinkatzen. □ Andere Goirienaren arabera sorgin bedarra barik doliñe bedarra esaten zitzaion: || Ote san bedar bat, ba kolorik dekosen, da esate gentzon geuk —eskentzon sorgin bedarra...—, esate gentzon doliñe bedarra, da orixe ixengo da iguel. Ixete san suriskatxue olanik, berdetxuaue, da aste san, ba olanik aste san txikidxe bayo eundidxau aste san, da orixe ixengo da.*

**sorgindu.** (SORGINDU) Embrujar, encantar, dejar embrujado. || *Sorgindute dau.*

**sorginkeridxe.** (SORGINKERIA) Brujería, hechizo, encanto.

**soridxon, soridxona.** (ZORION) Felicidad, buena suerte, dicha. Hitz hau nahiko berria da Nabarnizen. Urte egunean honelakoak esaten dira: *Urte ona paseu! || Egun ona ein! || Ortik ondo pasau! || Urte askotan urtik! □ soridxones.* Afortunadamente. || *Soridxones etorri da. □ soridxonin.* Afortunadamente. || *Soridxonin etorri da.*

**soridxoneko, soridxonekue.** (ZORIONEKO) Dichoso, -a, feliz, afortunado, -a. || *Soridxoneko dirue! || "Soridxoneko gaus": ondo daseniñ-edo, eser falta estaniñ-edo, seoser allegetan daniñ-edo.*

**soridxontasun, soridxontasuna.** (ZORIONTASUN) Felicidad, buena suerte, dicha.

**soridxontzu, soridxontzue.** (ZORIONTSU) Dichoso, fequiz, afortunado. || *Soridxontzue suerte ona dekon bateri esate dxako.*

**sorigaisto, sorigaistue.** (ZORIGAIZTO) Mala suerte, desgracia, desdicha.

**sorigaistoko, sorigaistokue.** (ZORIGAIZTOKO) Infeliz, desgraciado, -a, desdichado, -a. ||

*Sorigaistue? Bai, ernegau eraitten daben umiri esate dxake "Sorigaistokori!".*

**sorixar, sorixarra.** (ZORITXAR) Desgracia, mala suerte. □ **sorixarrin.** En mala hora. || *Sorixarriñ etorri da.*

**sorki, sorkidxe.** (SORKI) Rodete (que se pone en la cabeza para llevar peso). || *Sorkidxe: burun iminttekue, kargi imiñi bayo ariñau. Ori eitten da..., oiñ ibili be esta eitten, da esebes. Da sorkidxe da olan trapu satitxukin-de eitten dana ixeten da sorkidxe, da olan biribille, erdidxen sulu eukitten deu, da olanik joskurie, joskurak eukitte ittu, da biribille ixeten da, da kargi burun eruteko ibiltten da.*

**soro, sorue.** (ZORO, ero) Loco, -a. Ik. gangarra. || *Soro gaistue || Soro garbidxe!* || *Sorue da soraute dauna. || Soru da ori. || Soro utze dok ori, beti dxak iñusentik les-da. □ soro ein.* Hacerse el loco. || *Soro eitten deu orrek, baya ori esta sorue. □ soro plantak ein.* Hacerse el loco. || *Soro plantak eitte ittu.*

**soroaldi, soroaldidxe.** (ZOROALDI) Acceso de locura, desvarío pasajero. || *Orreri emote tzo soroaldidxe.*

**sorotasun, sorotasune.** (ZOROTASUN) Demencia, locura.

**sorri, sorridxe.** (ZORRI) Piojo. || *Ollo sorridxe.*

|| *Sorridxe dekes. □ sorri aberastue.* Nuevo rico, enriquecido de repente. || *Orduko pobre-pobriek ixen badire, da gero jaso ein badire esaten da, euki badabe suerte bat diru eitteko: "A sorri aberastue!". Burle moduen esaten da ori.*

□ **sorri bistue.** Nuevo rico, enriquecido de repente. || *Ori da sorri bistue! □ baba sorridxe.* Gorgojo, insecto que destruye el grano. Sin. *baba kokue. || Baba sorridxe da: barie txikitxu danien, ba asko batze dxako, baiñiri be asko batze dxako, nik baiñak aurten iru bider erain ttut, da irugarren erai-ñittunak erneta daus, da eundi-eundidxe teketas, barik janda. Da baba sorridxe jaten deu edoser, letxugi be bai, asi be bai, da baiñi be bai, da baba sorridxe ortun geuse bigun gustidxe jaten deu. || Barik arrautzak eitte ittu, lurre barrun sulotxu einde, arrautzak, karakolak lantxik, da andixik erneten diñak dire baba sorridxe. || Babasorridxe, babieri kokue eitten dxako, da urten eitten deu garaunetik. Babakokue edo babasorridxe. Gero egan eitten dabe. Arturi be eitten dxako ori, ta indarrari be bai. || Txiki-*

*txikitxue ixeten da baba sorrIDXe, txiki-txiki-txikitxue. || Babik baba sorrIDXe deko.*

**sorriketa, sorriketie.** (ZORRIKETA) Espulgo, acción de matar los piojos.  **sorriketan.** Espulgando. || *Olluk beti ibiltten dire, denpora ederra daunin, lurre dekenin, lurre siku-sikutxue dekenien, sorriketan. || Sorriketan eitten, arek esterka ein, da sorriketan eitten dabe, da eutze artzen dabe, eutze artzen ibiltten dire. Da gero eitten dabeniñ eittaldi bat, altzau eitten dire, ta arek serak danak botate ittue eutzek, ba sorrIDXek kentzeko eitten dabe ori animalIDXek.*

**sorristu, sorristue.** (ZORRIZTO) Piojoso, -a. Inori esateko, berba zantarra da. || *Sorristu ori! || Sorristue: geuse estanari: "Sorristu-ori!". || SorridXek dekosanari sorristu esate dxako. Baya oin sorririk-eta estau emen. Len bai. Baya esate dxakonari da seinde olan eskasari-edo: "Sorristu-ori!". Se aintxiñe sorrIDXek jaten ia egote sirin batzuk. Da sorristu esate tzen, da oin be olan iguel ori: "Ego ai ixilik, sorristu-ori!". Ba gitxi usetan da ori, ori da ya berba txarra esatie.*

**sorritzu, sorritzue.** (ZORRITSU) Piojoso, -a.

**sorro, sorrue.** (ZORRO) **1.** Saco. Sorruek errotara eroaten zirenak izaten ziren. Errotarakoak baziren, ez zen inoiz sakue esaten. || *Gari sorrue. || Arto sorrue. || Estaitx se kobrate ben arto sorroko.*  Lehengo esakunea hauxe izaten zen: || *Sorruk errotara jungo sak.*  Errotan honela galdetzen zen: || *Nire sorrue einde dau?* **2.** Panza, barriga. || *Orrek deko estomagu sorrue!*  Tripa haundia daukanari honela esaten zaio: || *Ire sorrue bete ariñ estok eingo!* **3.** Funda. || *Atzamarrerako sorrue.*  **ur sorrue.** Placenta, secundinas. || *Ur sorrue esate dxake, beidxek txala eitteko deusenin, ures beteriko boltza batek urtete tze. Da arexeri esate dxako. || Beidxek, txala eikeran, ur sorrue eitten deu lelengo, txala bayo ariñau; a ures beterik etorten da, sorrue esaten dxako, mintzas barrun ure; ak bun errebeteten deu, txala eiñ orduko, enjeneralien. || Ur sorru? Bai, ganaduk eukitten dabena da ori. Ur sorru. A etorten da txala ein bayo ariñau. A ur sorru eukitten deu, batute, seinde umetokidxe esate tze. Diferenti da umetokidxe e! Ur sorru da ure, urtza ure. A botaten deu jeneralin beidxek ariñau. Ur sorru da. Umetokidxe da ya txala ein de gero eitten deuna. || "Txala eitteko dxak" eta igul jentiri abiste tzesu por si acaso, da "Ser, ur sorru*

*botata dxak ero ser?", da "Etxok ondiño bota baya or...", da iguel buuuuuu! Errementa tzo da txalan anak agertzen di. || Ur sorru? Sera, txal jaidxo orduko datorren ur sorrue, poltzie.*

**sorrokada, sorrokadie.** (ZORROKADA) Saco (contenido de un saco). || *Sorrokodie? Bai, sorrokadie len e, astuas neu be makiña bat bider jun netzen Gixaburuara, errotara. Da astun nai saldidxen artue, sorruek eta sorro bi tte, sorro batiñ artu ta bestiñ e garidxe artute makiña bat bider jun nitzen.*

**sorrostarri, sorrostarridxe.** (ZORROZTARRI) Piedra de afilar. || *Kudañe sorrosteku da sorrostarridxe. || Olan arri bet ixengo da, erremintak sorroste ittuna, da txispak botate ittu. Serri, ta kodañe-ta olanik dekesenin, sorrostarridXek sorrosteko bayo aundidXau dekenien. Bai, gasteri esate dxako, ixates.*

**sorrostu, sorrustu.** (ZORROZTU) Afilar. Ant. mostu. || *PoteidXek gerridXen ipintten siren, arridxe sartun de kodañe sorrostuteko-ta. || Kutxillue sorrostu, akatzak dekos-da!*

**sorrotz, sorrotza.** (ZORROTZ) **1.** Afilado, -a. || *Punte sorrotza. || Punte sorrostxue. || Gan sorrotzeku da akulue. || Eta aspiko ortzak noixipeiñin ba kendu, te sorrostu eitte dxakosan, sorrotzak egon deidXen. || Eperdisikue? Atze sorrotzari be eperdi siku esate dxako. Ganaduri be bai tte laguneri be bai. Eperdisikue, igul eperdidxe gitxi dekonari, oin be ori bai usaten da, "Eperdisikuori!".* **2.** Riguroso, -a, recto, -a. Ik. susena, sietza. **3.** Incisivo, -a, mordaz. || *Esate baterako, asarratute daunin: "Sorrotz dabil".*

**sortasun, sortasune.** (SORTASUN) Adormecimiento, entumecimiento, torpeza. || *Sortasune deko orre pe. || Sortasune etorri dxako orreri be.*

**1 sortu.** (SORTU) Concebir, generar, concebir. || *Umie sortu. || Sortu da. || Baya 'sortu' bakarrik esan eskerun, 'sortu' bakarrik, beste geusa bat ta, sortu lei..., ser esangot neuk?... sortu lei..., esate baterako txakur bat kunak eitteko dau, te ba kunak sortute dekos.*

**2 sortu.** (SORTU) **1.** Entorpecer, volverse lento, -a, pesado, -a. || *Laguneri bardiñ esate dxako, olan gure moduku ibilli esin: "Sortu dok ori be!", "Len biskorra ixen dok, baya oin sortute dxak". || Ori asko sortu da aspaldidXon.* **2.** Entumecer(se), hacer(se) insensible. || *"Sortu" da, ya biskor barik, asurrek-eta gogortu-edo, sortu. Sarra pe*

*sortu.* || *Eskuk sortute deketas.* || *Eskuk sortu ein dxates.* || *Otzagas atzamarrak sortu eitten dire.*

**sortukera, sortukerie.** (SORTUKERA) Concepción, inicio. || *Ori sortukerie esta jakitten.*

**sortzi.** (ZORTZI) Ocho. || *Tiki-taka-tiki-taka ibiltten dana da pendolie. Da pixuk eukitte ittu, sortzi egunik sortzi egunera emote dxako kuerdie, ra-ra-ra-ra, da aste bat eitte tze pixuk bajatzeko, da gero ba domeketan e —len aittek eitte ban— gero ba domeketan pixuk altzau eitte dxakosan erlojuri, te ostabe aste gustidxen eote san.* □

**sortzi egun.** Una semana (antes o después). || *Errenta egune? Domu santu eguneri. Errenti len, errenti pageta ei xan domu santu egunin, edo sortzi egun aurrerau edo sortzi atzerau, antxe eingerun.* □

**sortzidxen-sortzidxen.** Cada ocho días. || *Sortzidxen-sortzidxen etorten da.* □

**sortziko sarra.** Cierta baile. || *Sortziko sarra esaten dana da lusiaue (eurreskue bayo), suabie, buelta geidxau eta artasidxe.*

**sortziki, sortzikidxe.** (ZORTZIKI) **1.** Ochomesino, -a, octomesino, -a. **2.** Unidad de un grupo de ocho elementos. || *Sortzikidxe: esate baterako, sortzi batera dausenak sortzikidxek dire.*

**sortu, sorue.** (ZORU) Suela de la alpargata. || *Soru gastau ein da.* || *Sorue sokias eitten dabe.* || *Au materidxelau ser ixeten dala esangot..., soru esate dxako da ixeten da liñoskue.* || *Abarketiri, liñuas eiñekuri esate dxako soru. Abarketin aspidxe liñuas eitte ben, len, oiñ estai segas eitten dan be.*

**1 sosa, soie.** Sosa, óxido se sodio, base salificable, muy cáustica. || *Sosi eutze. Bai, sosi eutze da, sosie. Orrek e mantxak kentze ittuna, bekuk.*

**2 sosa, sosie.** **1.** Sosa. || *Sosie: gatzik barik deun geusie. Sosie jenti be bai.* **2.** Mujer que carece de gracia y viveza. || *Ostantzin da sosi da personie e, sosie, berba gitxi eitten deuna be.* || *Sosi da kariñosi estala. Bakixu. "Sosi da". Gixonesku sosu, da enbri sosie.*

**sosegau.** (SOSEGAU, sosegatu-bat., jabaldu) Tranquilizar(se), calmar(se), sosegar(se). Ik. *desosegau.* *Sosegau* esaten da gehienetan, *sosigau* baino gehiago, nahiz eta *sosigu* eta *sosigusku* esan ohi den. || *Sosegau saittes!* || *Jo goidxe, ta jo beye, an dabil sosegau esiñik.* || *Bardaskie umiri esate dxake, drogan-da ibiltten diriñin: "Bardaskok alakok!". Jeneralin neskari esate dxake, neskaturi, sosegau esiñik dabixenin*

*saltoka: "Bardaskak!".* || *Ernegetan dauna-edo, artekak artu esiñik daunari-edo essate dxako ori: "Sosegau seittes apur bet!".*

**sosiedade, sosiedadie.** (SOZIEDADE, sozietate-bat.) Sociedad, agrupación, bando.

**1 sosigu, sosigue.** (SOSEGU) Tranquilidad, calma, sosiego. || *Sosigus dau.* || *Sosigus saus?* || *Desosigue da, esate baterako, kalentura aundidxe daunin, edo ba artekau gorputze dauenien, ba "Sosigu barik dau", "Desosigu dau"-edo bai esaten da.* □ **sosigu bakue.** Inquieto, -a. || *Geldi eoten estanari esate dxako "Sosigu baku da!". Umiri-tte esate dxake "Sosiguri pe esteko!"-ta.* || *Sosigu baku geldi eoten estanari esate dxako "Sosigu baku da". Umiri-tte esate dxake, "Sosiguri pe esteko!" ta.*

**2 sosigu, sosigue.** (SOSIGU, bazkide) Socio, -a. || *Len ganaduk eitte sirien, erridxen, ba onenbeste ganadu, onenbeste bei, onenbeste ganadu deket, da sosigu modun sartze siriñ ermandadan.* || *A sosigues euki ben.*

**sosigusku, sosiguskie.** (SOSEGUZKO) Flemático, -a, calmoso, -a. || *Sosigusku da.* || *Sosiguskie da patxadan eoten dana.*

**1 soso, sosúe.** (ZOZO) Tordo, mirlo (*Turdus merula*). || *Gurguxie gorri-gorridxe da, granu ixaten da, granu gorri-gorridxe. Sosuk-eta gustura jaten dabe.* || *Sosu emen be asko ibiltten da.* || *Sosue? Ba sosu ta biragarru alkarras egoten dire jeneraliñ e negun emen.* || *Sosue da baltza. Da bdegarrue da grixe.* □ **soso baltza.** Tordo, mirlo. || *Soso baltza: beste sosun antzeku ixeten da tamañu be. Se bata da apur bet gorriskatxuaue, da besti da baltza, da kontixu, alkarren bestekuk tire bidxek, baya iñox entzu dot soso baltza soso arrari esate dxakola, baya estakitt nik...* □ **araba sosue.** Estornino (*Sturnus sp.*) || *Araba sosu da amengo sosue... Antzekue. Iños etorri dire bandadak ona. Araba sosuek. Araba sosu da Arabako sosue. Bertoko sera, bertoko naturala, bertoko sera barik, araba sosu esate dxake.* □

**marti sosue.** Variedad de tordo de pico amarillo. || *Gitxi ikusten dire piku oridxek oin. Len ainbeste egote san sosu piku oridxe. Marti sosu esate gentzon guk. Kantetan orrek martidxen askenien, da kuna pe bai goistik ein.* || *Marti sosue ixeten da piku oridxe eukitten deuna; da bestiek baltza eukitten dabe.* || *Marti sosuk kunak atarate ittu ariñau. Orrek piku oridxek, e..., orrek illterik estau. Baya emen jentiek il eitte ittu*

*bardin. || Orrek (marti sosuek) kunak atarata kantau eitten deu orrek ondo. Da bestik estabe kantau. || Marti sosuk kantau eitten dabe ederto. Onek iltzerik estau oin be. Ba jentik emen esteu pikorik begitzen. || Marti sosu entzu su kantetan? Estosu entzu e! Marti sosu sati entzu ot nik ointxe amabost-edo.*

**2 soso, sósue.** (SOSO) **1.** Soso. || *Sosu dan gausie. Ik. gasie. 2. Hombre que carece de gracia y viveza. || Sosi da kariñosi estala. Bakixu. "Sosi da". Gixonesku sosu, da enbri sosie.*

**sosonga, sosongie.** (SOSONGA) Inocente, boba. || *Sosongie: beres motela berbetan. || Olan ganora gitxi dekonari-edo esate dxako sosongie. || Bai, beres motela danari be esate dxako sosongie. || Sosongie, ganora gitxi dekonari, jeneraliñ esate dxako. Motela danari be bai tte bidxoi esate tze.*

**sosongo, sosongue.** (SOSONGO) Inocente. || *Sosongue? Bai, noberak aintzat estekonari, noberak gure estaben geusi eitten dabenari.*

**sospal, sospala.** (ZOZPAL, ezipal) Astilla. Emiliano Arriagak *sospal* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Tarugo o pedazo informe de madera cortada a golpe de hacha o machete". || *Askoran be atala esate tza a sospalari, kentze dxakonari: "Atal itzelak atarate ittu!" || Sospalak askoran dabixenin, su pe iñox ikusiko sendusen-edo askoran ibiltten diriñak egurrek txikitzen, da arixeri kentze dxakesanak dire, arixeri esate tzeu sospalak. || Sure seiñek geidxau eitten dabixenien, surek txikitzen ibiltten dire, da arixeri kentze tzesan sospalak, arixeri kentze tzesan satidxek esate tzeu sospalak. || Egurtxu, sospal bat-edo, egurtxu bat-edo sartze dxako: kaltzue. □ Hona hemen sospala eta astillie berben arteko desberdintasuna: || Bueno, sospala, da astillak estire bat, baya danak eitten dire egurras. Sospala da, esate baterako, orrek e domeketan-da, selan esangot neuk?, gixoneskuk e ibiltten dire ba arbolie, edo esaten da se sure ebaten, da arixeri ebaten dabenin sureri atarate dxakosan astillak dire sospalak. Astillie da, bai txikidxau ixen lei, ta aundidxau ixen lei. Da astilli da beres egurre astillatuten dana, ixen lei txikidxau, ta ixen lei eundidxau, baya da beres su eitteko astiltzen dana. Beko suen geu pe eitte gendusen, da oin be eitte us. || Sospala: olan egurreri edo agiri edo olan..., atxurre lako..., asulie deko ixena berak, da kentze dxakos sospalak soser meidaku ein*

*dure dabenin, da arixe esate dxako sospala. □ sospala lakue. Delgado, -a. || Sospala lakue da: sospaldu. (ZOZPALDU) Astillar(se). || Sospaldu ein deu egurre. || Arbolie sospaldu: askorias jota sospalak atara.*

